

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA ETA
BOTEREA EUSKAL HERRIAN**



© Paulo Iztueta Armendariz

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2002ko iraila

ISBN: 84-931632-1-X

Lege-gordailua: BU 416-2000

Diseinua eta maketazioa: Leticia Aristi Oria

PAULO IZTUETA ARMENDARIZ

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA ETA
BOTEREA EUSKAL HERRIAN**



AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA	10
SARRERA	11
I. EREDU BERRI BATEN BILA	17
1. Egitura egituratzen	18
2. Gizartea eraldatzen	22
3. Errealitatea ezagutzen	25
4. Boterea	26
5. Ideologia eta jakintza	29
Ideologiaren sorrera eta bilakaera	29
Ideologiaren kontzeptua eta zereginak	32
Ideologiak eta alternatiba politikoak	34
II. POLITIKA ETA BOTEREA	37
1. Gizarteko harreman bertikalen nagusitasuna Erregimen Zaharrea ..	38
2. Boterea eta Estatu	43
Marx Weber: Estatu eta legezko bortxaren monopolioa	44
Nico Poulantzas: Estatuaren materialtasun instituzionala	49
Lan intelektuala eta esku-lana	50
Indibidualizazioa	51
Legea	51
Nazioa	52
Manuel Castells: Nortasunaren boterea	53
Boterea eta Estatu-nazioaren krisia	53
Nortasunezko subjektu historiko berriak	61
Hurbilketa-osagarriak Estatuaren inguruan	66

III. HEZKUNTZAREN EZAGUTZA	71
1. Hezkuntzaren zeregin ideologikoak	71
2. Paradigmen berrikusketa	74
Indibidualtasuna versus kolektibitatea Gizarte-Zientzietan	74
Eredu teorikoak Hezkuntzaren Soziologian	79
Determinismo tekno-funtzionalista eta estrukturalista	82
Interakzionalismoa	83
Erreproduzioaren teoriak	83
Produktio eta erreproduzioaren teoriak	88
Kultur eta hizkuntz erreproduktioa	89
3. Gure eredu-proposamena: askagintza etikoaren pedagogia kritikoa ..	91
IV. ESTATUA ETA HEZKUNTZA	97
1. Estatuurreko botere-motak	97
2. Estatu modernoa	103
3. Estatu liberala	107
Estatu liberalaren ezaugarri formalak	108
Gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko banaketa	109
Abstentzionismoa	111
Indibidualismoa	111
Giza eskubide demokratikoen aldarrikapena	112
Lurraldearen okupazioa	114
Konstituzioa, boterearen legitimazio-iturri	115
Estatuen barne-eraketa nazioaskoduna	116
Estatu liberalen praxi politikoa	123
Estatu liberala eta hezkuntza	125
Hezkuntzarako askatasunak: Hezkuntza-sistemaren autonomia	125
Hezkuntzaren kontrola: Estatu eta Eliza aurrez aurre	127
Hezkuntza, zerbitzu publikoa	127
Estatu liberalaren krisia	129
4. Zuzenbidezko Estatu Soziala	130
Zuzenbidezko Estatu Sozialaren ezaugarriak	132
Interbentzionismoa	132
Zuzenbidearen printzipioa	132
Berdintasunaren printzipioa eta eskubide sozialen	
aldeko aldarrikapena	133

Ongizateko Estatuaren krisia	133
Esparru sozio-politikoan	134
Hezkuntza-sisteman	135
5. Estatu sozialista	136
6. Alternatibak	139

V. EUSKAL IRAKASKUNTZAREN EGITURAZKO

ZAILTASUNAK	143
-------------------	-----

1. Euskararen bizi-indarra: hurbilketa kuantitatiboa	143
2. Hezkuntza elebiduna zifratan	150
3. Euskal irakaskuntzaren arazo nagusiak	157
Inmigrazio-populazioaren handia	157
Euskal hezkuntza-sistematik eza	163
Irakasle euskaldunik eza	177
Euskal intelligentsiarik eza	181

VI. EUSKAL ESTATUA ETA HEZKUNTZA-SISTEMA

NAZIONALA	195
-----------------	-----

1. Estatua krisian?	195
2. Estatu-nazionalisten eraso historikoa	201
3. Euskal Estatu independentea, arazoaren gakoa	203
4. Borroka armatuaren mamua	207
5. Etikarik gabeko gizartea?	208
6. Euskal hezkuntza nazionalaren eraikuntza	209

VII. AUTODETERMINATZEKO ESKUBIDEA

ETA EUSKAL HERRIA	213
-------------------------	-----

1. Nazionalitateen printzipioa	215
2. Autodeterminatzeko eskubidea Europako Ekialdean: eredu marxista	217
3. Versallesko Ituna: “self-government” eredia	221
4. NBEren lege-aldarrikapenak: deskolonizazioaren abiada	223
5. Estaturik gabeko nazioen txanda globalizazio-garaian	231

6. Autodeterminatzeko eskubidea Euskal Herrian: Lizarra-Garaziko akordioa	235
--	-----

BIBLIOGRAFIA	239
--------------------	-----

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Gizarte-errealitatea, ideologiak eta jakintza	18
2. taula: Erromatar zibilizazioaren eragina Europako Mendebaldean eta euskal tradizioan	42
3. taula: Nortasun kolektiboa EAEn (1989-99)	64
4. taula: Gizarte-taldeen tipologia baliokideak	117
5. taula: Europako Estatu zaharrak	120
6. taula: Europako Estatu garaikide eta berriak	121
7. taula: Eskolatzea Euskal Herrian hizkuntz eredu arabera portzentaiatan (1997-98)	155

SARRERA

Bukatu da XX. mendea, industrigintzaren inguruan garatu izan dena, zutabe politikoa estatu-boterea izanda. Globalizazio-aroan buru-belarri sartuak gaude XXI. mendean eta Estatuak murriztuak dituzte jadanik lehen beren lurralde okupatuaz barru eta kanpo zituzten menerapen eta independentzia ia erabatekoak. Globalizazio ekonomiko eta kulturalak gero eta interdependentegoak egin ditu Estatuaren arteko harremanak. Azken datu hauetatik abiatzen dira, bada, gure gogoetak. Independentzia eta interdependentzia zer diren ikasita, alegia.

Gizartea trote bizian aldatuz doala begi-bistan dagoen gauza jakina da. Aldaketa kualitatibo baten adierazle izan litezkeen sintoma nabariaren artean hor daude, besteak beste, Raja Yoy Sinnghek dakartzan honako datu hauek¹: a) ezagutza-esparruaren hedapena industriondoko gizarte honetan automatizazio teknologikoarekin eta, ondorioz, diziplina berrien agerpena; b) ekonomia nazionalak hartu duten naziozgaindiko izaera, egun munduko produktu gordinaren lautik bat baino gehiago nazioarteko sektoreetatik etortzen baita; c) teknologiak eragindako garapenaren abiada izugarria, ondorio kontrajarriak dituena, agian positiboak baino gehiago negatiboak, herrialde aurreratuetan kontsumo-eromena eraginez eta atzeratuetan, a'diz, jende baztertu eta gabetuaren pobrezia areagotuz. Gaurko egunean botere ekonomikoari atxekirik doan garapen teknologiko hau da, hain zuzen, Estatu eta nazioen arteko harremanak determinatzen dituena².

¹ "Cambiar la educación en un mundo que cambia", *Perspectivas*, XXII-I, 1992, 7-8.

² Díaz, M., "Minorías y educación intercultural", in *Educación intercultural. X Congreso Nacional de Pedagogía*, Salamanca, 1992, 143.

Bestalde, areago zehaztuz, esan daiteke R. Flecharekin batera³, iraultza teknologikoa informatikaren munduan eman dela gehienbat. Aldaketa honekin, industri gizartetik gizarte informatikorako jauzi kualitatiboa burutu da, gaurko gizartea hiru sektore hauetan zatituta aurkitzen delarik: batetik, profesional kualifikatu eta ordainduak, tartean lanari eusten dion langile-multzo egonkorra eta, azkenik, pobrezian bizi den talde hiritarra, zeina langabezia estrukturalen edo aldizkakoan daudenek, jubilatuek eta horrelakoek osatzen baitute. Egoera honek eraginak dira migrazio-mugimendu berriak eta testuinguru honetan kokatu beharko lirateke Estatu hartzaileetan azkenaldiotan ugalduz datozen arrazakeri eta xenofobi erasoak. Hezkuntza interkulturalak arazo hori aztertzeari ekin dio, batez ere. Estatu-asimilazionismoaren ondorioa besterik ez da multikulturalismoa, Euskal Herrian inmigrazio masiboaren fenomenoak areagotu duena.

Gestio eta antolaketaren teoria modernoan Estatu Batuetako enpresarietara gidari nagusitzat daukaten Peter F. Druckerrek sostengatzen duenez⁴, ez bakarrik erregimen komunistak, kapitalismoak ere joa du bere azkena, eta orain jadanik sartuak gaude postkapitalismo-aroan, zeinetan klase-egitura berri bat eratu baita eta baita produkzio-baliabide berri bat ere, “jakintza” deitzen zaiona. Beraz, jakintza hau da lehengo kapitalaren lekua hartzen duena eta, jakintzarekin iraultzak ekarri duen dinamika berri honetan, jakintzaren langileak ditugun bere lanaren jabe direnak. Hau da irekitzen den alternatiba berria, zeren bizitza ekonomikoa internazionalizatzeak gainditu bide baitu Estatu-nazioaren egitura politikoa eta, halaber, krisiak lepotik hartua baitauka Ongizateko Estatuak. Dena den, gauza bistakoa da eta aski onartua erregimen komunistak nahiz kapitalista lur jota daudela eta, ondorioz, gizarte-eredu izateko ez dutela balio; orobat, ezin da ukatu egun egituratuz doan gizarte berri honen antolaketan ezagutza teknologiko informatizatuak gero eta sarrera handiagoa duela. Garbi dagoena da, aldaketa hauen guztien ondorioz, arazo berriak sortu direla eta honek eredu alternatibo baten profila diseinatzea eskatzen duela gizartearen eta hezkuntzaren antolaketa-mailan. Ez zaigu iruditzen postkapitalismoa —neoliberalismoa— izan daitekeenik alternatiba ez bakarra eta gutxiago egokiena gizarte-arazo berriak erabakitzeko, zeren, nahiz eta gizarte berri honek bere eskura dauzkan ezagutza informatiko eta teknologiko aurreratuenak, funtsean, gizarte kapitalista izanez segitzen baitu.

Gizarte-errealitatea funtzionalismoaren ikuspuntutik begiratuta interpretatzen dutenentzat, agian, balio lezake azalpen horrek. Gu, ordea, gizarte-

³ *La nueva desigualdad cultural*, Roure, Barcelona, 1992, 144.

⁴ *La sociedad poscapitalista*, Apóstrofe, Barcelona, 1993.

bizitzako harremanen sarea konplexuagoa delakoan gaude. Ez da ahaztu behar subjektuarterko harremanak, hauek libreanak izanda ere, beti gizarte-egituren barruan gauzatzen direla. Jakintza-mailan ematen den iraultza teknologiko-informatiko hori ez da garatzen kasualitatez eta itsu-itsuan. Estatu-nazioak krisi latzean daudela aitortu arren, estatu-boterearen gidaritzak zerikusi zuzena du ezagutzen erabilerari dagokionez. Hezkuntza-sisteman eta lan-munduan ezer gutxi du jakintzak neutrotik. Areago oraindik, Paul Applerekin esateko⁵, Estatuak ezagutza tekniko-administratiboaren kontrolatzen duena hezkuntza-sistemaren bidez, inoiz baino gehiago orain kapitalaren metatzea eta legitimatzea krisi-egoera larrian dagoen une honetan. Kultur kapitala eta honi dagokion razionalizazio-ideologia eskolan produzitzen eta erreproduzitzen da curriculumaren funtzionamendu ezkutuari esker eta gero ekonomian erabiltzen. Guztiz garrantzitsua da, bada, estatu-botereak jokatzen duen kontrol-zeregina ezagutza teknologikoaren sorkuntzaren nahiz banaketaren prozesuan.

Baina aldaketak ez dira ematen maila ekonomikoan bakarrik, baita kultura eta hizkuntzarenean ere. Tristeia da konkistaren historiak eskaintzen digun tragedia genozida eta etnozida. Amerikaren aurkikuntza zela bide, hirurehun amerindiar tribu desagertu ziren⁶. Honela, Mexikon 25,4 milioi zirenak 1519an, handik 60 urtera, 1580an, 1,3 milioi bakarrik ziren; era berean, Kolonbiako Tujan mende baten buruan (1537-1636), indiarrek 232.407tatik 44.691 izatera pasa ziren⁷. Historia hurbilagora etorrita, triskantzak aurrera egin du: hamar milioi judu hil zituzten naziek Alemanian; hainbat herri txiki desagertu da etnien mapatik, hala nola Kaukason (Balkartak, Inguxak, Karatxaiak, etab.), Krimeako Tartaroak, Volgako alemanak. Eta historia hau aurrera darraio.

Hizkuntz arazoa egiazki garrantzi handikoa da. Gure egunotako gizarte-fenomenorik nabarmenetako bat dela esango genuke. Gehienetan nazio-arazoari loturik agertzen da hala gizarte sozialistetan nola kapitalistetan. Bietan. Beti eman izan dira hizkuntzen arteko gatazkak, baina XX. mende honen bigarren erdialdiaz geroztik areagotu egin zaizkigu, elebitasunaren inguruan, bereziki. Mackeyk dakarrenez⁸, lau arrazoi ditugu arazoa bistarazi dutenak: a) etni gutxiengoen errebolta diskriminazioaren kontra, adibidez txikano eta beste gutxiengo etnikoena Estatu Batuetan; b) separatismoaren

⁵ *Educación y poder*, Paidós/MEC, Barcelona, 1987, 17-52.

⁶ *Bilinguisme et contac des langues*, Klincksieck, Paris, 1976.

⁷ Intxausti, J., "Amerika XV. mendearen azkenetan", *Jakin*, 70, Donostia, 1992, 19.

⁸ *Bilinguisme et contac des langues*, op. cit., 42-67.

hedapena, batez ere 1960ko hamarkadatik aurrera indartu dena hainbat lekutan eta nazio-arazoaren espezifikotasuna duena: indartsua Kanada, Nigeria eta Pakistanen, ez hain indartsua —egilearen ustez—, Gales, Kroazia, Jura, Katalunia eta Euskal Herrian, aipatzeke uzten dituelarik, besteak beste, Ipar Irlanda eta Galizia; c) gizarte industrializatutako Estatu-nazio hartzaileetan kokatutako inmigrazio-populazioa, hizkuntzaren nahiz kulturaren aldetik arazo espezifikoak planteatzen dituena; d) OTAN, NBE, EEE eta antzeko elkarteek Estatu-nazioen nazioarteko kontzertuan duten eragina eta protagonismo gero eta handiagoa. Aipatzekoa da Europa Batuaren asmoa, Maastrichteko Akordioen ondorioz bideratzen hasia dena, noraino helduko den ez badakigu ere. Akta Bakarrean Estatu-kide bakoitzaren subiranotasuna ez dela auzitan jarriko aldarrikatzen bada ere, dagoeneko eztabaidak piztuta daude hainbat puntutan eta, zehazki, hizkuntz politikari buruzkoan.

Ilustrazioaz geroztik sortutako estatu-aparatu modernoaren antolaketa burokratikoak haste-hastetik kendu nahi izan zituen gizabanakotik Estatu bitarteko egitura guztiak eta honek, jakina, artean oso indarrean zeuden partikularismo politetiko guztiak ezabatzea inplikatu zuen. Prozesu hau gauzatu ahal izateko, Estatuak jarraiko lau elementu huez osaturiko makina jarri zuen martxan: Estatupeko populazio osoaren asimilazioa, menpeko talde desberdinekiko bereizkeria, zentralizatzeko-politika berdintzailea eta, azkenik, garaiko metodo eta teknika zientifiko aurreratuenen aplikazioa gobernu-politikan. Eraginkortasuna —gero eta lurralde hedatuagoak edukitzea, alegia—, izan zen estatu-boterearen irizpide nagusi. Xede hauen lorpenean erabilitako baliabide nagusienetako bat, hain zuzen, hizkuntz homogeneotasuna izan zen. Izan ere, errazagoa zirudien lurralde handi bat modu eraginkor batez administratzea arazo publikoetarako hizkuntza bakar bat erabiliz gero⁹. Hementxe oinarritzen da gehienbat Estatuaren elebakartasuna. Hizkuntz uniformitate hau, bada, tresna biziki eraginkorra gertatu da talde etnikoak asimilatuz eta populazio osoa homogeneotuz joateko orduan. Prozesu honek badu, noski, bere ordaina: zapalkuntza sistematikoarena, alegia, eta horren kariaz gogortu dira kultur eta hizkuntz gatazkak, nazionalismoaren sua oraindik garretan dagoen lekuetan. Hauxe da Euskal Herriaren kasua, non euskarak hil-biziko parioa jokatzen baitu.

Boterearen, hizkuntzaren eta hezkuntzaren arteko arazoa bost ataletan banatua cakargu. Aurre-lanak eginda geneuzkan kasuetan, lehen idatziak birformulatzen ibili gabe, zati isolatuak bilduz, azalpen osatu eta koherentea

⁹ Smith, A.: *Las teorías del nacionalismo*, Península, Barcelona, 1976, 323-324.

eskaintzera mugatu gara. Ekinaldi desberdinetan egindako piezez berrikusi eta osatua da, zehazki V. atala, euskal irakaskuntzak egun dauzkan egiturazko zailtasunez diharduena¹⁰. Lehenengo hiruretan alderdi teorikoak lantzen dira gehienbat, arlo honetan zer arrazoitua eta zer eztabaidatua asko baitago, egon. Garrantzi handia ematen diogu indarrean dauden eredu teorikoak oso hurbiletik erreparatzeari eta, bidenabar, kritikatzeari. Euskal gizarteak egun bizi dituen arazoak hain dira anitzak eta hain gurutzatuak daude politikari, hezkuntzari eta hizkuntzari dagozkienak, elementu hauek guztiak elkarri eraginez datozenez gero, ezinbestekoa gertatzen da gizarte-egituren zein subjektuarterko elkarrekintzen prozesua ezagutzera. Hezkuntzaren Soziologian hizkuntzaren eta hezkuntzaren arteko harremana aztertu izan denean, gehienetan klase-ikuspegitik aztertu izan da, eskolako hizkuntza —landua edo murriztua—, ikasleen klase-jatorriarekin erlazionatuz. Beren ikasketak amahizkuntza ez den beste hizkuntza batean egin behar izan dituztenen kasuak, Euskal Herriari eta antzeko beste hainbati espezifikoak zaizkienak, apenas izan diren aipatuak ere. Hezkuntzaren Soziologian ez da teorizatu izan hezkuntzaren eta hizkuntzaren arteko loturaz, ez bederen arazoa nazio-ikuspegitik planteatuta. Hizkuntzaz eta honek hezkuntza-sisteman duen aplikazio pedagogikoaz beste diziplina batzuk arduratu izan dira, hauen artean Psikolinguistika Soziala. Zentzu honetan, normala da hezkuntza elebidunari buruzko ekarpenek, adibidez, ukitu psikologiko-didaktikotik gehiago izatea soziologikotik baino. Hauetan ez klase ez nazio ez botere ez bestelako erreferentziarik agertzen da. Estatu gehienak nazioaskodunak baitira, hauetan, estatu-hizkuntza hegemonikoaz aparte, Estaturik gabeko nazioen hizkuntza minorizatuak eta inmigratio-komunitate desberdinen hizkuntzak ere gurutzatzen dira eta, kasu batzuetan, hizkuntza hauen arteko harremanak benetan gatazkatsuak gertatzen dira. Badago hor zer ikertua.

Hizkuntzaren inguruan, bada, errealtate konplexua garatzer da, non, besteak beste, klasetasuna, herritasuna eta boterea gurutzatzen baitira. Eta elementu guztiok, jakina, beren zuzeneko eragina dute Estaturik ez duen gurea bezalako herri bateko hezkuntza-sisteman. Horregatik, guk proposatzen

¹⁰ Iztueta, Paulo: *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1996, 233-243; “Hizkuntza, hezkuntza eta boterea: euskal irakaskuntzaren atarian”, in Apalategi, J.; Palacios, X. (arg.): *Identidad vasca y nacionalidad. Pluralismo cultural y transnacionalización*, I, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, UPV, Vitoria, 1995, 91-149. Azken lan hau Gasteizko EHU-n, Nazionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutuak antolatuta, 1993ko abenduaren 2an egindako IV. Nazioarteko Batzarrean aurkeztutako hitzaldia da. Saio hau jarraian eta arreta pixka batekin irakurtzen duena berehala ohartuko da etena gertatzen dela 120. orrialdeburuan. Hor 20ren bat orrialde inguru falta direnez, horiek hemen berreskuratzen ditugu.

dugun eredu elementu horiek eskema dialektiko berean barneratzen ahalegindu gara saio xume honetan, hezkuntzaren ezagutzari buruzkoa gure irakaskuntzako laborategi aberasetik abiatuta planteatuz. Kanpotik datozkigun paradigmak, zenbait puntutan argigarriak atzematzen ditugun arren, ez zaizkigu bere osotasunean onargarriak iruditzen. Eta esango dugu zergatik. Euskal Herriak eskuartearen daraman nazio-erakuntzaren proiektu orokorrean zutabe nagusizat daukagu euskal hezkuntza nazionalaren burutzea eta honek, ezinbestez, estatu-arazoarena ere planteatzea inplikatzeko du. Testuinguru honetan aurkitzen diren kasuen gainean eraikitako hezkuntza-plangintzak eta egindako ikerketa gehienak instituzio-guneetatik zuzenduak edo bultzatuak izaten dira eta horrelakoek ez dituzte jasotzen herri-mugimenduek aurkezten dituzten alternatibak. Hezkuntza elebiduna botere autonomikoaren neurriaren planteatua dago. Hementxe kokatu behar da, inoiz kokatzekotan, intelektual organikoaren eta ez-organikoaren arteko talka, zeina, garbierik, alternatiba estatualisten eta nazionalisten arteko oposizioan islatzen baita. Hementxe kokatzen da, hain zuzen, komunitate akademikoak bere gorenko instantzietan betetzen duen zeregin ideologizantea. Zientzi langile batek, ordea, estatu-zerbitzari izatetik aske egon beharko luke. Baina nola Estatu menperatzaileak ez dituen onartzen nazionalisten errebindikazio independentistak —gizarte demokratiko batean erabat bidezkoak direnak, bestalde—, eta nola hezkuntza-sisteman bertan bere mezulari organikoak aurkitzen dituen, funtsean arazo linguistikopedagogikoak direnak, beren herritasun-kontzientziar jabetuak dauden nazio menperatuen kasuan, *ipso facto* arazo politiko bihurtzen dira. Arrazoi honek eraman gaitu hizkuntzari zein hezkuntzari buruzkoak estatu-boterearen inguruan planteatzera, bera baita azken elementu erabakitzalea. Azken atalek, hain zuzen, gai korapilotsu hauetaz dihardute: hezkuntza-sistema nazionala eraikitzeko estatu-boterearen beharraz, botereaz jabetzeko eskubideen subjektu den herriari erabaki-hitza emateaz. Eta abar. Hizkuntzarena ere zerbait aipatzen dugu, hezkuntzaren sailean, bereziki; euskararen soziologia landuz, ordea, beste lan monografiko batekin itzuliko gara luzaro gabe. Ordurako oraingo aurrerakin honekin ildo nagusiak markatuta utziko ditugu.

Etmonazionalismoa dela eta ez dela, erabat aztoratua dabil mundu akademikoa gurean. Sektore jakin batean, gainera, erasoka ere bai, euskararen kontra. Eta norbaitek pentsatzen badu guk, euskaltzaleok, euskararen kausa despolitizatu eta desideologizatu egin behar dugula, horrela jokatzeko bideak erraztuko zaizkigulakoan, hobe du horrelakoak liburu hau ez irikitzea. Aldez aurretik abisatzen diogu. Eta eskerririk asko Anton Idiakez adiskideari lan hau irakurri eta gaitetik orrazia pasatzeko pazientzia izan duelako.

I

EREDU BERRI BATEN BILA

Politika, hizkuntza eta hezkuntzaren arteko harremanak boterearen argitan aztertzea da gure saio honen xedea. Lau kontzeptu hauek, eguneroko bizitzan maizenik darabiltzagunak hain zuzen, errotik ditugu polisemikoak. Hala gertatzen da, beste arrazoen artean, kontzeptu horiez diharduten Gizarte-Zientziak eta horietako bakoitzean dauden paradigmak, halaber, anitzak direlako. Izan ere, kontzeptu horiek adierazten duten errealitateara hurbiltzerakoan erabiltzen diren eredu teorikoak abiapuntuan bertan ditugu anitzak. Dena den, ukatu ezin dena da lau kontzeptu horiek errealitatean hertsiki lotuak daudela eta, nahiz modu batera zein bestera definitu, elkarren erreferentzian agertu ohi direla. Lotura horiek nolakoak diren eta no'a azaltzen diren, hortxe datza kontua.

Edozein gizarte-fenomeno aztertzen delarik ere, ohargabeen edo ohartuta, beti egoten da ikerketa ustez zientifiko batean diskurtso ideologizatua egiteko arriskua. Horregatik, jarraiko hiru maila hauek bederen bereizi beharrekoak dira: ezagutu nahi den errealitatea bera, ideologiak eta jakintza. Baira, Gizarte-Zientzietan paradigma bat baino gehiago egonda, zer-nolako prozedura metodologiko-teorikoa erabili behar da hiru maila horiek garbiki bereizteko eta errealitatearen ezagutza espezifikoa aurrera egiteko? Ikertzaile bat: hementxe sortzen zaizkio zailtasunak. Ezagutzen dituen paradigma desberdinetatik baten bat hautatzen da, eskuarki, gehien konbentzitzen duen hura, edo, bestela, norberak bere eredia eraikitzen du. Hezkuntzaren Soziologiaren inguruan eraikiak izan diren teoriak aztertu eta sistematizatzen aspalditxotik dihardugu, baina, egia esan, ez gara ausartu izan geure bide autonomoa egiten. Azkenean, gure

arrazoiketa sistematizatu erabat biribiltzeko zain egon gabe, gutxi-asko ondua dugun eredu teorikoaren norabidea markatzen duten lerro nagusiak seinatatzeko moduan gaude. Argitasunaren amorez, 1. taulan aurreratzen dugu geure jardunaren hezurdura, zeinaren osagaiak banan-banan azalduko baititugu.

1. taula: Gizarte-errealitatea, ideologiak eta jakintza

Elkarrekintzen sarea				
1. Egitura egituratzen			2. Gizartea eraldatzen	
Erakundeak	Taldeak		Gizarte-kontrola	Gizarte-aldaketa
Familia Hezkuntza Ekonomia Erligjioa Politika Ekologia Hizkuntza	Generoa Klaseak Etniak	BOTEREA	Menerapena Legitimazioa Moralitatea Araua Ordena Adostasuna	Gatazka Kontraesanak Interesa Motiboa Teknologia Demografia Erresistentzi mugimenduak Baloreak Ideologiak
3. Errealitate ezagutzen				
Politikaren esparrua		Hizkuntzarena	Hezkuntzarena	

Hiru sail dira goiko taula horretako organigramaren muina osatzen dutenak, honela deitzen diegunak: 1) egitura egituratzen, 2) gizartea eraldatzen, eta 3) errealitatea ezagutzen. Azken batean, gizarte-errealitatea zer den eta nola funtzionatzen duen da jakin nahi duguna. Hiru formula horien bidez lortu nahi dugu helburu hori. Baina azaldu beharrean gaude zergatik hautatu ditugun horiek eta ez, agian, pentsamendu soziologikoan klasikoagoak diren beste batzuk.

1. Egitura egituratzen

Gizarte-funtzionamenduaz jardutean, hura bideratzen duten mekanismo-piezen artean, pentsamendu soziologikoan azaldu ohi den bezala, erakundeak eta taldeak aipatu ditugu. Baina gizarte-errealitatea bere osotasunean adierazteko, Gizarte-Zientzietan beste kontzeptu bat ere erabiltzen da: egiturarena,

alegia. Hitz hau latinezko *struere*-tik dator eta *eraiki* esan nahi du. Marxiar tradizioan, zehazki, gizartean gauzatzen diren harreman ekonomikoen egituraz mintzatzen da, kontzeptu horrekin aditzera emanez gizarteko produkzio-modu materialak —aldian aldikoak—, jakinak, beharrezkoak eta norberaren borondateetik at daudenak direla. Gizartearen egitura ekonomikoa ematen den era berean, politikoa, juridikoa, demografikoa, kulturala, biologikoa, etab. ere ematen da. Egitura, bada, gizartean dirauen elementu osatzaile baten adierazle da¹¹. Eta egitura partzial hauek guztiak nahasian eta batera elkartzen dituen, bestalde, sistema da. Soziologian, Pitirin Sorokin eta Talcott Parsonsen eraginez, batez ere, elkarri loturik dauden eta elkar-osatzen diren hiru ekintza-sistema bereizten dira: sistema soziala, kulturala eta psikikoa¹².

Guk, lehen sail honetan, erabiliagoa den “gizarte-egituraren” ordez, “gizarte-egituratzearen” formula darabilgu, honekin aditzera emanez gizarte-fenomenoak etengabeko prozesu batean sartuak daudela eta etengabe bilakatzen ari direla. “Egitura” deskriba daiteke, Lévi-Straussen estrukturalismoan edota Durkheim, Radcliffe-Brown, Malinowski edo Parsonsen funtzionalismoan ohi den bezala, “denboratik kanpora”, tenporaltasuna kontuan hartu gabe, alegia, baina ez, A. Giddensek oharrarazten duen bezala, “haren funtzionamendua”¹³. Horregatik, berak nahiago du, “egitura” ordez, “egituratzea” (*estructuración*) erabiltzea, kontzeptu honekin zehaztuz badirela, izan, gizarte-faktore batzuk egituren edo egitura-moten jarraipena eta desagertzea eragiten edo gobermatzen dutenak. Egituratzea, praktiken erreproduzio gisa, maila abstraktuan prozesu dinamikoari dagokion zerbait da, zeinaren bidez egiturak izatera iristen baitira. Egituratu, noski, jadanik egitura-tua dagoen zerbaiten gainean egituratzen da. Azken puntu hau oso argi azaldu zuen P. Bourdieu-k San Diegon 1986ko martxoan emandako hitzaldian, non, bere hitzak etnometodologoei zuzenduz, espreski baieztatu baitzuen gizartean badirela kontzientziatik eta agenteen borondateetik at beren existentzia duten egitura objektiboak¹⁴. Beraz, prozesu batek barne-inplikatzeko duen alderdi aldi berean iraunkorra eta aldakorra, hots, objektiboa eta sub-

¹¹ Vilar, P.: *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Crítica, Barcelona, 1980, 54-63.

¹² Rocher, G.: *Introduction à la Sociologie Générale. L'action sociale*, I, Editions HMH, Paris, 1968, 130-131.

¹³ *Las nuevas reglas del método sociológico*, Amorrortu, Buenos Aires, 1976, 121.

¹⁴ “Por estructuralismo o estructuralista, quiero decir que existen en el mundo social mismo, y no solamente en los sistemas simbólicos, lenguaje, mito, etc., estructuras objetivas, independientes de la conciencia y de la voluntad de los agentes, que son capaces de orientar o de coaccionar sus prácticas o sus representaciones” (*Cosas dichas*, Gedisa, Buenos Aires/Barcelona, 1988, 127).

jektiboa adierazteko hobetsi dugu “egitura egituratzen” formula, H. Mehan etnometodologoak eskolako elkarrekintzak azaltzeko erabili zuen izenburua, “Structuring School Structure” famatu hura¹⁵, gogoan izanda. Egiturak, bada, hegi bikoitza du: bata giza jarduerari dagokiona, zeinaren ondorioz egitura egituratu egiten baita, eta bestea, egituratzea bera ematen deneko bide edo sustraiari dagokiona, zeina gabe ez bailitzateke egituratzerik emanen. Lehen baldintzak subjektuaren partehartzea islatzen du eta bigarrenak, aldiz, emana datorkion objektuarena.

Arestian esandakotik ateratzen dugun ondorioa da, erreprodukzio zein produkzioaren prozesua aztertu nahi denean, bi ertz gaingitu behar direla: determinismo estatikoa eta erlatibismo dinamikoa. Honela, batetik, ezin da produkzioaz hitz egin egituraren kontzeptua ezertarako erabili gabe, sarritan interakzionalismoan gertatzen den bezala; bestetik, erreprodukzioa ezin da emaitza mekaniko gisa gogoeman, estrukturalismoak zein funtzionalismoak egiten duten bezala. Beraz, derragun edozein gizarte-egintza —praktikan erreprodukzioaren zein produkzioaren moduan agertzen den hori, hain zuzen—, subjektu aktiboek gizarte-egitura iraunkorren baitan eragindako prozesu dinamiko baten ondorioa dela.

Beste bigarren zehaztapen bat ere egin beharrea gaude, eta da, egitura esatean, ez garelara ari ez talde bati buruz, ezta kolektibitate edo erakunde jakin bati buruz ere. Hauek guztiak beren egiturak dituzte eta elkarrekintzazko sistemez hornitutako izaki edo kontzeptu gisa aztertu behar dira. Honen arrazoiak da, berririko Giddensekin esateko¹⁶, egiturek, berez eta beren baitan, ez dutela subjekturik. Honekin esan nahi dena da, erakundeak, izan, kontzeptu abstraktuak direla, ez hezur-haragizko subjektu historikoak; berorien barruan diharduten agenteak bakarrik dira nortasunezko subjektibotasuna dutenak, egunero elkarrekintzen bidez islatua agertzen dena.

Horregatik, taulan seinalatua datorren bezala, elkarrekintzen sarea gizarte-egituretatik gizarte-eraldaketan parte hartzen duten subjektu eragile guztien-gana zabaltzen da. Elkarrekintza subjektuen portaeren baitan eta horien bidez eratzen da. Egituren eta elkarrekintzen arteko lotura, hizkuntzaren adibide honekin azal daiteke: mintzaira litzateke egitura, eta hizketa elkarrekintza.

Guk, gizarte-egituren sailean, batetik, erakundeak eta, bestetik, taldeak sartu ditugu, biak bereiziz. Erakundeen zutabeetan datoz izendatuak gizartearen makroinstituzio gisa funtzionatzen duten eta gizartearen etengabeko erreprodukzioan parte hartzen duten oinarrizko sistemak: hots, familia, hezkun-

¹⁵ *Harvard Educational Review*, vol. 48, 1, 1978, 32-64.

¹⁶ *Op. cit.*, 122.

tza, ekonomia, erlijioa, politika, ekologia, hizkuntza. Hemen sei bakarrak aipatzen dira, baina zerrendan gehiago ere sartu ezinik ez legoke. Familiak, ahaidetazuneko sisteman oinarrituz, gizakiaren biologiazko jarraipena ziurtatzen du; hezkuntzaren bidez, belaunaldi zaharretik berrirako kultur transmisioa gauzatuz, partaide berrien gizarteratzea ahalbidetzen da; ekonomiaren bidez, bizi-iraupenerako behar diren ondasun materialak eta zerbitzuak sortzen dira; erlijioan gizakiaren sentimendu transzendentek islatzen dira eta baloreen mundua lantzen; politikak gizartea antolatzea du xede, gizarte-partaideak helburu jakin batzuen arabera gidatu eta gobernatu ahal izateko; ekologiak, ingurune fisiko antolatuz, izadiaren eta gizakiaren arteko harreman orekatua sortzea du eginkizun. Erakunde hauetako bakoitzak bere kodeak ditu, bere arauak, bere sinboloak, eta, bakoitzari dagozkion xedeak lortzeko, baita bere elkarte bereziak ere. Politikaren kasuan, adibidez, Estatuak bere aparatuek dauka: gobernuak, armada, parlamentua, auzitegia, alderdi politikoak, sindikatuak, etab. Hezkuntzaren kasuan, orobat, eskolazte-sare desberdinak ematen dira, nola pribatuak hala publikoak, nola formalak hala informalak edo ez-formalak. Guk, batez ere, politikaren eta hezkuntzaren arteko harremanak aztertuko ditugu.

Bigarren zutabearen jarraiko hiru gizarte-taldeok aipatzen ditugu: klaseak, generoa eta etniak. Soziologian, alabaina, aipatu ohi dira gehiago ere. Adibidez, adin-taldeak ere hortxe daude, haurrek, gazteek, helduek eta adinduek osatzen dituztenak. Hauen ezaugarriak ere aldatuz doaz gizarte-baldintzak ere aldatuz doazen neurrian. Egun, adinduen bizi-esperantza gehitu den honetan, horien kopurua ere gehitu egin da. Beste gizarte-talde horien dinamikan ere eman da aldaketarik. Duela gutxi arte, kapitalismo basatiak sortutako gizarte-krisialdian zehar, klaseak izan ziren gizarte-aldaketa protagonizatu zuten subjektu historikoak eta, eredu liberalaren kontrako alternatiba gisa, Estatu sozialistak eraiki ziren hainbat herrialdetan. Egun, ordea, lehengo erredukzionismo klasista hura jadanik gauditua da, indarrean daudenak beste subjektu edo gizarte-talde berri batzuk baitira, hauen artean bereziki generoa eta etniak, ekologistekin eta antimilitaristekin batera. Hego Amerikan, non Europan ez bezalako gizarte-egoera ematen baita, lurrik gabekoen mugimenduek, gobernu lokalek eta horrelakoek daramate protagonismoa. Gurean feminista, ekologista eta antimilitaristen herri-mugimenduak eta nazio-arazoak nahasirik eta batera badatoz ere, etnonazionalismoaren inguruan eraikiko ditugu botereari, hizkuntzari eta hezkuntzari buruzko gogoetak. Esan behar da solidaritate-sustrai zaharreko talde etnikoen banaketa-egitura, adibidez, iraupen luzeko giza errealitateari dagokiona dela¹⁷.

¹⁷ Vilar, P., op. cit., 71-72.

Egitura-mailako esparru horiek aipatzean, berriz, nahiz eta horiek denak elkarrekintzen sarean inplikaturik dauden, horietako bakoitzari bere autonomia aitortzen diogu. Ekonomiak edo politikak bere autonomia duen bezalaxe du kulturak edo hizkuntzak. P. Willis neomarxistak¹⁸, kultur produkzio eraldatzaileaz ari dela, esparru kulturalaren espezifikotasuna eta autonomia errebindikatzen ditu. Hauxe da monokausalismoa gainditzeko era bat. Taldeak, orobat, nolabaiteko solidaritate-lotura espezifikokoak dituzten subjektu kolektiboak dira, hala nola, etnia, klase edo genero berekoen komunitate edo kolektibitateak osatzen dituztenak.

2. Gizartea eraldatzen

Lehen saileko bi zutabe horien arteko lotura eginez, esan dezakeguna da, egituratze-prozesuek, ondorio gisa, kolektibitate edo erakundeen integrazioa edo eraldakuntza estrukturala dakartela. “Gizartea eraldatzen” izeneko bigarren sail honetan, bada, gizarteak bere funtzionamendurako ezartzen dituen kontrol-bideekin zerikusia duten kontzeptu batzuk izendatzen dira lehen zutabeetan, zehazki: menerapena, legitimazioa, moralitatea, araua, ordena eta adostasuna. Gizartean, aldi berean, homogeneotasuna eta heterogeneotasuna ematen baitira, batasuna eta aniztasuna, berdintasuna eta desberdintasuna, arauak finkatzen dira, bertan ordena ziurtatua izan dadin. Bake-giroan bizi ahal izateko gutxienezko gizarte-ordena izatea beharrezko zerbait dela onartzen da orokorrean. Baina ordena hori ez bide dute guztiek berdinean ulertzen. Funtzionalistentzat¹⁹, adibidez, ordena zerbait berezkoa zaio gizarteari eta ezartzen diren arauak betetzen ez dituenak, ondorioz, desbideratu gisa hartzen da. Konfliktualistentzat, aldiz, gizarteko erakunde zein talde desberdinetan gauzatzen diren harremanak oro —politikoak, ekonomikoak, kulturalak, nazionalak, ekologikoak, generoartekoak, etab.— kontraesan zeharkaturik daude eta, funtsean, mota eta maila desberdinetako interes kontrajarriek eragindako harreman horiek gizartea gatazka-egoeran aurkitzen dela salatzen dute. Gizartean kontraesanak daudelako, hain zuzen, gertatzen da gizartealdaketa, zeinaren elementu eragileak eta subjektuak bigarren zutabeetan

¹⁸ “Este último (nivel cultural) incluye sistemas relativamente coherentes de prácticas materiales y sistemas simbólicos de entrelazamiento que, de acuerdo con la región, tienen su especificidad y objetivos propios” (“Producción cultural y teorías de la reproducción”, *Educación y Sociedad*, 5, Akal, 1985, Madrid, 13).

¹⁹ Rocher, G, op. cit., 40-70.

aipatzen baitira, hala nola, gatazkak, kontraesanak, faktore teknologiko eta demografikoak, erresistentzi mugimenduak, baloreak eta ideologiak. Azken batean, norbaitek zerbait egiten duenean, interes eta motibo desberdinek eta, askotan, kontrajarriek eraginda egiten du.

Beraz, batzuek gizartearen ohiko funtzionamenduan ordenaren aurpegia ikusten duten bitartean, beste batzuek gatazkarena nabarmentzen dute, ikuspegi honetan marxiar eta weberiar tradizioak bat datozelarik. Gatazka ematen bada, menpekotasunezko harremanak daudelako ematen da. Hementxe kokatzen da, hain zuzen, boterearen izateko arrazoia, gure arrazoibidean oinarritzko kontzeptua dena. Gatazka-egoera gainditzeko bidea, ohikoena eta onartuena, adostasunarena da. Arazoa da gizarte-adostasun hori zein irizpidetan finkatzen den. Eta hemen, berriro, talde desberdinen interes kontrajariak gurutzatzen dira.

Oposizioen mundua eta gure ekintzen zergatikoa eta zertarakoa adierazteko kontzeptu desberdinak erabiltzen ditugu, askotan beren edukia behar beste zehaztu gabe. Gatazka, kontraesana, interesa, motiboak eta gisako kontzeptuak agertu dira gure diskurtsoan, guztiak gizarte-eraldaketaren argitan irakurri beharrekoak, eta aurrera segi baino lehen mugatu beharra daukagu horien esanahia, zertaz ari garen jakin dezagun. A. Giddens autoreari jarraiki beteko dugu lan hau²⁰, horien arteko bereizketak argigarri bezain onargarri kausitzen baititugu. Gatazka, izan, elkarrekintzen propietate bat da eta interes desberdinak dituztenen arteko borroka adierazten du; kontraesanak, aldiz, egituren propietate bat gence eta gatazkarekiko harreman kontingentea adieraziko luke. Kontraesana, hemen, printzipio estrukturalen arteko oposizio gisa ulertzen da. Feudalismoaren eta kapitalismoaren artean edota, tipologia modernoagoa erabiliz, globalizazioaren eta komunalismoaren²¹ artean dagoena, adibidez. Bestalde, aurreko biek in ertsiki harremanetik, interes eta motiboen kontzeptuak dauzkagu. Interesaren kontzeptua, bereziki eta zuzenean, gatazkari zein solidaritateari loturik doana da. Boterea eta gatazka askotan batera badoaz ere, ez da horrela gertatzen bata bestea logikaz inplikatzen duelako, boterea interesen lorpenei atxikirik doalako baizik. Desiratutako interesak erdietsiz gero, interesak botere bilakatzen dira, bat egiten dute. Baina interesa, berez, ez doa elkarrekintzari loturik, baina, bai, boterea.

²⁰ Op. cit., 119-131

²¹ Komunalismoa Manuel Castellsek dakarren kontzeptua da, zeinek, globalizazioari kontrajarri, kultur nortasunean oinarritutako herri-mugimenduen erro lokala adierazten baitu. Hor sartzen dira azkenaldion indartu diren gizarte-mugimendu desberdinak: nazionalistak, ekologistak, feministak, etab.

Honetan bereizten dira. Bestalde, kontraesanak zein diren jakiteak alde zuzenak suposatzen du ezagutzen direla interes desberdinen arteko oposizioak ere elkarrekintzen mailan. Eta hementxe kokatzen da, interesaren kontzeptuaren alboan, motibazioarena ere, “motiboak” baitira subjektuak “interes” jakinak izatera daramatzatenak. Interesaturik gaudelako egiten ditugu gauzak. Eta interesen zein motiboen erresuman, jakina, eragin handia dute —erabakigarria esango genuke—, ideologiek eta baloreek. Azken hauen arrazoizkotasuna ulertzeko weberiar ereduak balio duen ala ez da kontua, bere lekuan eztabaidatuko duguna.

Gizarte-eraldaketan parte hartzen duten elementuen sailean, lehen zutabearen kontrol-bideak aipatzen ditugun era berean, bigarrenean aldaketa eragiten duten faktore eta subjektu historikoen zerrenda dator. Eta hemen, besteak beste, ezarritako gizarte-egituren aurrean erresistentzia praktikatzan duten gizarte-taldeak edo gizarte-mugimenduak aipatzen dira eta iraultza teknologikoa dakartenak. Aurrerapen teknologikoak —informatikaren sailean egindakoak, bereziki—, harreman sozioekonomiko eta kulturalen globalizazioa ekarriko du eta, beroriek transnazionalizatuz doazen neurrian, ohiko botere-guneak —bereziki Estatuena—, desplazatu egiten dira. Informazioaren aro berrian sartuta gaude eta ezagutza gehien metatzen duenak agintzen du. Informazioa da, beraz, egungo botere-iturri berria, laugarrena deitu ohi diotena. Demografia ere, han eta hemen ikusiz gatozen bezala, gizarte-faktore baldintzatzaile garrantzitsua dugu eta zenbait kasutan erabakigarria gertatzen da, batez ere, gurean bezala, nazio menperatu bateko hizkuntza minorizatu batek inmigrazio-mugimendu masibo baten asimilazio-erasoari aurre egin behar izan dionean. Interkulturalismoaren zein kultur pluralismoaren kontzeptuek oso esanahi desberdina dute segun eta zein testuingurutan kokatzen diren, Estatu indartsu batean ala honek menpean hartua daukan nazio batean. Inoren kontrako bereizkeriarik gerta ez dadin, inmigrazio-populazioaren gainean gogoeta berriak egin beharra dagoelakoan gaude. Estatu-hiritar gisa eta lekuko herritar gisa dagozkien eskubideen eta erantzukizunen arteko mugak batera zehaztu gabe daude oraindik, edota, zehaztuta, baina estatu-eskubideen alde. Proporzioan gurean baino inmigrazio-populazio askoz ere txikiagoa duten Estatu demokratiko ahaltsuenek ere eginga dute bereizketa hori eta, gertatuz, inmigratuekiko lege-neurri murriztaileak hartu izan dituzte. Honetaz ohartzeko, aski da begirada Frantzia edo Alemaniara luzatzea. Gure lurraldean gai hau aipatze hutsak bakarrik arrazakeriaren edota garbiketa etnikoaren salaketak harrotzen ditu nonahi. Gai hau maila politikoa pozoitua baldin badago ere, dagoen bezala, honek ez du esan nahi maila akademikoan —Zuzenbidearenean zehazki—, egiazko arazo izanez segitzen ez duenik.

Larriena, halakotzat hartu nahi ez izatea da eta, ondorioz, betiko iluntasunean elkar ezin ulertuz koexistitzen segitzea aurreiritzien hodeiez inguratuta.

Gizarte-aldaketa eragiten duten alderdi materialez gain, gizabanako antolatuek protagonizatzen dituzten erresistentzi mugimenduak aurkitzen dira. Eta hemen ere aldaketa nabarmenak ari dira gertatzen, zeren ia oraintsu arte, denbora luzez, langile-klasismo hutsean oinarritutako ikuspegi monokausala nagusitu izan bada ere ezkerreko literaturan, gaurko praktika politikoan ageri da beste gizarte-talde espezifiko batzuk ere sartuak daudela borroka-bidean eta, zenbait herrialdetan, protagonismoa ere beraiek daramatela. Hor dauzkagu, besteak beste, nazioen, Estatuoen, hizkuntzen eta generoen arteko gatazkak, berdin inguru fisikoaren eta sozialaren artekoak. Klaseartekoeekin nahastuta, horiek guztiak ere hortxe daude gizartearen eraldaketan oso modu aktibo batez parte hartzen.

3. Errealitatea ezagutzen

Hirugarren sail honetan, hau maila akademikotik begiratuta, gizarte-errealitatearen eta jakintzaren arteko harremana aztertzen da. Taulan datorren bezala, sail honetan hiru azpisail datoz, bakoitza bere zutabe bikoitzarekin: politikaren esparrua, hizkuntzarena eta hezkuntzarena. Hiru esparru hauek elkarri begira eta harremandurik ezarri ditugu, honekin aditzera emanez, gure ereduaren arabera, hizkuntzak hezkuntzarenean zerikusi zuzena duela, ez bakarrik klasearen kontzeptuarekin —Bernstein edo Bourdieuren eskeman gertatu ohi den bezala—, baita politikarekin ere, non sartzen baitira Estatu-nazioen zein Estaturik gabeko nazioen arteko gatazka estrukturalak eta hemendik eratorritakoak, larrienak aipatzearen bakarrik, inmigrazio-fenomenoarenak, interkulturalismoarenak, hezkuntza-sistemarenak eta hizkuntz eskubideenak. Geure saio honetan, hizkuntzarena beste lan monografiko baterako utzita, politikaren eta hezkuntzaren arteko harremanak esplizitateraz mugatuko gara, horien gizarte-errealitatea ezagutzeko ahalegin honetan bi maila bereiziz: zientzia desberdinen arloa eta aplikazioarena. Geure gogoe-tak pentsamendu soziologikoan oinarrituta egingo ditugu, Hezkuntzaren Soziologian egin diren ekarpenak kontuan hartuta, batez ere. Jakina, diziplina honetan ere, paradigma bat baino gehiago daude burutuak eta, ikerbidean aurrera goazen heinean, gure aukerak nondik doazen agerian geldituko da. Eta hezkuntzari buruzko alderdi teorikoak aztertuz batera, ez gara geldituko alderdi metodologikoa ere ukitu gabe.

4. Boterea

Eta taularen erdi-erdian boterearen kontzeptua daukagu ezarrita. Zergatik? Gure ustez, berori delako kontzeptu-ardatza, zeinari estekaturik baitaude lehen aipatutako beste guztiak. Berori zaigu euskal arazoaren muina bere espezifikotasunean arakatu eta azaltzeko oinarrizko kontzeptua, gizarte-ko egitura guztietan modu batera edo bestera presente dagoena eta, bereziki, estatu-aparatu guztiekin harreman zuzen eta ertsia duena. Beraz, hemen, politika, boterea eta hezkuntza kontzeptu-sare batean harremandurik aztertuko ditugu, hemendik abiatuz.

Erregimen Zaharrea apenas ematen zaion aparteko esanahirik agintaritzaren kontzeptuari. Nola agintaritzea gizarte-eginkizun nagusietan, hots, familiar, auzoan, parrokian eta gremioetan txertatuta aurkitzen den, hain atxikia tradizioari eta moralitateari, ohargabea onartzen da, arnasten dugun airearen antzera. Horregatik, agintaritzea gizarte-ordenari hertsiki loturik doa, joan, berarekin daramala betebeharraren eta leialtasunaren moralitate-pisu guztia. Baina Frantziako Iraultzak giza eskubide, askatasun eta berdintasunaren sistema aldarrikatzen duenean, hark herri-subiranotasunaren izenean ezarritako botere politiko berriak ordura arte, hainbeste mendez, gremio, komuna, Eliza eta familia patriarkalean oinarritua egon zen errege-autoritatearen eskema tradizionala ordezkatzeko du eta geroztik Europa osoan gizarte-eredu berria gorpuzten hasten da. Baina ez traumarik ezagutu gabe, ez eztabaida akademiko eta soziopolitikorik eman gabe.

Boterearen soziologiari dagokionez, XIX. mendean, jarraiko lau ideia nagusi hauek nabarmentzen ditu Robert Nisbet autoreak²²: a) botere iraultzailearen *totalismoa*, batez ere, Robespierrek “tiraniaren kontra askatasunaren despotismoa” aldarrikatu zuen garai hartakoa; b) botere iraultzailearen *masa-oinarria*, zeinaren bidez iraultzaile burgesek adierazten baitute boterea ez datzala ez Jainkozko dekretu batean ez herentzian ez tradizioan, boterean bertan parte hartzen duen herri-masan baizik; c) botere iraultzailearen *zentralizazioa*, buruzagi iraultzaileek —bereziki, jakobindarrek—, pentsatzen baitute gobernu zentralizatu dela herriaren egiazko borondatea aurkitu eta azaltzeko biderik onenak eskain ditzakeena; d) boterearen *razionalizazioa*, zeina gizarte-maila guztietan ezarriko baita: paperezko monetan, pisu eta neurrien sisteman, egutegian, hezkuntza-sisteman, armadan, administrazio-burokrazioan. Zentralizazio eta razionalizazioaren kasuan, zehazki,

²² *La formación del pensamiento sociológico*, I, Amorrortu, Buenos Aires, 1977, 148-150.

Frantziako Iraultzak jadanik Erdi Aroaren bukaeran hasitako prozesua burutu besterik ez du egiten.

Beraz, Frantziako Iraultzaz geroztiko lehen mendean, batik bat, buruz-buru kontrajarriak aurkitzen baitira gizarte-agintaritzza tradizionala eta botere politiko modernoa, komeni da pentsamendu soziologikoak bere lehen urrats eraikitzaileak ematen dituen garai horretan arazo horren gainean zer-nolako eztabaidak zeuden jakitea.

Norbaiti edo zerbaiti obeditzen zaiola adierazteko, euskaraz, askotan, agintaritzaren kontzeptua eta boterearena erabiltzen dira, sinonimoak bailiran. Baina tradizio soziologikoan, eduki semantikoaren aldetik, Frantziako Iraultzaz geroztik garbiki bereizten dira gizarte-agintaritzza eta boterearen, zeinen balioakideak, gaztelaniaz, *autoridad social* eta *poder* kontzeptuak baititugu. Kontserbadoreentzat bezala iraultzaileentzat, *gizarte-agintaritzaren* irudia Erregimen Zaharretik jasotako materialen bidez itxuratua da, zeina tradizioan oinarritzen baita. Tradizioan, agintaritzaren itzala mailaz maila hierarkizatua aurkitzen da, familiatik hasi eta, auzo, komunitate eta probintziatik pasatuz, errege-gobernuan bukatzen dena. Agintaritzza-sistema honen muina gizabanakoaren gizarte-taldearekiko leialtasunean datza. Aitzitik, *botere politikoaren* irudia bururatzeko, Iraultza burgesaren legegintza-eskematik hartutako materialak erabiltzen dira. Eskema hori ezaugarritzen duten elementuak, arestian esan bezala, razionaltasuna, zentralizazioa eta herritasuna dira, azken hau gehiengoaren zentzuan ulertuta. Iraultza burgesak Erregimen Zaharra hankaz gora jartzen duenean, lehen-gizarte-autoritateari orduan kontrajartzen zaio botere politiko²³.

Oposizio-puntu horren gainean eraikitzen dituzte beren gogoetak XIX. mendeko pentsalariak, pentsamendu-korrante desberdinak sortzen direlarik. Norbaitek pentsa baleza gizarte-agintaritzaren eta botere politikoaren arteko bereizketa pentsamendu kontserbadorean bakarrik oinarritzen dela, oker dabilke, zeren, nahiz eta bere sorrera hor duen, gero beste batzuek ere bereizketa horri eusten baitiote. Botere politikoaren kontrako jarrera ez da Burke edo Bonald bezalako kontserbadore garbien kontua bakarrik. Batzuek, oinarritzat botere politiko hartuta, zentralizazioaren eta gizarte-taldeen inguruan eraikiko dute beren soziologia, Emile Durkheimen bezala, edota, razionalizazioaren eta tradizioaren inguruan, Max Weberrek bezala. Gogoeta hauetatik sortuko dira gizarte-bortxa, gizarte-kontrol eta agintaritzza arauemaileari buruzko kontzeptuak eta, halaber, komunitatearen eta gizartearen arteko bereizketa.

²³ *Ibid.*, 152.

Marxek iraultza burgesak martxan jarritako lau ideia haiek —totalismoa, masa, zentralizazioa eta razionalizazioa—, bere osotasunean onartzen ditu, baina bere komunismo idealean ez du estatu-boterearen beharrik ikusten, klasearteko borrokak bukatzean desegitera, hiltzera, kondenatua baitago.

Bestalde, XIX. mendeko anarkistek, Proudhonengandik hasi eta Kropotkinengainoko tradizioan, lokalismoa, pluralismoa eta deszentralizazioa defendatzen dituzte zentralizazioaren kontra. Hauentzat gizarte-agintzaritza anitza da, asoziatiboa, funtzionala eta autonomia; botere politikoa, aldiz, oso “demokratikoa” deituko zaion arren, zentralizazioari eta burokratizazioari atxikia. Azkenik, antzeko jarrera agertzen du gizarte-liberalismoko adar garantzitsu batek ere. Lamennaisek, adibidez, gizarte-agintaritzaren aldeko apustuan, Elizarekin batera, familia, kooperatiba, sindikatua eta lokalitatea bezalako asoziazioak inplikatzeko dituzte gizartean. Botere politiko burgesak ezabatu egiten ditu erdiko erakunde tradizionalak, hauen artean baita etniak ere. Erakunde horien agintaritza, neurri batean bederen, lokalismoan oinarritua baitzegoen, autore horiek, hain zuzen, herri-ordezkaritza anitzeko agintaritzaren kontrako neurri zentralizatzaileak salatzen dituzte. Herri-mugimenduen dinamikan oinarritzen den egungo komunalismoak badu zerikusirik lekuan lekuko erakunde sekundarioak errebindikatzen zituzten orduko joera kontestatzaile haiekin. Esan bezala, zentralismoaren kontrako salaketan, ez bakarrik kontserbadoreak —azalpen historikoetan ia beti errepikatu izan den bezala—, anarkistak eta liberalen sektore bat ere batera agertu izan dira. Hauentzat komunitate tradizionala baita abiapuntua, estatu-botere politikoa, izan, autoritate-mota bat besterik ez da, aldi berean besteek baldintzatu eta mugatzen dutena. Zentzu honetan, ezkerren eta eskuinaren kontzeptuak puntu askotan zehaztu eta zuzendu beharrekoak dira.

Geroztik, boterearen kontzeptua, gure lanean azalduz joango garen bezala, modu askotara ulertua izan da, eta da. Batzuentzat —Barnes eta Giddens bezalako interakzionalistentzat orokorrean—, boterea elkarrekintzen propietate bat da, intrintsekoki erlazionala, beste giza jarduerekin harremanean dagoena. Beste batzuen ustez, aldiz, boterea, izan, kontzeptu erlazionala da, bai, baina, funtsean, zerbait estrukturala, eskema marxistan bezala, klase-egiturari atxikia. Beste batzuek, boterearen izaera bera baino gehiago, horren ondorioa nabarmentzen dute: hots, besteak menperatzeko gaitasuna, zeinaren prototipoa estatu-boterea izanen bailitzateke, Weberren ereduan mugatua datorren bezala. Guztiek onartzen dutena da, boterea zeinen propietate den arazoa alde batera utzita, kontzeptu honek besteak menperatzeko gaitasuna adierazten duela. Zehatzago esanda, boterea, berau giza jardueraren gaitasun

eraldatzaile gisa gogoemanda, egileak gizarte-gertakari batzuen norabidean parte hartzeko edota berori aldatzeko daukan gaitasuna da. Menerapenezko gaitasun hau, berez, bortxazkoa den ala ez, honetaz ez da adostasunik ematen. Weberren ustez, boterea, behar izanez gero, besteen borondatearen kontra ezartzen den zerbait da; Giddensen ustez, aldiz, botereak ez du inplikitzen bortxaren elementua. Praktika politikoan, ordea, zehazki estatu-botereaz ari-tuko garenean frogatu ahal izango dugunez, ezingo da bortxazko menepare-na ignoratu. Nazio-askapenen historian estatu-boterearen ezarpen fisiko eta psikikoa izanen da zapalkuntzaren euskarririk oinarritzakoa. Hezkuntza-siste-maren zereginetako bat, gizartearen erreprodukzioa bere osotasunean ahalbi-detzea da, horretarako, hain zuzen, bortxa sinbolikoa erabiliz.

Boterea ez da dena. Baina bera gabe lortezinak dira hainbat xede politi-ko. Boteretik gabeko herriak, lemarik gabeko itsasontzia dirudi. Norakorik gabe, luzarora gabe, hondoratu egiten da. Hobeto esanda, itsaso handiak bere sabelean irensten du. Estatu nazioaskodunak Estaturik gabeko nazioa bezala. Eta gu, Euskal Herrikook, horrelaxe aurkitzen gara: gurea ez den itsasontzi batean sartuta eta norako jakinik gabe. Eraman, garamatzate. Nora?

5. Ideologia eta jakintza

Ideologiek gizartearen eraldaketan garrantzi handia izaten dutela esan berri dugu. Baina hemen, areago joanda, zientzien esparrua eta ideologiaren garbiki bereizten ditugunaldi berean, elementu ideologikoak, gizartea berre-raiki eta eraldatzeko orduan, zein leku betetzen duen jakin nahi da. Galdera honi erantzuten saiatuko gara. Esana izan da Berlingo harresia erortzean, zeinek mundu kapitalistaren eta komunistaren arteko pentsamendu-muga sinbo-lizatzen baitzuen, ideologiaren aldia ere bukatutzat eman zitekeela. Hala den ala ez alde batera utzita, ezingo da ukatu ideologiek garrantzi hanciko eginki-zuna jokatu izan dutela azken mende hauetako pentsamendu-korrontean.

Ideologiaren sorrera eta bilakaera

Ideologiaren kontzeptua, B. Puelles Benitezek zehazten duen bezala²⁴, eboluzio historikoaren emaitza da, pentsamendu filosofikoak eta soziologi-

²⁴ *Política y administración educativas*, UNED, Madrid, 1987, 41-48.

koak egin dituzten ekarpen desberdinen ondorioa, alegia, esanahi anitzez hornitua dagoena.

Erdi Aroan ez da ezagutzen kontzeptu hori, artean pentsamendu teologikoa baita nagusi eta fede-batasunak ez baitu uzten, heterodoxiaren beldur, munduaz ikuspegi-aniztasunik sor dadin.

Errenazimentuan, pentsamendu teologikoa gainditzearekin batera, kristandadearen politika desegiten denean eta pluralismo politikoa datorrenean, orduan agertzen dira lehen gogoetak ideologiaren gainean. Bacon izango da errealitatearen egiazko ezagutzari buruz giza adimenak dauzkan “mamuez” (*phantasmata*) edo aurreiritziez mintzatzen lehena. Zentzu honetan, haren “idoloen teoria” ideologiaren sorburutzat hartu ezinik ez legoke.

Ilustrazio-garaian, Helvetiusek “interesaren teoria” lantzen du, zeinaren arabera izeiak norbera bizi deneko gizarteari zor zaizkionak baitira. Norberaren interes pertsonalak dira gure adimena gidatzen dutenak eta horiek errealitatea desitxuratu egiten dute. Ikusmolde filosofiko eta politiko desberdinek ikuspegi interesatua agertzen dute eta, ondorioz, botere politikoak ezarritako ordenaren euskarri diren ikusmoldeak bakarrik babestu eta zabaltzen ditu. Zentzu honetan, bada, ideologia errealitatea faltsutzeko erabiltzen da.

XVIII. mende-bukaeran, enpirismoaren garapenak ezagutza zientifikoaren eta azalpen espekulatiboen arteko mugak finkatzen ditu, errealitate-ra hurbiltzeko iturri nagusizat sentimenen mundua ezarritz. Honela, Destut Tracyk ideologia zientzia berri bat dela esango du, ideien zientzia, alegia, zeinaren helburua izango baita ideiak nola sortzen diren eta giza bizitzako baldintzen pean nola kausitzen diren ikertzea. Locke eta Condillacen irakatsietan oinarrituta, ideien eta sentipenen arteko harremana lantzen du eta, harreman hori zein baldintzatan ematen den aztertuz, egiazko ezagutza eta faltsua bereizten ditu. Horrela jokatzean, ideologiak, zientzia gisa, beste zientzia fisiko eta matematikoei dute ziurtasun-maila duke.

Ideologiari ematen zaion adiera zientifiko horrek, ordea, Napoleonekin eduki arras negatiboa hartzen du, zeinarentzat errealitatei urruntzeko bide bat besterik ez baita, metafisika berri bat, zerbait irreal, kimerikoa, utopikoa.

XIX. mendean, Marx da ideologiaren esanahi modernoa dakarrena eta eduki berriz aberasten duena, kontzeptu honek tradizio historikoan izan dituen ikuspegi kontrajarri horiek nolabait elkartzen dituelarik: bata, kontzientzia edo ezagutza faltsuari dagokiona da, errealitatearen egiazko baldintzak jasotzen ez dituen, zeinaren arabera, historia ideien ekoizpen gisa agertzen baita eta ez, beharko lukeen bezala, giza ekintzen emaitza gisa; bestea, klase dominatzailearen interes materialak adierazten dituen ideien multzoari dagokiona da eta, zentzu honetan, klase bakoitzak du berea.

Marxiar adieran, bada, ideologiak bi funtzio betetzen ditu: baza, errealtateaz kontzientzia faltsua sortzea (Bacon), eta bestea errealtatea mozorro-tzea (Helvetius).

Ideologiak, tradizio marxistan, gainegiturari dagokion elementua den aldetik, errealtateaz kontzientzia faltsua sortzen du. Marxek, *Ideologia alemana* liburuari egiten dion hitzaurrean, hitzez hitz esaten du, ideiak, erre-presentazioak eta kontzientzia etorri, zuzenean gizakiek gizartean dituzten harreman materialetatik datozela eta harreman horietan dutela beren sorburua pentsamenduan oinarritzen diren edozein gaik zein ideologiak²⁵.

Klase dominatzaileak beretzat sortzen duen ideologia nagusi hori ez da gizarte-egile desberdinek (Elizak, edo prentsak, edo eskolak, edo beste batek) kanpotik era mekaniko batez ezartzen duten zerbait, produkzio-munduan egunero aldatuz datozen gizarteko harremanetan etengabe sortzen eta birsor-tzen den zerbait baizik.

Ideologiak, bada, errealtatea faltsutu egiten du, zeren, gizarteko harre-manak eta gizakien portaerak eguneroko bizitzan nolakoak diren azaldu ordez, historia ideien mailan interpretatzen baita, gauzek nolakoak izan behar-ko luketen esanez. Honela, nahastu egiten dira giza errealtatea eta ideiena.

Bestalde, giza portaerari zein elementuk eragiten dioten gehien, gizar-tetik datozkion kanpo-baldintza materialek ala norberaren konbikzio mora-lek erabakitzea, ez da uste bezain erraza eta ebidentea. Max Weberrek, adi-bidez, kapitalismoak herrialde batzuetan ezagututako industri garapen az-karra protestante puritanista batzuek izan zuten jokabide aszetaren bidez es-plikatu zuen *Etica protestante* liburuan. Honek, Marxek esandakoaren kon-tra, ez baldintza materialetan, baizik balore etikoetan edo izpirituzko jarre-ran ezartzen du giza jardunaren indar eragilea. Galde daiteke, bidenabar, gizarte-mugimendu askatzaileak oro, politikoak nahiz bestelakoak, zergatik diren hain oldartsuak, une fundatzailean aldarrikatutako xede aitortuenga-nako leialtasunari hain atxikiak. Baldintza materialek ez bide dute beti kon-tzientzia askatzailea pizten, nahiz pizteko adina arrazoi aurkitu gizarteko baldintza materialetan. Neoliberalismoak majo hezia dauka langileria! Nor-berak bere zapalkuntza onartzea, azken batean, bere izpirituaren obra da.

²⁵ "La moral, la religión, la metafísica y cualquier otra ideología y las formas de consciencia que a ellas corresponden pierden, así, la apariencia de su propia sustantividad. No tienen su propia historia ni su propio desarrollo, sino que los hombres que desarrollan su producción material y su trato material cambian también, al cambiar esta realidad, su pensamiento y los productos de su pensamiento. No es la conciencia la que determina la vida, sino la vida la que determina la conciencia" (Marx, K.; Engels, F.: *Ideología alemana*, L'Eina Editorial, Barcelona, 1988, 18).

Baina ideologiak, errealitatea faltsutu ahal izateko, berori mozarrotu egiten du. Klase dominatzaileak bere interes material partikularrak gizarteko beste partaide guztientzako ere amankomunak bailiran aurkezten ditu. Adibidez, Erreformak bigarren mailako irakaskuntza guztientzat ezartzea proposatu zuenean, orduko gizarte kapitalistak helburu horixe ezkututzen zuen.

Errealitateaz kontzientzia faltsua sortzea eta hura mozarrotzea, bi adiera horiek zentzu negatiboa baitute, Marx ideologiari egotzi izan zaizkion bi zeregin historiko horiek agerian jartzen ahaleginduko da. Halere, Marxen ideologiari buruzko azalpenari ohar kritikoak erantsiz, esan beharko da espezialistek Marx eta marxiarren baitan, ez bi, baizik hamahiru esanahi desberdin aurkitu dituztela ideologiaren inguruan²⁶.

Geroago, Mannheimek ezagutzaren soziologia eraikitzeko oinarriak lantzeari ekingo dio. Marxek irekitako ildo kritikoa aintzakotzat hartuz, ezagutza zein baldintza errealetan oinarritzen den aztertzen du. Ideologia, beronen baitan utopikoak diren elementuak eta ez direnak bereizten diren heinean, errealitatearen ezagutza zientifikoa lortzeko tresna egokitzat dauka.

Ideologiaren kontzeptua eta zereginak

Ideologiaren kontzeptuak zein bilakaera historikoa izan duen ikusi ondoren, galdetu behar da ea egungo diskurtso zientifikoetan ideologiaz ematen ote den onarpen amankomunik. Erantzuna ezezkoa da, ideologiak ez baitira desagertzen. Gertatzen dena da ideologia desberdinak daudela eta horietako bakoitzak bere eduki espezifikoa dauzkala. Zailtasunak oraindik gehiago nabarmentzen dira politikaren esparrura inguratzen garenean. Ezkerrak zein eskuinak, biek zentzu konbentzionalean erabiltzen dituzte ideologiak. Besteen ideiak dira kutsu ideologikoa dutenak, hots, utopiak, edota errealitatearen aurpegia estaltzeko erabiltzen direnak. Zentzu honetan, M. Pastor Martínez, F. Vallespin Oña eta R. García Cotalero autoreek²⁷, adibidez, indar gutxiagorekin ala gehiagorekin idearium edo praxi politikoetan indarrean egon diren edo dauden ideologia politiko garaikideen artean hamabi pentsamendu-korronte izendatzen dituzte, zehazki jarraiko hauek: liberalis-

²⁶ Gurvitch, G.: *La Vocation actuelle de la Sociologie*, PUF, Paris, II. vol, 3. arg., 1963, 287-288; G. Rocherrek aipatua, op. cit., 126.

²⁷ "Ideologías políticas contemporáneas", I-II, in García Cotarelo, Ramón y Paniagua Soto, Juan Luis (comps.): *Introducción a la ciencia política*, UNED, Madrid, 3 arg., 1995, 357-456.

moa, demokrazia, anarkismoa, kontserbadurismoa, hasierako komunismoa eta sozialismo utopikoa, anarkosindikalismoa, sozialismoa, komunismoa, kristaudemokrazia, populismoa, faxismoa eta izkierdismoa. Guk aztertuko ez baditugu ere, sakondu nahiz izanez gero, erreferentzia interesgarriak dira, ideologiaren eragina gehienbat bizitza politikoan islatzen baita.

Horregatik, zaila da, ezinezkoa ez esatearren, ideologiaren definizio onargarriak aurertzea. M. Puelles Benítezek Lucas Verdúren esaldi hau aurretzen du: "Ideia, sineste edo konbikzio, aurreiritzi eta sentimenduen multzo bat da, gizartea edota, oraindik zehatzago esateko, botere politikoa antolatze-ko moduaren gainean, horren erabileraren eta horrek dauzkan helburuen gainean eraikitzen dena"²⁸.

Nolanahi ere, Zientzia Politikoaren ikuspegiak eskaintzen den definizio horretaz aparte, G. Rocherrek, azken ekarpen empiriko eta teorikoak jaso ondoren, F. Dumontek dakarren hau hautatzen du, Soziologian erabiliagoa dena: "Ideia eta judizioen sistema bat da, esplizitua eta normalean antolatua izaten dena, talde edo kolektibitate baten egoera deskribatu, esplikatu, interpretatu edo justifikatzeko erabiltzen dena eta, gehienbat baloreetan oinarrituz, talde edo kolektibitate horren ekintza historikoari buruz norabide jakina proposatzen duena"²⁹.

Azken definizio honetan, hiru elementu agertzen dira: a) ideologiak era sistematikoa erakusten du, koherentea, antolatua, doktrina baten eitea duena; b) balore-sistema batean oinarritzen da, zeinek mundu-ikuskerari buruzko razionalizazioa eskaintzen baitu; c) zeregin konaktiboa betetzen du, kolektibitatea helburu bati buruz jardutera bultzatzen baitu.

Dena den, bi definizio horietan azaltzen denez, garbiki azkenengo definizio soziologikoan, ideologia baloreen munduan oinarritzen da, batik bat. Eta dakigunez, zaila da baloreak positibisten neurritz justifikatzea, horiek, izate fisikorik ez izatean, ez baitira maila berean egiaztagarriak.

Egia da, ideologia politikoetan, hauetan bereziki, justizia, ordena, guztien ongia, interes orokorra eta hauen antzeko beste kontzeptu batzuek jomuga desiragarri baten edukia gordetzen dute eta berorien aldarrikatzaileek gizarte zuzenago, zorientsuago eta beteago baten lorpenean finkatzen dituzte beren egitarau-xedeak. Ikuspegi moralista honetatik askotan teologia eta

²⁸ Verdú, L.: *Principios de Ciencia Política*, Tecnos, Madrid, 3. arg., 1977; M. Puellesek aipatua, op. cit., 44.

²⁹ Dumont, Fernand, "Notes sur l'analyse des idéologies", *Recherches sociographiques*, vol. IV, 2, 1963, 155-165; "Idéologie et savoir historique", *Cahiers internationaux de sociologie*, vol. XXXV, juillet-décembre, 50; G. Rocherrek aipatua, op. cit., 127.

utopia politikoak sortu izan dira, amestuz, adibidez, ondasunen komunitatea, jabetza pribatuaren ezabapena, bake-giro iraunkorra, zorientasun-egoera gozoa, kosmosaren giza kontrola, eta gehiago.

Horrelako ikuspegi idealizatuak nagusitzen direnean, soziologia espekulatiboan erori eta errealtateaz ikuspegi faltsua emateko arriskua dago, utopiarako jauzia hutsaren gainean, hots, ametsen gainean egiten delako. Horregatik, autore batzuek ez diote ideologiari eduki zientifikorik ematen. Honela, Max Weberrek ez du onartzen kontzeptu horren zientifikotasuna, honentzat ideologia baitira modu enpiriko batez egiaztatu ezin diren ideiak, sinesteak, aurreiritziak eta sentimenduak. Razionala ez den guztia, bada, ideologia da.

Baina weberiar ikuspegi horrek ere, kritika batek baino gehiagok ikusi duen bezala, adibidez Beltránek, badu zer zuzendurik, zeren haren razionaltasuna enpirikotasun hutsean hasten eta bukatzen baita. Ez al dira sartzen gogoeta razionalaren erresuman esparru axiologikoari dagozkionak? Nola salbatzen dira baloreei buruzko helburuak? Errealtatearen eta utopiaren arteko zubia zerk mugatzen du? Nola elkartzen da? Berriró Mannheimen planteamenduetara goaz. Ideologiaren arazoak lehen bezain zutik dirau, zeren, azken batean, jokuan dagoena errealtatera hurbiltzeko interpretazio-eskola desberdinek eskaintzen duten zientifikotasuna baita eta, maila horretan, Max Weberren eredu interpretatzailea bezain zilegizkoak izan daitezke, printzipioz bederren, besteak, hauek izan daitezela marxistak, funtzionalistak, interakzionalistak, kritikokoak edo bestelakoak. Zuzenago ibiliko ginatke, agian, baldin bagenio paradigma guztiak direla elkar-osagarri. Izango dugu Max Weberrengana berrizultzeko parada.

Ideologiak eta alternatiba politikoak

Ideologiak, batik bat, garaian garaiko alternatiba politikoetan gauzatzen dira. Egun neoliberalismoa, sozialismoa, marxismoa eta komunalismoa nagusitzen dira gehienbat. Neoliberalismoaren barrutian sartzekoak liraterke kristauderr-okrazia zein sozialdemokrazia. Bestalde, sozialismoaren eta marxismoaren arteko bereizketa egiten bada, oraindik indarrean dauden Estatu liberalek eta sozialistek gizarte-eredu desberdinak ordezkatzeko dituztelako egiten da horrela. Nazio etnikoek, berriz, iraupen luzeko gizarte-errealtatea gordetzen dute eta, nahiz eta horien borroka une jakin batean iraultzarako protagonisten zerrendatik uxatua izan eta nazio-mugimenduek historiaren trena galdu: zutela pontifikatu, nazio-arazoa da gatazkarik gehien sorrarazten

ari dena Europako Ekialdean zein Mendebaldean. Ideologiek ari garenez, esan behar da, sozialismoarekin batera, alternatiba berriak nazionalismoaren fenomenoarekin kontatu beharra daukala. Alternatiba politikoak landu, aurrikusi eta proposatzea, azken batean, politikarien egitekoa denez gero, ez goaz hemen horien lekua hartzera, gehienez ere gogoeta-tresna batzuk eskaintzera baizik.

Eta demokrazia, zer? Guztiek inbokatzen dute, guztiak dabilta hura salbatu nahian. Baina demokraziale porrokatuenek ere aitortzen dutenez, gurean Gurutz Jáureguik bezala³¹, kontzeptu hori aspaldion noraezean barneratua aurkitzen da, bidegurutze batean bezala ez aurrera ez atzera egin ezinda, nahiz eta Robert Dahl ahalegintzen den demokraziaren bertuteak aldarrikatzen eta hiritarrentzat demokraziari buruzko azalpen teorikoa egiten, zeinetan, demokrazia ideala eta erreala bereizi ondoren, demokrazia politikan gauzatu ahal izateko aldeko eta aurkako baldintzez ari baita³². Era berean, Chantal Mouffe autoreak ere ezkerren etorkizun politikoa errotiko demokrazian ikusten du³³, baina neoliberalismoaren barruan arazoituz. Praxi politikoan, ordea, gizarte neoliberallean bezala sozialistan, demokrazia jadanik mito bihurtua da, hitz birrindua, politikoez eta intelektual organikoek beren bizitzak eta jokabideak justifikatzeko barra-barra darabilten edukirik gabeko aldarrikapen formal hutsa besterik ez dena, instituzionalismoak —partitokraziak, bereziki—, irentsia daukana. Manuel Castellsek dioen bezala³⁴, komunalismoan oinarritzen diren azken garai hauetako herri-mugimenduen gorakadak jarri du agerian demokraziaren falazia. Politikariek esaten dutenaren kontra, erregimen demokratiko izenekoek oso gutxi dute herri-ordezkariztatik.

³¹ *La democracia en la encrucijada*, Anagrama, Barcelona, 1994.

³² *La democracia. Una guía para los ciudadanos*, Taurus, Madrid, 1999.

³³ *El retorno de lo político. Comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*, Paidós, Barcelona, 2000.

³⁴ “El ascenso del comunismo en sus diferentes formas debilita el principio de participación política en el que se basa la política democrática” (*La era de la información. El poder de la identidad*, II, op. cit., 341-342).

II

POLITIKA ETA BOTEREA

Hiztegiatara joan eta politikak zer esan nahi duen begiratzen badugu, *La-rousse*-n adibidez, ohartuko gara kontzeptu horren inguruan adiera asko agertzen direla: Estatua edo gobernuia gidatzeko jardunak, ekonomian nahiz hezkuntzan nahiz osasunean nahiz beste edozein gizarte-ekintzatan helburu jakin batzuk lortzeko erabiltzen diren prozedurak, bizitza publikoan parte hartzeko erak eta jardunak, gizarteko harremanetan jokatzeko moduak. Eta abar.

Zentzu hertsia goan, ordea, politika esatean, gizarte baten barruan sortzen diren harremanak adierazteko erabili ohi da. Baina ez edozein gizarte-harreman —senitartekoak, erlijiosoak, ekonomikoak, sozialak edo bestelakoak—, modu batera edo bestera botere-harreman espezifikoak adierazten dutenak baizik. Horregatik, politikaz jardutean, beti agertu ohi da alboan boterearen kontzeptua, zeinaren bidez gizarte politikoan gauzatzen diren menpe-tasunezko harreman hierarkizatuak adierazten baitira: hots, agintarienak eta menpekoenak, goikoenak eta behekoenak. Harreman politiko guztietan konstante bat dugu, bada, gobernatzaileak eta gobernatuak izatea. Boterezko harreman horietan finkatzen da, hain zuzen, politika.

Gaurko gizarte aurreratuetan agertzen den boterea, normalean, estatu-boterearekin eta honi atxikiriko erakundeekin berdintzen bada ere, hura eman, modu batera edo bestera, gizarteko harreman-mota guztietan ematen da eta haren ondorioak argienik gatazka-egoeretan islatzen dira. Eta ez bakarrik gizarte-egitura instituzionalizatuetan, baita pertsonarteko harremanetan ere, bata besteari, arrazoi bategatik edo besteagatik, obediartzen dion heinean. Boterea bere esku daukan erakundeak zein taldeak bere probetxurako erabiliko du hura eta normalean, gainera, kontrakoen kaltetan.

1. Gizarteko harreman bertikalen nagusitasuna Erregimen Zaharrean

Etimologiaren aldetik, *politika* hitza, grekozko *polis* hitzetik dator, etorri, “hiria” esanahiarekin. Antzinateko Grezian, *polis* hura “hiri-estatua” zen, orduan hiri bakoitzak Estatu bat baitzuen. Honelakoak genituen Atenas, Esparta eta.

Tracizio grekoan³⁵, Platonentzat politika gizakiaren berezko izaerari zegokion atributua zen, barbaroari kontrajarriz definitzen zena. Geroztik, Aristotelek gizakia *zoon politikón*, animalia politikoa alegia, zela esan zuenean, gizakiaren berezko izaera definitu zuen, Platonen zentzu berean, baina ez inola ere politikaren muina. Aristotelek, gizakia animalia politikoa zela zioenean, grekoek giza bizitzaz zeukaten tradizio antropologikoa jaso besterik ez zuen egin, zeinaren arabera *polis*-a, hiri-estatua, baitzen giza existentziaren batasun betea osatzen zuena. Beraz, bizitza politikoan edo politikan, grekoak ez zuen ikusten bizitzaren zati bat edo alderdi bat soilki, gizakiaren zerizana bere osotasunean baizik.

Aristoteleseren antropologia honetan, areago zehaztuz, animalia *politikon*-en aurrean animalia *idion*-en irudia aurkitzen zen kontrajarria. *Idion* edo gizaki ez-politiko hau, izan, gizaki ez-osoia zen, gizaki izatera iristen ez zena, zerbait falta zitzaiona (idiota bat egungo adieran), eta hala zen, hain zuzen, bere hirian osotasunez parte hartzera iritsi ez zelako. *Idion* zen garai bateko gizaki nomada eta basatia. Gizaki politikoa, aldiz, gizaki oso eta betea zen, hirian eta hiriarentzat bizi zelako. Honek esan nahi du gizaki libre eta osoa izateko beharrezkotzat jotzen zela arduraren politikoak hartzea eta politikan konprometitzea.

Polis-en partehartzetik edo, bestela esanda, *koinomía*-n, hots, komunitatean bizitzetik zetorkion, bada, gizakiari bere izaera soziala, bere izaera politikoa. Honek suposatzen du norberaren interesak eta hiriarenak bat zetozela, bien artean sinbiosia zegoela.

Ondorioz, esan dezakegu greziar pentsamenduan animalia politikoa eta animalia soziala gauza bera zirela. Gauza bera ziren bizitza politikoa eta bizitza kolektiboa, hots, batera bizitzea. Gauza bera ziren bezala gizartean esparru soziala eta politikoa.

Dena den, Giovanni Sartorik ematen duen azalpenaren ondoan, albo-har gisa, xehetasun historiko batzuk eman beharra dago. Izan ere, gauza jakina da Greziako gizartean klaseak bazeudela, gutxienez hiru bederen bai:

³⁵ Sartori, Giovanni: *Elementos de teoría política*, Alianza, Madrid, 1992, 205-224.

esklabuak³⁶ —hauek ez jabetzarik ez eskubiderik ez zutenak—, metekoak edo atzeritik etorritako egolariak —hauek eskubideak, bai, baina jabetzarik ez zutenak—, eta, azkenik, jadanik aipaturiko hiritarrak. Azken hauek dira ondasunen jabetza eta eskubideak, biak dituzten bakarrak. Beno, bada, ez esklabuek eta ez metekoek, nahiz hauek libreak izan, ez zuten haizu hiriko bizitza politikoa parte hartzea. Esklabuek osatzen zuten mailarik apalena eta beroriek ziren, metekoekin batera, lanaren zamarik handiena zeramatenak. Greziar langileriak, beraz, ez zuten politikarako sarbiderik. Politikagintzan aritzea aisian bizi zen goi-klasearen pribilegioa zen. Ez gehiago eta ez gutxiago. Greziar demokraziaren funtsa, bada, testuinguru honen barruan ulertu behar da. Antzinateko gizarte-antolakuntza honi, Grezian bezala Espartan, baina hemen argiago, totalitarismo-kutsua ere aurkitu izan diote batzuek³⁷.

Horregatik, Giovanni Sartorik proposatzen duen greziar *polis*-en ereduak berdintasunetik baino gehiago du desberdintasunetik, greziar populazioaren zatirik handiena —lautik hiru baino gehiago—, *polis*-etik baztertua bizi baitzen. Esklabuak, azken batean, gizaki izatera iristen ez ziren *idion* batzuk genituen. Eta meteko kanpotarrei, berriz, hauek gizaki libreak ziren arren, hiritar izatea ukatzen zitzairen. Horra! Greziar demokrazia honen neurriak gaurko Europa demokratikoa aplikatuko balira, populazio inmigratuak ez hauteskondeetarako ez beste gizarte-erabakietarako izanen luke sarbiderik. Bego hau parentesi modura esana.

Greziar tradizioetik erromatarren kulturara pasatzean, ordea, aldaketa semantiko nabaria eman zen hiriari buruzko ikusmoldean. Gertakari honek badu bere azalpen historikoa, eta da erromatarrek greziar kultura beretu zuten garai hartan, garai bateko greziar hiriak eta erromatar Inperioko hiriak ez zirela ez egitura, ez neurri eta ez izaera berekoak. Grezian *polis*-aren paradigmarik tipikoa Atenakoa zen, bai lurraldez eta bai biztanlez txikia, guztira 300.000 biztanle ingurukoa³⁸. Erromatar hirien antolaketa inperialistan, ordea, ez zen aise hiritarrak oro hiri-bizitzan parte hartzea eta gizaki politiko osoa izatea, handiagoak eta konplexuagoak baitziren. Greziarregandik gorde zuten, bai, egitura politikoa, Errepublikarena alegia, eta, era berean,

³⁶ Demokrazia greziarrez aritzean, esan behar da, Perikleren garaian gehienez ere, populazioaren % 20-25 bakarrik zela "hiritarra", hots, politikan parte hartzeko eskubidea zeukana (Antxustegi, Esteban: *Demokraziaren historia*, Gaiak, Donostia, 1998; halaber, *Argia*, 4-10-1998, 46).

³⁷ "Por supuesto, una organización social de este tipo conlleva bastantes ragos antiliberales (evidentes en el caso de Esparta y latentes, pero reales en el de Atenas) con un peligro de totalitarismo" (García Cotarelo, R., "Las formas preestatales de dominación política", in García Cotarelo, R. (comp.): *Introducción a la teoría del estado*, Teide, Barcelona, 1990, 26.

³⁸ Sabine, George: *Historia de la teoría política*, FCE, México, 1974, 15.

ahalegindu ziren terminologia politikoa latinera itzultzen, baina kontzeptu politikoak itzultzeko orduan, esan bezala, errealtate politiko desberdinekin aurkitu ziren itzultzaileak. Eta hemen du bere sorrera erromatar tradizioak.

Izan ere, greziarren *polis* eta *polités*, erromatarrek *civitas* eta *civis* hitzen bidez itzuli zituzten. Baina erromatarren *civitas* honek greziar *polis* hark ez zituen ezaugarriak izanen ditu eta hemen sortzen dira desberdintasunak. Batetik, erromatar hiria *civilis societas*, hots, gizarte zibil gisa egituratzen da eta honen mugak zabalagoak eta nahasiagoak gertatzen dira; bestetik, *civitas* hori maila juridikoan antolatua agertzen da eta, honela, *civilis societas*, aldi berean, *juris societas*, zuzenbidezko gizarte bilakatzen da.

Beraz, lerrakuntza semantiko nabarmena ematen da, alderdi juridikoak hartzen baitu lehengo politikoaren lekua. Aldakuntza, bada, funtsezkoa da. Zizeronek jadanik esana zuen *civitas* edo erromatar hiria legearen adostasunean oinarritutako giza kolektibitateak osatzen zuela, ez edozeinek. Geroztik, Senekarentzat eta, oro har, estoikoentzat gizakia ez da animalia politikoa izanen, *social animal* baizik, animalia soziala alegia. Erromatarrek munduko hiritarrak sentitzen dira, kosmopolitismoaren izaera sozio-etikoa agertzen dute.

Honela, sinbiosi batean elkarturik zeuden greziar ereduko gizaki politikoa eta soziala desegitean, politikoaren esparrua eta sozialarena bitan banatzen ditu erromatar ereduak. Eraldakuntza honetan, bi puntu azpimarratu behar dira: bata da *social animal* eta *politicum animal* ez direla gizakiari dagozkion bi alderdi, bi antropologia baizik, zeinaren arabera sozialak ordezkatzeko baitu politikoa; bestea da gizarteko harremanetan boterearen egitura-keta bertikala finkatzen dela. Honetaz geroago jardungo dugu. Dena den, esan dezagun, Erdi Aroko itzultzaileek *sozial* hitza Aristoteleri egotzi bazioten ere, jatorriz ez dela grekoa, latinoak baizik. Geroago, San Tomas Aquinokoa izango da Aristoteleren *zoon politikón* hura zuzen itzuliko duena, horren baliokidetzat “animalia politiko eta soziala” emanez eta segidan gaineratuz gizakiaren izateari dagokiola gizartean bizitzea.

Gauza bat da, erabilerari dagokionez alegia, gizarteko harreman politiko horiek menpekotasunezkoak gertatzen direla esatea, eta beste bat desberdina halakoak izan beharko luketela edota, bederen, teoria politikoan halakotzat hartuak izan direla beti egiaztatzea. Hemen ere, literatura politikoari dago-kionez, tradizio latinoak grekoari nagusitu izan zaio eta gizarteko harreman bertikalak izan dira nagusi iraultza burgesa burutu zen arte.

Nolanahi ere, greziar tradizioan ez da agertzen irakurketa bertikala egiteko sarbidea eman dezakeen lexikorik, guztien erroan dagoena hiriaren kontzeptua baita: *polis*, *polites*, *politikós*, *politiké*, *politeia*. Ez da agertzen ez

hitz horietatik latinera egindako itzulpenetan ere, ezta Erdi Aroan horiei buruz egindako azalpenetan ere. Platonen *Errepublika* hiriarri zegokiona zen, *Politéia* alegia. Era berean, greziar terminologia latinez eman zuten erromatarrentzat ere, *Res publica* hura izan, komunitate osoaren gauza zen, guztiena. Zizeronek *Res populi* zioen, hots, herriaren egitekoa. Erdi Aroko itul-tzaileek, orobat, Aristoteleren Errepublikari *Optima republica* deitzen zioten. Erreferentzia guztiotan garbi ageri da politikari buruzko irakurketa horizontala. Eta horizontaltasunaren tradizio hau nahikoa ongi islatua agertzen da ingelesen *Commonwealth*-en ere, zeinek “guztien ona” adierazten baitu, guk on publikoa edo interes orokorra deitzen dioguna.

Nikolas Makiavelo baldin bada ere lehen aldiz erabiltzen duena Estatuaren kontzeptua zentzu modernoan, gizarte-bertikaltasunaren ideia, politikari atxekia, erromatar tradiziotik zetorrena zen. Izan ere, latinez pentsatzen zuen mundu harentzat greziarren *Res publica* edo *Res populi* hura helenismo bat zen, erromatar Inperioan beste eduki semantiko bat zuena. Lehen esan bezala, erromatar Inperioko hiri-harremanak ez baitzeuden hiritarren berezko harremanetan oinarrituak, zuzenbide-kodean baizik, horrela esplikatzeko da *Res populi* bezala eraturako Inperioan harreman bertikalak nagusitzea. Bobinok dakarrenez, XVII. mendea arte bederen, Ilustrazioa arte, erromatar lexikoan bertikaltasunak izen hauek hartzen ditu: *principatus*, *regnum*, *dominium*, *gubernaculum*, etab.

Erdi Aroko eta Errenazimentuko autoreek bi erregimen-mota garbiki bereizten zituzten garai hartako dominio kolonialetan: hots, *dominium politicum* eta *dominium despoticum* deituak, hurrenez-hurren horizontaltasunaren eta bertikaltasunaren ezaugarri zirenak. Lehenengoak “Estatuak gabeko gizartea” adierazten zuen, *civilis societas* erregimenari zegokiona, zeinetan biztanleek autonomia politiko-kulturala handiagoa baitzuten, baina erromatar eskubide gutxiago. Bigarrena *principatum* erregimenari zegokiona zen, eta hor biztanleek *juris civitas* izeneko erromatar arauetan oinarritutako hiritar eskubideak zituzten, baina lekuko kultura eta autonomia politikoa murriztu egiten zen eta, halaber, menpekotasunezko harreman bertikalak nagusitzen ziren.

Beraz, izaera horizontaleko lehen ereduak herritarren autonomia handiagoa bermatzen zuen, lekuko kulturaren aldekoagoa zen, nahiz erromatar eskubide gutxiago izan; eredu bertikalean, aldiz, erromatar legeriak aitortutako hiritar eskubideez gozatzeak, kontrakarrean, lekuko kultura eta politika autonomia murriztea zekarren.

Europako Estatu-nazioak eraikitzen direnean XIX. mendean, bi eredu horiek, neurri handiagoan edo txikiagoan presente aurkitzen dira. Hegoaldean, erromatar tradizioak eragin bortitza izan duen geografia politikoan, adi-

bidez, frantziar ereduko Estatu zentralista eta uniformatzailea nagusitzen da eta foru-tradizio horizontalean errotutako Euskal Herriari hor egotea suertatzen zaio, gizarteko harreman bertikalen esaneko. Indoeuropar kulturaren eraginpean garatzen diren iparraldeko herrialdeek, aldiz, Estatu deszentralizatuagoak osatzen dituzte, Ingalaterraren eredu historikoari jarraiki.

Lerrakuntza semantiko honen urratsak 2. taulan daukazu laburbilduta, zinetan hiru tradizioak konparatzen baitira: greziarra, erromatarra eta euskalduna. Euskal historiografian tradizio luzea duen interpretazio baten arabera, euskal zuzenbide publiko zaharrak ez dauka zerikusirik Gaztelako erresuman finkatzen den erromatar erroko zuzenbide publikoarekin.

2. taula: Erromatar zibilizazioaren eragina Europako Mendebaldean eta euskal tradizioan

Greziar tradizioa	Erromatar tradizioa	Euskal tradizioa
<i>Zoom politikón</i>	<i>Animale sociale et politicum</i>	Animalia politikoa
<i>Idion</i>		<i>Barbaroa, esklaboa</i>
<i>Políteia</i>	<i>Res publica</i>	Errepublikak
<i>Koinomía</i>	<i>Societas civilis</i> <i>Societas juris</i>	Komunitatea Auzoa Etxea
<i>Demos</i>	<i>Populus</i> (pueblo, <i>peuple</i>)	Populua
<i>Ethnos</i>	<i>Populus</i> (pueblo, <i>peuple</i>)	Herria
<i>Polis</i>	<i>Civitas</i> (ciudad, <i>cité</i>)	Hiria
<i>Polítes</i>	<i>Civis</i> (ciudadano, <i>citoyen</i>)	Hiritarra
	<i>Ius utendi, fruendi et abutendi</i> Derecho de usar, gozar y abusar Propiedad privada	<i>Ius utendi et fruendi</i> Ondasunak erabiltzeko eta horiez baliatzeko eskubidea Jabetza mugatua: elkartearena
Naturazko legea Sozio-politikoaren	Zuzenbidezko legea Juridikoaren aldarrikapena	Ohiturazko zuzenbidea Berdintasuna legearen aurrean

Horrelakoa da, hitz gutxitan esanda, G. Sartori egileak politikaz daukan ikuspegia, funtsean liberala dena³⁹. Honen ustez, Estatu libre batean garatzen diren gizarte libreak ditugu demokrazia liberalak. Autoarautzeko gauza den gizarteari deitzen zaio askea, zeina, berrorekatuz joan dadin, mekanismoen eta indar konpentsatzaileen bidez egituraturik baitago. Gizarte aske honetan hor dago Estatua, hor daude bortxazko botere-harremanak, hor egitura hierarkikoak eta aginduzkoak, hor desberdintasunak eta gatazkak. Horiek guztiak aurrikusiz, gatazka-egoeran aske egiten duena, hain zuzen, gehiegizko boterea neutralizatzeko gaitasuna duen botere-egitura da. Sartoriren ustez, ez da ematen ezein indar partikularik (ez politikorik ez sindikalik ez klase bate-nik) beste indar guztiei aurre egin diezaikeenik, baldin hauek haren aurka elkartzen badira. Horregatik, gizarte bat aske izan dadin, gatazka-egoeran egon arren, oreka dinamikoari eutsi behar dio⁴⁰.

Bestalde, hirugarren zutabeaz azaltzen den bezala, erromatarren zibilizazio-ukipenik izan ez duen ohiturazko euskal zuzenbidea horizontaltasunean oinarritzen da eta hor ez da agertzen jabetza pribaturik; erromatar zibilizazioaren arabera eraldatzen den Gaztelako zuzenbidean, aldiz, bertikaltasuna nagusitzen da eta ondasunen jabetza pribatua aldarrikatzen du zuzenbideak.

2. Boterea eta Estatua

Orain arte Estatuaren ezaugarri nagusiak aipatu ditugu. Komunitate politikoak —hau gizarte zibilaren parekide gisa hartuta, liberalismoak ulertzen duen eran, alegia—, Estatua baino errealtate-esparru zabalagoa hartzen du, esan nahi baita han ematen den kontrola soziala dela eta ez politikoa⁴¹. Alabaina, politikaz hitz egitean, eskuarki, boterearen erabileraz hitz egin ohi da, hots, Estatuari bortxaz kontrolatzeko aitortzen zaion zentzuan, nahiz eta estatu-botereaz at beste botere-motarik ere baden, hala nola: ekonomikoa, militarra, erlijiosoa... Kontua da jakitea nola harremandurik dauden botere-mota horiek eta, sakonagora joanda, zein den, azken batean, boterearen muina.

Botereari buruz asko teorizatu izan da Gizarte-Zientzietan. Ez gara hemen hasiko boterearen izaera zein den aztertzen, baizik eta, hari buruz teo-

³⁹ Op. cit., 205-224.

⁴⁰ Ibid., 269.

⁴¹ Ibid., 215.

ria bat baino gehiago dagoela esan ondoren, azalpen orokorra egitera mugatuko gara.

Botere-errealitatera hurbiltzeko eratako bat da, hain zuzen, jakitea zein ikuspegitatik abiatuta aztertzen den, gizabanakoen mailatik ala egiturenetik. Zentzu honetan, autore batzuek, hauen artean Max Weber, Dah, Wrongek eta, boterearen muina gizabakoengan kokatzen dute erakunde edo gizarte osoetan baino lehenago; beste soziologo batzuek, hauen artean Parsons, Deutsch, Luhmann, Poulantzasek eta, justu alderantzizkoa diote. Hautentzat boterea, beste ezer baino lehen, gizarte-egiturei dagokien propietate bat da eta ez gizarte-egitura osatzen duten gizabanakoena.

Boterea mugatzeko era desberdin horiek azaldu ondoren —dauden beste definizio-mota batzuk at utzita noski—, ageri da boterea eta Estatuaren harremanetik daudela eta, nahiz kontzeptu baliokideak ez izan, autore batzuek botere politikoa eta estatu-boterea berdin bezala egiten dituztela praktikan.

Globalizazioa dela eta, Estatuaren krisian dagoela esaten da. Hala ote? Oraingoan, demagun, bizi direla Estatuak eta galde dezagun botereak nola funtzionatzen duen Estatuaren bidez. Beraz, segidan, Estatuaz, oro har, nola teorizatu duten aztertzea mugatuko gara. Hemen, autore asko liratekeen arren aipatzekoak, hiru bakarrak ekarriko ditugu: Weber, Poulantzasek eta Manuel Castells. Guk hemen, aukera bat egin beharrez, guretzat estatu-boterearen izaera eta mekanismoa ondoen islatzen duten hiru ikuspegi horiek azalduko ditugu segidan, abiapuntu desberdinetatik datozenak izan arren, zenbait puntutan osagarri izan litezkeenak baitira. Hortik doa gure aukera.

Max Weber: Estatuaren legeak eta boterearen monopolioa

Ikuspegi indibidualetik begiratuta botereari buruz formulatu izan den definiziorik ezagunenetakoa bat, Max Weberren hau da: “Pertsona batek edo lagun-talde batek ekintza komun batean bere borondatea egiteko daukan ahalbidea da, eta egitekoa, gainera, ekintzan parte hartzen duten besteek agertutako erresistentziaren aurka”⁴².

Autore horren ustez, gizakiak zerbait lortzeko asmoarekin borrokatzen denean, ez du egiten bere xede ekonomikoengatik bakarrik, baita botereak bere baitan ezkatzen duen gizarte-ohorearengatik ere.

Boterearen kontzeptutik gatozen orain Estatuarenera, haren ustez, bereziki hor islatzen baitira ondoenik haren ondorioak. Lehen Estatuaren hainbat

⁴² *Ensayos de Sociología contemporánea*, Ediciones Martínez Roca, Barcelona, 1972, 221.

ezaugarri deskribatu ditugu, baina azken hau da, zalantzarik gabe, garrantzitsuena. Botereak esan nahi du Estatuia nortasun juridiko baten jabe egiten dela eta, horri esker, Estatuia eskubide eta betebeharrak publikoaren subjektu bilakatzen dela. Boterearen monopolio hau Konstituziotik beretik eratortzen dena da.

Baina Estatuia izan, funtsean —eta puntu hau guztiz da oinarrizkoa—, *legezko bortxa fisikoa eta psikikoa monopolizatzen* duena da. Bere orokortasunean hartuta, esan dezakegu, Weberrekin batera, gizarte baten barruan legezko bortxa monopolizatzen duen boterea dela Estatuia. Honek kontraktarean inplikatzeko duen bortxa partikularra edo sektoriala legezkontrakoa dela, ez-legitimoa, alegia. Nazio-gatazka zilegitasunez erabakitzekeo bortxa erabil dezakeen botere politiko bakarra, E. Gellner modernistak dioenez⁴³, berea da. Barne-gatazka espezifikoei behartuko dute Estatuia erabaki jakin batzuk hartzera egoera bakoitzean. Beraz, legezko bortxa erabili ala ez, eta zein neurritan, testuinguruak agintzen du. Gatazkek gainezka egin ez dezaten, Estatuak gizarte-ordenari eutsi behar dio. Hau du bere egiteko nagusia eta horretarako dauzka ezarriak, bere esanera, aparatu militarra eta auzitegiak.

Estatuak dauka legezko bortxa fisiko zein psikikoaren monopolioa. Boterearen alderdi hau ondoenik Weberrek aztertzen du eta hemen harena azaltzera mugatzen gara. Hementxe datza, hain zuzen, liberalismoak sortutako Estatu liberalaren izaera demokratikoa bilutsik jartzen duen puntua. Azken batean, Estatu demokratikoaren boterea iraunkor eta egonkorra, hots, eraginkorra izan dadin, hura ez bakarrik konstituzio-legerian, baita praktikan ere, haren bidez bortxa fisikoaren zein psikikoaren erabileran oinarritzen da. Konstituzioaren bermatzaile nagusi izan, armada da, berez eta helburuz indar zapaltzailea dena, erasotzailea eta helburu horretarako, hain zuzen, diru publikoz handikoro finantzatua dena. Jakizu hezkuntzarako aurrekontuen aldean kopuru handiagoak esleitzen direla indar armatuentzat, orokorrean mundu zabalean eta baita gure herrian ere. Zorionez, oso berandu bada ere, ohartu dira Euskal Herriko sindikatu eta gizarte-kolektibo batzuek gastu militar hauen desarrazioak eta politika honen kontrako kanpainak antolatu dituzte⁴⁴.

⁴³ *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madrid, 1988, 15-18.

⁴⁴ NBEko datuen arabera, 1999ko mundu-aurrekontuetan 780.000 milioi dolar inbertu ziren gastu militarretan, oinarrizko irakaskuntzarako 6.000 milioi dolar baino esleitu ez ziren bitartean. UNESCOko Bakearen aldeko Katedrak argitaratutako datuen arabera, Espainiako Estatuak, 1999ko aurrekontuetan, 2,3 bilioi pezeta esleitu zituen gastu militarretarako eta kopuru hau, armada profesionalizatzekeo prozesuan sartua dagoela eta, gehituz etorri da 1994az geroztik. EAEn, halaber, 1999an egunecan (sic) 675 milioi xahutu ziren gastu militarretan (*Gara*, 2000/04/28).

Estatua, asoziazio politiko bat den aldetik, weberiar soziologiaren ikuspuntutik begiratuta, ezin da definitu helburuei begira, berari dagozkion bitarteko espezifikoei begira baizik. Estatua, batez ere, bortxa fisikoaren erabilera ezaugarritzen du. Puntu honetan Weber erabat bat dator Trotskyk, orduan gerrarako komisarioa zenak, Brest-Litovskeko Itunekoan (1918) esandakoarekin, “Estatu oro indarrean oinarritua dagoela”, alegia, zeren bortxaren erabilera horrekin harreman dutako gizarte-erakunderik ez balego, anarkia hutsa izango bailitzateke. Jakina, indarra ez da Estatuaren bitarteko bakarra, baina bai bitarteko espezifikoa. Honela definitzen du: “Gaur egun, Estatu bat da giza komunitate bat, arrakastarekin monopolizatzen duena indar fisikoaren legezko erabilera lurralde jakin baten barruan”⁴⁵.

Definizio honetan, bada, elementu hauek bereizi behar dira:

Lehenik, esatean giza-komunitate bat dela, oinarritzko elementu subjektibo bat azpimarratzen da, Weberrentzat komunitatea baita “harreman sozial bat, zeinetan, batzbesteko terminotan edota tipo huts-garbiaren argitan hitz eginda, ekintza bat osotasuna osatzen duten partaideen sentimendu subjektiboa (afektuzkoan edo tradizionalan) inspiratzen baita”⁴⁶.

Bigarrenik, lurralde jakin baten erreferentzia egitean, oinarritzko elementu objektiboa aipatzen da. Estatuak oinarrian elementu fisikoa du, bere ekintza geografiaren aldetik gauzatu ahal izateko ezinbestekoa duena eta, halaber, lurralde horretan bizi direnen arteko harreman politiko eta psikosoziala burutzeko erreferente materiala dena.

Hirugarrenik, Estatuak legezko bortxa fisikoaren monopolioa dauka, hots, berak bakarrik du eskubide hori. Honek inplikatzeko du, batetik, monopolio honen efektibitate objektiboa (bere arrakasta) eta, bestetik, gizabanako bakoitzaren eta gizarteko beste talde guztien onarpen subjektiboa. Beraz, ez da nahikoa Estatua kontrolatzen dutenek “agintzea”; aitzitik, areago joanda, Estatuaren menpean daudenek berez “obeditu” egin behar dute: “Es menester que los hombres dominados se sometan a la autoridad de los que dominan en cada caso...”, edota, beste pasarte honetan, “para que exista el Estado, los dominados deben obedecer la supuesta autoridad de los poderes existentes”⁴⁷.

Honek guztiak, ordea, prozesu konplexua gainditzea suposatzen du. Estatuak, honek bere indarra betebeharrak juridiko eta moral bihurtuz, kontzientzia indibidualaren gizarte-kontrola eta bortxa sinbolikoaren produk-

⁴⁵ “La política como vocación”, in *Ensayos de Sociología contemporánea*, op. cit., 98.

⁴⁶ Weber, M.: *Economía y sociedad. Esbozo de sociología comprensiva*, FCE, México, 1979, 33.

⁴⁷ “La política como vocación”, op. cit., 99.

zioan zein erreprodukzioan espezializatutako beste menerapen-asoziazioen lankidetzara behar du.

Arazorik larriena bortxa fisikoa legeztatzea baita, nola justifikatu eta nola lortzen da hori? Edota bestela esanda: menpekoek nola obeditu behar diote boteredunen autoritateari? Boteredunen menerapena zein bitartekoren bidez justifikatzen da?

Menerapena barrutik justifikatzeko hiru modu aipatzen ditu Weberrek⁴⁸. Legitimitatearen oinarria, bada, izango dira: a) menerapen *karismatikoa*, zeinaren barne-justifikazioa profeta edo buruzagi politiko baten baitan sostengatzen baita, horretaratzen duten mekanismo psikosozialak izanik pertsona karismatiko horrengan ezarritako fedea eta konfiantza; b) menerapen *tradizionala*, zeina tradizioari aitortzen zaion autoritatean sostengatzen baita, tradizio-ordena sakralizatuz; c) menerapen *legala*, zeinaren bidez era razional eta inpersonal batez sortutako arauetan finkatutako autoritateari obeditzen baitzaio, sinetsiz legezko arauaren razionaltasunean eta justizia formal eta objektiboan. Estatuari bakarrik dagokio legezko autoritatea. Lege positiboaren indarrean objektibatzen da, hain zuzen, estatu-arrazoia eta ez lege naturalean, zeina, berez, gizabanako orori eta herri bakoitzari baitagokio, inork eman edo aitortu gabe.

Estatua baldin bada ere bortxa fisikoa zein menerapen legala monopolizatzen dituen autoritate bakarra, menderatzeko ez baita aski indar fisiko hutsa, Elizatik eta hezkuntzatik jasotzen ditu bortxa sinboliko eta psikikoa: hots, Elizatik botere hierokratikoa, izpirituala, eta hezkuntzatik botere sekularra. Biok legeztatzen dute Estatuaren bortxa-izaera.

Estatuak bere legitimitatea ohore-boterean oinarritzen du, zeren, boterearen atzetik dabilzanak ez baitira gizarte-klaseak —eskema marxistan bezalala—, estatus-taldeak baizik, eta hauek, faktore ekonomikoez gain, politikoez zein kulturez ere hornituak daude.

Politika egitea, azken batean, gizartean boterea banatzea da: hots, boterea banatzea Estatuaren artean edota Estatu baten barruan bertako talde desberdinen artean.

Estatu-nazioak, kanpoko zein barruko politikagintzan arrakasta izan dezan, ez da nahikoa berori osatzen duten talde guztien aliantza lortzea. Areago oraindik, Estatuaren barruan nagusitzen den komunitate politikoak legitimitatea lortu behar du, eta legitimitate horren iturria bere ohore-boterean aurkitzen da, hots, nagusitzen den Estatuari damaion ohorean, zeina

⁴⁸ Ibid., 99-100.

islatzen baita beste komunitate batzuen edo Estatu-en gainean praktikatzen duen menerapenean. Botere-ohoreak indartu egiten ditu leialtasunak eta legitimitate-konbikzioak sortzen ditu emozioen bidez⁴⁹. Honela, Estatu-nazio batek bere ohorea handitzen duen heinean, ohore hori helburu bihurtzen da eta, ondorioz, bere boterea gehi dezake⁵⁰. Printzipio hauek dira Estatu-nazioen gidari.

Estatu-en arteko kanpo-politikari dagokionez, esan behar da egitura politiko guztiek erabiltzen dutela indarra, baina beste erakunde politiko-en aurrean aurkitzen direnean, neurri eta era desberdinean erabiltzen dutela. Zentzu honetan, Estatu-nazio batzuek beren lurraldea zabaltzera jotzen dute eta maila honetan, hain zuzen, potentzia handien ohorea eta boterea daude jokoan. Esparru honetan kokatzen ditu Weberrek Estatu inperialisten xede ekonomikoak⁵¹. Estatu-barruan, berriz, talde gehigarri gisa aritzen dira burokratak, ofizial militarrek, kapitalistak eta finantzariak, eta intelektualak⁵². Hemen sartzekoak dira, halaber, alderdiak, xedetzat dutenak boterea lortzea edota ekintza komunalei eragitea⁵³. Eta alderdiekin batera sortzen da politikarien irudia ere, hauek, Estatu-nazio garaikidean, bitan banatzen direlarik: batetik, estatu-burokrazian txertatuta dauden funtzionario administratiboak aurkitzen dira eta, bestetik, funtzionario politikoak. Beste pasarte batean, politikoak edo politikaz arduratzen direnak, aldi berean, beste bi taldetan ezarriko ditu: politikarentzat bizi direnak eta, oso desberdina dena, politika bizibide dutenak. Azken hauek ditugu politikari profesionalak, politika bizitzeko sarrera-iturri bihurtzen dutenak⁵⁴.

Azkenik, politika eta etikaren artean ezartzen duen loturaz ere zerbait esan behar da.

Boterea, oro har, eta Estatu-nazioa, zehazkiago, legezko bortxa fisikoan oinarritzen dela esan ondoren, Weberrek politikagintzan gorde beharko litzatekeen jokabide etikoaz dihardu, esanez nola errebindika ote daitekeen etikotasunaren printzipioa bortxan oinarritzen den botere-egoera batean. Berak bi ertz ikusten ditu bateraezinak: batetik, azken helburuen etika eta, bestetik, erantzukizunaren etika. Eta hemen planteatzen du xedeen eta bitarteko-en

⁴⁹ Weber, M.: *Economy and Society*, Nueva York, Backminster Press, 1968, 911; B. Barnesek aipatua, in *La naturaleza del poder*, Pomares-Corredor, Barcelona, 1990, 204.

⁵⁰ Barnes, B. op. cit., 205.

⁵¹ "Estructuras de poder", in *Ensayos de sociología contemporánea*, op. cit., 195-210.

⁵² Barnes, B. op. cit., 203.

⁵³ "Clase, status, partido", in *Ensayos de sociología contemporánea*, op. cit., 238.

⁵⁴ "La política como vocación", op. cit., 103-107.

arteko arazoa, egun ere errepikatzen dena. Berak ez du onartzen helburuen-gatik bitartekoak justifikatzea, jokabide horretan irrazionaltasun etikoa ikusten duelako⁵⁵.

Zergatik ez duen onartzen? Baloreak arrazoizkoak izan daitezkeenik onartzen ez duelako. Irrazionala da, beraz, xede absolutuen alde jokatzeari, etikaren aldetik ezin baita erabaki zein helburuk zein bitarteko justifika ditzakeen. Nolanahi ere, bortxaren arazoa erlijio-mota desberdinetan oso txertatua dago. Protestantismoak, adibidez, erabat legezatu zuen Estatua Jainkozko erakunde gisa eta, ondorioz, bortxa bitarteko gisa.

Weberrek ez du ikusten inolako ezintasunik, ez razionalik ez bestelakorik, Estatuaren esku uzteko bortxa fisikoaren erabilera. Bitartean, ordea, ez ditu aipatu ere egiten nazio-askapenen aldeko mugimenduak. Areago oraindik: iraultza-helburu politiko edo erlijiosoengatik bortxa-bideak erabiltzen diren kasuetan, berak, nahiz eta iraultzaile horiei zintzotasun subjektiboa onartzen dien, mehatxu-, botere- eta butin-nahia besterik ez du ikusten: “No nos dejemos engañar con esta verborrea; la interpretación materialista de la historia no es un taxi que se pueda detener a voluntad; no se exceptúa a los promotores de las revoluciones”⁵⁶.

Beraz, bortxaren legimitatea dela eta, auzitan dagoena ez da ezarritako ordena bermatzearren Estatu-nazioak praktikatzeko duen bortxa fisikoa, berak bere buruarentzat legez aldarrikatzen duena, baina, bai, Estatu-nazio horren legalitate zapaltzailearen aurka jaikitzen den mugimendu iraultzaileak praktikatzeko duen borroka armatua. Kontraesan honek ez du nondik heldurik, Estatu-nazioaren azken xedeak —on kolektiboari buruzkoak—, hauek onenak izanda ere, ezin baitira justifikatu abiapuntzat bortxa fisikoa erabiliz.

Nicos Poulantzas: Estatuaren materialtasun instituzionala

Nicos Poulantzas marxistak, aldiz, boterearen mugaketa estrukturala eskaintzen du, dioenean “gizarte-klase batek bere interes objektibo espezifikoak lortzeko daukan gaitasuna dela, zeina beste klaseek beraienak lortzeko daukaten gaitasunari kontrajartzen baitzaio”⁵⁷. Boterea, klasearteko harremanetan funtsatzen den zerbait da eta hemendik eratoritzen dira beste botere-

⁵⁵ “El defensor de una ética de fines absolutos no puede sostenerse bajo la irracionalidad ética del mundo” (Ibid., 155).

⁵⁶ Ibid.

⁵⁷ *L'Etat, le pouvoir, le socialisme*, PUF, Paris, 1978, 40.

motak oro, barne Estatuarenak. Beraz, botereak bere baitan jarraiko bi ezau-garri hauek ditu: batetik, gizarte-egituretan objektibatzen da, ez gizabana-koengan, eta, bestetik, gizarte-egitura horien barruan klasearteko harreman-etatik sortzen da.

Boteretik Estaturako urratsa emanda, Nicos Poulantzasek dakarrenez⁵⁸, esan dezakegu funtsean lau elementu direla haren materialtasuna osatzen dutenak: hots, lan intelektualaren eta esku-lanaren arteko zatiketa, indibidualizazioaren sakralizazioa, legearen nagusitasuna eta nazioaren eraikuntza. Autore marxista honen tesia da, Estatu moderno kapitalistaren materialtasun instituzionala produkziozko harremanetan eta lanaren gizarte-zatiketan oinarritzen dela, eta hauek, aldi berean, gizarte-klaseekin eta klasearteko gatazkekin hertsiki harremandurik daudela, nahiz eta Estatua, itxuraz, harreman horietatik banandua egon. Horregatik, nahiz eta elementu ekonomikoa ez izan oinarritzkoa Estatuarentzat, honek betetzen dituen funtzio ekonomikoak produkziozko harremanetan oinarrituta egotetik dator kio hari bere espezifikotasuna. Klasearteko harremanek mugatzen dute, azken funtsean, Estatua. Klasearteko harreman hauetan, bada, lau gizarte-fenomeno dira haren egitura nabarmentzen dutenak: lan intelektualala eta esku-lana, indibidualizazioa, legea eta nazioa.

Lan intelektualala eta esku-lana

Lanaren gizarte-zatiketa inplikaturik dago Estatuak burutzen dituen zatiketa guztietan eta honek osatzen du bere espezifikotasuna. Lan intelektualala eta esku-lana zatitzea, boterea erabiltzeko era bat da, harreman politiko-ideologikoetan oinarritzen dena, zeinaren bidez langilea lanerako bitartekoez desjabetzen baita. Eta honek ondorio jakinak dakartza: a) lan intelektualala jakintzarekin berdintzen dela eta esku-lana, berriz, ez-jakitearekin; b) zientzia eta esku-lana banandu egiten direla, hura kapitalaren zerbitzura egoteak zuzeneko indar produzitzaile bihurtzen duelarik; c) jakintza hori ideologia nagusiarekin harremanantzeak boterea legeztatzea dakarrela, hura praktika zientifiko razionaltzat hartzen delako; d) ondorioz, harreman organikoa ezartzen dela jakitearen eta boterearen artean.

Estatu-aparatuek, oro har, produkzio-harremanak eta lanaren gizarte-zatiketa erreproduzitzen dituzte eta, aldi berean, lan intelektualala mamitzen dute, jakintza horretatik masa herritarrak at gelditzen direlarik. Honela,

⁵⁸ “La política como vocación”, op. cit., 59-134.

laburki esanda, Estatuak “boterearen unibertitate” bihurtzen da eta bere funtzionarioei, haren zerbitzura lan egiten dutelako, horregatik bakarrik, ez beste ezerगतik, intelektualak deituko zaie, eta hauek aldeztu aurretik landutako diskurtso homogeneotua erabiliko dute. Estatuak zatiketa honetan zuzenean hartzen du parte, esparru publikoan bezala pribatuan, bere aparatuen bidez, hots, familiaren, eskolaren, komunikabideen eta abarren bidez.

Indibidualizazioa

Produktzio-harremanetan nagusitzen den zatiketak, ondorioz, indibidualismoa eta indibidualizazioa dakartza. Estatuaren xedea, hain zuzen, klasearteko harremanak mozorrotu eta ezkatzea da eta masa herritarrak isolatu eta zatitzen aktiboki parte hartzea. Xede hau bete ahal izateko, prozedura bikoitza erabiltzen du: batetik, normalizazioarena, zeinek hiritarra homogeneotasunera behartzen baitu, eta, bestetik, desberdintasunarena, zeinaren bidez indibidualdu egiten baitira desbideratzeak, mailak mugatzen baitira eta espezialitateak finkatzen. Estatu-boterea *diziplina* desberdinen ezarpenean ezkutatzen da. Estatuak berak ezarritakoa baldin bada ere pribatuaren eta publikoaren arteko muga, Estatuak hain sarrera handia dauka maila pribatu eta indibidualen —adibidez, hain esparru pribatu den familian—, ezen esparru honetan bertan mugarik gabeko boterea aplikatzen baitu. Estatuari datozkion mugak, etorri, herri-borroketatik eta klasearteko indar-erlazioetatik datozkio, demokrazia ordezkatzaileraren sistema bidez. Eskubideak lortu, ez ditu lortzen indibiduok, klase zapalduak baizik. Bestalde, Estatuak indibiduen gizarte-mugikortasuna aldeztu badu ere, funtsean borroka-bidez lortzen dira gizarte-eskubideak.

Legea

Lehen Konstituzioaz jardutean esan bezala, Zuzenbidezko Estatuan, *legea* eta *justizia* bat eginda datoz. Baina bidegabeki, zeren faltsua baita arbitrarioaren eta legearen arteko oposizioa, faltsua den bezala legearen eta bortxaren arteko zatiketa. Zuzena beste hau da: alegia, legeak parte hartzen duela Estatuak praktikatu duen ordena zapaltzailean eta, orobat, bortxaren antolaketa.

Aparatu zapaltzaileak (armada, polizia, justizia, etab.) *diziplina*-neurri batzuk ezartzeko mekanismoak dira, herritarra normalizazioaren bidez zapal-

kuntza barneratzera eramaten dutenak. Weberrenean ikusi bezala, Estatuak dauka bortxa fisikoaren legezko monopolioa. Eta Estatuak, askotan, berak ezarritako legeak hautsiz jokatzeko du, horretarako estatu-arrazoiak aipatuz. Areago oraindik: Estatuak, behar izanez gero, berak ezarritako legea alda dezake, beste legeria bati leku egiteko. Honela, nola ilegalitatea hala legalitatea, biak dira bere egituraren parte hartzen dutenak.

Bestalde, esaten denean legeria modernoan “guztiok berdinak eta libreak garela legearen aurrean”, egiazki desberdinak garela esaten da. Nola lege kapitalistaren xedea den desberdintasun indibiduala eta klasista ezarri eta sagaritzea, hemen ondorioz datorrena da legitimitatea legalitatera lerratzen dela, hots, legea —herri-borondatearen adierazle izan beharko lukeena—, Estatuaren subiranotasunaren oinarri izatera pasatzen dela, zerbait unibertuala, zerbait abstraktua, zerbait formala. Legea da arrazoa, legea da jakintza, kapitalaren zerbitzura dagoena.

Nazioa

Esparru espazialaren zein tenporalaren aldetik begiratuta, nazio politikoa da estatu-boterean oinarritzeko elementua osatzen duena. Izan ere, errepresentazio espazio-tenporalak mamitu, lanaren gizarte-zatiketaren materialtasunari esker mamitzen dira, zeinetan botere ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa harremandurik baitaude estatu-egituraren. Estatu bera da noiz-nongo sozialen sarea monopolizatzen duena. Honela, nazio modernoan Estatuaren emaitza gisa agertzen den antolaketa da. Estatuak nazioari esker funtzionatzen du. Antzinatean, berdin Erdi Aroan, espazioaren antolaketa zerbait homogeneous zen, jarraitua, itzulezina eta irekia; Estatu kapitalistan, aldiz, espazio hori seriala da, zatitua, ez-jarraitua, partzelatua, zelularra eta itzulgarria. Barruko eta kanpoko mugak ezartzen dira. Lurralde nazionalak ez dauka zerikusirik lurzorua naturaltasunarekin. Lurraldearen antolaketa, funtsean, politikoa da eta legeak adierazten ditu borondate eta subiranotasun nazionalak. Gauza bera esan behar da denboraren antolaketari dagokionez, zeinetan historizitatea eboluziozkoa eta aurrerakorra baita. Oraina iraganaren eta geroaren arteko trantsizio-unea besterik ez da, zeinetan iraganak ez baitu kopresentziarik eta, aldiz, geroa markatzen duten sekuentziak metatzen baitira. Tradizioa orainaldi historikoa azkartzen edo balaztatzen duen hura da. Historizitate honek badu norabidea, baina ez du helbururik. Estatuak, berak bere burua sortuz eta birsortuz, betikotu egiten du denbora.

Estatuak, historiaren noiz-nongoak antolatzen dituen bezala, hizkuntza nazionala ere errotik birsortuko du, uniformatuz, Frantziako Iraultzaren ondotik gertatu den bezala.

Manuel Castells: Nortasunaren boterea

Bada, azkenik, boterea aztertzeke beste hirugarren bide bat ere, soziologia dinamikoan⁵⁹ koka daitekeena eta, beste batzuen artean, Alain Touraine soziologoak lantzen duena. Honek, Saint-Simon, Marx eta Weberren tesiak berrikusiz eta, batez ere, azken honen supostuetan oinarrituz, gizarte-ekintza ulertzen du, ez egileak bere ekintzari ematen dion esanahia bakarrik kontuan hartuz, gizarte-baldintzak bere osotasunean aintzat hartzen dituen eta horien erreferentzian dagoen subjektu historiko baten ekintza gisa baizik. Alain Touraine eta Daniel Bell egileak izan ziren gizarte-mugimenduak postindustrialismo eta informazionalismoaren ikuspegitik aztertu zituztenak eta, geroztik, ildo teoriko hauetan lerrokatzen da lehenengoaren eskolakoa izana den eta egun Kaliforniako Unibertsitatean Soziologia irakasten duen Manuel Castells katalana ere, zeinek industriondoko gizarte berri honen etorkizuna egungo informazio-sarean ikusten baitu. Gai honi, hain zuzen, hiru liburuki mardul eta emankor eskaini dizkio berrikitan⁶⁰.

Boterea eta Estatu-nazioaren krisia

Egile honek lantzen duen paradigmaren arabera, historian zehar determinaturik eta egituraturik datozen hiru giza prozesu dira, hiru harreraren-mota, gizartearen antolaketa parte hartzen dutenak: produkzio-, esperienzi eta botere-harremanak. *Produkzioa*, gizateriak materiaren gain egiten duen ekin-

⁵⁹ *L'Etat, le pouvoir, le socialisme*, op. cit., 40.

⁶⁰ Egun Berkeleyn, Estatu Batuetako San Francisco, bizi bada ere, berez katalana da. Lehenago ordea, 1970eko hamarkada-hasieran Alain Touraine irakaslearen laguntzaileretako bat izan zen Parisko Hautes Etudes-en zenbait urtez. Orain Soziologiako katedraduna da eta Kaliforniako Unibertsitatean irakasten du 1979az geroztik. Berak elkarrizketa batean dioen bezala, bere bizi-tzako lana omen da, hiru liburukitan banatuta argitaratu duena eta gaztelaniazko itzulpenean *La era de la información. Economía, sociedad y cultura* (Alianza, Madrid, 1999) deitzen dena, gutxira 1.400 orrialdekoa. Jatorrizko testua ingelesez idatzia da eta hizkuntza honetan jadanik hamargarren argitaraldia ezagutu du. Zazpi urtez minbiziak gaixorik eduki du eta orain, sendatuta, berriro lanerako gogotsu agertzen da. Bere kide batzuek, zehazki Anthony Giddens eta Chris Freemanek, Max Weberrekin konparatu dute. Adam Smithen kapitalismoaren funtzionamendua eta Karl Marxek honen akatsak azaldu zituzten bezala, Manuel Castellek informazio-eroko harreman sozial eta ekonomikoak azaltzen ditu.

tza da, berori eraldatzeko edo erabiltzeko; *esperientzia*, giza subjektuek beren baitan egiten duten ekintza da, zeinaren esparrua nortasun biologiko eta kulturala dutenek beren artean eta bere ingurune sozialarekin dituzten elkarrekintzek mugatzen baitute; *boterea*, azkenik, giza subjektuen arteko harremana da, zeinaren bidez, produkzioan eta esperientzian oinarrituz, subjektu batzuek beren gogoia ezartzen baitie beste batzuei, horretarako bortxa fisikoa edo sinbolikoa erabiliz. Azken puntu honetan ageri da weberiar ukitua. Boterea oinarritu, ordea, Estatuan eta honek bortxaz duen monopolioan oinarritzen da⁶¹, baina, gaurko gizartean menerapena gauzatu, elite nagusiak antolatzeko daukan gaitasunean gauzatzen da. Elitekoak, gutxiengoa izanda, heretsiki daude antolatuta beren interesen inguruan; behekoek, aldiz, gehiengoa osatu arren, erdizka bakarrik ikusten dituzte ordezkatuta beren interesak eta, gainera, beren artean sakabanatuta aurkitzen dira. Mekanismo honetan espazioak oinarritzko zeregina jokatzeko du, zeren eliteak kosmopolitak diren bitartean, jende soila, gehiengoa alegia, lokala baita, bere txokoari atxikia dagoe-na. Laburki esanda: boterearen eta aberastasunaren espazioa mundutik barna dabilen bitartean, jendearen bizitza eta esperientzia herrietan, hauen kultura eta historian, finkatzen da. Ondorioz, gizarte-antolaketa zenbat eta gehiago oinarritzen den fluxu ahistorikoetan, orduan eta gehiago urruntzen da boterearen logika espezifikotasun historikoz horniturik eta leku jakin bati atxiki-rik dauden gizarte nazionalen kontrol soziopolitikotik, kosmopolitismoak ordezkatzeko baitu tokian tokiko botereari dagokion logika⁶². Dena den, estatu-boterea da hor ere eragilea.

Gaur egun, garrantzitsuena den horixe —halakoxea da boterea—, gero eta gutxiago kontrolatzen diren sare global edo orokorretan antolatua aurkitzen da, jendea, gero eta gehiago bere esperientzia pertsonalean, hots, bere nortasunean oinarritzen den bitartean. Boterea bere orokortasun diluitu horretan bistaratzea hain erraza ez bada ere, bera da gizartean agintzen duena: “El poder (...) ya no se concentra en las instituciones (el estado), las organizaciones (empresas capitalistas) o los controladores simbólicos (empresas mediáticas, iglesias). Se difunde en redes globales de riqueza, poder, información e imágenes, que circulan y se transmutan en un sistema de geometría variable y geografía desmaterializada. Pero no desaparece. El poder sigue rigiendo la sociedad; todavía nos da forma y nos domina”⁶³.

⁶¹ *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. La sociedad red*, I, 40-41.

⁶² Op. cit., I, 449.

⁶³ Op. cit., II, 398-399.

Eta zurrunbilo baten antzera funtzionatzen duen gizarte-bizitza honetan etengabeko negoziaketa ematen da estatu-sarea osatzen duten erakunde lokal, autonomiko, naziozgaindikoan, GKEen (ONG) eta honen antzeko beste elkarte batzuen artean. Baina negoziaketa ez da, izan, berdinaren artekoa, zeren mundua klase edo talde desberdinetan zatitua aurkitzen baita: batetik, desinformatuak daude, irudiak bakarrik jasotzen dituztenak; bestetik, gaininformatuak, zurrunbiloaren erdian bizi direnak; azkenik, informatuak, informazioa hautatu, antolatu eta ordaintzen dutenak. Ezagutza, informazioa, teknologia, hauek guztiak boterearen zuzeneko iturriak dira eta, arestian esan bezala, horiek guztiak, bidenabar, sare globalizatu batean egituratuak aurkitzen dira. Boterea, beraz, laburki esanda, informazio-kodeak sortu, zabaldu eta ezartzean datza: “El nuevo poder reside en los códigos de información y en las imágenes de representación en torno a los cuales las sociedades organizan sus instituciones y la gente construye sus vidas y decide su conducta. La sede de este poder es la mente de la gente. Por ello, en la era de la información, el poder es al mismo tiempo identificable y difuso”⁶⁴.

Boterea, gizarteko elkarrekintzak egosten diren esparru-mota desberdinetan zehar barreiatua den zebait bada ere, ez da horregatik identifikaezina, han-hemen hautemangarria baizik.

Gaurko gizartean kontraesanik handiena markatzen duena, hain zuzen, hauxe da: botereak, hots, gure bizitzako zatirik handiena zertzen duten finantz merkatuen harreman-sare konplexu horrek egitura globalizatua duen bitartean, esperientzia, demokrazia, nortasuna, hau guztia lokala dela. Honek guztiak zer dakarren ondorioz? Azken hamar urte hauetan batzuek lehen baino gehiago irabazten dutela eta beste batzuek, berriz, gutxiago. Bestela esanda, pobreen eta aberatsen arteko tartea handitu egin dela. Informazio-saretik at gelditzen den jendeak ez du ezertarako balio. Horregatik, egun hainbeste inbokatzan den demokraziaren kontzeptua edukirik gabe gelditu da, fartsa huts bihurtuta, eta berriro eduki berriz jantzi beharra dago, zeren jendeak sistema demokratikoan botu-bidez eskatzen duenaren eta praktika politikoan gertatzen denaren artean inolako egokitasunik ez baita ematen. Horregatik, berrasmatu beharra dago demokraziaren izaera.

Egia da, gure bizitza materialean garrantzia duena, balio duena, zerbait globala da, emana datorkiguna; egiazki inporta zaiguna, ordea, lokala da, lekukoa. Gaurko gizarte-gatazka elitekoek ezarritako menerapen-sistema sofistikoaren eta nortasun kolektibo berriek daramaten askapen-mugimen-

⁶⁴ Ibid., 399.

duen artean ematen ari da. Egungo subjektu historiko berriak Estaturik gabeko nazio etnikoak dira, feministak, ekologistak, antimilitaristak. Hara hor tirabira, hor zurrumbiloa. Gauza bat da garrantzia duena, beste bat guri benebenetan axola zaiguna.

Autore klasikoengan eta, bereziki, Weberren baitan ikus daitekeenez, boterea bere ondoretan estatu-aparatuari loturik agertu izan da eta, alde horretatik begiratuta, begien bistako fenomeno empirikoa dugu. Estatuari atxikiriko botere-mota hori izan da gehien deskribatu eta aztertu izan dena. Baina horri buruz esateko denak esan al dira? Horra hor galdera egina.

Ez dirudi. Bada eginik egungo Estatu-nazioaren egoeraz gogoeta berri-rik. Manuel Castellsen paradigman ikusi ahal izango dugu zer-nolako egoeran aurkitzen den Estatu-nazioa botereari buruz, egun, sare globalizatuan barreiatuta dagoen une honetan. Duela hiru urte, 1997ko urrian egindako artikululu batean⁶⁵, Estatu-nazioaren bukaeran ote geunden galdetzen zuen. Bigarren liburukian sakontasunez erantzuten dio galdera honi.

Gure mundua erabat aldatzen ari da une honetan eta eraldakuntza honetan elkarri kontrajarriak dauden bi joera dira parte hartzen dutenak: batetik, ekonomiaren globalizazioa eta, bestetik, herri-nortasuna. Testuinguru berri honen barruan, duela hiru mende Europan eratu eta gero mundu zabalera esportatua izan zen Estatu-nazioa, gainera eta azpitik datozkion presioen ondorioz, krisi sakon batean barneratua aurkitzen da. Krisi hori egiazkoa denik ezingo da ukatu. Baina krisian dagoena, hain zuzen, Estatu-nazioa da, funtsean oinarri politikoen gainean eratu zen hura. Krisian aurkitzen dela esatean, Manuel Castellsek jarraiko hiru krisi-mota hauek aipatzen ditu⁶⁶: ekonomi eraginkortasunik eza, legitimitaterik eza eta sistema politikokoaren sinisgarritasunik eza. Hiru eza. Askotxo, krisi-egoeraren adierazle izateko nahi-koa eta gehiegi.

Ekonomiaren transnacionalizazioa dela eta, Ongizateko Estatu honek maila ekonomikoan orain arte izan duen gizarte-eraginkortasunik ez du erakusten eta, ondorioz, bere legitimitatea galduz doa, ez baita agintzen dituen gizarte-prestazioak betetzeko gauza. Lehen arrazoia, agian nagusiena, hori da. Lehen zuen subiranotasun hura jadanik galdua du eta ez bide du lehen bezala funtzionatzen, bere lurraldez at dauden hainbat elementuren kontrolik ez duelako. Lehengo eraginkortasunik ez izatean datza, bada, krisiaren arrazoi-tako bat, gehienbat kanpotik ezarria datorkiona.

⁶⁵ “¿Fin del Estado nación?”, *El País*, 26-10-1997, 15-16.

⁶⁶ Op. cit., II, 381-387.

Bigarren krisi-mota legitimitateari dagokiona da, zeren gero eta jende gutxiago baita haren alde bere bizitza emateko prest dagoena eta, bidenabar, haren bidez ordezkaturia sentitzen dena. Azkenaldiotan gizarte zibilean nortasun espezifikoa indartu dira eta hauek estatu-hiritartasunaren kontzeptua auzitan jarri dute. Hauen artean aurkitzen dira, ez bakarrik mugimendu antimilitaristak, baita mugimendu etnonazionalistak ere. Hauek demokrazia liberalaren oinarriak kolokan jarriak dauzkate. Zentzu honetan, estatu-hiritartasun nazionala eta Estaturik gabeko herri-nortasuna aurrez aurre aurkitzen dira. Beraz, herritarren borondatea ordezkatzeko bi sistema desberdin dira elkarri kontrajarrita daudenak.

Estatu-nazioaren legitimitatea zalantzan jarria daukan hiruga-ten arazoia da, hau ere garrantzi handikoa, egungo sistema politikoaren funtzionamenduak ez duela ezein sinesgarritasunik eskaintzen. Izan ere, lehiakidetasun-printzipioaren arabera jokatzeko duten alderdi politiko hauek aje gehiegi dituzte sinesgarriak izan daitezkeen. Alderdi politikoak, batzuetan, buruzagi baten esku egoten dira. Beste batzuetan, beren xedeak aurrera ateratzeko, manipulazio teknologiko konplexuak erabiltzen dituzte, zenbait aldiz, legez kontrako prozedurak ere bai, hala alderdi-gastuak finantzatzeko nola norberaren diru-iturriak gehitzeko orduan. Horregatik, praktikan, alderdiak egun izaki burokratiko huts bihurtuta daude eta ez bide dute konfiantza publikorik bereganatzen. Galduak dituzte beren xarma eta beren sinesgarritasuna.

Batera doazen hiru prozesu horien ondorioz, bada, iritzi publikoan alderdi eta politikari profesionalen kontrako joera nagusitzen ari da. Honek ez du esan nahi, halere, jendeak bozkatzeko ez duenik, batez ere, demokrazia eskuratu berria duten Estatu gazteetan.

Estatu-nazioaren krisi-sintomak konstatagarriak direla eta, desagertzeko zorian dagoela esan behar al da? Zilegi ote da ondorio hau ateratzea? Hau beste kontu bat da. Zalantzarik ez da, ekonomiaren globalizazioa, informazioaren fluxuak, komunikabideak eta herri-mugimenduak, mugimendu nazionalisten borroka armatua, mafia-talde desberdinen krimen-ekintzak eta beste hainbat gizarte-ekintza kontrolatu ahal izateko, Estatu-nazioa gero eta egoera ahulagoan aurkitzen dela. Ez-gauza sentitzen da, halaber, beren nortasun espezifikoa oinarritzen diren herri-mugimenduen errebindikazioei behar den bezala erantzuteko. Mugimendu lokalistek egiazki auzitan jarri dute estatu-zentralismoa. Zentzu honetan, herri-nortasun berriak, gizarte-kolektibo berriak, indartzen ari dira eta horiek guztiek, bereziki etnonazionalistek, Estatu-nazioaren hiritartasuna arbuiatu egiten dute. Orokorrean esan dezakeguna da, lokalismoa indartzen ari dela, sistema politikoan ugalduz doala alderdien kopurua, herritarrek eguneroko arazo larrienak konpontzeko

aterabide jakinak nahi dituztela, etab. Gertatzen dena da, arazo berrientzat aterabide berriak behar direla eta erantzunak ez datozela beti beharren parean. Antzeko zerbait gertatzen zaio Euskal Herriari ere. Krisian dagoela diagnostikatu da, baina ez zaio gaitzaren neurriko terapiarik jartzen. Eta arazo honetan, esatera goazena inork gutxik salatzen badu ere, klase politiko da larriki huts egiten duena, berari baitagokio gaitza errotik sendatzeko medizina egokiak aplikatzea.

Estatu-nazioari egiten zaizkion desafioak hortxe daude. Demokrazia politikoa, XVIII. mendeko iraultzaile liberalek gogoeman zuten eta XIX. eta XX. mendeetan gauzatu zen hura egun intxaur-azal hutsala bezalakoa da. Sufragio unibertsalak funtzionatzen segitzen du, baina, gizarte-erakundeetan kultur eta teknologi aldatetek izan duten eragina ikusita, esan daiteke egungo alderdien sistema politikoa zaharkitua aurkitzen dela eta ez duela balio herritarren borondatea ordezkatzeko. Hau guztia egia da, baina oraindik zutik diraute Ongizateko Estatu-nazioek eta, halaber, honi dagozkien sistema politiko konbentzionalki demokratiko deituek.

Beraz, Manuel Castellsen ustez, Estatu-nazioa desagertu, ez da desagertuko berehalakoan. Eta ez da desagertuko, aldez interes oso indartsuak daudelako haren inguruan, batez ere, klase politiko nazionalen aldetik, eta aldez oraindik ere botere-mota hori delako hainbat hiritarrek gizarte-kontrola eta demokrazia politikoa bideratzeko duten mekanismo bakarrenetako bat⁶⁷.

Badirudi Estatu-nazioak iraun, iraungo duela aurrerantzean ere, baina ez edukiz aldatu gabe. Etorkizunari begira, hiru joera bezala aurrirakusten ditu Manuel Castellsek⁶⁸. Lehenengoa lekuko Estatuaren birsortzeari dagokiona gendake eta hemen kokatu beharko lirakeke, estatu-deszentralizazioarekin batera, indartzen ari diren erregio-politikak eta autonomi estatutuak. Bigarrena, komunikazio elektronikoak hiritarren partehartze politikoa eta elkarren arteko harreman horizontala gehitzen eskain dezakeen aukera da, gehienbat komunikabideetan gauzatzen dena. Azkenik, hirugarren urratsa zuzenean “politikoak” ez diren kausa humanitarioen aldeko herri-mugimenduen inguruan gauzatzen ari da, “boluntariadoa” deitzen zaion horren inguruan. Zerbitzu-izpiritu publiko beretsuarekin ari dira lanean Amnistia Internazionala, Mugarik gabeko Medikuek, Greenpeace, Oxfam, Food First eta beste hainbat erakunde. Presio-indar garrantzitsuak ditugu horiek. Horrelako mobilizazio gehienak gizarte-mugimenduetan antolatuta aurkitzen dira eta hauen

⁶⁷ “¿Fin del Estado nación?”, *El País*, 26-10-1997, 15.

⁶⁸ Op. cit., 388-391.

xedea prozesu politikoan parte hartzea da, politikari profesionalak kudeatzen duten gizartean eragina izatea.

Jatorriz txiletarra den eta azken hogeitabost urteotan exiliatu gisa Kuban bizi den Marta Hamecker emaztekiak, garai batean, Alhusserreren eraginez edo, marxismo klasikoari hain estekatua egon zenak⁶⁹, jadanik ongi askatuak ditu orduko loturak eta begiak erne dauzka Hego Amerikan gertatzen denaz ohartzeko. Manuel Castellsen antzera, bera ere ohartu da informazioak agintzen duen gizarte-aro berri batean sartuak gaudela, zeinaren ezaugarri nagusiak, *La izquierda en el umbral del siglo XXI* liburuan dakarrenez⁷⁰, iraultza teknologikoa, informatikoa eta, oro har, globalizazioa baitira. Eta bere ekarpenean punturik deigarriena gertatu zaiguna, hauxe da: Hego Amerikan dauden herri-mugimenduen esperientzia anitzak jasoz, hango gizartearen eraldakuntzan parte hartzen dutenak, izan, ez lehen bezala klaseak bakarrik, baizik subjektu historiko berriak direla. Adierazgarrienen artean, xedetzat herri-kontseiluak sortu eta herritarrak berorietan parte hartzera bultzatzea duten gobernu lokalen indartzea eta lurrik gabekoen mugimendua aipatzen ditu. Hemen ere lokalismoa nabarmentzen da. Badu honek zerikusirik Manuel Castellsen komunalismoarekin.

Kanpaiak gogotik jo ziren Estatu-nazioaren heriotza iragarritz. Ez da hainbestearino. Gertatu dena da, Estatu-nazioak ez duela lehen zuten adina botere, murriztua duela hein batean, baina oraindik badu aski botere bere menpekoak zapalduz joateko, arestian esan bezala, gero eta legitimazio guxtiago duen sistema politiko demokratiko baten izenean.

Nolanahi ere, esan behar da, Manuel Castellsen azalpenean, ez dela auzitan jartzen egungo Estatu-nazioen lurralde-batasuna, ezta haiek errebindikatzen duten bortxaren legezko monopolioa ere. Izan ere, nazioak herrien oroi-men kolektiboak batera bizi izandako historia eta proiektu politikcek eraikitako kultur konstrukzio batzuk direla esan ondoren⁷¹, “ia-estatu nazionaltzat” hartzen ditu Estaturik gabe gelditutako batzuk, horien artean Katalunia,

⁶⁹ Marxismoaren goraldian, 1970eko hamakadan, harrigarria izan zen *Conceptos elementales del materialismo histórico* izeneko bere liburua izan zuen arrakasta, hirurogei argitaralditik gora izateaz gain, bost hizkuntzetara ere itzulia izan baitzen (“Marta Hamecker. Pedagogia revolucionaria”, *Zaspika, Gara* egunkariaren aldizkaria, 61, 2000/03/26, 22-28). Gaur bez mirakurrita, ziur gaude, hango tesiak askori zaharkituak irudituko zaizkio: are gehiago, dogmatikoak ere bai.

⁷⁰ Editorial Siglo XXI, Madrid, 1999.

⁷¹ “En aras de la claridad, definiré las naciones (...) como comunas culturales construidas en las mentes de los pueblos y la memoria colectiva por el hecho de compartir la historia y los proyectos políticos” (Op. cit., II, 73).

Euskal Herria, Flandes, Valonia, Eskozia, Quebec eta, potentzialki, Kurdistan, Cahemira, Punjab edo Timor Orientalak⁷².

Euskal arazoaz, labur baina zuzen, Renoko Unibertsitatean 1999an emandako hitzaldian jardun zuen⁷³. Han, orokorrean globalizazioaz, kultur nortasunaz eta Estatu-nazioaz hitz egin ondoren, euskal nortasun nazionalaren elementu bereizgarri gisa euskara eta Estatuia izendatzen ditu. Baina euskal arazoaren funtsa politikoa zehazteko orduan, guretzat onargarriak ez diren supostu batzuk onartuztat ematen ditu, zehazki hauek: bat, EAEko Autonomi boterea eta Estatu-boterea ia berdinak direla; bi, euskal arazoaren izateko arrazoa sinbolismoan oinarritzen denez gero, Guardia Zibila Euskal Herritik desagertzean, sinbolismo hori ahulduz doala; hiru, Espainiak Estatu-nazioan egiazko sistema demokratikoa ematen dela eta, testuinguru honetan, ez dutela zentzurik ETaren ekintza terroristek eta bera horien guztien kontra dagoela; lau, egun indarrean dagoen bortxa ezingo dela gainditu neurri polizialen bidez.

Jakina, euskal arazoari buruzko ikuspegi horretan, praktikan, ontzat ematen da egun Espainian indarrean dagoen Autonomien Estatuia. Euskal Herriaren lurralde-zatiketa aipatu ere ez da aipatzen, lerro bat ere ez da irakurtzen euskal politikaren nazio-proiektu subirano, independente eta sozialistaz. Bestalde, paradoxikoa badirudi ere, euskal erresistentziaren sinbolismoa Guardia Zibilaren errepresio-indarrekin berdintzen da. Neurri batean ulertzekoa da berak horrela pentsatzea, zeren, Estatuaren arteko sare globalizatu horretan erabateko Estatu-botere independenterik ematen ez denez gero, ez bailegoke Estatu-botere subiranoen eta botere autonomikoen artean ezein bereizketarik egin beharrik. Horregatik dauzka Katalunia eta EAEko botere autonomikoak ia Estatu nazionalizat, gure ustez, noski, erabat desegoki. Guardia Zibila Euskal Herritik joana dela? Baina nondik eta noiz? Manuel Castells katalanistak ezin du ezkutatu Jordi Pujolen kolorea gustatzen zaiola⁷⁴.

Autore honen eredu teorikoa aztertzeraz pasa aurretik, beharrezkoa iruditu zaigu aurreohar horiek guztiak banan-banan egitea, ahalik eta zehatzen, hari buruzko balorazio orokorrean nahasketarik egon ez dadin.

⁷² Ibid., 74.

⁷³ "Globalization, Identity, and the Basque Question", in Douglas, W. A.; Urza, C.; White, L.; Zulaika, J. (arg.): *Basque Politics and Nationalism in the Eve of the Milenium*, Basque Studies Program, University of Reno, 1999, 22-33.

⁷⁴ *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad*, II, op. cit., 69-70.

Nortasunezko subjektu historiko berriak

Gatozen berriro M. Castellsengana, badugu honengandik zer jasorik eta. Lehen liburukian boterearen ezaugarriak orokorrean azaldu ondoren, bigarren liburukian nortasunaren botereaz dihardu eta hemen xehetasun osoz aztertzen ditu Estatu-nazioaren eta beroni atxikiriko demokraziaren krisia eragiten duten herri-mugimendu desberdinak, besteak beste, nazionalistak, feministak, ekologistak. Soziologo katalan honek nolabaiteko berrikuntza dakar, ez gai horiek aipatzen dituelako —hau beste hainbat iturritan ere egina baitago—, ikuspegi orokor baten baitan sistematizatzen dituelako baizik. Harenean gizarte-fenomeno berrien gainean pentsamendu-autonomiaz arrazoitze-ko estilo berria kausitu dugu, estimatzekoa dena.

Bigarren liburuki honetan nortasunaren inguruan eraikitzen du boterearen inguruko bere diskurtsoa, berori gizarte-egileen oinarritzko erreferentetzat hartuz. Nortasuna da zentzu-emaile eta esperientzi iturri: “Por identidad en lo referente a los actores sociales, entiendo el proceso de construcción del sentido atendiendo a un atributo cultural, o un conjunto relacionado de atributos culturales, al que se da prioridad sobre el resto de las fuentes de sentido”⁷⁵.

Gizabanako edo talde kolektibo batek nortasun bat baino gehiago eduki ditzake. Eta nola bat baino gehiago izan ditzakeen, pluraltasun hau tirabira-eta kontraesan-iturri bihurtzen da nola norbanakoaren errepresentazio-mailan hala gizarte-ekintzan. Nolanahi ere, jakinarazten du, ikuspegi soziologikotik begiratuta, nortasunak oro eraikitako zerbait direla. Hau onartutzat emanda, oinarritzkoena da jakitea nola, nondik, zeinek eta zertarako eraikia den. Hipotesi honen arabera, baldin jakiten bada nortasun kolektiboa zeinek eta zertarako eraikitzen den, neurri handi batean badakigu zein den haren eduki sinbolikoa, haren esanahia, harekin bat egiten dutenentzat edota harenetik aldentzen direnentzat. Bestalde, nortasunaren gizarte-eraikuntza botere-harremanek markatutako testuinguruan egiten baita, haren sorreran hiru mota bereizten ditu: a) *nortasun legitimizatzailea*, gizarteko erakunde dominatzaileek eraikia, beren menerapena hedatu eta razionaltzeko xedearekin; b) *erresistentzi nortasuna*, menerapen-logikak azpian hartuta dauzkan egileek eraikia; c) *proiektu-nortasuna*, gizarte-egileek, eskura dauzkaten kultura materialez baliatuz, gizartean beren lekua birdefinitzeko eta, bide batez, gizarte-egitura osoa eraldatzeko xedearekin eraikia.

Nortasuna eraikitzeko prozesu bakoitzak, jakina, gizartearen eraketan emaitza desberdina dakar. Honela, nortasun legitimizatzaileek gizarte zibila

⁷⁵ Ibid., 28.

sortzen dute, zeina osatzen baitute erakunde desberdinek eta, halaber, egituratuta eta antolatuta dauden gizarte-egile batzuek. Hauek dira egiturazko menerapen-iturriak razionaltzen dituen nortasuna erreproduzitzen dutenak, sarritan egoera gatazkatsu baten ondorioz. Harrigarri gerta daiteke hau horrela baieztatzea, zeren gizarte zibilak orokorrean gizarte-aldaketa demokratikoaren alderdi positiboa iradokitzen baitu, Tocquevillek, Gramscik eta, ikusi zuten bezala. Hauek demokraziatik at zibiltasuna ikusi zuten lekuan, beste batzuek —hauen artean Horkheimer eta Marcusek, Foucault, Sennettek—, menerapen barneratua eta nortasun arautuaren legitimizatzailea ikusten dute. Erresistentziarako nortasunak, aldiz, historiaren, geografiaren edo biologiarren aldetik ongi mugatuta dauden komunitateek sortzen dituzte. Hauek, zapalkuntzaren kontra borrokatzeko, erresistentzi mota kolektiboak sortzen dituzte. Mota honetakoak ditugu etnizitatean oinarritutako nazionalismoak, lurralde-komunitateak, fundamentalismo erlijiosoa, etab. Proiektu-nortasunak, azkenik, subjektuak sortzen ditu, hau da, gizabanakoak subjektu bihurtzen dira eta hauek, beren bizipenen barruan biziz, beren burua eraikitzen dute, batetik, komunitateen eta, bestetik, merkatuaren kontra jokatu. Noski, subjektu hauek ez dira gizabanako gisa hartu behar, gizarte-egile kolektibo gisa baizik, zeinari esker gizabanakoek beren bizipenean zentzu holistikoa lortzen baitute. Proiektu honetan kokatzen dira, adibidez, feministen borroka. Manuel Castellsek proposatzen duen hipotesia da subjektuen eraikuntza honek, egun ematen ari den gizarte-aldaketa honen barruan, modernitate berankor honetan bide berri bat markatzen duela, hau da, subjektuak eraikitzen direnean, ez direla jada eraikitzen gizarte zibiletan oinarrituz —hauek desegin-bidean daudelako—, erresistentzia komunalaren luzapenean bezala baizik⁷⁶. Hain zuzen ere, paradisu komunalean sartzen du, besteak beste, nazioek Estatuaren kontra daramaten borroka⁷⁷. Hemendik dator, hain zuzen, bere komunalismoa.

Oro har, nortasunen eraikitze-une honetan, beren lekua gero eta gehiago hartzen ari dira, gizarte-egile kolektibo gisa, herri-mugimendutik sortutako hainbat gizarte-talde, egileak espreski aipatu eta aztertzen dituenak, hala nola: nazioak, ordena global berriaren kontrako gizarte-mugimenduak (zapattistenak, kasurako), mugimendu ekologista, patriarkatuaren kontrako mugimendu sozialak, familia eta sexualitatea, etab. Haren tesiaren printzipio nagusiak, hauexek dira: bat, globalizazio honek eraginda indartu direla

⁷⁶ Ibid., 29-34.

⁷⁷ Ibid., 50-55.

mugimendu guztiok eta jadanik eraikia dutela beren nortasuna, esan bezala, gizarte zibila ez den beste nonbait eraikia dena; bi, globalizazio-une honetan, Estatuak gaindituak aurkitzen direla, Estatu-nazioak krisi handian sartuta daudela, baita Estatu liberalean oinarritutako demokrazia bera ere; hiru, aurrerantzean, agian, lekuko Estatuak —mikroagoa—, birsortuko dela, edo sortzen ari dela: “Existen límites obvios a este localismo, ya que acentúa la fragmentación del estado-nación. Pero, estrictamente por lo que se puede observar, las tendencias más vigorosas de legitimación de la democracia a mediados de la década de los noventa se están dando, en todo el mundo, en el ámbito local”⁷⁸.

Beraz, ez dirudi egia denik globalizazioak Estatuaren indarra areagotzea eta, esan izan den bezala, Estaturik gabeko nazio-proiektua deuseztatzea dakarrenik; alderantzizkoa iragartzen da etorkizuna, jadanik joan den mendeko azken hamarkadatik aurrera hasita. Bestalde, askatasun-biderako irizpideek edo norako eragileek ere aldatuak dirudite. Ez dira nagusitzen kapitalisten xede indibidualistak, ezta marxisten klase-interesak soilki, baizik eta lehendik erabakitzeke gelditutako arazoak berragertzen dira, hauen artean, nazio-zapalkuntzarena, zeinaren barruan kokatu beharrekoa baita hizkuntzen arteko gatazkarena ere. Azkenik, gizarte berri baten aldeko askapen-mugimendu orokor hau ez da gogoematen gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko eskema dualistatik begiratura, orain arteko eredu desberdinetan, eskuinekoetan zein ezkerrekoetan, egin izan den bezala, baizik eta, herri-mugimenduetatik abiatuta, gainditutzat jotzen dira bai neoliberalismoaren supostuak bai marxismo klasikoarenak. Paradigma honek alderdi hauxe du bere alde.

Geroxeago, Hezkuntzaren Soziologian indarrean dauden paradigma desberdinak azaltzerakoan esango dugun bezala, tekno-funtzionalistek eta marxista klasikoek, subjektu historikotzat indibidualismoa edota klasismoa ezartzean, murrizketa nabaria egiten dute egungo gizarte-mekanismoa azaltzeko orduan. Zentzu honetan, herritar guztien mota guztietako interes eta arazoak jasotzen ez dituen demokratismoaren zein klasismoaren oinarritzko gabeziak gainditzeko ahaleginean, beti ere boterearen inguruan, urrats positiborik eman da, teoria eta praxi politikoa, biak, soziologia dinamiko eta kritikoa argitan aztertzen dutenen eskutik.

Euskal Herriko hiritarrak nola ikusten du bere burua, euskalduna ala espainola edo frantsesa sentitzen da, ala biak batera? Galdera honi erantzuteko, hainbat inkesta egin izan da, iker-talde bakoitzak galdera-sortak bere

⁷⁸ Ibid., 388.

modura moldatuz. Linzen 1979ko lanean, euskaldun hutsa sentitzen zena % 38 zer., eta espainol hutsa % 14 eta, halaber, nafar hutsa % 51 eta espainol hutsa % 10, euskal hutsa % 7, baina nafarra eta euskalduna batera % 31. Elkar-lanean 1982an egindako *Abertzales y vascos* lanean⁷⁹, bertakoen artean —hemen nafarrak ere sartuz—, % 96,1 ziren beren buruak euskalduntzat zeuzkatenak eta kanpokoen artean, berriz, % 40. Mikel Urkolak 1984. urtean argitaratutako lanean Gipuzkoari buruzko datuak eskaintzen zituen, eta hemen inkestatuen % 67,7 genuen euskal naziokoa sentitzen zena eta % 4,2 nazio espainolekoa, zalantza-egoeran zeudenak % 21,7 izanik⁸⁰. Gehiengo batek, % 92k, integratzea onartzen zuen, horretarako faktorerik garrantzitsuenak euskara ikastea eta bertan bizitzea segitzea izanik⁸¹. *Hika* aldizkarian Eusko Jaurlaritzak geroztik argitaratutako soziometroak jasotzen dira, 1989 eta 1999koak, baina jarraiko 3. taulan datozen EAEko datuetara bakarrik mugatzen dira⁸².

3. taula: Nortasun kolektiboa EAEn (1989-99)

Nortasun nazionala	1989	1999
Euskaldun hutsa	% 32	% 30
Euskalduna>espainola	% 12	% 15
Euskalduna eta espainola	% 26	% 35
Espainola>euskalduna	% 6	% 4
Espainol hutsa	% 14	% 7
Erantzunik ez	% 4	% 8

Taula horretako datuen arabera, inkestatuen heren bat inguru, % 32 alegia, euskaldun hutsa sentitzen da bere herri-nortasunean eta irudipen hori zertxobait jaitsi egin da azken hamarkada horretan, bi puntu edo. Antzeko portzentaiarekin, hots, % 35 ingurukoarekin, aurkitzen da nortasun bikoitza agertzen duen taldea, aldi berean euskaldunak eta espainolak sentitzen direnek osatzen dutena, zeina pittinka handituz baitoa. Espainol hutsak sentitzen direnen taldea, aldiz, gutxituz doa, % 15etik % 7ra pasatzen baita.

⁷⁹ Op. cit., 50-52.

⁸⁰ *Hacia el triunfo de la nación vasca*, Haranburu, Donostia, 103.

⁸¹ *Ibid.*, 102-105.

⁸² "Pluralismo vasco en cuatro trazos", 102, 1999ko uztaila, 9.

Ohar batzuk egin beharra dago datu horien gainean, bere horretan erabat fidagarritzat jo aurretik.

Lehenik, esan behar da, inkesten metodoa desberdina dela kasu bakoitzean eta aipatutako lan horiek eginak izan diren urte horietan jasotako emaitzak ezin uler daitezkeela zentzu berean, Eusko Jaurlaritzak EAERako eginda-koetan izan ezik.

Bigarrenik, galdera-sorta ere modu inkoherente batean egina izan da eta, bistakoa denez, esan beharrik ez dago galderen nolakoak ere asko baldintzatzen duela erantzunaren nolakoa.

Hirugarrenik, batetik, EAEkoak eta Nafarroakoak aparte egiteak eta, bestetik, komunitate horietako bakoitza bakarka hartuta, galdeketak han euskalduntasunaz eta hemen nafartasunaz egiteak berak, besterik gabe, inkesta-metodoa oinarrian bertan baldintzatzen du, aldez aurretik onartutzat ematen baita Euskal Herriaren zatiketa politiko-administratiboa. Areago oraindik: iturri honetan Ipar Euskal Herria ez da aipatzen. Baina Felix Etxeberriak badakar horkorik⁸³: eskualde honetan erdiak baino gehiago aldi berean euskaldunak eta frantsesak sentitzen dira, % 30 frantses hutsak eta hamarretik bat baino gutxiago euskaldun hutsak.

Laugarrenik, erantzun horien subjektibotasuna nabarmendu beharra dago, norberak bere nazio-nortasuna nola sentitzen duen adierazten baitu. Hemen ez da neurtzen ezein elementu objektiburik.

Bosgarrenik, euskalduna izateko euskara jakitea beharrezkoa den galderari, EAEn gehiengo batek (% 53k) ezezkoa uste duen bitartean, Nafarroan erdia (%50) eta Ipar Euskal Herrian erdia baino dezent gehiago (% 62) baiezkotan dago⁸⁴. Hemen naziotasuna hizkuntzari lotzen zaio gehienbat.

Beraz, herri-nortasunari buruzkoa nola subjektibitate hutsean oinarritzen den, inkestatuen emaitzak ere halakotzat hartu behar dira: hots, iritzi pertsonalen batuketa gisa. Horregatik, erdaraz “vasco” edo “basque” esanda zer ulertzen den jakitea, ez da batere erraza, batez ere kontzeptu hori esparru subjektibo horretatik objektibora eramaten denean. Adibidez, euskal kulturaz zer ulertu behar den galdegiten dugunean. Maila honetan, noski, elementu objektiboek zerikusirik badute, baina galdeketa ez da islatzen alderdi hori.

⁸³ *Bilingüismo y educación en el País del euskara*, Erein, Donostia, 1999, 118.

⁸⁴ *Ibid.*, 118.

Hurbilketa osagarriak Estatuaren inguruan

Beraz, hiru definizio-mota desberdinen aurrean gaude, zeinetan hiru paradigma islatzen baitira: batetik, Weberren indibidualista eta subjektibista, Estatuan gauzatzen dena: bestetik, Poulantzasen estrukturalista eta objektibista, hau klase-harremanari lotua; azkenik, nolabait marxiar eta weberiar tradizioak elkartzten dituen Manuel Castellsen komunalismoa, zeinetan, autodefinizio indibidualak gaudituz⁸⁵, subjektu historikoak hartzen baitira abiapuntuzat. Gertatzez, egungo mundu globalizatu eta informatizatu honetan, indarrean dagoen gizarte-sistema —demokrazia liberala ezarririk dagoen gizarteetan, bederen—, neoliberalismoaren ereduari dagokiona da.

Bestalde, boterearen zerizana estatu-aparatura soilki mugatze hori ez bide dute guztiek onartzen inola ere. Nicos Poulantzasek, adibidez, uste du “botere-harremanek, lanaren gizarte-zatiketaren eta klasearteko gatazken kasuan gertatzen den bezala, Estatuaren muga askogatik gauditzen dutela”, eta gaudituz ere, zentzu askotan gauditzen dutela eta, ondorioz, baieztatzen du “gizarte klasistatik eratorritako botere-harremanak, beti ere, beroriek ematen direneko gizarte-aparatuak, bereziki Estatuarenak, baino lehenagokoak eta nagusiagoak direla”⁸⁶.

Hurrengo atalean, egun Gizarte-Zientzietan nagusitzen diren paradigma desberdinez jardutean, esango dugu arazo epistemologiko gehienak, azken batean, nola ematen diren indibidualtasunaren eta kolektibitatearen arteko aukeraren inguruan, eredu teorikoen eraikuntzan bata ala bestea lehenestearen puntuan, hain zuzen.

Dena den, eskola neomarxistaren barruan, batez ere, azkenaldiotan asko berritu da Estatuari buruzko ikuspegia, zeinaren bilakaera urratsez urrats azaltzen baitu Martin Carnoy ekonomistak lan argigarri batean⁸⁷. Oraintsu arte gainegiturazko elementuzat zeukaten Estatuari, egungo neomarxistek, orokorrean bederen, gero eta leku handiagoa, gero eta autonomia gehiago, aitortzen diote gizarte zibilaren zein hezkuntza formalaren gidaritzan.

Boterearena aztertzekeo badago beste hirugarren bide bat irekita. Botereaz eman diren definizioak, haren ageriko ondorioen ala haren barruko izaeraren gain egindakoak diren galdetzen da hemen. Ikuspegi makrosoziologikoa ala mikrosoziologikoa, hauetatik zein irizpide nagusitzen den da kontua.

⁸⁵ “Y como la lógica comunal es la clave de su supervivencia, no se aceptan las autodefiniciones individuales” (Op. cit., II, 395).

⁸⁶ Poulantzas, N., op. cit., 40-42.

⁸⁷ “Educación, economía y Estado”, *Educación y Sociedad*, 3, Akal, 1985, 7-52.

Gizarte-egitateak ikuspegi interakzionalistatik aztertzen dituen B. Barnesen ustez, boterea bere ageriko ondorioetatik abiatuta mugatzen denean, ez da arazoaren sakona ukitzen, horrela jokatzean, boterearen zerizanera joan ordez, azalean —bistako ondorietan—, gelditzen baita ikerlearen begirada. Horrelako zerbait gertatzen zaio, adibidez, Max Weberri, honek gizabanakoaren baitan ezartzen duen boterea beste gizabanakoengan islatzen den ondorioetara mugatzen duenean. Horregatik, B. Barnesek esango du, gizarte-boterearen izaera, izan, “gizanabakoek eta, beraz, gizarteak ekintzarako metatzen duten gaitasun erantsia, ezagutzaren banaketa eratzetik eratorzen zaiona” dela⁸⁸. Beraz, hemen, boterea ezagutza-banaketaren ezaugarri bat da. Gizartea osatzen duten gizabanako isolatueta datza, hain zuzen, boterearen muina, horiengan banatzen da ezagutza. Horregatik, zenbat eta zuhurragoak agertzen diren gizabanakoak bere ekintzen norabidean, orduan eta “boteretsuagoak” izango dira⁸⁹. Boterea nola erabili, gizabanakoari dagokion zerbait da. Eta norbaitek boterea ukan dezan, berak baduela jakin behar du, ez dela sineste indibidualen ondorio huts bat, alegia.

Michael W. Applek ere ezagutzaren mailan planteatzen du boterearena, baina ez B. Barnesek bezala ikuspegi interakzionalistatik begiratura, estrukturalistatik baizik. Autore neomarxista honentzat nagusiki Estatu bera da kultura zertzen duena, hezkuntza formalaren bidez gizarte-erreprodukzioko beharrezkoa den ezagutza teknikoa sortuz, jarraiko aipu honetan dioen bezala: “Ezagutza tekniko-administratiboa hezkuntza-antolaketaren bidez lortzen da epe luzera (...) Ezagutza-era hauek (...) ekonomian erabiltzen dira eta gehituz doaz Estatuan, noiz eta berori kapital-metaketa eta legitimazioaren krisi handi batean sartuta aurkitzen den ulean”⁹⁰. Ezagutza tekniko-administratibo hori da “kultur kapital” gisa hartzen dena, eta ezagutza-mota desberdinak razionalizat jotzen dituen ideologia, hain zuzen, hortxe oinarritzen da. Eskolak izan, gizartea erreproduzitzen duten aparatuak edo erakundeak dira, “zuzenean edo zeharka ekonomi sektorerako beharrezkoak diren kultur formak ekoizten dituztenak”⁹¹. Interakzio moduko zerbait ematen da eskolak nola lanaren gizarte-zatiketarako egileen ekoizpenean hala kultur kapitalaren ekoizpenean jokatzeko duen zereginen artean. Bukatuz, esan dezakegu, hezkuntza-sistemak ezagutza banatu ez ezik, ekoizti ere egiten duela.

⁸⁸ Op. cit., 85.

⁸⁹ Ibid., 86.

⁹⁰ *Educación y poder*, Paidós/MEC, Madrid, 1987, 50.

⁹¹ Ibid., 59-60.

Ekoi-tzi, noski, kapitala metatuz joateko beharrezkoa den ezagutza tekniko-a ekoizten du. Ikuspegi bikoitz honen argitan, erreproduktzioarenean eta produktzioarenean, alegia, irakurri behar da berak planteatzen duen ageriko eta ezkutuko curriculumari buruzko bere diskurtsoa.

Michel Foucaultek, berak boterearen mikrofisika deitzen dion horretan⁹², estatu-boteretik harago beste urrats bat emanez, gizarte osoan zehar barreiatu-rik ikusten du, gizarte-erakunde desberdinetan, hala nola ospitaleetan eta preso-ndegietan. Anthony Giddensen ustez, berriz, boterea harreman-mota bat da eta, gehiengoak sostengatzen duen tesi klasikoaren kontra, ez du nahi-taez bortxa inplikatzeko.

Badira beste autore batzuk, oinarrian ikuspegi psikologista batetik abia-tuta, egun gizartean indarrean dauden botereari buruzko joerak paradigma juridiko eta estrategikoetara mugatzen dituztenak. Tomás Ibañez psikolo-goak⁹³, adibidez, taula batean laburbiltzen ditu paradigma horietako bakoit-zaren ezaugarriak, zertan bereizten diren azalduz. Paradigma juridikoan, boterea substantzia bat gisa gogoematen da, gizaki batzuek duten propietate bat da, egitura jakin batzuen baitan kokatzen dena, legeak araututa daukana, jakintza kontrolatzen duena, zapalkuntzazko mekanismoaz baliatzen dena, etab.; paradigma estrategikoan, aldiz, boterea harreman bat da, erabiltzen den zerbait, sozialaren maila guztietan eman eta ekoizten dena, arau gisa aurkez-ten dena, jakintza ekoizten duena, garaipen baten emaitza, kontrol-mailako mekanismoaz baliatzen dena, etab.

Ez baita ematen guztiak onartzen duten Estatuari buruzko definiziorik, oraindik ere erabakitzeke dago boterearen eta Estatuaren arteko harremanei buruzko eztabaida. Halere, politologo gehienek weberiar tradizioari jarraitzen diote, behar bada berak emandako definizioa baita gehien hurbiltzen dena eta ondoen deskribatzen duena estatu-aparatuaren egiazko funtziona-mendua, haren muina, gehienbat, menerapen-botere gisa hartuz. Ez da harri-tzekoa ere haren definizio hori izatea aipatuena, modan dagoena, haren ikus-pegia ere halakoxea baita, ideologia liberalari eta konstituzionalistari dago-kiona, alegia. Ideologia honek individualismoa eta gizarte-kontratuaren ideia gorai-patzen ditu, teoriar Estatu-a eta gizarte zibila desberdinduz, baina prak-tikak erakusten du Estatuak gero eta parte gehiago hartzen duela gizarte zibi-leko esparru guztietan. Geroago ikusiko dugun bezala, estatu-interbentzio-nismoa egungo gizarte kapitalistan gehituz doan zerbait da. Horregatik,

⁹² *Microfísica del poder*, La Piqueta, Madrid, 1979.

⁹³ *Poder y libertad*, Hora, Barcelona, 1983, 85-101.

Nielssonnek dioen bezala⁹⁴, Estatu kapitalista klase zuzendariak kontrolatutako erakundea dela dioten marxisten iritzia beretuz, Estatua eta gizartea bereiztea falazia hutsa da.

Azken batean, azaldu ditugun iritzi horiek guztiak batzea ezinezkoa denez gero, estatu-boterearen ezaugarri nagusienak laburbilduz bukatuko dugu botereari buruzko saioa. Andres de Blas Guerrerorentzat⁹⁵, botere politikoak —Estatuan gauzatzen denak—, egungo gizarte modernoetan jarraiko bi ezaugarri nagusiok ditu: lehenengoa da, obediencia lortzeko ahalbidea duela, horretarako bortxa fisikoaren erabilera monopolizatuz, eta bigarrena, ahalmen hori estatu-antolaketan erakundetzen dela. Nielssonentzat, bere aldetik, jarraiko hiru ezaugarri hauek zaizkio oinarritzkoenak Estatuari: lurraldetasuna, aginte politikarako egitura eta legitimitatea. Nolanahi ere, beste ataletan, areago zehaztuko ditugu Estatuaren eta hezkuntzaren arteko harremanak.

⁹⁴ “Sobre los conceptos de etnicidad, nación y estado”, in Pérez-Agote, A.: *Sociología del nacionalismo*, UPV, Bilbao, 1989, 196.

⁹⁵ “Elementos constitutivos del Estado”, in García Cotarelo, R. (comp.): *Introducción a la teoría del Estado*, op. cit., 85-111.

III

HEZKUNTZAREN EZAGUTZA

Atal honetan, bereziki, taulako hirugarren sailean datorren alderdia aztertuko da. Hezkuntzaren gizarte-errealitatea ezagutzeko prozedura metodologiko eta teorikoez arituko gara, zeinetan sartzan baitira ideologiak eta hezkuntza-zientzietako paradigma desberdinak. Nola hemen, politikan bezala, elementu ideologikoak eta zientifikoak nahasian datozen, paradigmaren azalpenarekin hasi aurretik, hezkuntzak gertatzeaz betetzen dituen zeregin ideologikoez zerbait aurreratutako dugu. Horrela hobeto helduko gara hezkuntzaren izaera ezagutzera.

Hezkuntzaren zeregin ideologikoak

Manuel Puelles Benitezek dakarrenez⁹⁶, hezkuntzaren kontzeptua, ideologiarena bezala, ez da mugigaitza, historian zehar eduki semantiko berriak hartuz etorri dena baizik, ideologia desberdinez kargatuta. Esan dezakegu, hezkuntzaren historian, XVIII. mendea data historikoa dela, bi aro, bi ikuspegi garbiki bereizten direneko muga baita. Frantziako Iraultza arte, hezkuntzaren kontzeptua zerbait pribatua da funtsean, goi-klaseari bakarrik dagokiona eta erakunde pribatuek —normalean konfesionalek—, bideratzen dutena. Hezkuntzaren izaera publikoa Louis-René de La Chalotaisen *Essai de l'éducation nationale* liburua argitaratzean planteatzen da, 1763an,

⁹⁶ *Política y administración educativas*, op. cit., 45-48.

Europa osoan. Hezkuntzari aitortzen zaion interes publiko hori dela bide, Estatuari, ordurarte Elizaren esku zegoen horren ardura bereganatuz, hezkuntza-sistema publikoa antola dezala eskatzen dio, gazteria gizarteak dauzkan gizarte-behar berrietarako presta dezan.

L-R. de La Chalotaisen eragina nabarmena izan zen bezala Ingalaterran, Lancasterreko eskolekin eta Prusian Instrukzio Publikoaren Goi-Kontseiluaren sorrerarekin, Frantziako Iraultza (1789) modu berezi batez garrantzitsua izan zen, eta hau arrazoi bategatik baino gehiagorengatik:

Lehenik, Frantziako Iraultza honen ondotik ezarria izan zelako hezkuntza publikoko sistema. Sistema hau geroago Napoleonek nazionalizatuko du eta Europa osoan zehar zabalduko da. Hezkuntza-sistema publikoaren eraketari dagokionez, guztiz garrantzitsua da Condorcetek Frantziako Batzarrari 1792an egindako txostenean datorren ekarpen doktrinala, tradizio liberalari eusten dioten beste gehienek hori hartuko baitute gero eredutzat. Bere lekuan ikusiko dugunez, adibidez, Espainian.

Condorcet izan zen hezkuntza-sistema irakaskakuntza-maila desberdinetan artikulatu zuena. Hezkuntza gizarte-desberdintasunak kentzeko faktoretzat zeukan. Haren ustez, gizakiak ez ziren desberdinak gaitasun desberdinak zeuzkatelako, ez horregatik bakarrik, baita hezkuntzarik ez zutelako ere. Gizarte industrialak ezinbestekoa baitu hezkuntza, hau beharrezko elementu bihurtzen du politikan. Horregatik ematen zaio izaera publikoa, zerbitzu publikoa izateko xedearekin.

Bigarrenik, iraultza burgesak nazioaren ikuspegi berri bat, ideologia berri bat, ekarri zuelako. Nazioa orain ez da, Erdi Aroan bezala, hiru estamentuek —nobleziak, kleroak eta herri xeheak—, osatutako multzo bat, hiritar guztiek paktu batez lorturiko batasun politiko bat baizik. Estatu-nazio honetan, subiranotasuna nazionala da eta armada, berriz, herriarena. Horrela esplicitzen da XIX. mendeko gobernuak Estatu-nazioarekiko sentimendua indartu beharrean aurkitu zirela, nazio-integrazioa mami zedin, batasun hori, sortuberria izanik, artean ahula baitzen. Eskola izango da, hain zuzen, nazio-integrazio politikoa gauzatzeko ezinbesteko faktorea, jadanik tesi onartua dena diziplina desberdinetako adituen artean⁹⁷. Estatuak eskola-administrazio zentralizatua eraikitzen du. Nola? Batik bat, hizkuntza nazionala ezarritz, ira-

⁹⁷ Hala dio J. A. Obieta Chalbaud juristak: “Pero el instrumento principal del que se han valido los Estados para obtener su fin desnacionalizador ha sido, y sigue siendo, la escuela. La utilización de este instrumento es común a la práctica totalidad de los Estados multinacionales, independientemente de la estructura política que prevalezca en ellos” (*El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos*, Tecnos, Madrid, 1993, 131).

kasletza estatu-lurralde osoan zehar uniformatuz eta testu-liburuak curriculum bakar baten bidez kontrolatuz. Eta zenbait lekutan, adibidez Frantzia eta Espainiako eskola publikoetan XIX. mendean eta XX. mende-hasieran, beren estatu-hizkuntzak ahalik eta azkarren ezar zitezen, zigorrak ere erabiliko dira, gurean, ezagunena aipatzearren, eraztunarena izanik⁹⁸. Langintza honetan, estatu-nazionalismoa eta liberalismoa eskutik joango dira nazio politikoaren eraketan.

Hirugarrenik, industrigintza iraultza burgesak bultzatu zuelako. XIX. mendea dugu iraultza industrialaren mende handia. Iraultza ekonomiko honen makineria berriak egoki erabiltzen jakiteko gazte-jende ikasia edukitzea eskatzen zuen. Behar honi erantzuteko sortzen da irakaskuntza hiru mailatan antolatutako hezkuntza-sistema: lehen mailako irakaskuntza, obligaziozkoa denentzat eta doakoa, bigarren mailakoa lan-mundurako espezializatu eta hirugarren mailakoa, unibertsitarioa, hau goi-koadroak sortzeko pentsatua.

Hezkuntzak bete beharko lituzkeen zeregin politikoak zein diren alde batera utzita, esango dugu, gertatzez, XIX. mendean, jarraiko bi hauek betezen dituela: hots, gizartea eraldatzea eta gizartea kontrolatzea.

Batzuentzat, hezkuntza gizartea eraldatuz joateko faktore bat da, modernitatearen mezulari, ezagutzak ematen dituena, eraginkortasun ekonomikoa gehitzen duena eta berrikuntza dakarrena. Ikuspegi honen barruan, hezkuntzarena zeharka baizik ukitu ez zuen Marxek bi ekarpen garrantzitsu egingen ditu: buru-lana eta esku-lana bereizten ditu, bere emaitza positiboak eman ez etorri dena, eta, bestetik, ez du uzten Estatuaren eskuetan hezkuntza-sistemaren kontrola. Kontrolatu ez, baizik laguntza materiala eman behar dio. Harentzat Estatu burgesiaren aparatu bat gehiago zen; desegin beharrekoa, beraz. Zoritzarrez, ordea, 1917ko Errusiar Iraultzak eta geroztiko iraultza komunistek ez dute aintzakotzat hartuko marxiar irakatsi hori, hezkuntza Estatuaren zerbitzura dagoen adoktrinamendu-tresna bihurtzen baita.

Beste batzuentzat, aldiz, gizarte-kontrola gauzatzeko oinarrizko elementua da, egiteko kontserbadorea betetzen duena, gizarte-herentzia transmititzen duena, kultur ordena eta gizarte-ordena erreproduzitzen duena. Belaunaldi gazteak gizartearen baloreak barneratu behar ditu. Durkheim izango da gizarte-kontrolaren teoria ondoen landuko duena eta honen ondotik etorriko dira Parsons eta Merton funtzionalista kontserbadoreak.

Hezkuntzak betetzen dituen funtzioez hitz egiterakoan, arazoa era dualista eta kontrajarrian planteatu ordez, beharbada zuzenago izango da esatea,

⁹⁸ Garate, Justo, "El anillo escolar en la proscripción del euskera", FLV, 24, 1976, 367-385 (1-19).

hezkuntza-sistemak bi funtzio horiek eta gehiago betetzen dituela. Izan ere, eskola, edozein erregimen politikotan, sozialistan bezala kapitalistan, bote-reari hertsiki atxekirik dago eta irakaskuntza arautuaz baliatzen da eskola-populazioa gizartean menpeketasunaren izpirituz txertatzeko. Ezartzen zaizkion bete-kizunak horiek badira ere, eskola ez baita gizarte-kontraesanak produzitera bakarrik mugatzen, produzitu ere egiten du edo, bederen, egin dezake, Paul Willisen erresistentziaren teoriak egoki azaltzen duen bezala. Baina honetaz luzeago beste atal batean jardungo dugu.

2. Paradigmen berrikusketa

Paradigmen kontu zail hau bitan banatua emango dugu. Lehenik, maila orokorrean eta, aldi berean, garrantzitsuan, tradizio soziologikoan nagusitu izan diren eta egun ere indarrean dauden bi eredu teoriko nagusien azalpena egingo dugu, indibidualtasunaren eta kolektibitatearen arteko hautaketan edota konbinazioan erabakitzen dena; segidan, Hezkuntzaren Soziologian egun dauden paradigmak ere zerbait aipatuko ditugu. Izan ere, segun eta zein eredu teorikotatik begiratzen eta ikusten den errealitatea —edozein gizarte-fenomeno, alegia—, ondorioak ere halakoak izanen dira. Gaur, uanean uneko bakoitzaren komenientziaren arabera, edozein ikerketari ezin eredu teoriko jakinik hautatu gabe ekiteko edota, baita ere, bidean edozein autoreren aipamena egiteko jarrera zabaldua dagoelakoan gaude, nahiz eta paradigmen aldetik oso urrunduta egon eta kontzeptu berberari buruz horietako bakoitzak irakurketa kontrajarria egin. Horregatik ematen diogu horrelako garrantzia alderdi teoriko hau landu eta erreparatzeari.

Errealitatea ezagutzeko bideak bat baino gehiago dira eta, neurri batean edo bestean, denak ditugu onartuak Gizarte-Zientzien komunitatean. Ezagutzaren abiapuntua non kokatu, gizartean ala gizabanakoan, puntu honetan Soziologiaren tradizioan bi eskola nabarmendu izan dira, oraingo ikerketajokabideak ere nolabait baldintzatzen dituztenak. Honen berri ematea da gure oraingo lana.

Indibidualtasuna versus kolektibitatea

Oso egunean daude soziologia kualitatiboan kokatzen diren korrante berriak: interakzionalismo sinbolikoa Mead eta Blumerrekin, fenomenologia Schutz, Berger eta Luckmanekin, eguneroko bizitzaren soziologia Gottmanekin eta etnometodologia Garfinkel eta Cicourelkin. Autore horietako batzuk

sarritan agertu dira, batez ere hasierako ikerlanetan. Ez da hau lekua orain horien teoriak banan-banan hariltzen hasteko, baina bai bada une egokia, gainbegiratu bederen, egungo metodologia gehienik ezaugarritzen duen joera horri buruz ohar batzuk egiteko.

Soziologia kualitatiboaren zerrenda barruan kokatu ohi diren korrante horiek, nahiz eta bakoitzak bere ikuspegi bereziak dituen, oinarritzko hainbat puntu epistemologikotan bat datoz, bereziki honetan: helburutzat gizartegertakarien deskribapen eta azalpen orokorrak eskaintzea duen soziologia kuantitatibo-positibistaren kontra, hark abiapuntutzat daukala gizartemundua esanahi eta sinboloen bidez eraikia dela eta honek, hain zuzen, erai-kuntza hori eta esanahi horien prozesua aztertzea inplikatzeko duela. Ikuspuntu honen arabera, ezin da ezer jakintzat edo supostutzat eman aldez aurretik, ikergaia hertsiki lotua baitago egoera jakin bati. Bestalde, gizarte-errealitatea ez da zerbait bukatua, objektiboki kanpotik azter daitekeen zerbait, beti eginean dagoena eta, beraz, *in fieri* honetan definitu behar dena baizik. Egungo eraikiz gatzat oharkabea eta bizitzako maila guztietan. Horregatik, edozein gizarte-fenomeno egoeran bertan aztertu behar da, horren barruan sartuz eta horren prozesua barrutik egiaztatuz. Ikerketa kualitatibo honetan, bada, esanahi subjektiboaren azterketa objektiboa da printzipiorik oinarritzkoena. Egilearen esanahia elementu aktibo eta funtsezkoa da gizarte-bizitzan. J. I. Olabuenaga eta M. A. Ispizurekin batera esanda⁹⁹, “denbora, espazioa eta taldea (indibidua), hots, ikergaiaren egoera espezifikatzen denean ixten da esanahiaren definizioa”. Alfonso Pérez-Agote eta honen eskolako lan-kategoriak supostu metodologiko hauetan oinarritzen dira bete-betean.

Baina autore horien guztien ekarriak, eta hemendik doa gure bigarren oharra, berritasunetik baino gehiago du lehendik zetorren paradigma fenomenologiko-hermeneutikotik. Azken batean, Husserl eta Weberren seme modernoak besterik ez dira. Eztabaidatu beharreko autoreak, eztabaidatzekotan, azken bi horiek izango lirateke, batez ere. Baina goazen pausoka oharrak areago xehetuz.

Ikerketa aplikatuetan dihardutenentzat, hauentzat bereziki, badirudi gainditurik daudela epistemologiak zientzitasunari buruz egiten dituen diskurtsoak. Ikerketa zientifikorako aski dira kontzeptu operazionalak. Zer gertatzen den? Ikerketak mordoka ikerketa pilatzen direla, ustez zientifikoak, baina horien zientzitasuna zalantzan jartzekoa dela, oinarri teorikoetan huts egiten dutelako, hain zuzen.

⁹⁹ *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1989, 62.

Dena den, oso ezaguna bada ere esango duguna, ez da gaizki etorriko gogoratzea ezagutza zientifikoaren barruti malkartsuan jarrera bat baino gehiago ematen dela. Gutxienik hiru hauek bai: a) jarrera enpiriko-analitikoa, eta hemen sartuko lirateke positibismoa (Comte, Durkheimekin, etab.) eta razionalismo kritikoa (Vienako Zirkulua, Popper, Khun, Lakatos, Hempelkin, etab.); b) jarrera fenomenologiko-hermeneutiko eta linguistikoa (Husserl, Weber, Wittgensteinekin, etab.); c) jarrera kritikoa edo dialektikoa (Marx, Frankfurtoko Eskolarekin, etab.). Noski, jarrera hauen artean ez da adostasunik, egia da; baina honek ez du esan nahi elkar-osagarritasunik eman ez daitekeenik. Esklusibismoak alde batera utzi eta, harrokeriarik gabe, sanoa da izpituari leihoak irekita uztea errealitate objektiboaren bilaketan, jarrera horietako bakoitzak osa baitezake besteen ahulezia. Ikusmolde monolitikoak arriskutsuak izaten dira, modernismoz apainduta datozenean, batez ere. Honelako zerbait gertatzen da soziologia kualitatiboaren inguruan sortutako giro intelektualekin.

Bestalde, Husserlek fenomenologia eta Weberrek soziologia konprehenstiboa edo ulerkorra landu zuten eta bi horietatik etorri da, lehen esan bezala, egungo soziologia kualitatiboaren garapena. Soziologia ulertzeko estilo berri hau noiz eta nola sortzen den jakitea inportantea da.

Ipar Amerikan sortu zen eta bertan garatu gehienbat, oro har, funtzionalismo estrukturalistaren eta, zehazkiago, C. Wright Milsek "enpirismo abstraktua" deiturikoaren kontra bortizki erreakzionatuz. Izan ere, orduko (1930-1950) iparramerikar soziologia finantz boterea zuten erakunde handien (sozietate anonimo, armada, Estatu eta, bereziki, komunikabideen) zerbitzura zegoen, horiek finantzatua zen, eta ikerketa kuantitatiboek sekulako indarra hartu zuten Psikologia eta Soziologian eta datu estatistikoak iturri nagusi bihurtu ziren lan horietan. Erabat normala zen testuinguru horretan jokabide enpirista horren aurka jaiki eta beste eredu baten bila abiatzea.

Bada beste bigarren arrazoi bat ere, gure ustez, soziologia kualitatiboaren sorreran lehenengoa bezain eragilea izan zena. Eta da, funtzionalismo-mota desberdinek nahiz marxismo klasikoak determinismo-kutsu nabariegia zutela eta ahazturik zeukatela gizarte-erakuntzan egileek duten partaidetza aktibo eta eraldatzailea. Bestalde, estrukturalismoaren diskurtsoak, helburutzat giza errealitatea analitikoki objektibatzea duenez gero, humanismoa errotik deuseztatzea inplikatzan du. Estrukturalistek, oro har, hizkuntzaren nahiz azpikontzientziaren nahiz biologiaren egiturak hartzen dituzte beren analisi metazientifikoan abiapuntutzat eta horrela jokatzean gizakiaren heriotza iragartzen dute, zeren, premisa horien arabera, subjektua desegin beharra baitago zientzia eraiki ahal izateko. Horrela, Frantziako korrante

indartsu batek (Lévi-Strauss, Foucault, Lacan, Althusser, Godelier, Labo-ritekin eta) erabakitaz jotzen du subjektibitate indibidualaren arazo zaharra, horretatik eratorritako guztia diskurtso egozentriko oker bat bailitzan. Epistemologi eskabidez subjektuari buruzko kritika estrukturalista onartuz gero, Carlos Moyarekin batera diogu¹⁰⁰, agur Gizarte-Zientzien zentzua bera, agur subjektuaren ilusioa eta agur askatasunarena.

Subjektuaren zeregina, bada, baztertuta zegoen alde askotatik. Gizarte-aldaketarako egile eta eragile izatea ukatzen zitzaion; orobat, ez zen hartzen ezagutza-iturri fidagarritzat. Indarrean zegoen tradizio filosofiko, psikologiko eta soziologikoa handiegia zen subjektuaren zeregina aintzakotzat hartua izan zedin eta, besterik gabe, Gizarte-Zientzien esparrutik baztertu egin zuten.

Saint-Simon, Marx, Freud, Mills, Adorno eta beste hainbatek, ordea, apustua egin zekuten subjektuaren eta, bidenabar, gizartearen askatasunaren alde. Horregatik, espero izatekoa zen kontrako erreakzioa sortzea. Soziologiari dagokionez, honek guztiak, oro har, gizarte-egituretan finkatuegi zegoen makrosoziologia kuantitatiboa kaxan gordeta utzi eta mikrosoziologiaren esparruan subjektuarterko ekintzen eraikuntzan arreta handiagoa jartzea ekarri du ondorioz. Eta biraketa honetan, gizarte-egiturak ukatzen ez badira ere, begi-bistakoa da, Emile Durkheimen zentzuan hitz eginda, lehen-tasuna izaki indibidualari ematen zaiola eta ez kolektiboari. Halaber, subjektuak objektuari aurre hartzean, alderantzizko prozesua indartzen da: hots, subjektua objektibatu egiten da eta, bidenabar, gizarte-egitura elurra bezala urtu egiten dira errepresentazio subjektiboen eguzkitan. Zentzu honetan hitz egiten da esanahi subjektiboen azterketa objektiboaz edota, euskal nazionalismoaren kasura etorrita, euskal nazioari edo euskarari buruzko uste edo errepresentazioen errealtate objektiboaz.

Baina galdera hau da: azken finean interpretazio subjektiboan oinarritzen den diskurtso hori al da, esaten den bezala, diskurtso ustez razional eta zientifiko bakarra? Husserl eta Weber ote dira soziologi gogoetak gaur esku- ra dauzkan eredu-iturririk emankorrenak?

Husserlek eginahalak egin zituen fenomenologiaren bidez filosofia zientzia zehatz bihur zedin. Baina alboan kritika gehiegi pilatu izan zaizkio uste horretan sinetsi ahal izateko. Husserlek alderdi askotatik jaso izan ditu kritikak, batez ere, hiru arrazoi hauengatik¹⁰¹: a) metodo fenomenologikoa

¹⁰⁰ *Señas de Leviatán. Estado nacional y sociedad industrial. España 1936-1980*, Alianza, Madrid, 1984, 191-193.

¹⁰¹ Pucciapelli, E., «Introducción a la actitud científica en filosofía. Las dos caras de la filosofía», in Husserl, E.: *La filosofía como ciencia estricta*, Nova, Buenos Aires, 1981, 741.

gauzetara iristen ez delako, hots, intuizio eidetikoak gauzen itxura edo fenomenoa bakarrik atzematen duelako eta ez zerizana, b), ondorioz, haren murriztapen fenomenologikoa idealismo transzendental batean jausten delako, eta c) kontzientziaren intenzionalitatea ezagutzaren funtsezko egitura bakarra dela esateak oinarririk ez duelako.

Euskal nazionalismoaz jardutean, A. Pérez-Agotek eta honen eskola-koek, batez ere, diskurtsoaren razionaltasuna azpimarratu dute. Eta hori inbokatzean, Weberren gizarte-ekintzari buruzko bereizketa laukoitzarekin egiten da topo, zeinaren arabera lehenengo biak, helburuei (*Zwckrational*) eta baloreei (*Werkrational*) buruzkoak bakarrik alegia, izango bailirateke razionalak, baina ez azkeneko beste biak, hots, afektiboa eta tradizionala, hauetan sentimenduak eta ohiturak nagusitzen direlako¹⁰². Hor, gizarte-ekintzak razionaltasun- eta irrazionaltasun-eskalaren arabera definitzen dira, ekintza ulergarriena delarik helburuei buruz jarrera razionala daukan hura eta ulergarritasun-mailarik apalena duena izanik, aldiz, senez egindako ekintza. Noski, ekintza-tipo idealak dira horiek eta ez da hor gizarte-formazio jakinez ari, nahiz eta bereizketa hori egitean aurrean dauzkan gizarte tradizionala eta gizarte modernoa.

Gizarte-ekintza razionalen eta ez-razionalen arteko Weberren bereizketa hori, ordea, operatiboa bezain irreal da, zeren: a) ez baita batere ebidentea gizarte tradizionalari dagokion oro irrazionala denik eta gizarte modernoari dagokiona, aldiz, razionala. Ikuspegi honek, besterik gabe, asko murrizten du gizarte-gertakarien bilakaera historikoa. Tipologia gehienak bezala, sailkapen estatikoa da, linealegia, zalantzarik gabe, zeren, garai guztietako gizarte-ekintza guztietan ematen baitira nahasian elementu razionalak eta irrazionalak. Gehienez, eta oso zentzu erlatiboan orduan ere, razionaltasun-maila handiagoaz ala txikiagoaz hitz egin liteke.

Gehiago oraindik: Miguel Beltrán zorrotz ohartu den bezala¹⁰³, Weberrek aldarrikatzen duen razionaltasuna huts-hutsik instrumentala da, soilki helburuak lortzeko bitarteko eta helpideetara mugatzen da. Ez du kontsideratzen ez helburuen eta ez baloreen razionaltasuna. Bi helburu edo baloreetatik bat aukeratzeko orduan, irizpide kritikorik gabe uzten gaitu hemen Weberrek, baloraziorik gabe. Zuzenago esan: arrazoi instrumentalak eskaintzen duen eraginkortasuna da jardunbide bakarra. Eraginkortasunaren kontzeptu hori garbiago ageri da Estatu definitzeko erabiltzen dituen elementuetan, hots, legezko bortxaren monopolioan eta menerapen sinbolikoan. Razionaltasuna

¹⁰² Weber, M.: *Economía y sociedad*, Mexico, FCE, 1964, 20.

¹⁰³ *La realidad social*, Tecnos, Madrid, 1991, 115.

berdin eraginkortasuna da gizarte modernoa gehienik ezaugarritzen duena sistema burokratiko batean. Carlos Moyak¹⁰⁴ askotan eta modu askotara lantzen duen funtsezko ideia da hau. Teknoburokraziak, beraz, balore-aldaketa suposatzen du, ideologiaren bukaera, desilusio kolektiboa, utopien chorzketa. Areago oraindik, giza subjektibitatearen izaera transzendentea desegiten denean eta, xedetzat produktibitatea eta kontsumoa hartuz, hura antolaketaren razionaltasun instrumental huts izatera murrizten denean, erabat itzaltzen da giza subjektuaren balore absolutua.

Industri gizarte honen burokratizazio gero eta handiagoaren barruan daukagun arazo nagusia da, gero eta krisi sakonagoa dakarrena, gizateria bera dela bere buruaren zapalkuntza onartzen eta, bide batez, bere esplotazioa objektiboki legeztatzen duena. Gizakiak berak, subjektu errealek alegia, legeztatzen du bere automenerapena. Horregatik, subjektuaren askatasuna politikari eskatzea, errealtatea mitifikatzea izango litzateke¹⁰⁵. Beraz, ikusmolde honetan, gizarte-fenomeno baten dimentsio etikoak ez du hitzik eraginkortasunaren aurrean. Ezin da ezer errebindikatu ezin baloreren nahiz helbururen izenean, ezta zuzenena baldin bada ere, esentzialismoan erori gabe.

Eredu teorikoak Hezkuntzaren Soziologian

Esan bezala, hezkuntzaren arazoa berez baita konplexua —Euskal Herritik bertatik begiraturata aztertzean, agian, oraindik konplexuagoa—, gizarte-harreman espezifikoa saretuago, agertzen da, nabarmenago bistaratzeko, nazioen eta hizkuntzen arteko borroka ere bizi-bizian tartekatzen delako, hain zuzen. Euskal Herriko hezkuntza-komunitatea Estaturik gabeko gizarte bati dagokiona izatean, bertako hezkuntza-sisteman sortzen diren kontraesanak hertsiki loturik aurkitzen dira bai hezkuntzari berari, bai hizkuntzari eta baita politikari ere. Hezkuntza gizarte-fenomeno batenez gero, zerkusi zuzena du gizarte-egiturarekin eta honen barruan egosten diren faktore dinamiko eta eragileekin, hots, soziopolitiko eta kulturarekin. Hezkuntzaren fenomeno ezin da ulertu, geroago zehaztuko dugunez, aldi berean klasea, boterea eta hizkuntza aztertu gabe. Horregatik, nahiz eta euskal arazoaren hezkuntza-espezifikotasuna hizkuntzaren inguruan kokatzen den,

¹⁰⁴ “La racionalidad que implanta la burocratización es puramente instrumental: no va más allá de la organización eficaz, en términos de dominación, de las potencias naturales y de las capacidades humanas” (Moya, C., op. cit., 195).

¹⁰⁵ “El salto de la libertad abstracta a la libertad concreta es el salto de la abstracción humanitaria a la concreta humanidad” (Moya, C., ibid., 207).

arazo horrek, sakonean, ez soilki arazo pedagogiko-didaktikoak, soziolin-
guistiko eta politikoak ere ezkututzen ditu.

Baldin eta euskal irakaskuntzaren helburua, hizkuntzari dagokionez, ikasketa-maila guztietan irakaskintza euskalduna lortzea bada, galde ere, galde daiteke: a) ea, hizkuntz eredu aldetik, xede hori lortu eta ziurtatzeko bidea, orain indarrean dagoen elebitasunarena ote den, ala, soilki, elebakar-tasunarena; eta b) ea, hezkuntza-politikaren aldetik, oraingo egoerak ez ote duen jadanik eskatzen euskal hezkuntza-sistema nazional baten plangintza.

Oinarritzko abiapuntutzat boterearen kontzeptua hartuta, arazo horiek bere errotikotasun guztian planteatuko ditugu euskal hezkuntzaz dihardugun honetan, ustez kontzeptu hori erabakigarria gertatzen baita hezkuntzaren zein hizkuntzaren bilakaeran. Horregatik, euskal hezkuntzari buruzkoa planteat-zeko orduan, euskal arazoa, aldi berean, ez bakarrik klase ikuspegitik, nazio eta hizkuntzaren aldetik ere planteatu beharra dago, baldin eta arazoa bere ezpezifikotasun osoan aztertu nahi bada. Gizarte-gatazkak ez dira klase-mailakoak bakarrik edota hortik eratorritako epifenomenoak; ematen dira, halaber, hizkuntzen eta nazioen arteko gatazkak beren izaera espezifikiko osoan. Eta guztiok, hezkuntza-komunitate jakin batean elkartuta gauzatzen direnean, kontraesan espezifikokoak sortzen dituzte.

Euskal hezkuntza, bada, bere osotasun horretan aztertzea da gure asmoa. Eta aztertzea, gaurkoa atzoko historiaren ispiluan begiratuta. Beraz, ikuspegi historiko-genealogikoa erabiliko da, gaurko egoerara nola eta zergatik heldu garen ikusi eta gero, oraingoaren diagnosis zuzen egin eta etorkizunerako plangintza egin ahal izateko.

Bide zail bezain neketsu hori egiteko, Soziologiako sail berezietara joko dugu, euskal hezkuntzaren espezifikotasuna alderdi desberdinetatik azter dezagun. Hasteko, Hezkuntzaren Soziologiatik abiatuko gara, horko korron-teak eta azken ekarpenak aipatuz; segidan, Hizkuntzaren Soziologiari eska-tuko dizkiogu elebitasunari eta, oro har, hizkuntz normalizazioari buruzko argibideak; azkenik, hezkuntzaren arazoa botereari atxikiz, Politikaren So-ziologiaz baliatuko gara euskal hezkuntza-sistema proiektu nazionalarekin harremanean jartzeko.

Hemen Hezkuntzaren Soziologiaren ekarpenak dakartzagu. Ezinbestez, eta gero areago lantzeko asmotan, oraingoz jarraiko puntu hauetara bilduko ditugu geure premisak.

Oinarritzko lehen abiaputua da, hezkuntza, funtsean, gizarte-gertakari bat dela eta ez, luzaro nagusi izan den ikuspegi psikologistak zioen bezala, giza-banakoari datxekion izaerazko zerbait. E. Durkheimek, maila honetan, urrats kualitatiboa emango du, esatean hezkuntza, beste ezer baino gehiago, feno-

meno soziala dela: “Pedagogi gogoeta ororen postulaturat daukat, hain zuzen, hezkuntza, bere jatorrien nahiz zereginengatik, oroz gainetik izaki soziala dela eta, ondorioz, Pedagogiaren Soziologiarekiko menpekotasuna beste edozein zientziarekikoa baino estuagoa dela”¹⁰⁶.

Harrezkerotik, Hezkuntzaren Soziologiak bide luzea egin du eta esan behar da, nahiz eta horren barruan joera desberdinak egon, postulatu horren egia alderdi askotatik frogatu izan dela, bereziki jarrera kritikoa dutenek egindako ekarpenei esker.

Hezkuntza gizarte-prozesu baten barruan kokatzen da, zeinetan harreman dialektikoan aurkitzen baitira bertan parte hartzen duten gizarte-faktore desberdinak, garrantzitsuenak, gero adieraziko dugunez, politikoak, ekonomikoak eta linguistikoak izaki. Beraz, hezkuntza ez da zerbañ neutroa, gizarte-bilakaeratik isolatuta ematen dena; alderantziz, gizartean badu bere eragina eta, aldi berean, berak haren eragina hartzen du. Harreman horiek, noski, era konplexu eta kontraesankorrean eta, oro har, gizarte-egoera desberdinen arabera, era ez-uniformean gauzatzen dira. Harreman gatazkatsu horien nolakotasuna esplizitatzeko orduan sortzen dira zailtasunak eta, ondorioz, ikuspegi-desberdintasunak.

Gaur, Bigarren Mundu-Gerraz geroztik, bereziki, Hezkuntzaren Soziologian lau joera bezala nagusitzen direla esan dezakegu. Denbora aski luzez, Bigarren Mundu-Gerraz geroztiko industrigintzaren garapen betean, amerikar funtzionalismoaren eta honi kontrajarritako marxismo klasikoaren paradigmatik nagusitu izan dira, hariak eta hortxe, 1970eko hamarkada-hasieran edo, bi teoria estrukturalista horiek, beren artean kontrajarriak izan arren, sobera deterministak irizteagatik zorrozki kritikatuak izango diren arte. Gero alternatiba berriak etorriko dira, batik bat, Chicagoko Eskola psikosozialetik, interakzionalismoaren eta Ingalaterrako soziologia berriaren inguruan. Aldi berean, neomarxismoaren eta beste zenbait eskola autonomoren baitan, bate-tik, erreproduzioaren eta, bestetik, produkzio eta erreproduzioaren teoriak landuko dira, gizarte-esparru desberdinei, hauen artean kulturari eta Estatuari, autonomia gehiago aitortuz, baina gehienbat klase-ikuspegitik begiraturata. Azkenaldiotan, ordea, gizarte-nortasun kolektiboaren ikuspegia nagusitzen ari da, Kultur Antropologia eta Soziologiaren eraginez, besteak beste, kontzeptu ardatza etniarena delarik.

Orain arte esandakoak egun indarrean dauden paradigma batzuk berri-kustera garamatza, besterik ez bada gainbegiratu, hezkuntzarenean,

¹⁰⁶ *Hezkuntza eta Soziologia*, Klasikoak, Bilbao, 1993, 90.

zehazki, ikerketa-ildoak nondik doazen ikus dezagun eta zeinek zer azpimarratzen duen eta zertan huts egiten duen jabetuz joan gaitez.

Determinismo tekno-funtzionalista eta estrukturalista

Joera hau mota desberdinetako tekno-funtzionalismoan eta marxismo klasikoan indartzen da eta berorien ondorioak erreprodukzioaren teorietan islatzen dira, batez ere. Hauentzat guztientzat eskola “kaxa beltz” bat da, bere baitan interesik ez duena, gizarte-egituren ondorioz osoki determinatua, mugatua, baldintzatua dagoena. Eskolak egiten duen guztia, hauxe da: giza kapitala sortu (funtzionalismo teknologikoa), kredentzialak ziurtatu (kredentzialismoa), gizarte produkzio-harremanak erreproduzitu, hala nola, ideologikoak (Althusser, Baudelot, Establet), lan-mundukoak (Bowles, Gintis), kulturalak (Bourdieu, Passeron) eta linguistikoak (Bernstein).

Oro har deterministegizat jotzen den joera orokor honen barruan, ordea, ikuspegi erabat kontrajariak daude, egon, gizarte-funtzionamenduari buruz.

Funtzionalismo teknologikoari dagokionez, non joera bat baino gehiago ematen baita¹⁰⁷, esan behar da gizartetik eta, ondorioz, eskolatik bazter uzten dituela soziologi tradizioan hain oinarritzkoak diren gatazka eta giza jardueren kontzeptuak. Funtzionalismoaren barruan, ordea, jarrera kritikoa agertzen duenik ere bada. Collinsen kredentzialismoa —gogorra deitzen zaion hori, hain zuzen—, hortxe sartzen da. Ez dezagun ahaz honek badarabilela gatazkaren kontzeptua, baina ez klasearen zentzuan, estatusenean baizik, Weberren ildotik. Gogoan hartu beharreko puntua da hauxe, hortxe ematen baita eredu weberiar eta marxiarren arteko mugetako bat.

Jarrera kritikoaaren barruan, era berean, beste bi joera daude: bata hertsiki marxista dena, Althusser, Baudelot, Establet, Bowles, Gintis eta abarrek osatzen dutenena; eta bestea, Bourdieu, Passeron, Bernsteinen kasuan bezala, ezkerrekoak izanda, beren pentsamendu autonomoa dutenena. Beren artean desberdintasun nabariak dituzten arren, guztiok batera datoz esatean, bate-tik, gizarte-izaera, egitura aldetik, gatazkatsua dela eta, bestetik, eskolako gatazkak, azken batean, gizarte-gatazken isla huts direla. Erreprodukzioaren teoriak baieztapen nagusi horretan oinarritzen dira. Metodoaren aldetik, soziologia kuantitatiboan oinarritzen dira eta gehienbat makrosoziologia lantzen dute.

¹⁰⁷ Jarraiko hiru korrante hauek bederen bereizten dira: a) industrialismoa (Kerr, Dumlop, Harbison eta Meyers; Marck); b) estratifikazioaren teoria (Davis eta Moore); c) giza kapitala (Schultz).

Hauci egiten zaien kritika da ez dutela behar adina kontuan hartzen subjektuen ekintzak gizartearen eraldakuntzan duen eragina eta, ondorioz, sobe-
ra estrukturo-deterministak direla. Hauen ustez, gizarte-egiturak aldatu arte,
ezingo da aldatu hezkuntza-sistema.

Horien jarrera erreproduzitzaileria ezeztatzetik datoz, hain zuzen, alter-
natiba berriak. Ikuspegi ustez deterministegi horren kontrako erreakzioak
hiru norabide hartu izan ditu, jarraian aipatuko ditugunak.

Interakzionalismoa

Joera honek —batik bat, interakzionalismo sinbolikoan, fenomenologian
eta etnometodologian oinarrituta—, soziologia kualitatiboa aldarrikatzen du
eta ikerketa-estilo honetan ohi den etnografi metodoa erabiltzen.

Korronte honen ezaugarri nagusia da, gizarte-egileek, hots, ikasle eta ira-
kasleek hezkuntzaren prozesuan duten garrantzia nabarmentzen dutela.
Mikrosoziologia lantzerantz mugatzen dira gehienbat, ikasgela-barruan ematen
diren elkarrekintzak esplizitatuz.

Joera honetakoei justu alderantzizko kritika egiten zaie: ez dutela ain-
tzakotzat hartzen gizarte-egiturek hezkuntza-egitatearen eraketan duten
pisua, alegia. Han diskurtsoa determinista zen bezala, hemen boluntarista da,
gizabanakoa —subjektua—, baita gizarte-aldaketaren eragile nagusi.

Bi erredukzionismo-mota horiek, nola estrukturalista hala interakzio-
nista —objektibista eta subjektibista ere deitu ohi zaiena—, gaintitu nahi-
riko ahaleginean dihardute egungo neomarxistek. Bien arteko sintesi-
asmoa honela formulatzen du M. Fernández Enguitak: “integrar en un úni-
co cuerpo teórico estructura social y actividad humana, reproducción y
contradicción”¹⁰⁸.

Helburu horri buruz, ikerketek bi bide hartu dituzte: bata erreproduk-
zioaren teoria lantzen duena eta bestea, berriz, produkzioa eta erreprodukzioa
bateratzen dituen.

Erreprodukzioaren teoriak

Teoriak diogu, zeren erreprodukzioaren oinarritzen direnak, nahiz ideo-
logi korronte desberdinetakoak izan, bat baino gehiago baitira. Hemen

¹⁰⁸ “¿Hacia dónde va la sociología de la educación?”, in Ortega, F.; González García, E.;
Guerrero, A. y Sánchez, M. E. (eds.): *Manual de Sociología de la Educación*, Visor, Madrid,
1989, 52.

kokatzen dira, lehen aurreratu bezala, Bourdieu, Passeron, Bernstein eta beste hainbat marxistaren ikuspegiak. Hauen ustez, hezkuntza-sistemak gizartean mamitzen diren harreman-mota desberdinak erreproduzitzen ditu: ekonomikoak, kulturalak, linguistikoak, generoarenak eta bestelakoak. Baina ez era mekaniko batez, ezinbesteko determinismo batek aginduta; aitzitik, hezkuntzaren gizartearekiko harremanak, sakonean, kontraesan bezala beteak daude eta elkarren arteko eragina da erabakigarria gertatzen dena, gizarte-esparru desberdinetan indar-erlazioek agintzen dutenaren arabera.

Kontraesan horiek, areago zehaztuz, bi mailatakoak izan daitezke. Batetik, Estatuaren eta ekonomiaren artekoak dira, interesetan batera ez datozenak. Hezkuntza, Estatuari dagokion erakundea da, izan; baina, aldi berean, haren egitekorik nagusietako bat, ez bakarra, ikasleak lan-mundurako prestatzea da. Gertatzen dena da, arazoa gizartearen egitura politikotik begiratu-ta, Estatuaren eta ekonomiaren arteko interesak ez direla beti ados etortzen, zeren Estuari legez bederen izaera demokratikoa aitortzen zaion aldi berean gizarte zibilean egitura kapitalistak agintzen baitu. Horra hor kontraesan nabarmena, M. Fernández Enguitak honela laburbiltzen duena: "... la economía está dominada por la producción y, consiguientemente, por quienes poseen el poder de esta subesfera. Por consiguiente, cuando decimos que el Estado es democrático y la economía no, lo que hacemos es subsumir cada una de las dos esferas, en su totalidad, bajo lo que no es sino su aspecto principal"¹⁰⁹. Estatuaren xede politiko demokratikoak eta gizarte kapitalistaren xede ekonomiko liberalak ez datoz bat. Gehiengoaren interesak eta gutxiengoarenak elkarren aurka daudenak dira. Hemendik dator, etorri, Estatu demokratikoen gizarte-izaera, funtsean, dualista izatea.

Bestetik, berriz, kontraesanak ez dira bakarrik ematen gizarte-esparru desberdinetan, hala nola lehen aipaturiko hezkuntzan, ekonomian eta Estatuan; aitzitik, gizarte-esparru horietako bakoitzaren barruan, kontraesan berriak gurutzatzen dira. Honela, kontraesanen katea asko korapilatzen da, orobat hezkuntzaren prozesua asko konplikatzeko eta, ondorioz, erreprodukzioaren bilakaerak zehaztasun handiagoak eskatzen ditu.

Orain artekoan, neomarxisten artean, hezkuntzaren arazoa gehienbat klase-ikuspegitik ikusi izan da, eta halaxe ikusiz segitzen dute. Hori, bai, nolabait gauditu da lehengo ikuspegi deterministegi hura eta, zentzu honetan, gaineiturari autonomia gehiago aitortzen zaio bere esparru guztietan, nola genero-arazoetan hala ekologiarenean. Baina nazio-arazoari dagokionez, hau

¹⁰⁹ *La escuela a examen*, Eudema, Madrid, 1990, 135.

orokorrean hartuta, honen barruan hizkuntzari zein hezkuntzari dagozkienak bere espezifikotasunez eta autonomiaz formulatu ahal izateko moçuko eredu teoriko egokirik ez da burutu oraindik. Ahalegin honetan gehien hurbildu dena, agian, izan bide daiteke Samuel Bowles eta Herbet Gintisen azken saioa. Hauek, beren liburuari, *Schooling in Capitalist America* (1977) sonatuari¹⁰, alegia, egindako kritika kontuan izanda, beren tesiak berrikusten dituzte artikulu mamitsu batean¹¹, bertan eredu zabalagoa, osatuagoa —ez lehengoa bezain determinista, alegia—, proposatuz, guk interesgarritzat jotzen duguna.

Hortik zer geureturik balegoke eta, merezi du aipatzea. Artikulu horretan, hain zuzen ere, gizarte-formazioa —hizkuntza marxistan esanda—, nola gogoeman behar den planteatzen da. Beraiek gizarte egituraz saretutako gizarte- praktiken esparru gisa gogoematea proposatzen dute. Baina aurrera segi baino lehen, gera gaitezen hor azaldu diren bi kontzeptu nagusi azaltzen, bestela ez baitugu jakingo zertaz ari garen hizketan. Esparrua (*esfera*) eta praktika dira horiek.

Horientzat, *esparrua* gizarte-bizitzako gune kohesionatu bat da, zeinetan harreman-multzo edo gizarte-egitura espezifikoak ematen baitira, zehazki hiru hauek: a) *Estatu demokratiko liberala*, zeinaren ezaugarriak baitira botueskubide ia unibertsala eta askatasun zibil orokorrak; b) *familia patriarkala*, zeina egituratua baitago ahaidetasunean, sexu-desberdintasunean eta belaualdi-harremanetan; c) *produkzio kapitalista*, zeinaren ezaugarriak baitira jabetza pribatua, produkzio-bideak, merkatu-trukaketa, lan alokatua, produkzioaren kontrol kapitalista eta inbertsioa. Hiru esparru horiek, bada, oinarritzotzat jotzen dituzte gizarte-formazio kapitalista aurreratuen dinamika azaltzeko. Hauen ustez, hiru harreman-mota nagusi horiek dira gizabanakoaren gizartearekiko harremanak mugatzen dituztenak, zeinaren arabera gizaki bakoitzak baititu bere hiritartasuna, bere sexu- eta ahaidetasun-estatusa eta bere klase-egoera. Eta esparru horietako bakoitzak bere menerapen-harreman desberdinak izateko gaitasuna dauka: hots, jabetzaren esparruan kapitalak lana menperatzen du, familiarenean gizonezkoek emakumezkoak hartzen dituzte menpean; Estatuarenean, aldiz, honen ezaugarria menerapenari dago-kiona izan ez arren, hiritarren menperatzaile izan daiteke. Bestalde, esan

¹⁰ Harper&Row, New York; gaztelaniaz, *La instrucción escolar en la América capitalista*, Siglo XXI, México, 1981.

¹¹ “La educación como escenario de las contradicciones en la reproducción de la relación capital-trabajo”, *Educación y Sociedad*, 2, Akal, Madrid, 1983, 7-23.

behar da esparru bakoitzak bere autonomia duela, baina haren dinamika ez dela eratortzen bere egituratik bakarrik, ezta beste egituretatik ere; aitzitik, esparru horiek beren baitan ematen diren praktikak egituratzen dituzte. Baina horretarako praktikak zer diren jakin behar da.

Praktikak, orokorrean, gizabanakoek, talde edo klase batekoek gizartean egiten dituzten partehartzeak dira, helburutzat gizarte-errealitatearen alderdiren bat eraldatzea edota, alderantziz, egonkortzea dutenak. Oinarritzko lau praktika-mota aipatzen dituzte: a) *apropiatiboa*, helburutzat izadia eraldatu eta produktu erabilgarriak sortzea daukana; b) *politikoa*, helburutzat esparru bateko gizarte-harremanak aldatzea duena; c) *kulturala*, helburutzat, informazioa elkar-trukatuz, kontzientzi egoerak adieraziz eta solidaritate-loturak ezarriz, diskurtso-tresnak eraldatzea daukana; d) *distributiboa*, helburutzat boterea banatu eta banaketa horretan aldaketak egitea daukana.

Beraz, eta laburtuz, esango dugu gizarte-formazioaren osaketan daudela, batetik, esparruen egiturazko saretzea eta, bestetik, horien barruan gauzatzen diren praktika apropiatibo, politiko, kultural eta distributiboen egiturazko saretzea. Egiturazko bi saretze-mota horien emaitza da gizarte-formazioa.

Esparru horien barruan praktika horiek nola saretzen, nola gauzatzen diren? Autore hauen tesia, galdera horri erantzuna emanez egiten dutena, hauxe da: kontraesan zeharkatutako osotasun baten gisa funtzionatzen dutela, eta kontraesan horiek eragiten dituzten printzipio dinamikoak bi hauek direla: *mugatze estrukturala* (delimitación estructural) eta *praktiken esparruz aldatzea* (traslación de prácticas). Beraz, batetik, esparruak elkarren artean mugatuta daude eta, bestetik, talde desberdinek, beren borroketan, beren esparruko praktikak beste esparruetara ere hedatzen dituzte. Bi printzipio hauek erreproduzitzailak gertatzen dira elkarren artean. Hona hemen adibide bat: Estatuak gizonezko zein emakumezkoentzat, hauek hiritar gisa hartuta, hezkuntza erlatiboki berdina aldarrikatzen du XX. mendean, baina enpresa kapitalistan harreman hierarkikoak erreproduzitzen direnez gero, emakumezkoak gizonezkoen menpeko gertatzen dira.

Hemen, horien tesiaren laburpena eginez, esan behar da gizarte-egituren funtzionamenduan, zeinetan esparruen barruan praktika desberdinak gurtzatzen baitira, kontraesanak daudela, honela zehazten direnak: praktika politikoen barruan, batetik, jabetza pribatuari dagozkion eskubideak dauzkagu Estatu demokratiko liberalari dagozkion pertsonen eskubideei kontrajarririk; orobat, famili esparruan gizonezkoen eskubideak nagusitzen dira, emakumezkoen gainetik.

Ezin gara aurrera joan eredu honen aurrean ohar kritiko batzuk egin gabe.

Egia esan, bere alde interesgarria badu eredu honek, eta da: a) gizarte-formazioa bere osotasunean saretua gogoematen duela, bertan bi maila bereiziz, bata esparruena eta praktikena bestea, eta b) erreprodukzio hutsean geldituko ez den gizarte-mekanismoan bi printzipio dinamiko ezartzen dituela, bata esparruen arteko mugaketa eta praktiken arteko nahasketa bestea. Honaino onargarri izan bide daiteke eredu hori.

Baina —eta hemen dator gure kritika—, esparruen sailean hiru bakarririk aipatzen ditu: Estatu, familia patriarkala eta jabetza pribatua. Hemen, bai, ikuspegi monoklasistegia nagusitzen da autore hauen baitan, zeren jadanik gauza bistakoa baita, lehen bezala egun ere, herri-mugimenduetatik datozen harreman-indar biziki garrantzitsua erakusten duten beste esparru edo gizarte-talde batzuk ere badirela, izan, gizarte-dinamikan beren protagonismoa han eta hemen agertuz datozenak, hala nola: mugimendu nazionalistak, ekologistak, feministak, antimilitaristak eta bestelakoak. Hauek guztiek gizarte-eraldakuntzan parte hartzen duten indar biziak dira eta, modu batera edo bestera, Estatu-nazioaren ustezko izaera “demokratikoari” kontrajarririk daude. Horiek auzitan jartzen dutena ez da bakarrik gizarte kapitalista eta beroni atxikiriko familia patriarkala, horiek barne hartuta eta horiekin harremanean baina beren izate autonomoarekin, Estatu-nazioa bera ere bai, eta horixe bereziki, zeren honen izaera zapaltzaile eta bortxazalea, azken batean, bere errepresio-aparatu ahaltsu eta zigorgabekoan oinarritzen baita.

Azken batean, neomarxista hauek ere eskema dualistaren jirabiran mugitzen dira: batetik, Estatu demokratikoa dago, hiritar guztien eskubideak defendatzen dituena, eta bestetik, gizarte kapitalista, jabetza pribatuan oinarritzen dena. Estatu, berez, demokratikoa da; gizarte kapitalista da zapaltzailea, klasista delako. Beraz, baldin gizarte kapitalista sozialduko balitz, ez litzateke emanen hiritarren artean ez desberdintasunik ez zapalkuntzarik. Honela pentsatzea, ordea, gizarte-errealitatearen ulerpenera sobera sinplifikatzea dela uste dugu.

Erreprodukzioari buruzko teoria horietan jasotzen dituzte, bai, herri-mugimendu batzuk, baina, arestian esan bezala, biderdian gelditzen dira, beste batzuk alboan uzten dituztelako. “Demokratikoa” omen den Estatuari, orain Ongizatekoa deituari, bere neutraltasun-izaera aitortzen diote eta epaile zuzenaren eginkizuna esleitzen. Harrigarria ere bada hau guztia eskema neomarxista batean formulatuta ikustea, zeren, hastapeneko marxiar irakurketan, Estatu iraultza bidez gauditu eta desagerrarazi beharreko gizarte-egitura burgesa baitzen, gainegiturari zegokiona. Nolatan eta nondik datorkio orain ongile eta neutrala izatea? Amerikar neomarxismoan nabari da, batez ere, neoliberalismoaren eragina. Hau batetik; bestetik, berriz, Estatu-nazioaren

existentzia bera auzitan jartzen duten herri-mugimenduak —eta horrelakoak dira nazionalismo independentistak—, jasanezinak gertatzen dira beren ideologia politikoa jarrera estatalistak agertzen dituzten guztientzat, ezkerrekoentzat zein eskuinekoentzat. Hementxe datza, gure ustez, goian egindako galderaren gakoa.

Ikus daitekeenez, bada, azken saio horretan ere erreproduzioaren teoria ez da arbuiazen, kontraesan-sare gero eta konplexuagoaren argitan berriakurtzen baizik, baina hura gainditu gabe. Ikerketa-bide honetatik doaz amerikar neomarxista gehienak, hauen artean Bowles eta Gintis, Carnoy eta Levin; orobat Espainiako neomarxistak, M. Fernández Enguita bezala, edota, baita ere, Ramón Flecharen antzera, kritikoak autoizendatzen diren soziologo eta pedagogoa gehienak.

Produkzio eta erreproduzioaren teoriak

Neomarxiten artean, azkenaldiotan, kultur produkzioari ere bere garrantzia ematen dion joera indartu da, zeinaren arabera gainegitura ez baita gizarte-erreproduzioen emaitza soil, zeina, gehienbat, azpiegitura ekonomikoak determinatzen baitu. Hori eta zerbait gehiago ere bada: hots, kultur eraldatzailearen gunea. Hezkuntza-sistemak, klase dominatzaileen kultura erreproduzitu ez ezik, kultura iraultzailea ere produzitzen du edo, bederen, produzi dezake. Hemendik dator teoria honi aldi berean erreproduzioarena eta produkzioarena deitzea. Hemen ez da onartzen ekonomiaen determinismo itsurik.

Zehazago esanda, joera honek, etnografi metodoan oinarrituz, subjektuen jarduera ezartzen du ikerketa-gunetzat. Honela jardutean, subjektuek gizarte-egitura era dinamiko batez eraldatzeko duten gaitasuna azpimarratzen du. Bestalde, klase, etnia eta generoaren kontzeptuak abiapuntutzat hartuta, dinamika indibidual hori baldintzez eta hertsipenez osaturiko gizarte-egiturekin harreman hertsian jartzen du. Arazoa honela planteatzean, bada, etnografia klasikoaren muga boluntaristak gainditu egiten ditu, zeren, eskola gatazka-leku berezi gisa daukan aldi berean, gatazka espezifiko horiek eskola-esparrua baino zabalagoa den eta haiek barneharturik daudeneko gizarte-egituren baitan kokatzen baitu.

Hemendik doaz, besteak beste, Paul Willisek¹¹² eta H. Girouxek¹¹³ landutako erresistentziaren teoriak, gizarte-aldaketa subjektu historikoen ekintza-

¹¹² "Producción cultural y teorías de la reproducción", *Educación y Sociedad*, 5, 1986, 7-34; *Aprendiendo a trabajar*, Akal, Madrid, 1988.

¹¹³ *Theory and Resistance in Education*, Heinemann, Londres, 1983.

bidetik markatzen duten aldetik, mezu askatzailez hornitutako herri-mugimendu desberdinen dinamika azaltzeko baliagarriak izan daitezkeenak. Eredu irikia da gizarte-fenomeno berriak zalutasunez ulertu edota azaltzeko, bide batez, hurbilketa kualitatiboari ere leku garrantzitsua ematen baitzaio.

Kultur eta hizkuntz erreprodukzioa

Ez goaz marxismo klasikoak hizkuntzaren eta klasetasunaren arteko harremani buruz eraikitako tesi desberdinez deus errepikatuzera¹¹⁴. Hemen Hezkuntzaren Soziologiaren barruan eskola hertsiki marxistakoak ez diren autore batzuen ikuspegiak aipatzera mugatuko gara.

Hezkuntzaren alorrean egindako ikerketen arabera, tradizionalki esan izan da “hizkuntz defizita” ematen dela gizarte-jatorri apaleko ikasleen baitan eta horixe dela, hain zuzen, eskola-porrotaren kausa nabarietako bat. Suposatzen zen goi-klaseko nahiz ertaineko haurrek arrakasta gehiago zutela eskolan, horien hizkuntza aberatsagoa zelako eta, ondorioz, egokiagoa eskolatzeko. Hizkuntz eskasia hori gainditzeko, bada, “irakaskuntza konpentsatorioa” zeukan planifikatua erreformismo funtzionalistak. Onartuzat ematen zen planteamendu klasiko horietan hizkuntz defizita eragiten zuena ingurune sozio-kulturalari zegokiona zela. Baina, geroagoko ikerketek erakutsi dutenez, defizitaren arazo hori funtsean ez zen erabat zuzena.

Hizkuntzaren aberastasun eta pobretasunari buruzko eztabaida 1960 eta 1970eko hamarkadetan eman zen Estatu Batuetan. W. Labovek¹¹⁵ frogatu zuen arraza beltzeko ikasleek ez zutela aurkezten hizkuntz defizitik ikuspuntu funtzional edo estrukturalen aldetik begiratuta; aitzitik, haien kodeak beste kultur beharrian batzuei erantzuten ziela. Beraz, eskola-porrotari nahiz arrakastari buruzko arazoak ezin dira formulatu hizkuntzaren baitako aberastasun edo pobreziaren arabera, kultur proiektuen argitan baizik. Hizkuntza, heterogeneoa eta faktore estralinguistikoez baldintzatua izateaz gain, etengabe aldatuz datorrena da. Hizkuntzari buruzko teoriak nahitaez dinamikoa izan behar du.

Geroago, ordea, ikerketa berriak etorri ziren Ingalaterran, Basil Bernsteinen eskutik¹¹⁶ bereziki. Eta harrezkero, honen tesiak, kritikagarriak

¹¹⁴ Autore marxistez jarduna da aspalditxo Joxe Azurmendi *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* liburuan, bigarren partean zehazki (1971, 173-240).

¹¹⁵ “La lógica del inglés no standard”, *Educación y Sociedad*, 4, Madrid, 1985, 145-168.

¹¹⁶ “Clase social, lenguaje y socialización”, *Educación y Sociedad*, 4, Madrid, 1985, 129-143; *Poder, educación y conciencia*, Cristian Cox/CIDE, Santiago de Chile, 1988.

eta kritikatuak izan arren, oinarritzakoak dira gai honetan. Ikusirik irakaskuntza konpentsatorioak porrot egiten duela, klase desfavoratuetatik datozen ikasleen porrota zergatik gertatzen den aztertzen saiatzen da. Haren ustea da haurrak familian jasotzen dituela ez bakarrik hizkuntz arau jakin batzuk, baita komunikatzeko era bat ere, diskurtso berezi bat, gizarte-klase desberdinen arabera desberdina dena. Kode hauei “publikoak” eta “formalak” deitzen die; geroago, hurrenez hurren, “murriztuak” eta “landuak”. Kode landua mintzaira biziki egituratu bati dagokiona da, izaera abstraktu eta razionala duena. Hauxe da testu-liburuetan erabiltzen dena; kode murriztuak, aldiz, izaera konkretua eta afektiboa du eta honi dagokion hizkuntz motarik ez da kausitzen eskola-curriculumean. Gertatzen dena da diskurtso edo kode hauek direla ikaslearen norabide intelektuala, afektiboa eta soziala determinatzen dutenak. Eskolak ez ditu tratatzen era berean kode horiek; alderantziz, goi-klaseko nahiz ertaineko ikasleen kodeak pribilegiatu egiten ditu eta klase apalekoenak, aldiz, baztertu. Ondorioa da kode landua dutenek arrakasta lortzen dutela eskolan, hemen erabiltzen den hizkuntzarekin bat datorrelako, eta murriztua dutenek, aldiz, porrota ezagutzen dutela, eskola-hizkuntza ezezaguna egiten zaielako. Joshua Fishamnek¹¹⁷ kode bakoitzaren ezaugarri morfosintaktikoak deskribatzen ditu eta, bide batez, kode horien sorreran dauden gizarte-faktoreak aurkitzen ere saiatzen da.

Pierre Bourdieuren tesiak¹¹⁸ ere B. Bernsteinenak sendotzera datoz. Honek hizkuntz egitatea gizarte-ingurunetik disoziatzen duten zenbait linguistaren (Saussure, Benveniste, Austin, Habermas, Chomsky, Labov, etabarrak) kontra erreakzionatuz, esaten du hizkuntza gizarte-erakunde bete-betean dela, gizartearen garapen orokorrean guztiz inplikaturik dagoela. Hain inplikaturik, ezen mintzairaren erabilera hitzunik gizaratean daukan posizioaren edo lekua dependenzian baitago.

Beraz, esan daiteke haurrek eskolan duten arrakasta zein porrota, ekarpen horien argitan, klase-jatorriaren arabera ere zehazten direla. Klase apaleko haurrek izango lirerateke hizkuntz defizita jasaten luketenak.

Bernstein eta Bourdieuren eredu hauetan hizkuntzaren eta hezkuntzaren arteko lotura organikoa egina dago, zerbait estrukturala da, baina, azalpenean ikusi bezala, lotura horren korapiloa klase-ikuspegitik egina da, oinarritzako soilki gizarte-jatorria hartuta. Bestalde, Hizkuntzaren Soziologiari dagokionez, honen oinarri teorikoak finkatzen dituen Joshua Fishmanek ez ditu hiz-

¹¹⁷ *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid, 1988.

¹¹⁸ *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*, Fayard, Paris, 1982.

kuntzarena eta hezkuntzarena gizarte-prozesu berean uztartzen eta, ondorioz, bi gizarte-egitate horien artean nolabaiteko disoziazioa ematen da. Hizkuntzarik gabe ez baitago kulturarik, ezta kultur transmisiorik ere, galdera da ea nola elkartzen diren eredu teoriko berean klase-jatorriko defizita ez ezik hizkuntzakoa ere baduen Estaturik gabeko hezkuntza-komunitate elebidun batean.

Horixe da gure kasua eta maila horretantxe planteatu behar da euskal irakaskuntzaren arazo espezifikoa. Eta espezifikotasun hau jasotzeko, ez da aski eredu klasista hutsa, ez den bezala eredu linguistiko hutsa, gauza jakina baita klaseek ere, hizkuntzen erabilerari dagokionez, beren aukera egiten dutela. Katalan burgesiak bere hizkuntzarekiko atxikimendua erakutsi izan du; euskal burgesiak, aldiz, ez. Zergatik? Galdera honek merezi du gogoetarik, besterik ez bada klaseak eta hizkuntzak harremanean jartzeko eta harreman hauek zein mailatan elkar-gurutzatzen diren zehazteko.

3. Gure eredu-proposamena: askagintza etikoaren pedagogia kritikoa

Bada honezkero ikertu ditugun alderdi guzti horietatik ondorio batzuk atera, sintesi moduko azalpen laburra egin eta, bidenabar, gure tesiak formulatzeko ordua. Gure abiapuntua da, orokorrean esanda, lotura dialektikoa ematen dela nazioa, hizkuntza, hezkuntza eta klasearen artean, baina horietako bakoitzak bere espezifikotasuna duela eta gizartearen osaketa eta eraldaketan elkar-inplikaturik datozela boterearen inguruan.

Lehen tesia: Gizartea osatzen duten oinarrizko esparruen artean sartu beharrekoa da nazio-nortasuna edo herri-nortasuna —Manuel Castellsen ereduak ikusi bezala—, eta ez, Bowles eta Gintisen eskeman bezala, hiru hauek bakarrik: Estatu demokratiko liberala, familia patriarkala eta produkzio kapitalista. Azken finean, eskema hau erabat dualista da: batetik Estatuak dago, zeina demokratikoa baita, guztientzat berdina, eta, bestetik, gizarte zibilean kokatzen diren familia eta ekonomia kapitalista, hauek sistema patriarkalean eta jabetza pribatuan oinarritzen direnak. Gizarte zibilean nagusitzen diren familia patriarkala eta sistema kapitalista dira hiritarrei Estatuak aitortzen dizkien eskubideak ukatzen dizkienak, eta ukatzen, hain zuzen, haiek jabetza pribatuari darizkion eskubideetan oinarritzen diren heinean. Autore horien eskema berbera azaltzen du M. Fernández Enguita marxistak ere. Neomarxista hauek ere mintzatzen dira generoaz, ekologiaz, etab., baina tipologia dualistaren baitatik begiratuta. Eta Estatu demokratiko liberala, ez

berez eta nahitaez menerapen-gunetzat¹¹⁹, baizik eskubide indibidualen berme-gunetzat hartzen den unetik beretik ulertezinak gertatzen dira Estuarenak ez diren nazio eta hizkuntza zapalduen erresistentzi historiak. Izan ere, nazio-askapenen aldeko mugimenduak eta hauei atxikiriko kultur plataformak dira zuzen-zuzenean ustezko Estatu demokratiko hori auzitan jartzen dutenak. Arazo hau daukatenentzat, bistan da, Estatua, beronek boterea bortxaz monopolizatzen duen heinean, aparatu neutro bat ez, baizik zapaltzaile-rik nagusi:en gertatzen da, berak ezintzen baitu hauen askatasun-eskabidea. Zentzu honetan, neoliberalismoak demokrazia: egiten duen diskurtsoa bukatua da, bukatua diogu, eskema horietan bezala, hiritarren eskubide-subjektu bakartzat Estatua hartzen den heinean. Nazio-mugimenduen muina ezaugarritzen duen elementu garrantzitsuenetako bat, hain zuzen, bere burua eskubide-subjektutzat hartzea da, adibidez, Lizarra-Garaziko partaideen printzipio-aldarrikapenean egin den bezala.

Bigarren tesia: Hizkuntza, hezkuntza eta klasearen kontzeptuek elkarren artean harreman dialektikoak dauzkaten aldi berean, esparru horietako bakoitzak bere espezifikotasuna adierazten du, bere autonomia. Horregatik, Euskal Herriko hezkuntza-sistema bere osotasunean aztertze:ko orduan, bi maila bereizi behar dira garbiki, metodologian ondo zehaztuta joan behar dutenak: hizkuntzarena eta klasearena. Ezingo dira bereizi, ezta nahasi ere, baina bai elkarri josita azaldu.

Gai akademikoetan ikasleek erabiltzen duten hizkuntza ondo menderatzeak asko esan nahi du, hainbeste ezen, lehen esan bezala, asko baitira hizkuntza kodearen nolakoa eskola-arrakastaren ala porrotaren oinarrian bertan dagoela diotenak. Horregatik, garrantzitsua da aztertzea ikasleen eta eskolakerakundearen hizkuntzarekiko trataera gizarte-testuinguru desberdinen barruan. Hemen bi gauza bederen bereizi behar dira. Batetik, tradizio historiko luze eta sakona duten Euskal Herria bezalako komunitateek beren hizkuntza badutela, baina politikaren aldetik, estatu-egiturei atxikirik daudela eta horien hizkuntza nazionala ezartzen zaiela. Alde horretatik begiratuta, hizkuntzen arteko gatazkak garbiki nazio-arazoa islatzen du eta ikuspegi horrekin jokatz:en du Soziolinguistikak. Bestetik, ordea, gizarte-jatorriak hezkuntzan duen garrantzia dago eta hezkuntza baldintzatzen duten gizarte-faktore horien

¹¹⁹ "El Estado democrático liberal se caracteriza por el sufragio casi universal y las libertades civiles generales... (...) el Estado, en su forma liberal democrática, aunque es central para la reproducción de las condiciones de dominio y subordinación en la familia y la economía, no es en sí mismo necesariamente una esfera de dominio" (Bowles y Gintis, "La educación como escenario de las contradicciones en la reproducción de la relación capital-trabajo", op. cit., 13).

artean, lehen esan bezala, hizkuntza dago. Hezkuntzaren Soziologiak gehienbat alderdi hori lantzen du. Gurean garbiki bi maila horiek ematen dira gaur egungo hezkuntza-sistemaren barruan: bata nazio-mailakoa, hots, euskarazko irakaskuntzari dagokiona, eta bestea, klasearteko arazoari dagokiona, hizkuntzarekin zerikusia duena, baina defizitaren zentzuan. Biak dira egiazkoak euskal gizarte honetan, baina ez maila eta, agian, ezta garrantzi berekoak. Izan ere, euskararen arazoa zerbait espezifikoa da; klasearteko harremanen ondorioz datorrena, aldiz, zerbait orokorra, Euskal Herrian bezala Madril edo Parisen berdin-berdin ematen dena. Horregatik, euskal irakaskuntzaz jardutean, ezinbestekoa da bi mailok batera hartu eta elkarren harremanak zehaztea. Baina nahastu gabe.

Hirugarren tesia: Azterketa deskriptibo guztien gainetik, ezinbestekoa da ikuspegi historiko-genealogikoa berreskuratzea euskal irakaskuntzari buruzko iker-lanetan. Beharrezkoa da hizkuntzaren soziologia deskriptibotik dinamikora pasatzea, horrek jarriko baikaitu hizkuntza baten bilakaera historikoan gizarte-egiturek izan duten garrantzia eta eragina aztertu eta ulertzeko bidean. Eta bide horretan, beste zenbait faktoreren artean, estatu-boterearekin egingo dugu topo. Eta honen aurrean ezin da egin tongo akademikorik. Oso ondo dago euskararen gaurko egoera deskribatzea. Arlo honetan bada jadanik lan franko egina. Hari buruzko diagnosi aski serioa eman ahal izateko adinakoa, bai, seguraski. Ikuspegi historikotik egindako ikerketak falta dira, ezarritako egoeraren betiketzea ahalbidetzen duten analisi funtzionalistak gaindituko dituzten makro- eta mikro-azterketak,aldi berean kontuan hartuko dituztenak gizarte-egituren determinismo-ahaltasuna eta subjektuen sorkuntza nahiz erresistentziarako ahalmena.

Laugarren tesia: Gure ikuspuntua da gizarteko harremanak izan, gatazkatsuak direla eta beroriek uneoro gaindituz joateko bidea adostasunarena dela eta ez bortxarena. Zentzu honetan, kolektiboko gehiengo batek ez badu onartzen Estatuak bere gain ezarritako menaperen-egoera, honek ezin du demokraziaren printzipioa erabili bere boterea bortxaz ezartzeko. Beste horrenbeste alderantzizko kasuan: askatasunerako kontrabotereak ezingo du bortxaren arrakasta ziurtatu baldin herri-sostengurik ez badu. Deslegitimazio-arazoa alde bietan eman daiteke, eta ematen da gertatzez. Bortxaren ondorioz ezarritako sistemek, iraultzaren historiak hainbat kasutan erakusten duenez, ez bide dute adostasunezko eta bakezko gizarte-bizikidetasuna ziurtatzen. Askagintzaren pedagogian ere konbentzimentuak, ez ezarpenak, du azken hitza. Bide hau da, zalantzarik gabe, errentagarriena ere luzera. Zailena ere bai, ziurki, estatu-botere demokratikoak bortxa erabiliz funtzionatzen baitu. Frantzia eta Espainian armadek bezala, EAEn

Ertzantzak ere. Funtsean, filosofia bera mantentzen da. Botere demokratikoa, harrigarria badirudi ere, bortxaren gainean eraikia dago eta horri esker funtzionatzen du eguneroko praxi politikoan.

Bosgarren tesia: Aipatu ditugun teoria horietan guztietan, azterketak ikuspegi batetik zein bestetik egindako eredu teorikoetan, errotiko hutsune handi bat nabarmentzen da, ondoko diskurtso guztia baldintzatzen duena, eta da ezarri-ako sistema politikoak hartzen direla gogoeta-abiapuntutzat: hots, batetik, Estatu kapitalisten neoliberalismoa eta, bestetik, Estatu sozialisten marxismoa. Kasu bietan sistema politiko horiek oinarritu eta sostengatzen dituen Estatu-nazioa ez baita auzitan jartzen, Estatuarekin identifikatzen ez diren beste nazioak eta beste hizkuntzak ez dira onartzen. Horregatik, nazio-arazoa, zeinari atxikia baitago hizkuntzarena enborra erroari bezala, klasetasunaren zein estatu-nazioaren kategorietatik gogoemana den heinean, ikuspuntu estatalista hau mugatuegia kausitzen dugu, erresistentziaren esparruan ez baitira bakarrik sartzen klase-, genero- eta ekologi faktoreak, baita nazionalak ere. Eta nazio-eraikuntzan parte hartzen duten elementuen artean, ezin- go da ez onartu hizkuntzarena dela nazio-arazorik espezifikoenetako bat. Nazio zapalduen eta hauen hizkuntzen alderdi espezifikiko hau ez da gogoematen guk goian aipatu ditugun ezein eredutan, ez funtzionalistetan ez marxistetan ez beste eskola autonomoetan. Aipatzen dira, bai, baina jadanik ezarririk dauden Estatu-nazioen esparruan. Ikuspegi murriztaile hori gaind- itua dagoelakoan gaude. Iraultza burgesak subjektu historiko gisa gizabana- koen eskubideak eta iraultza sozialistak langileenak errebindikatu zituzten bezala, bigarren milurtekoan informazio-aroan sartu berriak garen honetan, beste subjektu historiko batzuk dira protagonismoa markatzen dutenak, hauen artean naziotasunean oinarritzen direnak eta zuzen-zuzenean Estatu- nazioen arabera egituratutako sistema politikoak auzitan jartzen dutenak. Zentzu honetan ulertu behar da Manuel Castellsek dakarren nortasunaren botere-arazoa. Berriro esateko, hemen daude ekologistak, feministak, anti- militaristak, eta beste hainbat.

Seigarren tesia: Gure eredu pedagogiko kritikoreen barruan, izenburuan bertan datorren bezala, askagintzaren alderdi etikoa oinarritzko elementutzat hartzen dugu. Historian zehar konstatagarria baldin bada ere, Manuel Cas- tellsek azpimarratzen duen bezala, gizarteak aspaldikoa duela eskandaluaren gaitza eta egun gai horretaz lehen baino gehiago hitz egiten bada, informa- zioaren politikari zor zaiola kontingentzia hori, ukazina da, era berean, mila modutako faktualismoak agintzen duen gizarte indiferente, aseptiko, egoista eta materialista honetan, zeinetan bizi-legea teknizismo juridiko sofistikatuek inposatzen baitu eta informazioa mass mediek kontrolatzen baitute nahie-

rara, ustelkeri kasu batzuk, handienak izanda ere, anonimato eta inpunitatearen linboan gelditzen direla. Eta hau hala gertatzen da, gure ustez, batzuetan, iruzurra auzitegiratzeko salaketak huts egiten duelako eta beste batzuetan, berriz, horrelako kasuen gizarteratzea komunikabideak bere eskura dauzkan aparatu politikoak oztopatzen duelako. Eta klase politikoak eta honen kultur plataformek ustelkeria mozorrotzeko jokabidea aldezen badute, bistan da beren interesak dituztela horrela jokatzeko. Eskandaluaz jardutean, bada, informazioaren jabe diren taldekide politiko edo bestelakoen arteko interes jakinen munduan aurkitzen gara.

Gizarte-bizitzan —eta hemen, bereziki, informazioa kontrolatzen duten esparru politiko, ekonomiko eta kulturalen—, ohikoak diren gisa honetako aje itsusiak, oraintsu arte, eskuinaren moral erreakzionario eta hipokritari egozten ohituak geunden. Ezkerrak, esaten zenez, bazituen bere ideal garbiak eta bazirudien immunizatuturik zegoela horrelako gaitzetatik. Bere politikagintza oposizioetik egin izan duen bitartean, hain zuzen, zuzenkontrako gizarte-egoera zapaltzailearen kontra oihukatu izan du eta zuzentasunaren aldeko kausak defendatu izan ditu bere egitarauetan. Boterera iristean, ordea, eskuintza bezain miserable eta ankerra agertu da azpijaneko bere jardunean. Horrelakoetan, noski, beti kausa handien aldeko arrazoiak aipatzen dira. Azken batean, badirudi gizarteak berak injustizi egoera gutxi-asko instituzionalizatuarekin bizitzen ikasi duela eta joera hau indartuz doala indibidualismoa solidaritateari lurra janez datorzion heinean. Arrazoi etikoa da gogoeta soziologikotik uxatu dena, horren lekuan weberiar faktizitatea (*Faktizität*) jartzeko. Errealitatea, hala esango du Martin Albrowek¹²⁰, “egitateen mundua” da. Ikuspegi honetan, noski, onartutzat ematen da baloreak irrazionaltasunean oinarritzen direla. Baina hau ez da batere ebidentea. Dena den, M. Weberren jarrera faktualistak jarraitzaile asko baititu, kanpoan bezala etxean, haren ikuspegi teoriko orokorraz eta, zehazkiago, etikoaz, argitaratzeaz dagoen beste lan monografiko batean dihardugu eta harako deia luzatzen diogu irakurleari. Oraingoz hemen, tesi gisa, supostu soziologikoak ontologian oinarritu beharra aldarrikatzera mugatzen gara. Indibidualismoaren eta holismoaren arteko dilema zaharra gaingitu ahal izateko planteamendurik egokiena hauxe delakoan gaude, Piotr Sztompka autoreak ere uste duen bezala¹²¹. Pentsamendu soziologikoan, egiaztapen enpirikotik harago, baloreen munduak ere badu bere lekua.

¹²⁰ “Las sociedades como hechos contruidos: El enfoque weberiano de la realidad social”, in Gonzalez de la Fe, T. (coord.): *Sociología: unidad y diversidad*, CSIC, Madrid, 1991, 81.

¹²¹ “La ontología del llegar a ser social. Más allá del individualismo y el holismo”, in Gonzalez de la Fe, T. (coord.), op. cit., 33-76.

Eta ustelkeri arriskutik ez da inor libratzen. Ardi beltzak edozein artaldetan aurkitzen dira, kanpoan bezala etxean, boterean bezala erresistentzian. Baina benetako arriskua egon, esperientziak erakutsi eta Weberrek abisatu bezala, botere eta ohorearen ferekak giza espeziea tentatzen duen une eta gune hartantxe dago.

IV

ESTATUA ETA HEZKUNTZA

Hezkuntzari buruzko teoria desberdinak aztertu eta gero, atal honetan begirada historiko antzeko bat botako dugu estatu-boterearen inguruan, aro historiko bakoitzean Estatuaren eta hezkuntzaren arteko harremanak nola planteatu izan diren ikusiz, hezkuntzarena beti ere antolaketa politikoaren barruan kokatuz. Prozedura hau eramango dugu sistemaz geure azalpenean.

Estatuaren teoria modernoa, zentzu hertsian, Errenazimentuan lantzen bada ere eta, antolaketa politikoari dagokionez, Estatu modernoaren sorrerarekin garatzen, esan dezakegu haren kideko menerapen-motak Antzin Arotik hasita egon izan direla indarrean gizartearen historia osoan zehar¹²². Horregatik, estatu-boterearen bilakaera historikoan, hiru aro nagusi bereiz daitezke: Antzin Arotik Erdi Aro bitarteko Estatuurreko antolaketa politikoak, Aro Modernoko Estatu monarkikoa eta Garaikideko biak, hots, liberala eta sozialista. Azalpenean, beraz, bost hauek izanen ditugu aztergai: Estatuurreko botere-mota desberdinak, Estatu modernoa, Estatu liberala, Estatu soziala eta Estatu sozialista.

1. Estatuurreko botere-motak

1. 1. Boterea beti egon da presente antolaketa politikoa garatu izan den gizarte guztietan. Ramón García Cotarelok jarraiko sei zibilizazio hauek

¹²² Heller, Hermann: *Teoría del Estado*, FCE, México, 1947, 46.

dauzka Estatuaurreko menerapen-motatzat: Antzinako Inperioak, greziar *polis*-a, erromatar Errepublika, helendar Monarkiak, erromatar Inperioa eta feudalismoa¹²³. Hauetan guztietan ematen da lurralde-batasuna, guztiek dute beren armada, guztietan dago hazienda publikoa antolatua. Laburki esanda, horien gizarte-antolaketan egiazko menerapen-tresna politiko bat aurkitzen da erdi-erdian, zeina, produkzio-modu desberdinen arabera, eboluzionatuz joango baita historian zehar. R. García Cotarelok, Bernard Cricken eskemari jarraiki, zibilizazio horien antolaketa politikoak, ez zentzu historiografikoan, logikoan baizik azaltzen du, abiapuntutzat produkzio-moduen marxiar eredu hartuta: arkaikoa edo hasierako komunismoari dagokiona, asiarra, esklabista eta feudala. Produkzio-modu asiarrean sartzen ditu berak Inperio zaharrak —Babiloniakoak, Pertiakoak, Indiakoak eta—, zeinetan lur-jabetza gobernarren esku zentralizatuan aurkitzen baita eta erregea jainkotu egiten baitute. Hemendik Inperio horien antolaketa politikoari darion despotismo teokratikoa. Produkzio-mota esklabistari dagozkionak dira, aldiz, beste lauok: greziar *polis*-a, erromatar Errepublika K.a. 509-27 epealdian, helendar Monarkiak (Mazedonia, Siria eta Egiptokoa) K.a 304-220 epealdian eta erromatar Inperioa K.a 27 - K.o. 476 epealdian.

Horietatik guri gehien interesatzen zaiguna, batez ere, Greziako *polis*-a da, demokrazia eta filosofiaren lehen oinarriak handik jasoak baititugu. Hortxe K. a. VIII-VII. mendeetan Esparta eta Atenan berrikuntza soziopolitiko handiak eman ziren garaitik hasita, greziar *polis*-ak gorakada handia ezagutu zuen, baina Peloponesoko gerrakoan porrot egitean, K. a. V. mendean, beheraka egiten hasi zen, hurrengo mendean erabat lur joko duen arte Mazedoniako inperio-garaian. Hementxe bertan esanda utzi nahi dugu Greziako hiri-estatu hori, greziarrek *polis* deitzen zioten hori, izan zela ordurarteko gizateriaren historian zehar izandako zibilizazio-faktoririk nagusiena, bakarra, eta eredu horrek gerora eragin benetan garrantzitsua izango duela Europako Mendebaldeko pentsamendu-tradizioan, nahiz eta, maila politikoan bereziki, tradizio latinoa nagusituko zaion grekoari.

Mundu klasikoa desegin eta gero eraikitzen den feudalismo-sistemaz zer esan dezakegun? Honen sorreraz, hedapenaz eta eboluzioaz egindako galderak oraindik ere erabat itxi gabe daude. Ez dakigu produkzio-modu autonomoa den ala ez, antolaketa politiko espezifikoak dagokion ala ez, Europara bakarrik mugatzen den ala ez, eta honen barruan mota bat baino gehiago ematen den ala ez. Halere, Erdi Aroa hobeto ezagutuz goazen neurrian, gizarte

¹²³ "Las formas preestatales de dominación política", in García Cotarelo, R. (comp.): *Introducción a la teoría del estado*, op. cit., 17-46

feudala ezaugarritzen duten elementu batzuk bederen argituz doaz. Horrela, Erdi Aroko gizartea Europako Mendebaldean, IX. mendetik aurrera nolakoa zen deskribatzeko orduan, esango da, funtsean, nekazaritzan oinarritua zegoena zela eta, hain zuzen ere, jendea lurrari oso lotua bizi zelako, herri desberdinen arteko merkatal harremanak oso mugatuak zirela, lur-ondasunak eta jabetza-eskubideak basailuen jauntxoekiko menpekotasunean oinarrituak zedela. Zentzu honetan, feudalismoaren ezaugarriak nagusia izan bide daiteke, basailu eta jaun feudalaren arteko sistema hierarkizatu honek, gertatzez, aurreko esklabismoaren bukaera suposatzen duela. Beraz, produkzio-modu berri baten aurrean aurkituko ginateke.

Lau gizarte-klase dira sistema feudala osatzen dutenak: kleroa, noblezia, burgesia eta erregea. Baina lau klase hauen eraketa ez da uniforme izango Europan. Zentzu honetan, feudalismo-tipologia desberdinez, zehazkiago esanda, feudalismoak Ingalaterra, Frantzia, Alemania eta Espainian izandako bilakaera desberdinduaz hitz egin ohi da, herrialde horietako bakoitzean egoera sozioekonomiko eta politiko jakin eta bereziak ematen baitira¹²⁴. Euskal Herriari dagokionez, aldiz, hemen feudalismoa eman zen ala ez eztabaibatzen da, eta eman baldin bazen, zein neurritan eta non. Euskal Herrian ondasunekiko harremanak nolakoak izan diren jakitea da kontua. Patxi Juaristi Larrinagak dakarrenez¹²⁵, hiru tesi bederen badira eztabaida honen inguruan formulatuta daudenak. Batzuek diote ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak ezagutu izan direla. Eredu honen aldekoak dira, besteak beste, M. Lafourcade, Andoni Irala, Manuel Lekuona, Adrian Celaya, J. Galindez, Federiko Krutwig (Sarrailh de Ihartza), E. Lopez Adan (Beltza), L. Chalvaud, A. Urzainqui Miquelez, J. M. Faus Yurrita, Federiko Zabala, Ander Manterola, Pako Garmendia, P. Uriarte, etab. Euskal berdintasunaren aldekoak ditugu autore horiek, horietako gehienak nazionalismo historikoari atxikiak. Beste batzuek, aldiz, justu alderantzizkoa esango dute, beste herrietan bezala, hemen ere nagusiki jabetza pribatuan oinarritutako gizarte-harreman feudalak ezagutu izan direla, alegia. Ohiturazko berdintasuna, euskal demokraziaren ikur gisa hartua izan den hori, mito bat dela esango dute. Eskola honetan, gehienbat, ideologia espainola aldeztzen dutenak aurkitzen dira: Juan Aranzadi, J. E. Casariego, Fernando García de Cortazar, Alfonso Otazu, Manuel Montero, Fernández de Pinedo, J. J. Solozabal, Javier Corcuera, Carlos Martínez Gorriaran, Joseba Zulaika, etab. Azkenik, ondasun iraunkorrekiko harreman bereziak eta jabetza pribatua, biak batera ezagutu direla diotenak daude.

¹²⁴ García Cotarelo, R., op. cit., 43-44.

¹²⁵ Tesi doktora, Deustuko Unibertsitatea, 1995.

Euskal Herrian, azken hauen ustez, ondasun iraunkorrekiko harremanak, segun eta non, bi eratakoak izan dira: batetik, elkartekoak ziren herri-lurrak eta, bestetik, jabe desberdinen eskuetan zeuden lur pribatuak. XII. mendetik aurrera jabetza pribatua eman dela frogatu ezinik ez dago. Hala diote, besteak beste, F. Idoate, S. Mensua Fernández, J. C. Allf Aranguren, A. Floristan Samanes, A. Arizcun Cela autoreek, beren esanak gehienbat Nafarroako kasura mugatuz. Gu ere azken iritzi honetakoak gara, Nafarroaren kasuan zehazki, zaila baita feudalismo-kutsuko klasismorik ez zela eman frogatzea¹²⁶.

1. 2. Antzinateaz eta Estatuaz ari baikara, bada, beste ikuspegi batetik begiratuta, iragan urrunaz beste irakurketa-mota bat eskaintzen duen autore-rik ere. Elman Servicek¹²⁷, adibidez, hiru gizarte-mota hauek bereizten ditu: a) gizarte *segmentatuak*, igualitarioak edo berdinzaleak deitzen zaienak, zeinetan, nerbio-sistema zentralik gabeko animalia segmentatuen (zizarearen, karramarroaren eta) antzera, gizartean ere agintaritzaren arabera egituraketarik ez baita ematen, ahaidetasunean oinarritutako sexuaren eta adinaren arabera famili hierarkia salbu; b) gizarte *hierarkikoak*, zeinak baitira, gizarte-komplexutasun jakin batera iristean¹²⁸, buruzagitzaren baten inguruan antolatzen direnak eta lehen aipatu ditugun Estatuaurreko zibilizazio klasikoei bide eman dietenak; c) gizarte *estratifikatuak*, zeinetan, besteak beste, hazkunde demografikoak, aldakuntza teknologikoei eta produkzio-gehikuntzak eraginda, administrazio-eginkizunak garatu eta teokrazian oinarritutako lehen gizarte-adostasunak porrot egitean, Estatuaren sortzen baita eta, ondorioz, gobernariaren eta gobernatuen arteko harreman eta interesak ere urrunduz joaten baitira.

Hara hor, bada, hiru gizarte-mota. Lehen gizarte-motan ez bide da botere-privilegiarik eta inolako menerapen-mailarik ezagutzen. Berdintasuna da nagusi. Bakoitzak bere eginkizunak betetzen ditu, adinaren eta trebetasunaren arabera. Iraganeko historian zehar izandako gizarteetatik % 99 baino gehiago gizarte berdinzaleak izan omen ziren eta oraindik ere badira, antza, jatorriko tradizioari atxikirik jarraitzen duten hainbat herri primitibo kontinente desberdinetan barreiatuta¹²⁹. Jesus Naberanek gizarte berdinzale bati

¹²⁶ Iztueta, P.: *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, op. cit., 199-216.

¹²⁷ *Los orígenes del Estado y de la civilización*, Alianza, Madri, 1990.

¹²⁸ Honetaz ikus R. Chapmanen *La formación de las sociedades complejas*, Crítica, 1991.

¹²⁹ Egungo herri primitiboetan, hauek aipatzen dira: "eskimalen gizarteak, indiar kanadarrak, Suaren lurraldeko indiarak, Kongoko pigmeoak, boskimano, bergdama eta hotentotekak, Australiako jatorriko herriak, Malasia penintsulako pigmeo ehiztari-biltzaileak, uharteetako andamanak, Estatu Batuetako algonkiar, irokes, apatxe, navajoak, etab. (Naberan, J.: *Sugearen iraultza*, Gaiak, Donostia, 1998, 230).

dagozkion etnografi zantzu nabariak ikusten ditu Euskal Herri tradizionalaren gizarte-funtzionamenduan, zehazki, lur-ondasunen jabetza komunalean, auzolanean eta matriarkalismoan¹³⁰. Orduko gizartea gidatu zuten baloreak eta mundu sinbolikoa berreskuratu nahi lituzke, Antzinateko eredu berdinzalea etorkizuneko alternatiba gisa proposatuz. Ezin hobeto dago historiaurreko kultur herentzia ezagutu, jaso eta baloratzea —areago oraindik etxekoa hain aberatsa dugunean—, baina, beti ere, egun zein egoera soziologikotan bizi garen kontuan hartuta. Gainera, arestian azaldu bezala, euskal berdinzaletasunaren ingurumari sortua den bibliografia espezializatuari ohi baino gehixeago erreparatu beharko zaio, mito-eraikitzailetzat har ez gaitzaten. Horretarako batere beharrik ez dago eta. Bigarren gizarte-motakoak, aldiz, gizarte burokratizatuak ditugu, beren antolaketa politikoa buruzagitza teokratikoan oinarrituta daukatenak eta hauetan, bai, desberdintasun instituzionalizatu nagusitzen da. Talde zuzendariak, batez ere, gerren bidez finkatuko du bere boterea, gizarte-adostasuna jainkoen eta apaizen bidez lortuz. Honelako gizarteak izan omen ziren kurgoak, indoeuoparren arbasotzat jotzen direnak eta berdin duela gutxi arte —estatu-egitura hartu arte, alegia—, koloni administraziopean bizi izandako hainbat tribu eta egun ere antzeko egoeran bizitzen jarraitzen dutenak¹³¹. Hortxe kokatu beharko lirатеke, halaber, Penintsulako iberiarrak eta zeltak ere¹³². Hirugarren gizarte-mota da gaurkoari dagokiona. Eta hemen Estatuak, lehengo sistemetan ez bezala, legeen eta bortxa instituzionalizatuaren bidez behartuko du jendea obeditzera.

1. 3. Antolaketa politikoiari dagokionez, Erdi Aroan Eliza eta Inperioa dira bi botere-nagusiak eta hauek eraikitako ordenak baldintzatuko du sistema feudalaren bilakaera. European, une honetan, Erresumak, Konterriak, Dukerriak, etab. aurkitzen dira. Aldi berean, Estatu monarkiko hauek barruan, mota askotako erakundeak daude antolatuz: jaureriak, ermandateak, udalleteak, monasterioak. Hauek ahalmen eta eskubide aski zabalak dituzte eta erregeak ez du botererik erakunde horiek meneratzeko. Horregatik, errege-estatuaren boterea mugatua da eta honen egitekoa, funtsean, bere lurraldea legez zaintzea izango da.

¹³⁰ Op. cit., 232.

¹³¹ “Halakoxeak izan ziren, -zehazten du J. Naberanek (op. cit., 231)-, Estatu bihurtu aurretiko zuluak, Ugandako tribuak, Mendebaldeko Afrikakoak, txeroki indiarak, Polinesia Hawaii, Tahiti, Tonga... Eta gaur egun ere badira buruzagitzako gizarteak Polinesia eta Melanesian, Ipar Amerikako iparmendebaldeko kostan, etab. Asia aldeko artzain nomadak ere buruzagitzako gizarte gisan antolatu ohi dira, batik bat gerrara eta arpilaketara, gaur egun ere, dedikatzen direnean”.

¹³² Maya, José Luis: *Celtas e iberos en la Península Ibérica*, Icaria, Barcelona, 1999.

Nolanahi ere, feudalismo-garaiko botere-eredua, errege-estatua deitua, ezin har daiteke Estatu modernotzat, batik bat, horri oinarritzko bi elementu falta zaizkiolako: lurraldea eta subiranotasuna. Euskal Herrian, adibidez, era honetako antolaketa politikoa nagusitu zen, batasun politikorik gabe, euskal lurraldeak Erresuma desberdinetan banatuta: batetik Nafarroako Erresuma eta, bestetik, Herrialde historikoak.

1. 4. Hezkuntza betidanik eman izan den zerbait bada ere, Erdi Aroan, hau orotara hartuta, irakaskuntza ez zegoen gaur ezagutzen dugun bezala eratuta. Hasierako Elizari dagokion lehen aroan (I-VII) beneditarren monasterio-eskolak eratzen dira Europako Mendebaldean, normalean leku apartatu eta isolatuetan, eta berorien xede negusia monjeak bizitza erlijiosorako prestatzea izango da. Karolinjar aroan (VIII-X), batez ere Akisgrango sinodoaren (789) ondotik, zeinetan kleroaren bizitza izpirituala eta morala hobetzeko erabakia hartzen baita, monasterioek eta katedrallek beren eskolak sortuko dituzte, bi eratakoak izango direnak: barnekoak apaizgai eta monjegaientzat eta kanpokoak laikoentzat. Azken hauetan oinarritzko gaiok erakusten ziren: letrak —latina—, kalkulua eta kantua. Aro eskolastikoan (XI-XV), lehen mailako irakaskuntzan, era berean, bi eskola-mota egongo dira indarrean: batetik, zaldunentzako eskolak, jauregietan kokatuak zeudenak, non gerrarako, ehizerako eta jolaserako gaiak irakasten baitira eta, bestetik, udal eskolak, hauek, XII-XIII. mendeetan, hirietako burgesiaren kultur beharrezanean erantzuteko sortuko direnak. Goi-irakaskuntza emateko xedearekin sortzen dira lehen Unibertsitateak XII. mendetik XIII. mendea bitartean, zeinetan lantzen baita pedagogia eskolastikoa, gehienbat logikan oinarritzen dena¹³³. Ez da ahaztu behar ia Erdi Aro osoan zehar kleroa zela goi-ikasketak egiten zituen bakarra. Handikiek ez baitzekiten ez idazten eta, ohiki, ezta irakurtzen ere —horregatik deitzen zitzairen “illiterati”—, klerigoak izaten ziren gorteetako gutunak eta dokumentuak egiten zituztenak¹³⁴. Gero esango dugun bezala, Erdi Aroko Euskal Herrian izan ziren monasterio ospetsuak, antolatuta zen eskolatzeko-sistema Katedralen eta Udalen inguruan, funtzionatu zuten Unibertsitate batzuek, baina, orokorrean esanda, ez zen Euskal Herri osorako hezkuntza-sistema koherenterik sortu. Puntu hauxe da, hain zuzen, azpimarratu nahi duguna.

¹³³ Messer, A.: *Historia de la pedagogía*, Labor, Barcelona, 1935, 73-174.

¹³⁴ *Ibid.*, 93-94.

2. Estatu modernoa

Estatu modernoa eraikitzen hasi, Errenazimentuan hasten da eta burutu, berriz, Frantziako Iraultzarekin. Bitarte horretan prozesu luze eta osoa irikitzen da, zeinaren ondorioz Estatua botereaz jabetzen baita. Estatu modernoaren ezaugarri nagusia da monarka autoritarioa monarkia absolutu bihurtzen dela eta, ondorioz, Estatuaren boterea izugarri indartzen dela, gizarte-erakundeak zentralizatuz, hala nola, armada, burokrazia, justizia, hazienda, etab. Errege autoritarioa monarkia absolutu bihurtzen da, prozesu honetan asko indartzen delarik Estatuaren boterea. Estatua da Leviatan, oroalguztiduna.

XIV. mende-bukaeran eta XV. mende-hasieran, Eliza eta Imperioaren gizarte-egitura desagitean, Europako zenbait Erresumak, Lutherren Erreforma protestantea nagusitzen den herrialdeetakoak zehazki, eten egiten ditu bere harremanak Erromako Elizarekin eta, ondorioz, erregeek Eliza nazionalak indartzen dituzte. Honela, erromatar Elizaren botere unibertsalarekin hautsiz, botere monarkikoa sendotu egiten da eta ordurarte Elizak zeuzkan zenbait ahalmen eta erakunde Estatu monarkikoaren eskuetara pasatzen dira, hala nola: hospitaleak, babesetxeak, ikastetxeak, Unibertsitateak. Botere tenporala Aita Santuaren babesetik independizatzen hasten da.

2. 1. Europan garai honetan eratzen den antolaketa politiko berri honetan, bi botere-mota gauzatzen dira: Estatu estamentalak eta absolutistak.

Estamentalak lehen aroari dagokiona da, zeinetan erregea eta estamentuak aurkitzen baitira, biak bateginda botere inperialaren kontra. Europan, aro honetan, Amerikaren aurkikuntzarekin batera, Inperio espainol eta portugalesaren loraldia eta geroagoko gainbehera ematen dira; imperio otomandarrak, halaber, goren maila ezagutzen du; Indian, mongolen imperioa hedatu egiten da; Euskal Herrian, berriz, Nafarroako Erresuma Gaztelakoak konkistatzen du (1512).

Gertatzen dena da, biek interes desberdinak dituztela eta denborarekin, erregearen eta estamentuen artean pizten den borrokan, botere monarkikoa nagusitzen dela, bere Erresuman zehar estatu-zentralismoa ezartzen asko ahalegintzen delarik. Horretarako administrazioa burokratikoki antolatzen du eta, bidenabar, boterearen euskarri armada indartsu bat eraikitzen. Boterearen iturburu bakar, orain, erregea bera izango da.

Bigarren aro absolutistan, errege-boterea indartuz doan heinean, erregea eta Estatua gauza bera bilakatzen dira, Estatuaren botere osoa erregearen eskuetan baitago eta, honela, bi kontzeptu horiek gauza bera izatean, Estatu

absolutua sortzen da, zeinaren arabera, Frantziako Luis XIV.ak bere buruaz esan bezala, erregea bera baitzen Estatua.

Jadanik San Tomas Aquinokoak (1225-1274) finkatua zuen monarkia zela gizartea zuzentzeko botere-motarik onena¹³⁵. Baina geroago, batez ere, J. B. Bossuet (1627-1704) izango da errege-botere absolutista Jainkozko iturburuaren teoriarin oinarrituko duena, zeinaren arabera gizakiak gizartean bizitzeko boterea behar baitu, Jainkoak zuzenean erregeari ematen dio ahalmen hori, honek Hark gizartean ezarritako ordena betearaz dezan. Erregeari inork ezin diezaioke erantzukizunik eska, ez bada Jainkoak; beraz, menpekoek obeditu egin behar dute hark agindua. Ez dute agindutakoa bete beste esku-biderik.

2. 2. Europan oraindik XVI-XVIII. mendeetan zeuden Estatu gehienak, izan, monarkikoak ziren eta berorietan, errege edo printze baten agintaritzapean, hizkuntza eta kultura desberdinak zituzten herriak koexistitzen ziren, garai hartan “nazioak” deitzen zitzaizkienak. Herri hauek atxikimendu pertsonala zioten erregeari. Gertatzen dena da Estatu monarkiko batzuk neurri handi batean modu artifizial batez —askotan konkista-bidez, Nafarroaren kasuan bezala—, eraikitzen direla Estatu gisa nazio hegemoniko baten babesean eta menpeko beste nazio kulturalak Estatu-nazio horietan urtuta gelditzen direla. Espainiako monarkiak, nahiz eta ahaleginak egin Portugaleko Erresuma bereganatzen, ez zuen lortu. Baina Frantziako eta Espainiako monarkiek, hauek bai lortu zuten Katalunia eta Euskal Herria bitan zatitzea. Era berean, Frantziako monarkiaren barruan gelditu ziren Alsazia eta Lorena, hizkuntzaz alemanak, baina kanpoan frantses hizkuntzako waloi-herriak. Iraultza aurreko Frantzia monarkikoan, adibidez, tradizio eta hizkuntza desberdinetako herri asko aurkitzen ziren, hala nola, frantsesak, bretoiak, gaskoinak, euskaldunak, katalanak, okzitaniarrak, alemanak eta korsikarrak. Antzeko etni nahasketa ematen da Europako beste Estatu zaharretan, Espainia, Portugal, Britainia Handia, Danimarka, Polonia, Errusian eta¹³⁶.

2. 3. Lehen esan bezala, kristandadeak erakunde politiko hegemonikoa izateari uzten dion garaian sortzen da Estatu modernoa. Errenazimenduarekin hasten da, geldiro bada ere, arrazoi politikoa bere autonomia hartzen. Botere tenporalaren emantzipazio-politika maila teorikoan lantzen dutenak

¹³⁵ Halaxe dio 3. atalaren hasieran, monarkia beste botere-mota guztiei kontrajarrit: “Como la monarquía es lo mejor, el régimen de un tirano es lo peor” (*La monarquía*, Tecnos, Madrid, 1989, 17).

¹³⁶ Obieta Chalbaud, J. A., op. cit., 19-2.

Makiavelo, Bodino eta Hobbes izan ziren. Makiavelok, Firenzeko idazkariak, Estatu modernoari, esparru moral eta erlijiosotik askatuz, bere baitan izateko arrazoi propioa duen antolaketa politikoa aitortzen dio, berak berarentzat bere legeak eta erakundeak sor ditzan¹³⁷. *Il Principe* (1513) liburuan buruzagi politiko ideal baten irudia deskribatzen du modu abstraktu batez, burgesiaren interesak ordezkatzeko dituen, eta horren egitekoa da, hain zuzen, XV. mendebukaeran bost Estatu handitan zatitua zegoen Italiaren nazio-batasuna lortzea Estatu moderno baten inguruan. Bertan Estatuari bere autonomia osoa ematen dio eta buruzagi politikoiari ere eskubide osoak aitortuko dizkio berari eraginkorrak iritziriko bide guztiak erabil ditzan¹³⁸. Jean Bodinek, Frantziar, honek Italiak ez bezala bere Estatu monarkikoa baitu, jadanik indarrean dagoen Estatuaren subiranotasuna aldarrikatzen du¹³⁹. Esan nahi baita, printzearen boterea ez dagoela beste ezein botereren menpe, ezta legeen menpe ere. Azkenik, Hobbesekin, botere absolutuaren razionalizazio-prozesua azken ondorioetaraino eramaten da: hots, guztiak guztien kontrako gerrarik gerta ez dadin, horretarako joera duelako gizakiak berez, eta hiritarrek oro segurtasuna lor dezaten, gizakiek gizarte-kontratu bat egin behar dute, zeinaren ondorioz sortuko baita Estatu, guztien gainetik legokeen indar gorena eta beste guztien gainean inolako mugarik gabe boterea aplikatuko lukeena. Honela, botere tenporalak bere autonomia osoaren bila abiatzen duen joanaldian, Estatu absolutua eraikiz bukatzen du. Estatu da Leviatan erraldoia, latinez *civitas* deitzen zaiona, berak honela definitzen duena: “persona bat, zeinen egintzen autore jendetza handi bateko kide bakoitza egiten den elkarrekiko hitzarmenez, persona horrek denen indar eta bitartekoak erabili ahal ditzan, egoki deritzon moduan, haien bake eta defentsa komuneko”¹⁴⁰. Estatu hau gidatzen duena subiranoa da eta beste guztiak menpeko ditu.

Estatu modernoaren sekularizazioa gauzatzeko orduan, printzeek lau bide nagusiok erabiltzen dituzte: a) *militarra*, armada feudalaren lekuan armada

¹³⁷ “Nada honra tanto a un Príncipe recién elevado al trono como establecer leyes e instituciones por él ideadas que, si se basan en buenos fundamentos y responden a necesidades verdaderas, le hacen digno del mayor respeto y de la más cálida admiración. No carece Italia actualmente de cuanto se requiere para introducir reformas militares, legales y políticas de toda especie” (*El Príncipe*, in *Obras completas*, Barcelona, 1968; Cotarelok aipatua, op. cit., 54).

¹³⁸ Makiavelok aldarrikatzen duen politikagintzaren ezaugarriak xehetsunez ematen ditugu “Boterea Niccolo Machiaveli baitan” izeneko artikuluan (*Uztaro*, 5, 1992, 151-178).

¹³⁹ “La soberanía es el poder absoluto y perpetuo de una república... La soberanía no es limitada, ni en poder, ni en responsabilidad, ni en tiempo” (*Los seis libros de la República*, Tecnos, Madrid, 1992, 47-49).

¹⁴⁰ *Leviathan*, Klasikoak, Bilbo, 1994, 150-151.

iraunkorra finkatuz eta zaldunen lekuan soldaduak (mertzenariak) jarriz; b) *ekonomikoa*, hazienda publikoa printzearen zerbitzu espezifikora jarriz; c) *administratiboa*, burokrazia iraunkor, hierarkizatu eta biziki gaitua eraikiz; d) *juridikoa*, printzearen lurralde osoan betea izateko indarra izango duen lege-ria aldarrikatuz.

Honela lortzen du printzeak Estatuaren eraikitzea, unitate politiko iraunkorra duena. Burgesia indartuko denean, hain zuzen, desagertuko da Estatu absolutista hori, liberalismoaren garapenarekin Estatu burgesari lekua uzteko.

2. 4. Nolakoak diren Estatuaren eta hezkuntzaren arteko harremanak? Epealdi honetan, bi aro historiko bereiz daitezke¹⁴¹: Erreformarena eta Ilustraziokoa.

Hezkuntza publikoaren kontzeptua erlatiboki berria bada ere, hezkuntzak agintari politikoekin dituen harremanak Erreforma-garaian mamitzen den mugimendu erlijioso, politiko eta kultural zabalean kokatzen dira. Erreformak Bibliaren interpretazio askean du bere oinarri nagusienetako bat eta izpiritu-askatasun horri esker, protestantismoa gailentzen den herrialdeetan bereziki, herritar guztientzat, berdinean pobreenentzat, oinarriko irakaskuntza emateko eskolak sortu eta, bidenabar, eskola horietan herri-hezkuntza erabiltzeko ideia indartzen da. Berrikuntza handia, zalantzarik gabe. Erreformaren aldekoek, ideia hauek praktikara eramateko, printze protestanteengana jokatu dute. Honela sortzen da hezkuntza publiko erlijiosoa deitua, zeinaren helburua erlijiosoa den arren, izaeraren aldetik sekularragoa baita eta herrian sustraituagoa. Erreforma dela eta, agintari tenporalek orain kontrolatuko dute lehen aldiz hezkuntza Europako historia luzean.

Ilustrazioak —politikan despotismo ilustratuak—, kultur ahalegin handia egiten du sorginkeriak eta irrazionalitatea uxatu eta gizarte-estamentu guztietan arrazoiaren argia ezartzen. Ilustrazioa da aldarrikatzen duena, gizakiak baduela eskubidea, ez bakarrik bizitzarako eta askatasunerako, baita instrukzioarako ere, zeina Estatuak bakarrik bermatu baitezake. Ilustrazioaren asmo sekularizatzaile horren aurka oldartzen da Eliza, oraindik ere bera baita eskolak kontrolatzen dituena. Botere bati beste kontrabotere batek bakarrik eman baitezaike aurpegi, hemendik dator ilustratuek Estatuaren beharra aldarrikatzea.

Estatu modernoak, bere sekularitze-prozesu honetan zehar, bere helburuak lortzeko erabiltzen du eskola: bere sistema politikoa osatzen duten koa-droak (militarrak, legegizonak, funtzionarioak, etab.) prestatzeko, alegia.

¹⁴¹ Puelles Benítez, M.: *Política y administración educativas*, op. cit., 153-154

XVIII. mendean ikusten du Estatu absolutistak eskola tresna egokia dela menpekoak hezteko. Prusiak, adibidez, orduan ezartzen du obligaziozko eskolaritatea, zeina, lehen beste atal batean aipatu bezala, Instrukzio Publikoaren Goi-Kontseiluaren sorrerari dagokiona baita. Bide hori hartzen dute, orobat, Europako beste errege absolutistek, instrukzio unibertsala ezarri eta irakaskuntza teknikoak berrituz. Esan dezakegu, bada, Aro Modernoaren azken aldera, irakaskuntzaren sistema osatzen hasten dela, berori ziklotan eratuz, guztientzako obligaziozkoa eta doakoa eginez. Prozesu hau, noski, liberalismoak burutuko du.

3. Estatu liberala

Estatu liberala, kontzeptu orokor gisa, XVI-XIX. mende-birtatean Europako Mendebaldeko kapitalismo-garaian sortzen diren erregimen politiko batzuen gainean eraikitako abstrakzio bat da. Burgesia, gizarte-klase gisa, XVIII. mendearen azken partean nagusitzen da. Bere interes ekonomikoak defendatzeko, beharrezko ikusten du botere politikoa ere eskuratzea.

Goraka doan burgesiaren adierazpen intelektuala, ilustrazioa eta liberalismoa dira. Korronte hauek izango dira, aristokraziaren eta kleroaren aurka erreakzionatuz, Estatu absolutuaren kultur euskarriak suntsituko dituztenak. Maila teorikoan hiru autore —Locke, Rousseau eta Montesquieu— dira Estatu liberalaren oinarri ideologikoak finkatzen dituztenak. John Lockek (1632-1704) dioenez¹⁴², gizakia zoriontasun-egoeran bizi zen, baina, aldi berean, etengabeko arriskuz inguratua. Horregatik, arrisku horiek alboratzearen, gizakiek, guztien adostasunarekin gizarte-kontrata burutuz gero, sozietate politikoa, hots, Estatu sortzea erabakitzen dute, zeinaren helburua izango baita gizakiaren berezko eskubideak bermatzea. Ildo beretik, J. J. Rousseauk (1712-1778) *contrat social* izeneko teoria lantzen du, zeinaren arabera, labur esanda, gizaki guztiak borondatezko gizarte-paktua egiten baitute eta, elkarrekin bakean bizitzeko, beharrezkoak diren arau batzuk finkatzen baitituzte¹⁴³. Charles Montesquieurentzat (1689-1755) gobernu-erarik onena monarkia konstituzionala da eta, horren baitan politikaren helburuak diren herria

¹⁴² *Ensayo del gobierno civil*, FCE, México, 1941.

¹⁴³ Gizarte-paktua honela definitzen du berak: "Gutarik bakoitzak bere pertsona eta ahalmen guztia nahimen orokorraren gidaritzaren gorenaren pean elkargoan ematen du; eta, denek gorputz bat osatuz, kide bakoitza, osotasunaren ezin zatituzko parte gisa, errezititzen dugu" (*Gizarte-hitzarmena*, Klasikoak, Bilbo, 1993, 45).

ren ongizatea eta herritarren libertatea bermatuak izan daitezten, Estatuan hiru botere-mota bereizten ditu, legegintzarakoa, betearaztekoa eta epaitzekoa, eta horietako bakoitzaren arteko mugak eta egitekoak finkatzen¹⁴⁴.

Honela, ekarpen teoriko horiekin, liberalismo politikoaren ideologia berria formulatua gelditzen da, baina honek ez du esan nahi horien teoriak gobernu-politikan aplikatuak izango direnik. Politikariak dira, azken batean, legeak egiten dituztenak. Gero areago zehaztuko bada ere, bego hau garbi esana: hots, gizabanakoaren eskubideak direla oinarrizkoenak, hainbestearino, ezen eskubide horiek besterenganaezinak izango baitira. Beraz, Estatu liberalaren boterea, gizabanakoaren zerbitzura dagoenez gero, mugatua da, ez da absolutista, monarkian bezala.

Estatu liberalaren sorrerari dagokionez, esan behar da kapitalismoa gaur egun Estatu nazionaltzat daukagun lurraldeko formazio politiko berezi horren barruan gauzatzen dela. Kapitalismoaren bilakaera historikoa eta Estatu nazionalarena elkarren artean hertsiki bateginda dauden bi prozesu kolektibo dira. Estatuaren botererik gabe ez da ematen kapitalaren hasierako metaketarik, ezta herri-masaren hasierako esplotaziorik ere. Interpretazio honetan, Carlos Moyaren ustez¹⁴⁵, bat datoz bai Marx eta bai Weber. Besterik da produkzio-modu kapitalistaren barruan Estatuak zein gizarte-zeregin jokatzen duen zehaztea. Honetaz literatura ugaria bezain desberdindua irakur daiteke marxismo-tradizioan, begiak Althusserrengandik hasi eta Appelen-ganaino luzatuz.

Estatu liberalaren ezaugarri formalak

Segun eta zein epistemologi ikuspuntutatik begiratuta egiten den hurbilke-ta, nazioaz bezala Estatuaz ere interpretazio-mota asko ematen dira. Adibide

¹⁴⁴ Hauxe da, Ingalaterrako Konstituzioaz ari dela, hiru botereak bereizten ditueneko pasarte famatua: "Hay en cada estado tres clases de poderes: el poder legislativo, el poder ejecutivo de los asuntos que dependen del derecho de gentes y el poder ejecutivo de los que dependen del derecho civil. Por el poder legislativo, el príncipe, o el magistrado, promulga leyes para cierto tiempo o para siempre, y enmienda o deroga las existentes. Por el segundo poder, dispone de la guerra y de la paz, envía o recibe embajadores, establece la seguridad, previene las invasiones. Por el tercero, castiga los delitos o juzga las diferencias entre particulares. Llamaremos a éste poder judicial, y al otro, simplemente, poder ejecutivo del Estado" (*Espíritu de las Leyes*, Tecnos, Madrid, 1972, libro XI, cap. VI). Geroago, Charles Tocqueville (1805-1859) autoreak, estatuaz jardutean, hiru botere-mota horien garapena egingo du *De la Démocratie en Amérique* izeneko liburuan (Euskarazko itzulpena: Amerikako demokrazia, Klasikoak, Bilbao, 1991, 97-117).

¹⁴⁵ *Señas de Leviatán. Estado nacional y sociedad industrial. España 1936-1980*, op. cit., 157.

historikoetan, orobat, anzatasuna ematen da. Normalean Frantziako burgesiak egindako iraultza hartzen bada ere eredu nagusizat, esan behar da klase honek boterea eskuratzeko erabilitako bideak oso desberdinak izan zirela bai Frantzian bai Britainia Handian bai Espainian, berdin Europatik kanpora. Halere, desberdintasun horiek barne, burgesiarekin sortzen den Estatu liberalak baditu bere ezaugarri espezifikoak, guztientzat baliagarriak direnak, eta hauek ikusiko ditugu segidan. Estatu liberalaren ezaugarri nagusiak aipatzeko orduan, adostasuna ia erabatekoa da. C. Fernandez-Miranda egileak¹⁴⁶, adibidez, jarraiko ezaugarri hauek aipatzen ditu: gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko banaketa, abstentzionismoa, individualismoa eta demokrazia. R. García Cotarelok¹⁴⁷ lurraldearen okupazioa nabarmentzen du, batez ere; A. Torres del Moralek¹⁴⁸, berriz, Konstituzioan gauzatzen den legeria, honek ematen baitio zuzenbidezkoa izatea eta, ondorioz, ezinbestez demokratikoa.

Gizarte zibilaren eta Estatuaren arteko banaketa

Gizarte zibila, gizakiek estatu-antolaketatik at eramaten duten bizitzak zertzen du, non, berez, Estatuak ez baitauka zertan sarturik. Esparru hori hiritarrari zor zaiona da. Estatu liberalari, zentzu hertsian hitz eginda, antolaketa politikoaren barruan jardutea dagokio, xede hauek dituelarik: sektore pribatuan izan daitezkeen zerbitzu publikoak bideratzeari ekin eta eustea eta, halaber, ordena publikoa, lurralde-mugaz kanpokoa eta barrukoa, bermatzea. Estatuak egiteko hauek bere gain hartuz gero, hortik aparte gizarte zibila aske da bere bizitza autonomoa eraman dezan.

Laburki esanda: Estatuak izan, beharrezkoa den aparatu bat da, baina egon, gizarte zibilaren menpe egon behar du, gizabanakoak baitira berori osatzen dutenak.

Gaur egun, esparru politikoa eta soziala, hots, Estatuak eta gizarte zibila bereizten ohituak gaude. Baina ez da beti horrela izan. G. Sartorik dioenez¹⁴⁹, bereizketa hau XVIII. mendean egin zen eta XIX. mendeko politikagintza liberalean finkatu, ordurarte, esan bezala, *politika* hitzaren inguruan interpretazio ahistorikoa egin baitzen. Nahasketak hainbeste denbora iraun badu, iturri semantikoan bi ikusmolde antropologiko — grekoa eta latinoa—, kontra-

¹⁴⁶ *Introducción al Derecho Político*, UNED, Madrid, 1993.

¹⁴⁷ "Elementos constitutivos del Estado", in R. García Cotarelo (comp.): *Introducción a la teoría del Estado*, op., cit., 95-107.

¹⁴⁸ *Principios de derecho constitucional español*, Univ. Complutense, Madrid, 1992.

¹⁴⁹ Op. cit., 205-224.

jarriak egon direlako izan da, zeinetan latinoak nagusitu izan baitzaio hasiera-ko grekoari. Ezin dira greziar terminoak gaur egungo ikuspegiarekin erabili. Eten antropologikoa dago jatorriko greziar *politika* hitzaren eta orain gutxi arte eman izan zaionaren artean.

Erdi Aroko gizarte feudalak, bere estamentu-ikuspegi organizistarekin, jarrera dualista erakutsi zuen. Garai honetan, gizartea (*societas*) ez da *demos*, edo *populus*, hots, ez da herriaren baliokidea. Greziar *demos*-a, herria, bere demokraziarekin hil zen, *Polis*-a desagertzearekin batera. Erromatar Errepublikak ez baitzen izan inoiz demokrazia bat, erromatarren *populus* hura ere ez zen izan inoiz greziarren *demos*-a. Horregatik, Erdi Aroko *societas*-en eta *populus*-en arteko kidetasunak ez zeukan zerikusirik greziarrek aldarrikatutako *politikón*-en eta *demos*-en arteko berdintasunarekin. Herri edo *populus* erdiarotarra izan, fikzio juridiko bat zen, *fictio juris*; era berean, gizartea, *societas* deitua, ez zen zerbait autonomoa, *juris societas* baizik, zeinetan harreman estamentalak nagusitzen baitziren, Elizak eta aristokraziak beren pribilegioak zaintzen zituztelarik.

Errenazimentuan, Kalbinek eta Altusiok azpimarratzen duten bezala, gizarteak ez zeukan oraindik aski autonomiarik, gizarte bezala, tiranoaren kontra oldartzeko. Indibiduoak edota erakundeak (Elizak, batzar lokalak, magistraturak) ziren botere tiranikoari oldartzen zitzaizkionak. Herriak *fictio juris* izateari utzi, familiak berezko lehen unitatea izateari uzten dion heinean uzten dio, hain zuzen.

Ilustrazio-garaian, Locke izan zen Ingalaterrako iraultza-garaian, gizarteaz eta herriaz hitz egiten eta, halaber, gehingoaren eskubideak aldarrikatzen lehena. Baina honen baitan gizartearen ideiak ez dauka ezer ikustekorik subiranoen aurka egindako iraultzarekin; alderantziz, zuzenbide naturalean oinarrituta, bakea ezartzeko tresna gisa errenbidikatzen da gizartearen irudia, zeina baita subiranoarekin paktu bat izenpetzen duen kolektibitatearen ordezkotzat.

Gizarteak iraultza industrialarekin, XVIII. mendean, lortzen du politikaren eta Estatuaren kontzeptuetatik erabat disoziatu eta independizatzea librekanbismoaren teoria ekonomistari esker, zeinek, Estatuaren eredu protekzionista alboratuz, sostengatzen baitu bizitza ekonomikoak hobeto funtzionatzen duela Estatuak parte hartzen ez duenean eta ekonomi garapenari legeak ezartzen ez zaizkionean. Adam Smith eta Ricardo bezalako librekanbistek azaltzen dute gizarte-errealitate asoziatuak lanaren zatiketaren bertan aurkitzen dituela bere jarduerak autoantolantzeko printzipioak. Hauentzat ekonomiaren legeak ez dira lege juridikoak, merkatuarenak baizik. Eta merkatuak funtzionatu, era automata batez funtzionatzen du, bere kontura, bere

lege propioen arabera. Honela, librekanbismoaren teoriarekin, gizarteak *fic-tio juris* izateari uzten dio eta bere autonomiaren kontzientzia hartzen du.

Noski, librekanbista horiek aurkitutako “gizarte espontaneo” hori, funtsean, gizarte ekonomikoa zen. Baina zimendua jarria zegoen. Horien ondoren etorriko dira, XIX. mende-hasieran, gizartea errealitate autonomo gisa aurkituko dutenak, berori zientzia autonomo baten ikergaitzat hartuz. Azken zentzu honetan hartu ohi da Comte Soziologiaren gurasotzat eta, geroztik, ildo horretatik aztertu izan dute Saint Simon, Marx eta Engelsek gizarte kapitalistaren izaera. Une honetan, Gizarte-Zientzien esparruan, gizartea sistema politikoarekiko “gizarte-sistema” berezi eta independen-tetzat jotzen da eta gizarte-sistema horixe bera izango da, hain zuzen, sis-tema politikoa sortuko duena. Honela, Hobbesen pan-politizismoa Comte-ren sozio-krazia bihurtzen da.

Abstentzionismoa

Estatu liberalaren eslogana, *laissez faire, laissez passer, le monde va de lui même* da. Fisiokratek defendatutako abstentzionismoaren ideia orokor honek adierazten du izadiaren ordena unibertsala errespetatu egin behar dela. Horregatik, Estatuak ez du parte hartu behar izadiaren oreka iraunkor, aske eta unibertsalean, ez ekonomian ez gizartean. Maila ekonomikoan, Adams Smithen zioenez, merkatuan islatzen da ondoenik interes desberdinak dauz-katen gizabanakoen indar-oreka, zeina beharrezkoa baita gizarteak ondo funtziona dezan. Gero, liberalismoak merkatuaren eredian aurkituko du antolaketa soziopolitikoa eraikitzeko paradigma.

Indibidualismoa

Lehen esan bezala, Estatu liberalaren oinarriko bi puntu, legearen inpe-ria eta gizaki indibidualaren oinarriko eskubideen ezagutza dira. Baieztapen bikoitz honetan oinarritzen da indibidualismoa, zeinaren arabera giza eskubide indibidualak Estatuarenak berarenak baino lehenagokoak bai-tira. Ikuspegi honekin mugak jarri nahi izan zaizkio errege-absolutismoari, honekin aditzera emanez subirano bakarra, ez Estatua, baizik legea dela. Izpiritu honekin aldarrikatzen ditu Frantziako Iraultzak Gizaki eta Hiritarren Eskubideak¹⁵⁰.

¹⁵⁰ García Cotarelo, R., in García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J. J. (comps.): *Introducción a la ciencia política*, op. cit. 177.

Liberalismo politikoak sakralizatu egiten ditu indibidualismoa eta honi dagozkion eskubideak, alde batera utziz eskubide kolektiboak, komunitate etnikoenak kasurako. Zergatik? Eskubideen subjektu bakar gizabanakoa delako, ez herria bera, hau zentzu etniko eta kolektiboan hartuta.

Giza eskubide demokratikoen aldarrikapena

Hasieran, Estatu liberalaren garaian, mugimendu iraultzaileak izan ziren berdintasuna, herri-subiranotasuna eta sufragio unibertsalaren kausa aurrera eramanez. Hauei esker lortzen da gizonezkoen sufragio unibertsala XIX. mende-bukaeran eta emakumezkoena XX. mendean, azken hau Zuzenbidezko Estatu Sozialarekin. Estatu liberalak kapitalizatzen du “demokrazia-ren” kontzeptua, baina hala egiten du, hain zuzen, ezkerreko indar iraultzaileak desmobilizatuz eta hauei erasoz.

Estatu honek gizabanako guztiak legearen aurrean berdinak direla aldarrikatzen du; gertatzez, ordea, berdintasun hori aldarrikapen formala izatek ez da pasatzen, gizarte-errealitatea demostratuz etorri baita gizabanakoak ez direla berdinak ez jaiotzez eta ez bizitzaz, baizik eta, bizitzan zehar aldatuz datozela eta, bidenabar, bizi-egoera anitzak ezagutzen dituztela. Maila politikoan, Gobernuaren botere betearazlea indartzen da, botere betearazlearen eta parlamentuaren artean borroka irekia gertatzen delarik; bestalde, erregearen subiranotasuna ahuldu egiten da, betorako ahalmena bakarrik airtortzen zaiolarik. Nagusitzen diren gobernu-motak, kasu batzuetan, monarkia konstituzionala eta parlamentarioa dira eta, bestetan, Errepublikak ordezkutzen du monarkia.

Estatu liberala da, hain zuzen, eskubide demokratikoen aldarrikapena egiten duena¹⁵¹. Baina nola zaindu eta bermatu eskubide demokratikoak? Horra galdera. Estatu modernoan ez bezala, esango da, Estatu liberalean, nahiz eta boterea berak zentralizatzen duen, hari mugak jartzen zaizkio edota, bestela esanda, Estatuak, aldi berean, obligazioen eta eskubideen subjektu bihurtzen da. Errege-estatu absolutistarekin eta honen inguruan eraikia dagoen burokrazia aristokratikoarekin bukatzeko, bada, burgesiak gizabanakoaren eta honen eskubide eta askatasunaren nagusitasuna aldarrikatzean aurkitzen du bere indarra. Esango denez, Estatuaren gainetik gizakia dago eta bera da gizartearen kausa eta oinarri bakar. Horregatik, boterearen iturburutzat, ez Jainkoa, baizik eta gizakiek beren artean adostatutako Paktu

¹⁵¹ Puelles Benítez, M.: *Política y administración educativas*, op. cit., 51-59.

Soziala ezarriko da, zeinetan askatasun indibidualak sakratuak izango baitira. Estatu liberalak eskubideak eta harreman politikoak maila erabat indibiduallean ulertzen ditu. Politikako egileak eta subjektuak izan, indibiduok dira, eta ez alderdiak, asoziazioak edota beste famili edo estamentu-erakundeak. Indibidualismoan datza haren ezaugarri nagusia.

Gizabanakoaren eskubideak bere osotasunean bermatuak izan daitezzen gizaratean, Estatu liberalak, batetik, estatu-boterea kontrolatu behar du eta, bestetik, hiritarren askatasun indibidualak bermatu. Ezinbestekoa du bi baldintza hauek betetzea. Baina nola?

Lehenik, Estatuak berak bere boterea legeriaren bidez kontrolatzen du. Legeria positibo hau gauzatu ahal izateko tresna juridikoa, hain zuzen, Konstituzioa izango da, zeinek arautuko baitu Estatuaren beraren bizitza. Konstituzio honetan bi zati egongo dira: batean, alderdi dogmatikoan edo formalean, giza eskubide eta askatasunen aldarrikapena egiten da; bestean, alderdi organikoan, estatu-botereen zatiketa egiten da jadanik aipaturiko Montesquieuren eredu hirukoitza aplikatuz.

Bigarrenik, Estatu liberalak hiritarren askatasun demokratikoak bermatu behar ditu eta, halaber, haren eskubide politikoak onartu. Garaiko teoria jurnaturalistaren arabera, Estatuak gizabanakoaren autonomia errespetatu behar du eta, aldi berean, politikan parte hartzeko eskubidea aldarrikatu.

Beraz, bi motatako askatasun eta eskubideen aurrean gaude, batean askatasun publikoak eta bestean eskubide politikoak daudelarik. Askatasun publikoak gizabanakoari berez dagozkionak eta Estatu bera baino lehena-gokoak dira. Askatasun-mota hauek norberaren autonomiari dagozkionak dira eta hauetan Estatuak ez du ezein sarbiderik. Hemen izendatu ohi dira askatasun demokratikoak deitu ohi zaienak, adibidez, kontzientziako kasuak, adierazpen-askatasuna, prentsarena, katedrakoa, etab. Honela, gizabanakoak frenu bat jartzen dio Estatuari. Eskubide politikoak, aldiz, gizakiari animalia politikoa den aldetik dagozkionak dira, zeinen bidez estatu-politikan parte hartzeko eskubidea aitortzen baitzaio. Hemen sartzen da, adibidez, botua emateko eskubidea. Hau, teorian, gobernatuak gobernatzaileak kontrolatu ahal izateko modu bat da. Honela, hiritarra bizitza publikoko subjektu bilakatzen da, ez objektu.

Nola burgesiak bere klase-interesak daukan, giza eskubide indibidualen aldeko aldarrikapena egiten duenean, praktikan ez du egiten gizartea osatzen duten hiritar guztien aldekoa, baizik eta, beste zenbait eskubideren artean, jabetza pribatuari dagokiona dauka oinarritzotzat. Honela, Frantziako 1789ko Gizakiaren eta Hiritarren Eskubideen aldeko Aldarrikapenak, bere 17. artikuluan, esaten zuen jabetza-eskubidea “ukaezinezko eta sakratua” zela. Hala

izanik, hauteskundeetan botua eman ahal izateko, gutxieneko errenta-maila izatea eskatzen zen. Estatu liberala, maila juridikoan Zuzenbidezko Estatu gisa eraikitzen dena, ez da oinarritzen gizarte-berdintasunean, lege-bidez aldarrikatutako berdintasun formal hutsean baizik¹⁵².

Lurraldearen okupazioa

Estatuaren eta lurraldearen arteko harreman juridikoaz irakurketa bat baino gehiago badauden arren, guztiak bat datoz baieztatzean lurraldea dela Estatuaren euskarri fisikoa, haren ezinbesteko oinarria, non berak bakarrik, ez beste inork, aginduko baitu¹⁵³. Maila juridiko-instituzionalean giza elkar-tea (nazio politikoa, ez etnikoa) eta Estatu gauza bera bilakatzen direnean eta giza elkarte horri nazio politiko gisa bere lurralde propioa esleitzen zaionean, orduan iristen da Estatu moderno industrialia osoki Estatu nazionala izatera. Eta nazio-nortasun hori askatasun objektibo gisa antolatzen bada, orduan Estatu hori Zuzenbidezko Estatu nazional bilakatzen da, demokrati-koa deitzen zaiona, alegia.

Beraz, Estatuak ezinbestekoa du bere lurraldea izatea. Lurraldea Estatuaren euskarri fisikoa da, airekoa, lurrekoa eta itsasokoa barruan hartzen dituen. Lurraldetasunaren elementua hain da oinarritzkoa, hori gabe ez baita Estaturik ematen. Judutarrek lurralde bat eman zitzaizenean lortu zuten beren Estatu izatea. Nazio etnikoek badute, izan, beren lurraldea, baina Estatu-nazioek okupaturik daukate haiena eta horretantxe datza, hain zuzen, nazio-menpekotasunaren ezaugarriak nagusienetako bat¹⁵⁴. Frantziak Ipar Euskal Herriari oraindik ere ukatu egiten dio bere lurraldetasuna, biarnotarrekin

¹⁵² Legeria jabetza pribatuan eta norberaren askatasunean oinarritzetik dator ondorio hau: "Resultado de lo anterior, es el abandono que el Estado hace de la vida socio-económica que se regirá libremente con arreglo a la ley de la oferta y la demanda, según postulaba la economía manchesteriana. Ahora bien, precisamente en el libre juego de las relaciones económicas radican las causas que promoverán la transformación de la estructura y funcionamiento del Estado liberal" (García Cotarello, R. <comp.>, op.cit., 61).

¹⁵³ R. García Cotarello (op. cit., 98-100) hiru teoria aipatzen ditu: batzuentzat, lurraldea Estatuaren zeharkako objektu bat da, bere menpean edukitzeko eskubidea duena; beste batzuentzat, aldiz, Estatuaren lurralde-batasuna soilki maila juridikoan oinarritutako zerbait da eta, beraz, zerbait mugatua; hirugarrenentzat, Estatuaren elementu bat da da, lurralde hartan bizi diren hiritarren gainean aginpidea izateko bide ematen diona.

¹⁵⁴ Nazio-arazoa ematen den lekuetan, estatu-lurraldea da auzitan jartzen dena: "El carácter radical del conflicto viene cuando la conciencia nacional se plantea en su horizonte de posibilidades la desintegración de 'su territorio' del territorio estatal" (Pérez-Agote, A.: *Abertzales y vascos*, Akal, Madrid, 1981, 29-30).op. cit.

batera Pirinioetako departamentua osatuz segitzen baitute, nahiz eta bertako klase politikoa —estatala barne—, euskal departamentuaren alde agertu den.

Konstituzioa, boterearen legitimazio-iturri

Lehen esan da, Estatu monarkiko absolutuaren kontra, Estatu liberalak gizabanakoa ezartzen duela errealitate politiko autonomoaren zutabetzat. Estatu honi eskatzen zaio gizabanakoaren eskubide natural horiek guztiak berma ditzala, baina haren autonomia itzaliz ez, argituz baizik. Estatu liberala, bada, botere mugatu gisa hautematen da. Nola? Gizabanakoa botere guziahaltuaren aurrean jarriz. Legeari itsu-itsuan obeditu behar baitzaio, gertatzen dena da gizabanakoa legearen agintaritzapean jartzen dela.

Estatuak Konstituzioan du bere euskarri juridikoa. Estatua erakunde funtsean juridikoa izaki, individualismoaz jardutean esan bezala, legea da boterearen iturburu nagusi edota, zehazkiago esanda, Estatu liberalaren boterea Konstituzioan oinarritzen da, boterearen erabilera, Montesquieuren eskemaren arabera, hiru mailatan banatuz. Estatua, berez, legearen menpe gelditzen da eta Konstituzioa izango da superlege hori.

Konstituzioa da, A. Torres del Moralek dakarrenez¹⁵⁵, errege-subiranotasun absolutuaren lekuan herri-subiranotasuna ezartzen duena, zeina maila juridikoan oinarritzen baita. Bertan idatzita datozen arauak betetzera behartuta daude hiritar guztiak, baita erregea bera ere. Konstituzioan islatzen da ondoenik Zuzenbidezko Estatu liberala. Liberala deitzen zaio, berak defendatzen duelako indar politikoen oreka askea.

Legea, bada, bete beharrekoa izango da, eta hala izango da, lege horrek betetzera behartzeko ezaugarri guztiak dituelako: hots, arrazoizko arauetan oinarritua da, inpersonala, orokorra eta guztien borondateareri emaitza. Azkenik, Zuzenbidezko Estatu liberal hori egon, legearen esanera dago eta, bereziki, superlegearen esanera, zeinaren isla baita Konstituzioa. Honek aldarrikatuko du zein diren zaindu beharreko hiritarren eskubideak eta, halaber, botereak zein bidez jokatu behar duen.

Bestalde, Estatu hori gizartearen beraren esaneko da. Burgesia liberalak, gizabanakoaren eskubideak aldarrikatuz, Estatuaren botere absolutuari mugak jarri nahirik, gizartearen bertan ezartzen du bere azken funtsa. Gertatzen dena da, burgesia izatean estamentu feudalarri gain hartzen diona, berak egituratzen duen gizarte-ordena berria bere interesen arabera dela eta bere-

¹⁵⁵ *Principios de derecho constitucional español*, op. cit.

hala sortzen direla kontraesanak. Nola liteke, gizabanakoa Estatuaren hatzapar absolututik babestu nahi eta, Estatuak hezkuntzan hartzen duen partaidetza ia monopolista izatea? Bego hor galdera.

Mariano Fernández Enguitak bere lanetan dakarren bezala¹⁵⁶, hortik dator egun planteatzen den arazoetako bat, ez noski bakarra, baina bai garrantzitsua, eta da, Estatu demokratikoak hiritar guztien eskubideak aldarrikatzen dituen bitartean, gizartean gutxiengo batek bakarrik, kapitalistak alegia, daukala ondasunen jabetza eta, beraz, ez dagoela gizarte-berdintasunik. Hori bera esatera datoz Bowles eta Gintis bere artikuluan¹⁵⁷, hauek diotenean Dewyk bere liburuan dakartzan demokraziari buruzko oinarritzko ezaugarriak —pertsonaren garapen pertsonala, gizarte-berdintasuna eta hiritarrak gizartean partehartzea bermatzea—, ez dituela betetzen hezkuntza-sistemak Estatu Batuetan.

Botereaz jadanik aski luze mintzatuak gara eta ez goaz hangoak errepikatzeraz, baina bai, gogorarazi nahi genuke boterea dela, izan, Estatuaren elementu osatzailerik nagusienetako bat marxiar zein weberiar zentzuan gogomaten den bezala. Izan ere, estatu-botereari buruzko irakurketan, bietan oinarritzko zerbait da bortxarena¹⁵⁸.

Estatuen barne-eraketa nazioaskoduna

Askotan, arraza etniarekin batera aipatu ohi da¹⁵⁹. Baina nola, batetik, mendez mendeko odol-gurutzamenduaren ondorioz, arraza-nahasketa handia dagoen eta, bestetik, nola kulturak asko ugaritu eta nahastu diren konkistabidez egindako hizkuntz herentzien ondorioz, gaur egun halako erreparoz batzuk sorrarazten ditu etniez hitz egiterakoan irizpide biologikoak aipatzeak. Arrazismoaren arriskua ikusten zaio horrela mintzatzeari. Halere, garbiki esan beharra dago, zentzu hertsian arraza garbirik ez badago ere, badela zientzia bat —genetika, alegia—, arrazen elementuez dihardunena, zeinek ziurtatzen baitu badirela elkarrengandik desberdintzen diren arrazak. Horietako bat da, hain zuzen, euskaldunena. Gai honetaz atzerriko autoreak, agian, gehiago arduratu dira bertakoak baino. Aurreiritzien kontua, zalantzarik gabe.

¹⁵⁶ Ikus, bereziki, *La escuela a exámen*, op. cit., 32-39.

¹⁵⁷ “La educación como escenario de las contradicciones en la reproducción de la relación capital-trabajo”, op. cit., 7-23.

¹⁵⁸ García Cotarelo, R. (comp.), op. cit., 53.

¹⁵⁹ Guerrero Serón, A.: *Manual de Sociología de la Educación*, Editorial Síntesis, Madrid, 1996, 49-51

Oro har, esango dugu talde etnikoa dela, sozialki beste taldeetatik desberdintzen dena eta bere kultura propioa landu duena. *Etnia* hitza grekotik dator (*ethnos* = herria) eta honen ezaugarri nagusiak dira, elementu fisikoak baztertu gabe, batera izatea kultura, hizkuntza, ideiak eta sinesteak. Talde etnikoaz jardutean, normalean, gutxiengo batek osatzen duen komunitateaz edo kolektiboaz da jarduna.

Gaur egun, Soziologian batez ere, talde etniko hauen erreferentzia egite-rakoan, horiek izendatzeko autore klasiko batzuek erabilitako kontzeptu ba-tzuk aplikatzen dira, nahiz eta bere garaian beste zentzu batean erabiliak izan.

Honela, F. Tönniesek komunitatearen (*Gemeinschaft*) eta sozietate edo asoziazioaren (*Gesellschaft*) arteko bereizketa egiten du. Lehen ereduari seni-dearteko harremanak nagusitzen baitira, berezkoak, xede kolektiboak dituz-tenak, norberaren gaineratik daudenak dira horiek; bigarrenean, aldiz, interes indibidualak nagusitzen dira, kalkuluan oinarrituak eta hor harremanak, ho-tzak ez badira, indiferenteak bederen badira.

E. Durkheimen eskemari jarraiki, esan daiteke komunitateetan solidari-tate mekanikoa nagusitzen dela eta, alderantziz, sozietateetan organikoa. *Solidaritate mekanikoa*, taldea osatzen dutenek elkarren artean antzekoak izateak egiten du (*resemblance* delakoa da hitz giltzarria) eta solidaritate honetan, hain zuzen, kontzientzia kolektiboak du indarra eta ez ditu onartzen berritasunak eta desberdintasunak. Horrelakoak dira gizarte primitiboak. *Solidaritate organikoa*, batik bat, taldekideek beren artean duten autonomia handiagoan oinarritzen da, zeina, industrigintzarekin bereziki, lanaren zati-ketak ekarri baitu. Hemen kontzientzia indibiduala nagusitzen da. Hau dugu gizarte modernoaren eredu.

4. taula: Gizarte-taldeen tipologia baliokideak

Herria = Nazio etnikoa Lehen mailako nazioa Estaturik gabeko nazioak	Estatua = Nazio politikoa Bigarren mailakoa Estatu nazioaskodunak
Komunitatea	Sozietatea
Solidaritate mekanikoa	Solidaritate organikoa

Europako komunitate multietnikoek hitz egiten denean, autore batzuk, Antonio Guerrero Serónek bezala¹⁶⁰, koloni herrialdeetatik etorritakoez hitz egiten da, Frantzia, Alemania eta Britainia Handiaren kasuan bezala, esanez kasu horietan politika multikulturalak ezarri direla. Autore honek, zehazki, ez ditu aipatzen Estatu-nazioen menpean dauden etniak.

Eta honek badu bere garrantzia, zeren maila politikoa elkarri oso loturik baitatuz herria, nazioa eta Estatuaren kontzeptuak. Izan ere, Estatua ezin da eraiki ez bada populazio jakin baten gainean. Orduan gertatzen dena da, herria osatzen dutenak barrura begira partaideen antzekotasunean oinarritzen direla eta kanpora begira, berriz, desberdintasun etniko-kulturalean. Estatuak ikuspegi horixe bera aplikatzen du, herriaren orde z nazio politikoa bereganatuz.

Planteamendu horretan, ordea, argitu beharreko arazo asko ezkututzen dira.

Bat: Estatu-nazioa edo nazio politikoa, egungo errealitate historikoa den aldetik, kasurik gehienetan, ez dela oinarritzen inongo errealitate etniko-kulturalean. Beraz, ez bide du erro historikorik.

Bi: Herri jakin batzuk jadanik beste estatu-errealitate batean integratuak zeuden eta horietako batzuk, gainera, Estatu bat baino gehiagotan barreiatuta aurkitzen ziren.

Hiru: Talde etniko berezia izateak, gertatzez, ez du ekarri ondorioz bere antolaketa politikoa propioa duen edo izan duen nazionalitate bat izatea. Zentzu honetan, nazio-mota bat baino gehiago bereizi ohi dira. G. P. Nielsonek¹⁶¹ hiru estatu-mota bereizten ditu: Estatu-nazioa, Nazio-estatua eta Estatu multinazionala; Anthony Smithek¹⁶² Estatu-nazioa eta Nazio-estatua bereizten ditu, baina ez Nielsonek darabiltzan zentzu berean; marxistek Estatu nazionalari multinazionala kontrajarri ohi diote¹⁶³; Blas Guerrero autoreak, berriz, hiru nazio-mota dakartza¹⁶⁴: nazio politikoa, nazio kulturala eta sustrai nazionalako Estatuak. Guk azkenengo honen sailkapena atzeman dugu operatiboena eta kontzeptu horiek zehaztuko ditugu zertxobait.

Nazio politikoa, Estatuak esparru ekonomiko, sozial eta politikoa bereganatzen duen lurralde juridikoa da. Maila honetan, kasurik gehienetan, Estatua da nazioa sortzen duena, askotan batere erro historikorik gabe, eta ez alderantziz. Hala gertatu zen Ipar zein Hego Amerikan, berdin Asia eta Afrikan, hango Estatuak eraiki zirenean, berdin Europako hainbat lekutan.

¹⁶⁰ Op. cit., 50.

¹⁶¹ Op. cit., 215.

¹⁶² *Las teorías del nacionalismo*, op. cit., 266-267.

¹⁶³ *El marxismo y la cuestión nacional*, Avance, Barcelona, 1976.

¹⁶⁴ “*Elementos constitutivos del Estado*, in R. García Cotarelo (comp.), op. cit., 85-95.

Nazio kulturala, aldiz, herriaren ideia zentzu etnikoan jasotzen duena da. Maila honetan, nazioaren protagonista izanik, nazioaren eskubideak ez dira oinarritzen berori osatzen duten hiritarrengan, komunitatea bera osatzen duten taldean baizik. Hemen, eskubide indibidualen gainetik, eskubide kolektiboak lehenesten dira. Etnia hauei, ordea, ez zaie onartzen eskubide kolektibo horien subjektu izatea, Estatu nazioaskodunek menpean hartuak baitauzkate.

Sustrai nazionaleko Estatuak, 5. taulan ikus daitekeenez¹⁶⁵, lehendik, 1795. urtea baino lehen bederen, beren antolaketa politikoa zutenak, baina etnia gehienak bertan integratu gabe zeuzkatena dira. Europako Estatu-nazio zahar gehienak, izan, plurietnikoak ziren bai Mendebaldean bai Ekialdean. Mota honetako Estatuak daukatenak dira Europa barruan jarraiko hauek¹⁶⁶: Danimarka, Espainia, Frantzia, Luxenburgo, Portugal, Erresuma Batua, Suedia, Suitza eta Errusia. Europako Mendebaldean ematen da, bada, Estatu moderno subiranoaren sorrera. Baina kasu askotan, Erdi Aroko Erresuma zaharrak suntsituta, horien errauts etnikoen gainean eraikitzen dira Estatu horiek eta, hain zuzen ere, horregatixe gertatzen dira bere egituran nazioaskodunak. Espainiako errege-estatu modernoa, Gaztelakoa zehazkiago, 1516an eraikitzen da, Aragoa eta Nafarrokoa konkistatuak izan eta gero. Frantziak Korsika, Britainia, Okzitania eta Ipar Euskal Herria azpian hartuta dauzka Iraultzaz geroztik. Era berean, Eskoziako Erresuma eta Gales herria beretuz gero sortzen da Erresuma Batua eta Irlandak 1801ean galtzen du bere subiranotasuna. European, guztira, 1516-1860 epealdian, 18 Estatu subirano aurkitzen ziren¹⁶⁷, baina, arestian aipatutako 9 horiek bakarrik diraute indarrean, beste 20 nazio historikoak irentsiz. Hemen ageri da ezin argiago Europako Estatu gehienak artifizialtasunez eraikiak izan direla, edo nazio fiktizio baten gainean, edo nazio hegemonikoaren gainean. Egun 46 dira guztira, azken 19 Bigarren Mundu-Gerraz geroztik sortuak.

Europako Estatu garaikide gehienak, 6. taulak erakusten duenez, 1800-1944 epealdian egituratu ziren, guztira 28 izanik. Estatuaren mapa politikoan aldaketarik handienak, ordea, Lehen Mundu-Gerra bukatu ondoren gertatu ziren, 1918an hamar Estatu berri sortu baitziren, hauek Erdialdeko European kokaturik zeuden lehengo inperio zaharren lekuan finkatu zirelarik. Estatu

¹⁶⁵ Nielsson, G. P., op. cit., 193-225.

¹⁶⁶ Nielsson, G. P., "Sobre los conceptos de etnicidad, nación y estado", Pérez-Agote, A. (ed.): *Sociología del nacionalismo*, op. cit., 198.

¹⁶⁷ Desagertutako Estatu zaharren datuak Norman Daviesen *Europe. A history* liburutik jasoak dira (Oxford University Press, Oxford/New York, 1996, 1.268).

sozialisten krisiek eraginda sortutakoak dira azkeneko 12ak eta beste 10 berrezarriak 1990eko hamarkada-hasieran, SESBri eta Jugoslavia Federalari atxikirik zeuden herrialdeetan. Dena den, egun Europako Estatu subiranoak 54 badira ere¹⁶⁸, Estaturik gabeko nazio etnikoak askoz gehiago dira, Europa etniaren aldetik 123 herritan zatitua aurkitzen baita.

5. Europako Estatu zaharrak

Desagertutakoak, 1493az geroztik izandakoak ¹⁶⁹	Dirautenak
Aitasantuen Estatuak (1870)	Andorra (1278)
Aragoa (1516)	Danimarka (1523)
Astrakhan (1556)	Erresuma Batua (1797)
Bohemia (1526)	Errusia (1613, 1991)
Borgonia (1579)	Espainia (1516)
Colmar (1523)	Frantzia (1792)
Erromako Inperioa (1806)	Liechtenstein (1866)
Eskozia (1707)	Luxenburgo (1890)
Estatu teutonikoa (1525)	Monako (1297)
Firenze (1532)	Portugal (1640, 1910)
Genoa (1797)	San Marino (1631)
Golden Horde (1502)	Suedia (1523)
Kazan (1552)	Suitza (1648)
Krimea (1783)	
Livonia (1561)	
Milano (1535)	
Moldavia (1859)	
Nafarroa (1516)	
Napoli (1860)	
Otomandar Inperioa (1920)	
Valakia (1859)	
Venezia (1797)	
22	13

Iturriak: Davies, N., 1268; Nielsson, G.P. 198. Norberak landu eta osatua.

¹⁶⁸ Estatu horietako batzuk, Andorra, Liechtenstein eta Monako bezala, Printzerriak dira, eta Luxemburgokoa, berriz, Dukerria. Batzuek, -Nielssonek, adibidez-, ez dituzte Estatuaren zerrendan zenbatzen.

¹⁶⁹ Hemen Estatuareko menerapen-mota desberdinak sartzen dira, Europan 1493. urteaz geroztik beren botere subiranoa izan zutenak: Erresumak, Printzerriak, Dukerriak, Inperioak, Errepublikak, Batasunak, hiriak, etab.

6. taula: Europako Estatu garaikide eta berriak

1800-1944	1945-1992
Albania (1913)	Afganistan (1991)
Alemania (1870, 1990)	Bosnia (1992)
Armenia (1918, 1991)	Eslovenia (1992)
Austria (1918)	Kazakhstan (1991)
Azerbaijan (1918, 1991)	Krgizistan (1991)
Belgika (1830)	Malta (1964)
Bielorrusia (1918, 1991)	Mazedonia (1992)
Bulgaria (1878)	Moldavia (1991)
Egoitza Saindua (1929)	Tadjikistan (1991)
Errumania (1877)	Tenkmenistan (1991)
Eslovakia (1939, 1992)	Txekia (1992)
Estonia (1918, 1991)	Txipre (1960)
Finlandia (1917)	Uzbekistan (1991)
Georgia (1918, 1991)	
Grezia (1829)	
Herbereak (1648)	
Hungaria (1918)	
Irlanda (1922)	
Islandia (1944)	
Italia (1860)	
Jugoslavia (1945, 1992)	
Kroazia (1941, 1992)	
Letonia (1918, 1991)	
Lituania (1918, 1991)	
Norvegia (1905)	
Polonia (1918)	
Turkia (1923)	
Ukraina (1918, 1991)	
28	13

Iturriak: Davies, N., 1268; Nielsson, G.P. 198. Norberak landu eta osatua.

Honek esan nahi du egungo Estatu gehienak batasun politikoan sostenegatuta daudela eta ez komunitate etnikoan. Arrazoi du J. A. Obieta Chalbaudek¹⁷⁰ dioenean Europan, Portugal, Irlanda edo Islandia kenduta, ez dela nazio bakarreko Estaturik ematen eta, ondorioz, delako Estatu nazionalek, hala deitu horiek, beren egiazko errealitate soziologikoa ezkututzen dutela. Robert Lafontek¹⁷¹, orobat, nazioari “lehen mailako nazioa” (nation *primaire*) deritza eta Estatuari, berriz, “bigarren mailakoa” (nation *secondaire*); hura etnikoa, hau ideologikoa. Hemendik dator nazio-arazoa izatea arazorik larrienetako bat Europako nola Mendebaldean hala Ekialdean.

Beraz, garbiki bereizi behar dira nazioa eta Estatua. Hitzaren sorburuari gagozkiola, nazioa hitza latinezko *nascor*-etik dator, *jaio* esanahiarekin, eta berez eta zentzu hertsian, etniazko harremanak adierazten ditu. Hizkuntza, arraza, ohiturak, lurraldeari atxikimendua izatea, arbasoen ondare kulturala, elkarrekin bizitzen irauin nahia, eta horrelako faktore objektibo eta subjektibo bereizgarriak dira nazio etnikoa osatzen dutenak eta horien gainean erakitzen da komunitate etnikoa. Estatua, aldiz, harreman ideologiko, juridiko eta politikoen bitartez burututako erakundea da. Estatuak lortzen duen gizataldearen batasuna —hiritarren borondatez baino sarriagotan bortxaz eskuratua—, ez da erro etnikoetan finkatzen, arrazoi garbiki ekonomiko eta politikoetan baizik. Horregatik, gaurko Estatu gehienak, nazioaskodunak izaki, ez daude nazioen jatorrizko mugen arabera antolatutak. Euskal Herria, adibidez, Frantzia eta Espainiako bi Estatuak zatitua daukate.

Kontua da, Europaren kasura etorrita, Estatu-nazio zaharrek beren geografia barruko komunitate etniko desberdinen integrazio-prozesua aspaldi hasi bazuten ere, prozesu horrek, zenbait kasutan, alderantzizko joera erakusten duela, desintegrazioarena alegia, eta, joera guztietako estatuzaleek egindako profetia guztien kontra, nazio-arazoa bukatu ez, baizik areagotu egin dela, hainbestearino, ezen nazioarteko arazorik garrantzitsuenetako bat gertatzen ari baita. Hemendik dator kontzeptu hauek errotik landu beharra, batetik, nazioa-arazoa, hizkuntzarekin batera, hezkuntza-arazoari zuzenean lotzen zaiolako eta, bestetik, arazo honi buruz egiten diren planteamenduen arabera, aterabideek ere kontsekuenteak izan beharko luketelako.

Giza-elkarte edo populazio jakin baten baitan, euskarri psikiko horretan, oinarritzen da Estatua. Giza populazio hori, historiaren ikuspegitik begi-

¹⁷⁰ “Estos Estados son todos, por definición, Estados multinacionales cuya pluralidad de pueblos se ha tratado, precisamente, de borrar para obtener una aparente unificación de todos ellos con la creación del Estado-nación. Por ello se puede afirmar sin exageración que el Estado-nación, al menos en sus orígenes, no es más que una simple ficción jurídica” (Op. cit., 49).

¹⁷¹ *Sur la France*, Gallimard, Paris, 1968, 39-78.

ratuta, mota askotakoa da. Lehen esan bezala, kasu batzuetan (Amerikan eta koloni herrialdeetan, adibidez), Estatuak nazio berri bat eraikitzen du hango lurraldean lehendik zeuden nazio etnikoak azpian hartuz. Amerikako Estatuak kolonizazioaren ondotik sortutakoak dira: 1776-1850 epealdian 22 eta 1945-1985 epealdian, berriz, 12, azken hauek Erdialdeko Amerikan. Beste batzuetan, Europako Ekialdian zein Mendebaldean bezala, Estatuak nazio hegemoniko baten gainean eraikiak izan dira. Europako estatu-nazionalista gehienek, frantsesek zein espainolek zein ingelesek, zein belgiarrek, zein errusiarrek, zein jugoslaviarrek, zein beste hainbatek, Estatuari esker eraiki ahal izan dute beren nazionalismoa, kasu askotan inolako sustrai etnikorik gabe. Horregatik, zuzen esana dago egun Estatu nazionalak deitzen zaien gehienak, izan, nazioaskodunak direla.

Esan beharrik ez dago nazioa, zentzu etnikoan, Estatu bano askoz lehenagoko gizarte-errealitatea dela; Estatuari izatea eman, juridikoki egituratutako erakundeek ematen diote eta haren funtsa boterean datza.

Estatu liberalen praxi politikoa

Estatu-botereak baditu, aipatutakoez gain, beste ezaugarri batzuk ere. Nagusiki politikoa da eta Estatu demokratikoaren kasuan, esaten denez, neutrala, bera baita gizarteko klase-interes desberdinak neutralizatzen ahalegintzen den arbitroa. Praktikan, ordea, politikoa adina ekonomikoa eta kulturala ere bada, klase hegemonikoa izaten baita Gobernuan botereaz jabetzen dena eta bere interesak erreproduzitzera zuzentzen baita haren politika. Puntu hau garbi islatua agertzen da, adibidez, M. W. Appleren lanetan. Estatu honek esparru ekonomiko eta politikoan liberalismoa ezartzen du; maila sozialean, aldiz, jarrera predemokratikoak aurkezten ditu.

Estatu-botereak, hasteko, eduki politikoa du eta izatez, barrura begira, zentralizatzailea, uniformatzailea eta beste nazioen zapaltzailea da.

Errotik da zentralizatzaile eta uniformatzailea. Botere honek zentralismoa ezartzen du, eta hau modu askotara: a) Erregimen Zaharrea zeuden erdimailako erakundeak eta herriak deuseztatuz eta horien lekuan erakunde funtzionalak sortuz, hala nola: probintziak, departamentuak, Estatu zentralaren delegazioak; b) legeria uniformizatuz eta foralismoa indarrean zegoen lekuetan ezabatuz; c) hazienda, aduanak eta itsas portuak bereganatuz; d) armada profesionalizatuz eta, ondorioz, soldadutza beharrezko zerbitzu bihurtuz; e) jendetza asimilatuz eta diskriminatuz, bereziki hizkuntz uniforme-tasuna ezarri eta, halaber, gobernu-arazoetan teknika zientifikoak aplikatuz. Eta errotik da asimilazionista, zeren, arestian ikusi bezala, barne-eraketaren

aldetik nazioaskoduna izatean, bere naziotasuna aurrera atera ahal izateko besteena desegin behar baitu, lehiakide gerta ez dakizkion.

Baina, aldi berean, zeregin zentralizatzaile, uniformatzaile eta asimilazionistak eraginkortasunez bete ahal izateko, estatu-botereak, den bezala, subiranoa izan behar du. Honek esan nahi du bere lurraldean Estatuarena baino botere garaiaorik ez dela eta, bere lurralde-mugaz barru nahiz kanpo, bera bakarrik dela erabakiak hartzeko subjektu bakar. Horregatik, Estatu liberalaren jokabide politikoa, barrura begira, bere menpeko nazioak, gutxiengo etnikoak deitzen zaienak, sistemaz zapaltzea izan da; kanpora begira, berriz, kolonialista eta inperialista, atzerriko lurraldeen ustiatzailea.

Estatu hegemonikoak, egiazki izan, *kolonialistak eta inperialistak* dira, biak batera, eta oraindik ere batzuek halaxe izanez segitzen dute Hirugarren Munduan. Estatu nazionalek, Europa zaharrekoek bereziki, joera espansionista erakutsi izan baitute, politika kolonialista eta inperialista garatu izan dute. Estatu-nazio horietako asko, ez bakarrik dira nazioaskodunak barrura begira, baita, aldi berean, kolonialistak edo erdikolonialistak eta inperialistak ere kanpora begira. Koloni herriak lurraldez aldentuta egon arren, politikoki zein ekonomikoki Estatu okupatzailearen Administrazioak menpean dauzkanak dira. Politika espansionista hau, oro har, lurralde okupatuak baino garapen ekonomiko, militar eta politiko garaia goa duten Estatuak burutu izan dute haiek ustiatzeko asmoz. Inperialismo modernoaren kasuan, ez da ematen Estatu hegemonikoaren menerapen politiko hori. Horregatik, inperialismoan ekonomiazko faktorea funtsezkoa gertatzen den bezala, kolonialismoan politikazko menerapena nagusitzen da. Kolonia batek ez du nazionalki nortasun politiko autonomorik.

Kolonialismoaren fenomenoak, inperialismoarenak bezala, erro historiko zaharrak ditu. Aro Modernoan, Amerikak aurkitu eta konkistatzean, Espainia eta Portugal koloni potentzia indartsuak izan dira, berdin geroago Britainia Handia eta Frantzia, eta, hango nazio etnikoen erro historikoak errotik eten eta gero, Estatu kolonizatzaile horiek, zibilizazio nagusiagoa zermatela aitzaki-maitzaki, beren kultura nazionalaren hazia ereiten dute. Horregatik, Amerikako Estatu modernoak orduan bertako nazio kulturalen gainean eraikiak izan baitziren, inolako erro etnikorik gabe, haien oraingo nazio-kulturan lehengo kolonizatzailearen izpiritu nazionala islatzen da. Ez dira gaurkoak *Iberoamérica*, *Hispanoamérica* eta antzeko esaldiak.

Inperialismoak, fenomeno politiko gisa beti presente egon bada ere historian zehar, garapen bortitza ezagutzen du XIX. mendeko hirugarren herenean eta XX. mende-hasieran, orduan ekiten baitiote Europako Mendebaldeko Estatu nazionalek Afrika eta Asiako lurraldeak banatzeari.

Leninek¹⁷² zioenez, lurreko jendetzaren % 70 koloni edo erdi-koloni egoeran aurkitzen omen zen orduan. Ez da harritzekoa, bada, egoera honen aurrean, XX. mendeko lehen urteetan, inperialismoaren arazoa izatea gogceta politiko eta ekonomikoa gehien eragin zuenetako bat, horren inguruan irakurketa desberdinak egin zirelarik. A. J. Hobsonek interpretazio ekonomikoa egin zuen 1902an: “La clave económica del imperialismo está en el deseo de los poderosos y bien organizados círculos industriales y financieros de asegurarse y potenciar, a expensas de fondos públicos y utilizando las fuerzas armadas del país, mercados privados para sus excedentes de bienes y capital”¹⁷³.

Ikuspegi bera agertu zuten, orobat, Bauer, Rosa Luxemburg eta Lenin marxistek; Weber, Robbins, Schumpeter eta beste batzuek, aldiz, fenomenoaren alderdi nagusiki ez ekonomikoak nabarmendu zituzten, esanez ezin zela egin inperialismoaren eta kapitalismoaren arteko lotura era sinplista batez, hura honen ezinbesteko ondorioa bailitzan¹⁷⁴.

Honaino Estatu liberalaren ezaugarri nagusiak deskribatu ditugu, hura zein printzipio teorikotan oinarritzen den, zer-nolako izaera duen eta historian zehar zein politika-mota praktikatu duen aztertuz.

Estatu liberala eta hezkuntza

Lehen esana daukagu nola hezkuntzaren izaera publikoa sendotua gelditu zen iraultza liberalak hezkuntza-sistema eratu zuenean, gaur ezagutzen dugun bezala. Tradizio liberalaren barruan, bi aro garbiki nabarmentzen dira: autonomiarena eta kontrolarena¹⁷⁵. Autonomoa izan beharrekoak, azkenean, estatu-aparatu izanez bukatuko du, orain funtzionatzen duen bezalaxe.

Hezkuntzarako askatasunak: Hezkuntza-sistemaren autonomia

Askatasunak diogu pluralean, zeren gizabanako bakoitzak ikasteko daukan eskubidetik baitatuz beste biok: hots, hark ikastetxe pribatuak eraikitze-ko gehi horietan ezagutzak Estatuaren kontrolik gabe emateko duen askatasuna.

¹⁷² “Sur les questions nationale et coloniale”, *Rapport de la Commission nationale et coloniale*, Ed. Pékin, 1967, 7.

¹⁷³ *Estudio del imperialismo*, Alianza, Madrid, 1981.

¹⁷⁴ Blas Guerrero, A., “Pueblo, nación, Estado”, in García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J. L. (comp.): *Introducción a la teoría del Estado*, op. cit., 469-472.

¹⁷⁵ Puelles Benítez, M.: *Política y administración educativas*, op. cit., 157-158.

Hemen, bereziki, hiru askatasun-mota aitortzen ditu Estatu liberalak:

a) *Ikastetxeak sortzeko askatasuna*. Frantziako Iraultzaren ondotik, irakaskuntzaren hedapenak hain indar handia hartu zuen, azkenean Estatu askok hezkuntza-sistemaren monopolioa hartu baitzuten. Gertatzez, hezkuntzak kontrol-bide gisa funtzionatzen zuelako gehienbat, izaera estatala hartu zuen. Frantziak Napoleonekin eman zuen lehen urratsa 1806an Unibertsitate inperiala sortuz. Erakunde hau bakarrik zen legez gaitua zegoena irakaskuntza emateko. Hezkuntzako beste erakunde-mota guztiak horren menpeko jarri zituen.

Monopolio-joera horren kontra aterako dena Eliza izango da, aurreko mendeetan bere esku egona baitzen irakaskuntza. Orain sortzen da subsidiaritatearen doktrina, zeinaren arabera, hezkuntza familiari eta gizarteari dagokien eskubidea izaki, horiek huts egitean bakarrik parte har baitezake Estatuak. Horregatik, XIX. mendean, hezkuntza monopolizatu nahi duen Estatuaren aurrean, beste erakunde lehiakideek, Elizak bereziki, irakaskuntzarako askatasun-eskubidea defendatzen dute. Gerra hau oso bizia izango da Espainian ere.

Nolanahi ere, Estatu liberalaren muinari zegokion askatasun-eskubide hauek onartzea. Halaxe onartzen dira hezkuntzako eskubide hauek Frantziako legerian. Guizotek 1833an lehen mailako ikastetxe pribatuak sortzeko eskubidea aldarrikatzen du, 1850ean Fallouxek bigarren mailakoak sortzekoa eta 1875 eta 1919an, maila unibertsitarioan eta teknikoan sortzekoak.

b) *Katedra-askatasuna*. Askatasun hau Condorcetek egindako txostenean ere badator. Baina honen esparrua Unibertsitateara bakarrik mugatzen da eta honen arrazoa da, garai hartan, Unibertsitateak ikertzeko xedea zuela eta maila horretan ezinbestekoa zela askatasun hori zientzien emaitzak jaso eta aztertu ahal izateko. Gaur egun askatasun hau hezkuntza-sistemako beste maila batzuetara ere hedatzeko joera indartzen ari da.

c) *Hezkuntzarako eskubidea*. Frantziako Iraultzarekin sortzen da, bada, hezkuntza erakunde publiko gisa. Estatuak orduan sortzen du lehen aldiz historian instrukzio publikoko sistema, irakaskuntza-maila desberdinak dituena. Orduan aldarrikatzen da, halaber, hezkuntzarako eskubidea, zeina gauzatzea Estatuari baitagokio¹⁷⁶.

Ondorio gisa esan dezakegu, bada, liberalismo politikoak, hasieran, estatu-absentismoa postulatu duela eta, printzipio horren arabera, hezkuntza-sisteman gizarte-zerbitzu jakin batzuk, hala nola benefizentzia edo osasuna,

¹⁷⁶ Ibid., 65-66.

prestatzea bakarrik eskatzen zaiola Estatuari, bereziki lehen Elizak egiten zituenak betetzea; ez, ordea, kontrolatzea. Hasieran, bada, Estatu liberalak erabateko autonomia aitortzen dio hezkuntzari.

Hezkuntzaren kontrola: Estatua eta Eliza aurrez aurre

Mamuel Puelles egileari jarraiki¹⁷⁷, Estatu modernoan printzeek ezarritako hezkuntzaren helburua menpekkoa, hots, burgesia heztea zen bezala, orain, liberalean, hezkuntza nazio eraikiberria osatzen duten gizarte-klase guztiei zuzentzen zaie; haiena funtsean instrumentala zen, hauena zibikoa. Burgesia liberalak sortutako Estatu nazionala jatorriz, kasurik gehienetan, artifiziala baita, hezkuntzaren eskuetan uzten da sentimendu patriotikoa lantzeko egin-kizuna. Bestalde, klase burgesak gidatzen baitu industrigintza, hezkuntzari lan-mundu espezializaturako xede utilitaristak betetzea eskatzen zaio. Behar dena ez da jakintza espekulatiboa, teknologikoa baizik. Hau guztia dela kausa, hezkuntzak egiteko politiko asko beteko ditu, guztiak beharrezkoak, Estatu liberal berriak zutik iraun dezan. Besteak beste, hauek: hiritarraren heziketa, demokrazia liberalaren sendotzea, nazioaren sentimendu berria sortu eta indartzea, industri iraultzak eskatzen duen eskulan kualifikatua prestatzea. Bertan interes sozial, politiko, nazional eta ekonomiko gehiegi daude, hezkuntzak interes publikoaren eremuan bere eragina izan ez dezan.

Horregatik, XIX. mendean, Estatu liberalak hezkuntza-sistemaren autonomia aldarrikatzen badu ere hasieran, gero bilakaeran sekulako borroka politikoa izango da eskolaz zein nagusitu, Eliza ala Estatua. Azkenean, liberalismoa nagusitzen den herrialdeetan, Estatuak bereganatzen du haren kontrola; beste herrialdeetan, berriz, bi alderdiek, liberalek eta kontserbadoreek, Gobernuan txandaka agintzen dutenetan, Estatuak Elizarekin paktatzen du, irakaskuntza erlijiosoa hezkuntza zibikoarekin nahasiz.

Hezkuntza, zerbitzu publikoa

Arestian esan bezala, Estatu liberalaren ezaugarrietako bat da, hezkuntzaren izaera publikoa. Erakunde pribatua izatetik publikora pasatzean datza, hain zuzen, Estatu moderno eta liberalaren arteko desberditasun nagusienerako bat.

Gertatzen dena da, zerbitzu publikoaren kontzeptu hau aski iluna dela, eztabaida askoren topaleku bilakatu dena. Hala gertatu zen Euskal Herrian

¹⁷⁷ Ibid., 157-158.

bertan, 1990eko hamarkada-hasieran eskola publiko eta pribatuaren arteko eztabaida sortu zenean. Komeni da, beraz, argitzea.

Irakurketa tradizionalan, arazoa zuzenbide publikoaren ikuspuntutik begiratuta, Ulpianok dakarren definizioaren arabera, *ius privatum* eta *ius publicum* bereizten dira. Honela, gizabanakoen artean ematen diren harremanak zuzenbide pribatuaren bidez arautzen dira eta hauek beraien alda ditzakete; ez, ordea, zuzenbide publikoaren bidez arautzen diren harremanak. Horretan datza diferentzia benetan handia. Erdi Aroan, zuzenbide pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa ahula zen bezala, orain, modernitate liberalean, maila espekulatiboan, batetik, *ius gentium* eta *ius civile* eta, batez ere, *ius naturale* eta *ius positivum* bereiziko dira. Feudalismoetik kapitalismorako trantsizioan, hirietan azokak sendotzen direnean, hiria bera hartzen da eskubideen subjektu gisa jaun feudalarekiko. Garai berean, orobat, zuzenbide publikoaren berpizkundean, gremioen eragina oso nabarmena zen, hauek, langile libreen (morroiak ez zirenen) elkarte osatzen zuten aldetik, hainbat hiri-erentzako ordenantzak eman baitzituzten. Herriaren eta herriarentzat egindako zerbitzu publiko hau da azpimarratu behar dena gremioen adibide horretan¹⁷⁸.

Politikan, ordea, monarki boterea Estatuarekin identifikatzen da eta erregearen pertsona bera da estamentu, lurralde, elkarte eta gainerako guztien berma eskaintzen duena eta batasunaren irudia gorpuzten duena. Horrela, zuzenbide publikoa errege-boterearekin berdintzen da, lehenik, haren subiranotasunarekin ge-ro eta Estatuarekin, azkenik.

Aro liberalean, Iraultza Handia gertatu ondoren, errege subiranoari bakarrik begiratzen dion zuzenbide publikotik, Konstituzioari bakarrik begiratzen dion zuzenbide publikora pasatzen gara. Absolutismoa bukatzean, bada, zuzenbide publikoaren oinarria Monarkiatik Estatura pasatzen da, eta azken honen esku gelditzen dira politikagintza markatzen duten esparru guztiok: Legea, erregelamenduak, funtzionaritza, estatu-antolaketa (administrazio zentrala eta periferikoa), polizia, armada, etab. Gaur egun zuzenbide publikoak funtzio ideologiko nagusia betetzen du, Estatuak baitauka horren monopolioa. Zentzu zabalean, zerbitzu publikoa Administrazioaren jarduerarekin berdintzen da, baina Puellesek berak¹⁷⁹ onartzen du ikuspegi hori murriztailea dela eta zerbitzu publikotzat hartu behar dela administratu guztien interesetan doan zerbitzu-mota hura, zeina halakotzat gogoemango baita lege-bidez hala aldarrikatuko denean.

¹⁷⁸ Gorostiaga, K., "Publikotasuna", in Iztueta, P. eta Basurko, F. (koord.): *Euskal Eskola Berria*, Unibertsitateko Hezkuntza Mintegia, Donostia, 1995, 179-194.

¹⁷⁹ Puelles Benítez, M.: *Política y administración deucativas*, op. cit., 170.

Hezkuntzari dagokionez, hemendik zein ondorio atera daitezkeen? Bi bederen, bai.

Bat: Zuzenbide publikoaren bilakaera historikoa garai bakoitzeko gertakariak baldintzatua izan bada eta askotan publikotasunaren mugak ez badira zehazki ikusten ere, ez da ahaztu behar "betidanik eta jatorriz publikotasun kontzeptuak dakarren muina, hau da, publikoa dela popularen alde eta popularen bidez egiten dena"¹⁸⁰.

Bi: Estatu-monopolioa ezin dela berdindu zerbitzu publikoarekin. Hezkuntza eskaintzen duen elkarteak edo erakundeak, publikoa ala pribatua izan, zerbitzu publiko bat eskaintzen du, hezkuntzaren beharra interes orokorreko beharren artean kokatzen delako. Horregatik, erakundearen titularitateak pribatua izanez segitzen badu ere, berdin haren jarduerak, horien erregimen juridikoak izaera publikoko ikastetxeen antz handia hartzen du, eta hori arrazoi honengatik: hots, guztien onerako den zerbitzu publikoa betetzeagatik¹⁸¹.

Estatu liberalaren krisia

D. E. Ashfordek dakarrenez¹⁸², Estatu liberalaren eredia oso indartsua izan omen zen eskubide politikoan eta antolaketa politikoaren mailan; politika sozialean zailtasunak sortu zirenean, ordea, oso ahula agertu omen zen. Krisia maila askotan ematen da: politikoan, ekonomikoan eta nazioartekoan.

Maila politikoan, berdintasun juridiko eta formala aldarrikatzen asko saiatu arren, ez zuen aski zalutasun agertu eskabide demokratikoak jaso eta gizarte-politika berdinagoa gauzatzeko orduan, bereziki Lehen Mundu-Gerra ondoren. Hala gertatu zen Weimarren Errepublikan (1919-1932), edota Frantziako III. Errepublikan (1875-1918), berdin Britainia Handian Mac Donalden gobernaldian (1924; 1929-31).

Maila ekonomikoan, merkatu-politikak ez zuen jakin kontsumo-ondasunen banaketa orekatua egiten; alderantziz, handik gizarte duala indartu zen, zeinetan, alde batean, klase pribilegiatuak aurkitzen baitziren, gero eta aberastasun eta etekin gehiago metatzen ari zirenak, eta, bestean, herri-klasekoak (langileak, haurrak, emakumeak), hauek diskriminatuak eta

¹⁸⁰ Gorostiaga, K., op. cit., 189.

¹⁸¹ "La nota esencial de estos servicios reside en que siendo privados desde el punto de vista de la titularidad, cumplen una función pública o de interés general" (Puelles Benítez, M., 1987, 172).

¹⁸² La aparición de los estados de bienestar, MTSS, Madrid, 1989; ikus García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J-L. (comp.): *Introducción a la ciencia política*, op. cit., 182-183.

baztertuak. Ekimen pribatuak, bere aldetik, ez zuen bere gain hartu gizarte-zerbitzuak eskaintzeko ardura; hutsune hori zela kausa, Estatuak hartu behar izan zituen, subsidiario gisa, asistentzi zerbitzu asko eta hauek erakundetzeko kargak hiritarren bizkar joan ziren. Horregatik, karitate pribatuan oinarritutako sistemak ez baitzuen funtzionatzen, gizarte-gatazkak baretzeko xedearekin, Estatu liberalak hasierako ez-interbentzionismoaren edo absentismoaren printzipioari uko egiten dio eta gizarte-zerbitzu publikoak eskaintzeko lehen administrazio-sarea ezartzen du.

Honela, 1929an burtsa hondora joan eta ekonomiak krak egitean, 1920ko hamarkadako optimismoa hankaz gora joaten da eta hasierako Estatu abstentzionista, orain garbiki interbentzionista bilakatuz, gastu publikoa nabarmenki handitu beharrean aurkitzen da, langabezia masiboari irtenbidea bilatu eta barne-eskaera gehitu ahal izateko¹⁸³.

Ordena publikoan, gizarte-bizitza narriatzen joaten baita eta lan-gatazkak ugaritzen, bereziki jendetza handiak pilatzen diren eta baztertu-egoeran dauden industri guneetan eta hirietan, neurri zapaltzaileak hartu beharra gero eta beharrezkoagoa egiten da; birgizarteratzeko neurriak, aldiz, ez dira hartzen, oso kasu bakanetan izan ezik. Beraz, Estatu liberalaren egiteko nagusietako bat, barne-ordena ezartzea izango da, horretarako zapalkuntza erabiliz.

Nazioarteko mailan, Estatu liberala, kanpo-defentsari dagokionez, ez da izan nazioarteko harreman iraunkor eta baketsuak eratzeko gauza. Eta ez da izan, batik bat, barne-arazoak konpontzeko bide gisa politika espansionista eraman duelako eta, ondorioz, gerra-giro faltsua sortu delako nazioarteko politikan. Egoera honek, jakina, Estatu liberalaren eredia ahultzea eta beste estatu-eredu berri batzuk sortzea ekarriko du. Krisi-egoera honetatik eratorriak dira Estatu faxista, sozialista eta, halaber, Zuzenbidezko Estatu Soziala.

4. Zuzenbidezko Estatu Soziala

Heller izan zen 1929an izen hori asmatu zuena. Baina gizarte-berdintasunaren eta gizarte-eskubideen aldeko borroka antolatua lehendik zetorrena zen. Esperientzia erakutsiz zetorren hasierako Estatu liberalak aldarrikatutako berdintasun formalak ez zekarrela egiazko berdintasunik hiritarrentzat. Hitz bat zen, oligarkiaren aldarrikapen formal huts bat, ez gehiago.

¹⁸³ García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J-L. (comp.): *Introducción a la ciencia política*, op. cit., 182.

Horregatik, askatasun publikoak eta politikoak Estatu liberalarekin lortzen diren bezala, iraultza burgesaren ondorioz, eskubide sozialak XX. mendehasieran hasten dira gauzatzen, emeki-emeki, iraultza sozialistaren eraginez, batik bat, zeinaren ondorioz Estatu liberala langile-klasearen eskubideak onartzera behartua aurkituko baita. Oinarrizko gizarte-eskubide hauek Mexikoko Konstituzioan, 1917an Querétaron egindakoan, aldarrikatu ziren. Geroztik, lehen urrats ezagunenak Suedian eta Estatu Batuetan ematen dira, horietan 1930eko hamarkadaren erdialdera bideratu ziren berrikuntzetan, hain zuzen. Laboristek Britainia Haundian hauteskundeak irabazten dituztenean 1945ean, orduandik Estatuaren izaera interbentzionistak indar handia hartzen du eta esan daiteke, Bigarren Mundu-Gerra ondoren, Europako Mendebaldeko Konstituzio demokratiko gehienek beretzen dutela estatu-eredu hori, sozialdemokratek eta liberalek egiten duten hitzarmenaren ondorioz. Ez bakarrik sozialdemokratek, sozialistek ere jadanik Ongizateko Estatuaren eredia sarturik daukate beren egitarauan.

Keynesianismoan oinarritzen den estatu-eredu berri honen egitekoa hasierako Estatu liberalaren kontraesanak gainditzea izango da¹⁸⁴. Izan ere, eredu horren praktikak erakutsi zuen, alegia, mekanismo arautzaileak osoki edo aldez gizartearen esku utziz gero, injustizi egoerak sortzen direla. Horren aurrean, Estatuari aitortzen zaio kontrolatu gabeko garapen sozioekonomikoaren ondorio disfuntzionalak neutralizatzeko ardura. Honela, Zuzenbidezko Estatu Soziala garatzen hasten denean, merkatu erasotzailearekin eta, bidenabar, ordurarte nagusi zen politika bikoitzarekin bukatzen da. Estatuak gizabanakoek bizi dituzten baldintzen defentsan inplikatzeko unetik aurrera, haren eta gizarte zibilaren, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko harremanak zaluagoak gertatzen dira. Orain interbentzionismoak ordezkatzen du orduko abstentzionismoa eta, orobat, gizarte-zerbitzuen eskaintzak orduko asistentzi ekimen subsidiarioa. Honela eratzen da Ongizateko Estatuak, zeinetan txertatzen baita hiritarra, ez bakarrik maila juridiko eta politikoan, baita ekonomiko, sozial eta kulturean ere gizarte-ondasunak banatzeko orduan.

Ongizateko Estatu honek zer-nolako arrakasta izan duen neurtzea ez da batere erraza. Eta ez da, batik bat, Ongizateko estatu-mota bat baino gehiago egon delako eta erregimen demokratiko bakoitzean bere erara funtzionatu

¹⁸⁴ García Cotarelo, R., "Los modelos de dominación política", in García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J.L (comps.): *Introducción a la ciencia política*, op. cit., 191-194. Lan hau bi lekutan argitaratua baitauka egile honek, aipua ere bietatik egiten ditugu, bakoitzean nondik hartua den adieraziz.

izan duelako. Nolanahi ere, ekonomi indar garrantzitsua izatera iritsi da Mendebaldeko Europako leku askotan.

Dena den, krisialdi batetik atera eta beste batean sartua dagoen estatu-eredu berri honi, nahiz eta barrutik usteldua egon eta demokratikotik gutxi izan, hauteskunde-sistematik datorkio bere legitimazioa, zeinaren bidez, aldika-aldika, gehiago bezatuaren ahotsa gutxiengo batek ordezkatzeko baitu.

Zuzenbidezko Estatu Sozialaren ezaugarriak

Hasierako Estatu liberalak bere ezaugarri bereziak bazituen bezala, honek ere baditu bereak. Estatu-mota hau hiru elementu hauek ezaugarritzen dute: interbentzionismoak, zuzenbidezkoa izateak, berdintasun-printzipioaren eta eskubide sozialen aldarrikapenak.

Interbentzionismoa

Bizitzeko gutxienekoa bederen guztiek izan dezatela: hauxe da lortu nahi den helburua. Estatuak nola lor dezakeen hori? Gizartearen ondasun publikoen banaketan zuzenean parte hartuz. Hemendik dator hastapeneko absentzionismoaren ordezkari, orain interbentzionismoa finkatzea. Honela, lehengo benefizentziatzko edo karitatezko ereduaren lekuan, gizarte-prestazioen eta ondasun ekonomiko, sozial eta kulturalen birbanaketa ezartzen da. M. García Pelayok dakarre-nez¹⁸⁵, Estatuaren protekzionismoa berme juridikoak baino harago doa, zeren Estatu hau, ongile bihurturik, aberastasun nazionalaren banatzaile gisa agertzen baita, justizia sozialaren egile gisa, gizarte-desberdintasun guztien eraldatzaile gisa. Interbentzionismo hau plataforma politikoetatik eta estatu-administrazioko aparatuetatik bideratzen da. Horietan hartzeko dira neurri sozioekonomikoak eta politikoak.

Zuzenbidearen printzipioa

Estatuaren protagonismo honek agerian jarri du, batetik, botereak betetzen duen kontrol juridikoaren funtzioa eta, bestetik, harreman-esparru berri honetan garatutako formalizazio juridikoa. Ongizateko Estatu hau zuzenbidezkoa, legeriak finkatzen duenaren esanekoa, alegia, izatean, demokraziaren esparruak ere murriztu egiten dira, hiritarren ahotsa itzali egiten da. Bestalde, kontuan hartzen bada, estatu-eredu honen barruan “totalitario” dei-

¹⁸⁵ *Las transformaciones del Estado contemporáneo*, Alianza, Madrid, 1977.

tuak ere aurkitzen direla, Estatu ongile horren utopia zalantzan jartzeko adina arrazoi bada, izan.

Bitxia badirudike ere, politikagintza instituzionalean ustelkeriak, iruzurrak edo antzeko lege-haustek gertatuko direlarik ere —gertatuz datozen bezala—, Estatuak beti geldituko da tatxa orotik garbi, zeren zuzenbidezkoa dena, berez, ezin baitaiteke sekula errudun bilakatu; aitzitik, Zuzenbidezko Estatuaren egitekoa, hain zuzen, errudun partikularrak epaitu eta zigortzea izango da. Horrela zurituko du Zuzenbidezko estatu-arrazoiak bere burua. Gobernu-lehendakariak ere eskandalu gaitzetan narrasturik daudela? Kezkatzekoa izango da, baina ez hainbeste. Zuzenbidezko Estatuak, honela ala hala, horientzako inpuniteate-modu abilak bilatuko ditu. Behar izanez gero, botere judizialaren bidez. Tartean hildakoak egon arren, arduradunen piramideak balantza gutxi egingen du. GALen kasuan, adibidez, deus ez, nahiz eta, inkestek aditzera eman dutenez, Espainiako estatu-aparatuak zuzenean inplikaturik egon direneko herri-kobentzimendua ia erabatekoa izan. Lasa eta Zabalaren kasuan, zehazki, 2000ko maiatzean emandako epaiak akusazio orotik aske utzi ditu gobernu-gizonak.

Berdintasunaren eta eskubide sozialen aldeko aldarrikapena

Konstituzio-legerian sartzan dira Ongizateko Estatuak bere egitekotzat hartzen dituen gizarte-prestazioak eta berdintasunaren printzipio demokratikoak bermatzea, hala nola: sufragio unibertsalaren orokortzea, eskolatzearena, aseguru soziala, sindikatze eskubidea, etab. Estatuak behartua dago prestazio hauek ematera, gizabanakoa bere osotasunean gara dadin. Orain, XX. mendeko laugarren hamarkadatik aurrera, ikasleen aukera-berdintasuna aldarrikatzen da. Hau guztia, noski, eskubide sozialen mailan emandako lortu historiko bat da¹⁸⁶. Horrela, Estatu sozialak —ez leku denetan arrakasta berarekin baina—, gizarte-ekintzaren politika bideratzen du, zeinak suposatzen baitu eduki sozioekonomikoa duten eskubide berri batzuk bermatzea.

Ongizateko Estatuaren krisia

Krisi-egoera hau maila soziopolitikoan bezala ematen da hezkuntza-sisteman ere, jarraian ikusiko dugun bezala.

¹⁸⁶ Puellas Benítez, M., op. cit., 51-65.

Esparru soziopolitikoan

Estatu Sozialaren xede nagusiak, sorreran, hauek ziren: Estatuak barrutik modernizatzea eta ongizatea birbanatzea. Alabaina, 1973. urtetik aurrera ekonomia krisia agertzen baita, bereziki multinazionalen hedapenarekin, haren oinarri kapitalistan dauden puntu batzuk zalantzan jartzen dira. Krisiaren arrazoiak, orain, bi eratakoak dira: exogenoak, hots, orokorrean kapitalismoaren krisi ziklikoei dagozkienak (langabezia, industri ekipamenduen zahartzea), eta endogenoak, Estatu bakoitzaren ekonomi koitunturari dagozkionak¹⁸⁷.

Estatu-nazioaren eredia, bizitza ekonomikoaren esparru geopolitiko gisa, ekonomi hedapen endogenoa ematen den garaian bakarrik gertatzen da baliagarri. Honek esan nahi du Estatu barruko ekonomi hedapenak gizarte-kontrolaren beharra daukala gatazka-egoerak murriztu eta produktibitatea eta hiritarren kontsumoa sustatzeko.

Horregatik, nazioarteko esparru berri honetan, zeinetan enpresa multinazionalen hedapen-prozesua gero eta bizkorragoa baita, Estatuak ezin du lehen bezain aise bete bizitza sozioekonomikoa arautzeko arbitro-lana. Gainditua sentitzen da. Izan ere, ekonomi krisiak handitu egiten baitu Estatuaren gastu publikoa, gizarte-prestazioak murriztu eta gastu publikoa desberdinki banatu beharrean aurkitzen da. Keynesianismoak eraikitako Ongizateko Estatuak eta, halaber, taylorismo eta fordismoan oinarritutako produkzio-ereduak krisian zuloraino sartuak daude. Ekonomiaren globalizazioarekin, bestalde, nazioarteko konkurrentzia areagotu egin da eta, hau dela medio, lan-munduan neoliberalak politika antisoziala praktikatzen ari direla ikusten dugu, LABek, bere V. Batzar Nagusian salatzen duen bezala, “langabezia, prekarietatea eta txirotasuna sortuz non-nahi”¹⁸⁸.

Krisitik ateratzeko zer egiten duen? Zuzenbidezko Estatu Sozialak egiten duena da, aterabide egokiak bilatzen saiatu ordez, tranpa berriak asmatu. “Tranpa” hitza darabilgu, zeren Estatuak gizartea zorpean uzten duenean, desorekak sortzen baitira eta gatazkak pizten eta, ondorioz, Estatuak hiritarren aurrean deslegitimatua gelditzen baita. Ongizateko Estatuak irtenbide zaila dauka benetan, zeren, batetik, ezinezkoa baita politikoki gastu publikoaren gehikuntza balaztatzea, Ongizateko gizarte-errebendikazioak gero eta handiagoak direlako eta horiei erantzun egin behar zaielako, eta, bestetik, gastu

¹⁸⁷ García Cotarelo, R., “Los modelos de dominación política”, in García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J.L. (comps.): *Introducción a la ciencia política*, op. cit., 192-194.

¹⁸⁸ Goikoetxea, J. R. (Ardotxi), “LAB bere V. Biltzar Nagusiaren aurrean”, *Gara*, 2000-04-6, 5.

horiek, ekonomiaren aldetik begiratuta, egin beharrekoak direla uste baita. Horra hor Ongizateko Estatuak kate motzean lotua.

Krisi fiskala zergatik gertatzen den, edota Estatuak biltzen duena baino gehiago zergatik gastatzen duen? Bi esplikazio-mota eman ohi dira. Lehen azalpenaren arabera, esaten da, ekonomi krisiak, batetik, populazio aktiboa, inbertsioak eta eragiketa zergagarriak gutxitzea eta, bestetik, ezkutuko ekonomiaren proportzioa gehitzea dakarrela eta honek, ondorioz, Estatuaren likidez iturriak izugarri murriztu dituela. Neoliberalen bigarren azalpenak dioenez, Ongizateko Estatuaren dinamikak berak gastu publikoaren gehikuntza sistematikoa inplikatzeko duenez gero, prozesu horrek ez bide du bukaerarik.

Hezkuntza-sisteman

Krisi soziopolitikoarekin batera, 1973. urteaz geroztik, hezkuntza-sistemak ere larrialdi sakona bizi du mundu osoan zehar. Garai batean gizarte-mugikortasunaren eragile nagusitzat ezarria izan zen hezkuntza formalak egun ez du horretarako gaitasunik erakusten eta, hezkuntza-sistema demokratizatzearen ondorioz, unibertsitate-irakaskuntza ugaltzen doan heinean, titulu akademikoa desbaloratzen ari da eta lizentziatuen langabezia handitzen. Egiten zaizkion kritiken artean, esaten da, halaber, egungo hezkuntza formalak ez duela balio arazo soziopolitiko eta ekonomikoak erabakitzeko. Hori dela eta, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira hezkuntza informala eta ez-formala.

Ekonomi krisi honek hezkuntza-sisteman dituen ondorioak aztertzerakoan, Martin Carnoyk bi joera nabarmentzen ditu hezkuntzaren politika gidatzen dutenen artean¹⁸⁹: bata ekonomikoa, interes ekonomikoengatik hezkuntzarako gastuak murriztera jotzen duena, eta bestea politiko-ideologikoa, hezkuntza hobetuz eta berrituz joateari eusten diona. Berak azkeneko alternatibari ikusten du hezkuntzaren geroa¹⁹⁰. Epe luzera, bada, hobe da kostu-

¹⁸⁹ “Los planificadores y responsables que comprendan la importancia que tiene para la democracia y el desarrollo económico a largo plazo la educación de alta calidad para todos continuarán trabajando por la democratización de la enseñanza y se resistirán a los intentos de reducir el gasto educativo en aras de la austeridad y de las ventajas económicas a corto plazo. En términos prácticos, eso significa que los planificadores deben concentrar sus esfuerzos en la enseñanza primaria, concentrándose particularmente en mejorar la calidad del personal docente y en hacer disponibles para todos los libros de texto, así como en la elevación de la calidad de la escolarización primaria para poblaciones marginales allí donde la escolarización a ese nivel se halla garantizada” (“Reforma y planificación de la educación en un contexto de crisis económica, *Perspectivas*, vol. XVI, 2, 1986, 213-222).

¹⁹⁰ *Ibid.*, 222

murrizketan ibili ordez, irakaskuntzan behar dena inbertitzea, bereziki, maila ez-unibertsitarioan.

5. Estatu sozialista

Estatu demokratikoak bere irakurketa liberalean zein neoliberaleran aldarrikatzen duen tesia da, funtsera etorrita, Estatu eta gizarte zibila argi eta garbi bereizita daudela maila formalean eta hark honen esanekoa behar duela izan. Baina praktikan eman, ematen al da gizarte-egoera orekatu hori? Praktikan ematen al da bereizketa hori? Eta ematen bada, noiz eta non? Demokratikoa deitzen zaion Estatu honen boterea neutroa ote da? Era berean, gizarte zibilean hiritarren berdintasuna ematen al da? Hauek dira neoliberalismoari egiten zaizkion galderak eta demokrazia liberalak horri erantzuteko zailtasunak ditu. Liberalismoak pentsatu izan du merkatua dela harreman ekonomikoak orekatzen dituena, baina, gertatzez, errealitateak gizarte dualista baten aurrean aurkitzen garela esaten digu. Marxistek Estatu, Ongizateko itxura hartua duen une historiko honetan, errotik zapaltzailea dela uste dute, ez klase herritarren, baizik gizarte-klase hegemonikoaren zerbitzura dagoela.

Orokorrean gizarteaz hitz egiterakoan, terminologiaren aldetik ere ematen da desberdintasunik literatura liberalean eta marxistan. Liberalismoak gizarte zibilaz —Estatua baino zabalagoa den horretaz, alegia—, diharduen lekuan, marxismoak formazio sozialaren kontzeptua edo formula erabiltzen du, zeinek produkzio-modu anitzen konbinazioa adierazten baitu. Kontzeptu konkretua da, historikoki determinaturik dagoen errealitate sozialari dago-kiona. Formazio soziala osatzen duten produkzio-modu desberdinak elkarren artean harremanurik, konbinaturik daude, baina beti produkzio-modu baten pean. Formazio sozial kapitalista batean, noski, produkzio-modu kapitalista da nagusi. Era berean, esan behar da, marxismoak ulertzen duenez, produkzio-modu baten egitura konplexua dela, maila eta determinazio espe-zifiko batez artikulaturik dagoena. Bi maila bereizi ohi dira: bata gizarte ororen azpiegitura, oinarrizkoena, osatzen duena da, egitura ekonomikoari dago-kiona, eta bestea gainegitura, zeinetan aurkitzen baitira beste instantzia edo maila guztiak: egitura juridiko-politiko (hemen sartuz zuzenbidea, estatu-aparatuak) eta egitura ideologikoa (eskola, familia, erlijioa, komunikabideak, etab.).

Azpiegitura ekonomikoa, bestalde, produkzio-harremanez eta produkzio-indarrez eraturik dago. Eta produkzio-harremanak, hain zuzen, produkzio-

egileek, hots, langileek langailuekin, hots, produkzioko indarrekin dituzten harremanak dira. Gertatzen dena da, liberalismoak defendatzen duen gizarte kapitalista batean, gizarte hori —gizarte zibila deitzen zaion hori, hain zuzen—, klasetan zatiturik aurkitzen dela eta horko produkzio-harremanak beti aurkariak direla. Honela, batetik, produkzio-bideen jabetza erreala ukantik, langileen lanetik gainbalioa hurrupatzen dutenak aurkitzen dira eta, bestetik, jabe ez izanik, produzitzaile zuzenak diren langileak. Horra hor bi klase.

Iraultza komunista nagusitu izan den herrialdeetan eraikitako Estatu sozialistak Marx, Engels eta, batez ere, Leninek bere *Estatua eta iraultza* (1917) izeneko lan famatuan landutako habe teorikoaren gainean eraikiak izan dira. Hor azaltzen du “langileriaren diktadura” dela langile-klasearen era guztietako gobernua, orohalguztiduna eta ezein legeren menpeko ez dena. Langileriaren diktadura hau, hain zuzen, boterea lortu ondoko arrisku-arolari dago-kiona da, iraultzaren ondorioak sendotu arte iraungo duena. Horrelako edo antzeko izaera izan zuen Errusian Sobietar Estatuak. Baina Bigarren Mundu-Gerraz geroztik erregimen sozialista finkatua izan den herrialdeetan, orain gerra-arriskurik ez dagoela eta, langileriaren diktaduraren ordeztu herri-demokraziaren kontzeptua erabiltzen da. Honela, Estatu liberalen demokrazia formalari Estatu sozialisten herri-demokrazia kontrajartzen zaio. Herri-demokraziak esan nahi du, gizarte sozialistan klase antagonikoak desagertuak direnez gero, Estatua dela herri osoaren interes espezifikoko oro ordezkatzeko dituen.

Estatu sozialistak jarraiko hiru konstituzio-printzipio hauek ditu oinarri: a) zentralismo demokratikoa, estatu-aparatuen antolaketa errotik hierarkiko, burokratiko eta militarizatuan gauzatzen dena; b) alderdi komunistaren zuzendaritza, estatu-gobernu gisa eratzen dena; c) Estatuaren gizartearekiko zeregin eragilea maila ekonomikoan, politikoan, sozialean eta kulturean. Funtsean, Estatu sozialistak Estatu federalaren erakunde ordezkatzailerik guztiak bereganatzen ditu, baina beste egiteko batzuk esleitzen dizkie. Estatu liberalean ez bezala, konstituzionalismo sozialistak lanerako eskubidea bermatzen du eta maila honetan, sistema kapitalistan ez bezala, langabeziaren arazorik ez du. Baina maila politikoan herri-demokraziak hutsune nabariak ditu, zeren, Europako Mendebaldean erregimen sozialistek kraska egingo duten arte, Estatu sozialistetan ez baita onartu izan ez alderdi-aniztasunik ez elkartzeko eskubiderik, ez botere-banaketarik¹⁹¹. Eta oinarritzko askatasun

¹⁹¹ Pastor, Manuel, “Los modelos de dominación estatal”, in García Cotarelo, R. (comp.): *Introducción a la teoría del Estado*, op. cit., 78-84.

demokratikoak huts egitean, estatu-boterea praktikan totalitarismotik oso hurbil kausitzen da. Bestalde, lekuan lekuko erregimen sozialistek aldarrikatu izan badute ere jabetza pribatua abolitzearekin batera gizarte-klaseak ere desagertu egingo zirela, historiak besterik erakutsi du. Jabetza pribaturik gabeko gizartean gizarte-klase berriak gorpuztu dira, eta nagusia, hain zuzen, botere zentralizatuaren inguruan.

Europako Mendebaldeko Estatu liberaletan ideologia burgesean oinarritutako berdintasunaren printzipioa sustatzen den bezala, Ekialdeko Estatu sozialistetan sozialismoan oinarritutako igualitarismo edo berdintzasunaren aldeko ideiak lehenesten dira. Frantsesez esanda, *égalité* eta *égalité* kontzeptuak bereizten ditu Janina Markewicz-Lagneau autoreak Bulgaria, Txina, Hungaria, Txekoslovakia, SESB eta Jugoslaviako hezkuntza-sistemak aztertzen dituen lanean¹⁹². Sozialismoari oinarritzeko zaion igualitarismoaren printzipio horretatik abiatuta, Estatu sozialistek hezkuntza formalararen mailan aldarrikatzen dituzten printzipioen artean, besteak beste, hauek daude: hiritar guztiei, beren gizarte-jatorria kontuan hartu gabe, ikasteko aukera-berdintasuna eskaintzea eta, halaber, guztiei goi-kualifikazioak erdiesteko bide materialak ematea. Ikastea, berez, balore autonomo gisa goraiatzen da, eta hau hiru zentzutan ulertu behar da: lehenik, gizarte osoa “masa landua” izatera hel dadin nahi da, teknikari kualifikatuak sortuz batera, herri osoak parte har dezan gizarte sozialistaren garapen tekniko eta ekonomiko azkarrean; bigarrenik, Mendebaldeko demokrazietan hezkuntzarako eskubidea indibiduala den bezala, herrialde sozialistetan kolektiboa da; hirugarrenik, hezkuntzaren bidez goi-mailako eskolatzeak eta kualifikazioak lortu nahi dira, ahalik eta garaienak, gizarte-baldintza materialak eraldatuz joan daitezkeen eta, honela, sozialismoak arnosten duen gizaki berria sor dadin gizarte berrituan.

Estatu sozialistek, beraz, hezkuntza tresna politiko gisa gogoematen dute, zeinari gizarte-egitura eraldatzeko eginkizuna ematen baitzaio. Esan dugun bezala, produkziarako kuadro gaituak sortzea da haien xede nagusia, amerikar funtzionalismo teknologikoan “giza kapitala” handitzea den bezala. Azken batean, bietan, produkziogintza materialetara zuzendutako helburu utilitaristengatik inbertitzen da hezkuntzan, hazkunde ekonomikoak aurrera egin dezan.

Asmoak asmo, praktikan gertatu dena da, orain aztertzea ez goazen arrazoiengatik, Estatu sozialistak ere, egon, krisian daudela, Estatu liberalak halaxe dauden bezala. Bakoitza bere abantailekin eta desabantailekin.

¹⁹² *Education, égalité et socialisme*, Anthropos, Paris, 1969.

Krisi horren ondorio dira maila teorikoan marxismoaz egiten den irakurketa berria. Izan ere, aski da begiak irikitzea, egun langileria ez dela bizi, ez da urrundik ere, Marxen garaian bizi zen egoera berean. Zentzu honetan, marxismo klasikoak dogmatzat hartua zeukan gainegituren eta azpiegituren arteko armazoi teoriko sendo hura, zeinaren arabera ekonomiak determinatzen baitzuten gizarteko beste gizarte-fenomenoak oro, egun neomarxismoak auzitan jartzen du supostu hori edo, bederen, asko erlatibizatzen da ikuspegi monokausalista hori. Nahiz eta oraindik ere ekonomiari lehentasuna aitortzen zaion —orain neomarxisten interpretazio-harian gabiltza—, gainegiturako instantzia edo mailek badute beren autonomia erlatiboa eta maila horietan diharduten subjektuek parte hartzen dute gizartearen aldaketan. Estatuaren zein eskolaren kasuan, autonomia hori gero eta ozenkiago aldarrikatzen da. Gainera, azpiegituren ondorio hutsa izan gabe, haren izateko baldintza ere bada aldi berean. Esan nahi baita, gero azalduko den bezala, gainegiturako maila desberdinak ez direla mugatzen soilki gizarte-egiturak erreproduzitzera, beraiek produzitu ere egiten dutela.

6. Alternatibak

Egungo krisi-egoera orokortua deskribatu dugu. Baina nola gainditu krisi hori? Hau da egiazko arazoa. Esan beharrik ez badago ere, esan beharra dago, errudunak beti beste nonbait aurkitzen baitira, berori erabakitzea klase politikoari dagokiola, honi bereziki, diru publikotik kobratzen duten politikariak eta funtzionarioak baitira lan espezifiko horretarako izendatuta daudenak.

6. 1. Maila soziopolitiko eta ekonomikoan, proposamen bat baino gehiago daude indarrean. Beste batzuen artean, sozialdemokrazia, neoliberalismoa, sozialismoa eta komunalismoa aipatzen dira.

Sozialdemokraziak egungo egoera ekonomikoa birmoldatzea proposatzen du. Orain Estatu multinazionalen aurrean aurkitzen gara, zeinen helburua baita birmoldaketa sozioekonomikoa egitea produkzioan, finantzetan eta merkatu-mailan. Hortik doa Europako Elkartea. Koiuntura honetan, lehengo Estatu zaharren existentzia zalantzan bezala jartzen da, zeren uste baita, Estatu-nazio zentralizatzaile eta burokratizatuen aldean, erregioak, unitate politiko gisa, hobeto kokatuak aurkitzen direla Estatu multinazionalen eta hiritarren arteko bitartekari-lanak egiteko.

Eredu honen bestaldean, proiektu neoliberalak dago, zeinek, estatu-terbentzioak at utzita, merkatu askeko erregimenera itzultzea proposatzen

baitu, esanez ez direla lehengo krisi ziklikoak errepikatuko baldin ekonomi mekanismoek beren kabuz jokutzen badute. Beraz, neoliberalismoak alternatiba herririk ez du, gaudenean segitzea besterik.

Sozialisten ustez, ordea, sozialismoa da alternatiba bakarra kapitalismoaren aurrean, zeren sozialismoa sistema politiko liberalen eta ekonomia kapitalistaren aldean sistema garaiagoa baita. Berdintasunaren eta demokraziaren xedeak ezin dira bete sistema kapitalista batean. Oraindik areago diote: kapitalismoak aberastasuna sor dezake, baina ez daki berdintasunean banatzen eta, gainera, desoreka handiak sortzen ditu, langabeziak handituz, produkzio-baliabide asko desagertaraziz, etab. Dena den, onartzen da sozialismoak ere bere alde onak eta ez hain onak izan dituela bere ibilbide historikoan. Iraultza sozialista egin den herrialdeetan ikusi ahal izan denez, plangintza ekonomikoa Estatuak egiteak ez du arrakastarik izan eta giltza egon, dirudienez, merkatu-mekanismoetan dago. Halere, Hirugarren Munduko herrialde sozialista batzuk, adibidez Kuba, kapitalistak baino eragingarriagoak izan dira ongizate sozialean eta ekonomikoan. Bestalde, Europako Mendebaldean alderdi sozialista demokratikoek ez dituzte lortu izan askotan beren xede errotikoak, edota beren hautesleriak lagundu ez dietelako, edota enpresarien interesak tartekatu izan direlako, edo, gure ustez zuzenago, sozialismoa neoliberalismoaren jokuan sartua dagoelako. Inolako zalantzarik gabe, ordea, sozialistek beren eragina izan dute ongizateko erakun-deak ezartzen eta boterea lortu duten kasuetan, Suedian adibidez, beste herrialdeen aldean *per capita* errenta handiagoa lortzera iritsi dira, nahiz eta, funtsean, gizarte kapitalista izanez segitu.

Marxistek gizarte-ondasunak sozialtzean pentsatzen dute eta, horretarako, jabetza pribatuan oinarritutako gizarte dualistari oinarrian bertan jarri nahi diote erremedioa. Hauentzat, gizarte demokratikoa izan dadin, ezinbestekoa da klasearteko menpekotasunarekin bukatzea eta gizarte-berdintasuna lortzea. Gizarte-proiektu honek, noski, gizarte-egiturak aldatzea suposatzen du eta, zentzu honetan, erreformismoan oinarritzen diren beste bi alternatibak, nola sozialdemokraziarena hala neoliberalena, ezezten ditu.

Derragun, azkenik, batzuen ustez ez dirudiela probablea alderdi sozialistak desagertzea edo beren indarra galtzea; alderantziz, etorkizunean sozialismoaren aukera indartu eta neoliberalismoaren krisia areagotu egingo dela diote. Ziurrenik, ordea, ezkerreko eta eskuineko bi alternatiba horien alboan, beste jarrerak errotikoagoak indartuko dira, jadanik bidean daudenak. Azken maila honetan, hain zuzen, komunalisten alternatiba aurkitzen da, zeinetan feministek, antimilitaristek, ekologistek eta, bereziki, nazionalisten kolektibitateek osatutako subjektu historiko berriek daramaten borrokek markatzen baitute

bidea. Hauen gizarte-errebindikazio espezifikoak oro jasoko dituen gizarte-sistema politikoa izanen da etorkizuneko alternatiba berria ekarriko duena, oraindik ere eginean dagoena, krisian sartuak dauden Estatu-nazioari zein demokrazia neoliberalari gain hartuko diona.

Modernitatean oinarritutako eredu liberalak zein sozialistak eta horietatik eratorritako sistema politikoak jadanik eredu antzuak dira. Globalizazioaren anonimatoan gal ez gaitezen, nortasun-zeinuetan oinarritutako herri-mugimenduetatik letorke, etortzekotan, gizarte-antolakuntza humanoago eta etikoago baten eredu alternatiboa.

6. 2. Hezkuntza-sistemari dagokionez, gizarte kapitalistak eta honen barruan hezkuntza-sistemak bizi duten krisi-egoera orokorraren barruan kokatu behar da euskal gizartearen egoera eta honen barruan hezkuntzarena, azken hau haren azpisistema bat besterik ez baita. Gertatzen dena da Euskal Herriak arazo espezifikoak dituela, zuzenean arazo nazionalari dagozkionak, funtsean politikoak direnak. Honek esan nahi du, hezkuntzari zein hizkuntzari buruzko plangintzak soilki kulturala baino orokorragoa izan behar duen nazio-proiektu baten barruan gogoeman eta disenaitu behar direla, baldin eta haiei dagozkien arazoak modu egoki batez erabakiko badira. Hezkuntzaren zein hizkuntzaren arazoak nazionalak izaki, berriro diogu, maila nazionalean aztertu eta erabaki behar dira. Osoki euskaldunak izango diren hezkuntza-sistema nazional batez eta, halaber, hizkuntza nazional batez ari gara hitz egiten. Eta honek, bidenabar, gutxienezko botere-maila bat eskatzen du, ez autonomiko hutsa, subiranoa baizik, Estatu batean edo, hau gainditua izan daitekeenarako, horren antzeko edo pareko erakunde batean gauzatuko dena, zeinaren babesean Euskal Herriak Europako beste herriekin berdintasuneko harremanak izango baititu, hasteko Espainiarekin eta Frantziarekin, auzoak dituelako, eta beste guztiekin.

Beraz, Estatuaren eta hezkuntzaren arteko harremanei buruzko atal honi bukaera emateko orduan, arazoa beste zenbait lanetan planteatu izan dugun ikuspegi beretik planteatuz bukatzen dugu hemen ere¹⁹³: Euskal Herrirako irakaskuntzaren maila guztietan hezkuntza-sistema nazionalaren eraikuntza errebindikatu, alegia, zeinetan euskal botereak bakarrik planifika eta gida baitezake hezkuntzaren nolakoa eta norakoa. Ikuspegi honek, jakina, oraingo botere autonomikoaren neurrikoa den hezkuntza elebiduna gainditzea eskatzen du eta funtzionamendu-sistema errotik aldatzea. Euskal Herriko

¹⁹³ Iztueta, Paulo, "Irakaskuntza katolikoa Hego Euskal Herrian", *Jakin*, 95, 1996, 65-86; "UPV/EHUren hezkuntza elebiduna", *Jakin*, 100, 1997, 19-32.

hezkuntza-sistemaren garapen osoak gutxienezko botere-maila baten jabe izatea eskatzen du eta gaur-gaurkoz botere-maila hori, beste eredu-mota berririk eratzen ez den bitartean, estatu-botere independente eta subirano bati dagokiona da. Hezkuntza-sistema nazionaletik bakarrik sor daiteke egiazko euskal intelligentsia, euskal gizartearen norakoa barrutik argitu eta bere kabuz eta bere hizkuntzaz pentsatzera eraman dezakeena. Euskara akademi bizitzan bete-betean sartzen ez den bitartean, euskal gizartean ez du sekula sarbide hegemonikorik izanen edota, beste modu batera esanda, ez da normalizatuko hitzaren zentzu hertsian. Euskararen corpus-normalizaziotik estatutasurenako ibilbidean, lehentxeago edo geroxeago, estatu-boteretik pasatu beharra dago.

V

EUSKAL IRAKASKUNTZAREN EGITURAZKO ZAILTASUNAK

Egungo alternatiba desberdinak aurkeztuz eta eztabaidatuz eman diogu bukaera aurreko atalari. Baina alternatibetan pentsatzen dugun aldi berean, kontuan hartu beharrekoa da zein egoera jakinetatik abiatzen garen, bestela gaztelu erraldoiak hutsaren gainean eraikitzeak arriskua baitago. Utopiaren arnasa dohain preziatua bezain beharrezkoa da gizarte-aldaketarako, hura gabe herri-mugimenduek ez bailukete nondik eta zertaz horniturik izanen. Utopia eta ametsen arteko muga justu non datzan ez badakigu ere, praktikak esaten digu proiektu alternatiiboak egoera jakin eta errealak abiapuntutzat hartuta diseinatu behar direla, baina nora goazen ahaztu gabe.

Horregatik, euskal irakaskuntzak egun dauzkan arazo nagusiak zertzen hasi aurretik, euskararen egoera orokorraz datu batzuk emango ditugu, gero hemendik zuzenean irakaskuntzako mundura pasatzeko. Beharrezkoa da lehen pauso hau ematea, hezkuntza elebidunaren prozesua ezin baita ez gogoeman eta ez ulertu bera kokaturik dagoeneko gizarte orokorrigo baten barne-prozesuan ez bada. Hezkuntza-sistema euskalduntzekotan, gizarteak ere euskaldunduz joan beharko du berreskurapen-prozesu paralelo batean. Bestela, hizkuntzak bere normalizaziorako bidean bete behar dituen gizarte-funtzio desberdinen arteko desoreka nabaria gerta daiteke.

1. Euskararen bizi-indarra: hurbilketa kuantitatiboa

Euskal gizartearen hizkuntz egoerari buruz, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusiak 1989an argitaratutako *Soziolinguistikazko Mapa. 1986*.

*urteko erroldaren arabera Euskal Autonomi Elkarte*ko azterketa demolin-guistikoa liburutik hartuta¹, horko datu soziodemografiko nagusien labur-pena eskaintzen du Xabier Aizpuruak. Euskal Herri osoaren mapa soziolin-guistikoa orotara hartuta, hauek dira euskararen egoerari buruzko ezaugarri-rik nagusienak:

Lehenik, demografiari dagokionez, populazio inkestatuaren arabera, 2.257.000 lagun bizi dira Euskal Herrian: % 74 Euskal Autonomi Erkidegoan, % 18 Nafarroan eta % 9 Iparraldean. Hori izango litzateke 16 urtetik gorako biztanleria, zeren kopurua guztira hartuta, 2.867.142koa bai-tzen 1991n, 610.142 lagun gehiago, alegia, horietatik Hegoaldean 2.625.981 eta Iparraldean 250.161 lagun bizi direlarik².

Bigarrenik, hizkuntz gaitasunari dagokionez, beti ere populazio inkesta-tu horretan, hiru hiztun-talde nagusi bereizten dira: erdaldun elebakarrak, euskaldunak eta elebidun hartzaileak.

Erdaldun elebakarrak dira nagusi % 69,91ko portzentaiarekin, guztira 1.577.870 lagun, muga juridikoen arabera honela sailkatzen direnak: % 85,87 Nafarroan, % 69 Euskal Autonomi Erkidegoan eta % 41,33 Iparraldean. Herrialdeak bakarka hartuta, ordea, Araba Nafarroa bezain erdaldun elebaka-rra da, hark % 85,44ko portzentaia ematen baitu. Euskaldun elebakarrak, aldiz, 22.570 lagun dira guztira, hau da, biztanleriaren % 1 baino ez.

Euskaldun funtzionalak, euskaraz eta erdaraz ondo hitz egiteko gai di-renak alegia, 482.770 dira guztira Euskal Herrian, hots, % 21,39 bakarrik: % 33 Iparraldean, % 23 Euskal Autonomi Erkidegoan eta % 9 Nafarroan. Herrialdeak bakarka konparatuz gero, ordea, Arabak Nafarroaren aldean oraindik portzentaia apalagoa du: % 7,02. Bestalde, hiztun-talde horretatik gehienak Gipuzkoa eta Bizkaian kokatzen dira: han 223.600 lagun (% 41,70), ia guztiaren erdia, eta hemen 146.000 (% 15,84). Portzentaia erlati-boaren arabera Nafarroa Beherea eta Zuberoa elebidun funtzionalagoak diren arren, hurrenez hurren, % 59,47 eta % 61,70eko portzentaiekin, kopuru abso-lutuetan Araba ez beste eskualde guztien azpitik daude. Bestalde, eta honek euskararen erabilerarako badu garrantzirik, horietatik euskaraz baino erraza-go egiten dutenak % 38 dira.

¹ Ikerketa honetan, Euskal Herri osoan zehar 16 urtetik gorako 5.017 biztanleri egindako inkesta soziolinguistikoko baten emaitzak jasotzen dira. Galdesortaren prestaketan bere laguntza eman zuten J. Fisham, A. Tabouret Keller eta R. Bourhis jaunek eta landa-lanetan Iparraldean SIA-DECO, Nafarroan NEURRIAK eta Euskal Autonomi Elkarte NEURRIAK eta COS aritu ziren. Emaitzak aztertzen 40 espezialistak baino gehiagok parte hartu zuten, Bourhisen zuzen-daritzapean (Aizpuru, X., "Euskal Herriko biztanleen hizkuntza gaitasuna", *Jakin*, 77-78, 1993, Donostia, 91-92).

² Larrañaga, Iñaki, "Euskal Herriko demografiaren bilakaera", *Jakin*, 77-78, Donostia, 1993, 39.

Euskaldun hartzaileak, euskaraz zertxobait egiten duten edo ongi edo nahikoa ulertzen dutenak alegia, 174.010 dira, hau da, % 7,71 Euskal Herri osoan: % 8,58 Euskal Autonomi Erkidegoan, % 7 Iparraldean eta Nafarroan % 4,58. Hemen bai, Arabak goi hartzen dio Nafarroari bere % 7,54ko portzentiairekin.

Noski, hizkuntz gaitasunetik erabilerara pasako bagina, jadanik argitaratuak dauden zenbait ikerketa partzialek adierazten dutenez, badirudi portzentiaiek asko jaitsiko lirатеkeela.

Datu horiek konstatatzea bezain interesgarri da jakitea zein den eta nolakoa hiztun-talde horietako bakoitzaren tipologia. Erdaldun elebakarren taldea osatzen dutenen ezaugarriak, hauek dira: a) etorkinen eta bertakoen kopurua parekatua dela, hurrenez hurren % 40 eta 39ko portzentiaiekin; b) horietatik gehiengo batek, % 52k alegia, bere burua euskalduntzat daukala eta beste % 33ko batek, aldiz, ez; c) erdara izan dutela ama-hizkuntza; d) euskaldunak % 20 baino gutxiago diren herrietan bizi direla, harreman-sare guztiz erdaldunean; e) gehiengo batek euskararekiko jarrera indiferentea eta inolako interesik gabekoa agertzen duela, aurkakoak (% 25) eta aldekoak (% 24) parean daudelarik.

Euskaldun funtzionalen tipologia alderantzizkoa da: ia denak bertakoak dira, lehen hizkuntza euskara dutenak eta harreman-sare aski euskaldunean bizi direnak. Hauetan euskaldun berrien portzentaia % 13koa da. Elebidun hartzaileen kasua dezente aldatzen da, zeren, gehienak (% 63) bertakoak baldin badira jatorriz, gehienek lehen hizkuntza (% 76) erdara izan baita eta, gainera, lagunarteko nahiz laneko harremanak oso erdaldunak baitira.

Hirugarrenik, euskararen berreskurapenari dagokionez, azpimarratzen da prozesu hori jadanik hasia dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta hastear dagoela Nafarroan. Hamar urteko (1981-1991) epealdian 100.000 euskaldun eta 99.000 ia euskaldun berreskuratu ditu euskarak Euskal Autonomi Erkidegoan, euskalduntzearen indizea, hurrenez hurren, % 21,5etik 26,7ra eta 14,5etik 19,5era igo delarik. Honek batezbesteko 5 puntuko hazkundera suposatzen du bi hiztun-taldeetan. Berreskurapenaren seinaleztat zentsuarterko hazkundera nabarmentzen da, Arabakoa bereziki, non % 146,15ekoa baita euskaldunetan eta % 103,15ekoa ia euskaldunetan.

Datu horiek ikusita, instituzionalistek uste dute berreskurapen-bidean sartuta gaudela eta ziurtatzen hasiak gairela euskararen etorkizuna Hego Euskal Herrian.

Zalantzarik ez da Hegoaldeko botere autonomikoez zerikusirik izan dutela berreskurapen horretan, maila apalagoan bada ere, Nafarroan ere ematen hasia dena. Zentzu honetan, autonomi esparru ezaren ondorioztat inter-

preta daiteke Ipar Euskal Herrian gertatzen ari den alderantzizko prozesua: galeraren abiada bizia, alegia.

Gainera, hazkunde horrek badu bere alde beste aldagai interesgarri bat, eta da euskalduntzea gazteenen artean eman dela. Berreskurapena alferrika-ko ahalegina izango litzateke odol gaztean berrituko ez balitz.

Baina optimistak izateko arrazoi gehiegi ez dugula iruditzen zaigu. Ez da nahikoa euskarak asko edo gutxi aurrera egin duela konstatazea. Hori bezain garrantzitsua da jakitea, oro har, nolako gizarte-funtzioak betetzen dituen, gizarte-erabilerak erabakitzen baitu hizkuntza baten osasuna. J. M. Sánchez Carriónék egoki dio: “La vitalidad de una lengua no depende tanto del número absoluto de hablantes cuanto de la proporción que éstos *hiztun osoak* (hablantes completos) representan en el conjunto total”³. J. Cobarrubiasek dakarrenez⁴, desoreka funtzionala gainditu eta estatus-normalizazioa lortzeko, hizkuntza batek oinarritzko hamar funtzio hauek ziurtatu beharko litzuzke bere gizartean: esparru legala eta ofiziala; hezkuntza; administrazio publikoa; merkataritza eta industria; komunikabideak; erlijioa eta kultura; segurtasuna eta ordena publikoa; osasun publikoa; ingurunea eta aisia; famili giroa eta pertsonartekoa. Funtzio horietan, eta hemen belgiar eredia ekarriz, erabateko lehentasuna duten lau hauek aipatzen ditu, ordena honetan: 1) esparru juridiko-legala; 2) administrazio publikoa; 3) hezkuntza; 4) merkataritza eta industria.

Behin honetara helduz gero, galdetu behar da ea zertan garen une honetan, ea arestian aipatu den berreskurapen-zantzu horiek zenbaterainoko esperantza-bide zaizkigun.

Euskal soziolinguistikan 1987. urtea bitarteko azken ikerketa enpirikoak oinarritutzat hartuta, Iñaki Larrañagak⁵ euskararen egoerari buruzko diagnostia zortzi ondorio nagusi zerrendatuz zehaztu zuen. Guk jarraiko hauek bakarrik ekarriko ditugu, kategoria desberdinen arabera sailkatuta:

Lehenik, elebitasun sozialari dagokionez:

a) Euskaldun elebakarrik ez da ematen. Honek markatzen du ordezkapen-prozesuaren lehen urratsa, zeinetan euskarak elebakartasunaren zeinua galtzen baitu⁶.

³ *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, Estella, 1987, 65.

“Normalización y planificación lingüística”, *Euskara Biltzarra*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1988, 162-163.

⁵ Larrañaga, Iñaki, “Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak”, *Jakin*, 42-43, Donostia, 1987, 15-16.

⁶ Hamers, J. F.; Blanc, M.: *Bilinguisme et bilinguisme*, Mardaga, Bruselas, 1983, 248.

b) Alderantziz, gehienak erdaldun elebakarrak dira, eta hauetatik gehiengo bati arrotz zaio euskara arrazoi desberdinengatik. Honekin ordezkapenaren bigarren prozesua emana dago jadanik, elebitasun-trantsizioarena, alegia, zeinetan euskara nagusia izatetik menperatua izatera pasatzen baita.

c) Ondorioz, gehiengoa erdaldun elebakarra denez gero, euskara jakinez bakarrik bizitzea ezinezkoa gertatzen da. Eta egoera honek ordezkapenaren azken-aurreko urratsean sartuta gaudela adieraziko luke. Bestela esanda, hizkuntza menderatzaileen, hots, gaztelania eta frantsesaren elebakartasuna inposatzen da.

Baieztapen horiek konstatatu besterik ez du egiten inkestak. Euskaldun elebakarren kopurua arras sinbolikoa da. Bestalde, erdaldun elebakarretan, % 24a bakarrik da euskararen aldekoa.

Beraz, datu horiek horrela direla, esan beharrik ez dago elebitasun sozialaren mitoa hankaz gora doala ebidentziaren aurrean, kontzeptu hori gizarte batean komunikazio-tresna gisa bi hizkuntza erabiltzen direla adierazteko erabiltzen den neurrian bederen⁷.

Bigarrenik, egoera diglosikoari dagokionez:

a) Euskarak ez du bizitzeko beharko lukeen gutxienezko lurgune konpakturik. Arnasa hartzeko airea falta zaio. Eta hau arrainari ura faltatzea bezain larria da.

b) Euskaldun izeneko eremu geografikoetan ere ezinezkoa da euskara bakarrik erabiliz bizitzea, erdarak harturik dauzkalako gizarte-esparru garrantzitsuenak: administrazioa, irakaskuntza, komunikabideak, etab.

Azken inkestek ez dute aldatu egoera hori. Beraz, ez bakarrik elebitasun sozialaren eredia, gure egoera deskribatzeko erabili ohi den diglosia funtzionalarena ere ezin da aplikatu, euskarak ez baitu funtzio-joku osorik betetzen Euskal Herriko inongo espazio geografikotan. Hemen gertatzen den fenomenoak, J. M. Sánchez Carriónekin esateko, lurralde-diglosiarena da, guztizkoa alegia, berak “diglosia glotofágica” deitzen diona: “la que existe entre el Español/Francés y el Euskara: parte de las funciones de la escalera del Euskara están invadidas por el Castellano o el Francés. Pero, además, estos -y sólo ellos- tienen parte, fuera y dentro del territorio euskaldún, de su juego completo de funciones”⁸.

Horregatik, euskarak egoera glotofagikotik atera eta normalizazioaren arrastoan sar dadin, ezinbestezkoa du esparru administratiboak eta gainera-

⁷ Siguan, M.; Mackey, W. F.: *Educación y bilingüismo*, Santillana/UNESCO, 1986, 38.

⁸ Op. cit., 346.

koak ziurtatzea alboan beste hizkuntz lehiakiderik eduki gabe. Horretarako bidea, ez elebitasuna, baizik elebakartasuna da: “Euskararen erabilera normaltzeko ezinbestekoa da bi hizkuntzak orokortu ordez euskara hutsezko erabilpena orokortzea”⁹. Azkenaldi honetan ekimen txalogarriak eraman dituzte aurrera administrazio-bizitza euskara hutsean egitea erabakitzen duten udal euskaldunek. Baina muga handi bat du honek: euskarak udalerrri horietako funtzionamendu administratiboan duen presentzia, gizarte-gune dinamikoenetatik at kausitzen denez gero, hiri-udalerrietara hedatzen ez den bitartean, nahikoa testimoniala izango dela.

Itxura batean, errenta txikia hortik jasotzen dena, baina ondorengo pausoak emango badira, hortik hasi beste biderik ez dago. Jadanik UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) —honek etsai asko baditu ere, hauen artean gogorrenetakoak Espainiako Auzategi Gorena eta EAEkoa—, bere bidea egiten ari da, taldera udalkide berriak ekarriz, azkenekoak Lekeitio eta Ondarroa¹⁰. Hauek ez dira, noski, Zeanuri edo Lizartza bezalakoak.

Hirugarrenik, hizkuntz transmisioari dagokionez:

a) Famili bidezko transmisioa huts egiten hasia zen lehendik ere eta orain nabarmenki areagotu egin da.

b) Gainera, gaur egun hizkuntzaren erreprodukzio sozialean parte hartzen duten gizarte-agente desberdinek erdararen erreprodukzioaren alde eta euskararen kontra funtzionatzen dute.

Honek guztiak dakarren azken ondorio nagusia, ezinbestekoa, euskararen erabilera-maila kezkarria da. Honela, 1997ko datuen arabera, euskararen egiazko erabilera kalean % 13koa da. Baldin kontuan hartzen bada euskara ezagutzen dutenak % 22,5 direla, indize hori benetan kezkarria gertatzen da. Halere, 1993tik 1997ra, indize hori bikoiztu egin da EAEn, Nafarroan ere zertxobait hazi; Iparraldean, ordea, zertxobait jaitsi¹¹.

Neurri batean, gainera, ulergarri da euskararen erabilera hain apala izatea, batetik, euskarak bizitza praktikoa eroso antzean bizitzeko lekurik ez daukalako eta, bestetik —eta hau aurrekoaren segida besterik ez da—, hizkuntzarekiko leialtasuna eguneroko funtzionaltasunaren sekulako zama gaitetik ezin kenduz dabilako. Hizkuntz borroka honetan, bataren eta bestearen arma sozialak arras desorekatuak dira. Inkestan, hain zuzen, ez dator erabileraren puntu hau, oinarritzkoa dena.

⁹ Agirre, I., “Hizkuntza perfilen dekretua”, *Bat*, EKB, Donostia, 1990, 39.

¹⁰ *Gara*, 2000/03/19, 19.

¹¹ Etxeberria, Felix: *Bilingüismo y educación en el País del Euskara*, Erein, Donostia, 1999, 111.

Laugarrenik, euskararen berreskurapenari dagokionez:

Lehen eman ditugun 1989ko datuetan ez da esaten zenbatek galdu duten euskara, ikasi dutenen kopurua bakarrik agertzen baita *Jakin*-eko laburpe-nean. Geroztiko beste iturrien arabera, ordea, zehazki 1991. urteari dagokio-nez, beste datu batzuk eskaintzen dira, orokorrean hain optimistak ez direnak. Euskal Herria orotara hartuta, 92.000 lagunek ikasten dute euskara, baina, bestalde, 87.000 lagunek galtzen, horietatik gehienbat adinekoek. Gehikun-tzaren aldeko saldoa, beraz, 5.000 lagunekoa bakarrik da. Gainera, EAEn euskarak 18.700 hiztun gehiago berreskuratzen baditu ere, Nafarroan zertxo-bait gutxitu egiten da euskaldunen kopurua eta Iparraldean, berriz, sekulako galera izan du. Elebidunen kopurua EAEn eta Iparraldean % 25ekoa da eta Nafarroan, berriz, % 9koa. Baina elebidunak gehitu egin dira 1991. urteaz geroztik Hegoaldean, EAEn 37.000 lagunekin eta Nafarroan 3.500ekin; Iparraldeak, ordea, 6.500 elebidun galdu ditu. Hauek dira azken datuak¹².

Orain artekoa laburbilduz, hiru ohar egingo genituzke.

Bat: Euskal Herria bere osotasunean hartuta, azken datuek adierazten dutenez, euskararen berreskupana ez da uste izan den bezain handia, aipatu-tako 100.000 euskaldun eta 99.000 ia euskaldunen kopuru anpatu horiek egiazki 5.000 laguneko kopurura murrizten baitira. Gainera, Iparraldean eus-kara gainbehera doa larriki. Horregatik, ezin da esan, instituzionalistek arra-kastaren kanpaiak jotzen badituzte ere, euskararen etorkizuna ziurtatua da-goenik.

Bi: Hizkuntz ordezkapena gidatzen duten gizarte-faktoreak hain indar-tsuak izanik, jakitekoa izango litzateke zein joera nagusitzen den une hone-tan hizkuntzen arteko borroka-zelaian: berreskurapenarena ala ordezkapena-rena. Oraindik, goian esandakoari eutsiz, ez dakigu zer gertatuko den. Gure hipotesiaren arabera, euskararen etorkizunak zerikusi zuzena du boterearekin eta, gure ustez, botere autonomiko hau ez da euskararen berreskurapena ziur-tatzeko aski botere.

Hiru: Hizkuntzaren erabilera zergatik den hain eskasa planteatzeko orduan, horren arrazoiak arazo egiturelari ala indibidualari dagokiona edota biena batera den galdetzetik hasi beharko litzateke. Hizkuntzaren alderdi hau ere, bigarrena bezala, boterearen arazoari loturik dator.

Hiru puntu horiek zehazteak asko argituko luke hizkuntz plangintzarako abiapuntua bera.

¹² Ibid., 118.

2. Hezkuntza elebiduna zifratan

Arestian esan bezala, nola familiak ez duen erantzuten lehen bezala hizkuntzaren transmisio-zereginen, ardua hori gehienbat irakaskuntzaren kargu gelditu da. Indar gehienak hortxe urtzen dira duela aspalditxo hasita. Hizkuntz normalizaziorako plangintzan, lehenatasun erabatekoa ematen zaio hezkuntzari, esparru juridiko, administrazio publiko eta ekonomiko jarduerekin batera. Gizarte-funtzioak orokorrean hartuta, zaila egiten zaigu lehenatasun-mailak ezartzea esparru horietan. Baina, bai, esango genuke, euskararen kasuari aplikatuta, agian berreskurapenerako tresnarik eraginkorra une historiko honetan hezkuntzarena dela, berak betetzen baititu efektu biderkatzaileak oparoena izateko baldintzarik gehien eta onenak: famili bidezko transmisioa ordezka eta zabal dezake haurtzarotik bertatik eta, gainera, famili bidezko euskalduntzeak erabat huts egiten duen geografi generik erdaldundunetan ere, berez, belaunaldi berri oso baten euskalduntzea ziurtatu ezinik ez luke. Hor dauzkagu Oion, Lizarra, Tafalla eta Erriberako ikastolen fenomeno-irrak gaztelaniaren itsasoan. Belaunaldi gaztea euskalduntzea genuke, zalantzarik gabe, hizkuntzan errentagarritasunik handiena ekar dezakeen estrategia egokia. Honekin ez da esan nahi helduen euskalduntzea aintzakotzat hartu behar ez denik; alderantziz, hezkuntzari eskola-populazioa haste-hastetik euskalduntzeko erantzukizuna ematen zaion aldi berean, helduen alfabetatzeak gizarte-bizitzan eraginik gehien duten elite politiko nahiz administratiboak euskalduntzeari ekin beharko lioke. Baldintza batzuk betez gero, hau guztia egingarri da. Eta lehen baldintza —ez bakarria baina bai garrantzitsu eta beharrezkoena—, borondate politikoari dagokiona izango litzateke, zuzenean botereari atxikirik dagoena.

Gatozen irakaskuntzara, hau baita gure gaia. Abiapuntutzat 1983-84 eta 1990-91 ikasturteak hartuko ditugu, Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza-Sailak uztailaren 11ko 138/1983 elebitasun Dekretua eta abuztuaren 1eko Agindua aldarrikatuz geroztiko zortzi urteak, alegia¹³. Guztizko emaitzak Euskal Autonomi Erkidegoan, EA eta OHO batera hartuta, honelakoa izan da irakasere-
du elebidunen bilakaera: X eredia desagertuz joan da, % 15,24tik % 1,17ra pasatzen baita; A ereduak oraindik ere ikasle-kopuruz eta ikasgelaz nagusi izaten segitzen du, abiapuntuko ikasturtean % 53koa zena bukaerakoan

¹³ Eusko Jaurlaritzak: *Euskal irakaskuntza: 10 urte*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, 1990, 22-31.

% 49,47koa delarik; B ereduaren izan da gora gehien egin duena, % 10,54tik % 24,91ra; D ereduaren ere hazi egin da, baina aurrekoa baino gutxiago, jautzia % 16,59tik % 24,45a bitartekoa izanik. Azken biok hazteko joera erakusten dute eta 1989-1990 ikasturtean bien batuketak % 45,96ko portzentaiaren osatu zuen, ustez aurrerantzean goratuz joango dena. Irakasereduen eboluzioa hobeto agertzen da EA eta OHOn ziklo batetik besterako aldakuntzak begiratu gero: A ereduaren beherakada ematen da, OHOn Goi-Zikloan % 67,9rekin, baina Eskolaurrean % 32,5koa; B ereduaren igoera gogorra, Goi-Zikloan % 13 baina EAn % 36koa; D ereduaren igoera pausatua da, Goi-Zikloan % 19,1ekin, baina EAn % 31,5koa¹⁴. Ereduen eboluzioa erabat aldatzen da, ordea, Irakaskuntza Ertaineko Zikloetan, batez ere: BBB eta UBIn, 1989-90 ikasturteko eskolatzeko datuen arabera, A ereduaren zebilen % 81,4, B ereduaren % 1, 1 eta D ereduaren % 17,3.

Datu horien aurrean zenbait gogoeta egin beharra dago, galdera modura planteatuko ditugunak.

Bat: Zer gertatzen da goiko ikasmaila horietan D eta B ereduaren portzentaiaren hain apala izan dadin?

Bi hipotesi luzatu dira Eusko Jaurlaritzako argitalpen honetatik: lehenik, eredu horien berekabuzko hazkunde-uhina ez dela oraindik iritsi maila horietara eta, beraz, OHOn hazkunde-eranda hemendik bost urtetara edo helduko dela; bigarrenik, A ereduaren hizkuntz trebeziarik aski ez dutelako edota inguruan irakaskuntza elebiduna eskain dezakeen ikastetxerik ez daukatelako pasatzen direla. Hipotesi horiek erabat baztertu gabe, guk agertu izan dugun iritzia da B ereduaren gehienek, OHOn ikasketak bukatzean, euskara behar adina ez dutela menderatzen eta, irakaskuntza Ertaineko Zikloak errazago gainditzeko esperantzak eraginda agian, A ereduaren pasatzen direla¹⁵. Hipotesi hau frogatuko balitz, egiaztatuko litzateke aldi berean B ereduaren ikasle euskaldun desorekatuak sortzen dituela eta, beraz, eredu horren baliagarritasuna berrikustekoa izan litzatekeela. EA eta OHOn optimismo guztiak ezer gutxi balio du, baldin eta segida ziurtatzen ez bada.

Bi: Euskal hezkuntzan ezarritako irakaseredu desberdinek ziurtatzen dute euskararen ezagutza obligaziozko eskolaritatea bukatzean?

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarriko Legeak (10/1982koak) hezkuntza elebidunaren hizkuntz politikarako oinarriak finkatu zituen irakas-

¹⁴ Ibid., 29.

¹⁵ Iztueta, P., "Euskal eskolaren bila", in Iztueta, P.; Basurko, F. (koord.): *Euskal Eskola Berria*, op. cit., 153.

kuntza ez-unibertsitarioan, zeinaren arabera A, B eta D eredu ezagunen eskaintza egiten baitzen. Hori bai, abiapuntuan norberaren esku gelditzen da eredu horietatik edozein hautatzea, baina eskolaritate-bukaeran guztiak lortu behar dute euskara-egagutzaren maila bera. Irakaseredu hirukoitz horren helburua zen ikasle erdaldunak traumarik gabe pasatzea hizkuntza batetik bestera. Horregatik, D eredua jadanik ikastoletan praktikatzen baitzen, A eta B ereduak gehienbat haur erdaldunentzat pentsatuta zeuden. Euskal Herriko hezkuntza elebidunari buruz 32 lan egin dira guztira 1974-1992 epealdian: 18 doktoratu-tesi, 10 ikerketa euskal instituzioen enkarguz burutuak, 4 lan pribatuak eskatuta. Guztiak azterketa kuantitatiboa egiten dute, EA, OHO eta UBiko ikasmailetara zabaltzen dena eta 18.778ko ikasle-populazioa ukitzen duena¹⁶.

Ikerlan horietatik ondorio orokor hauek ateratzen dira: a) ikasgelako hizkuntz eredua zenbat eta trinkoagoa izan, euskarazko emaitzak ere hobekak direla; b) printzipio horren arabera, D ereduko ikasleek puntuazio hobekak ateratzen dituztela euskaraz, B eredukoek tartekoak eta A eredukoek, aldiz, apalena; c) ama-hizkuntzak eragin handia duela ikasleek lortzen duten euskara mailan; d) euskarazko emaitzetan beste faktore hauek beren eragina badutela, hala nola, euskararekiko jarrerak eta motibazioak, ikaslearen gizarte-eta ekonomi egoerek, eskola-sareak, ikaslearen adimen-mailak, pedagogi metodoak, etab.; e) gaztelaniaren maila hizkuntz eredu guztietan antzekoa dela eta, ondorioz, hezkuntza elebiduna ez dela gaztelaniaren murrizpide; f) elebitasuna oso langungarri gertatzen dela atzerriko hirugarren hizkuntzaren bat ikasterakoan¹⁷.

Emaitza zehatzagoetara jaitziz, esan behar da adostasuna erabatekoa dela baieztatzean A ereduak ez duela hizkuntzaren gutxienezko ezagutza ere (ulermena, mintzamina eta idazmina) ematen, gutxiago oraindik ahalbidetzen euskarazko irakaskuntza¹⁸. B eredua irakasgaiak euskaraz eta gaztelaniaz emateko pentsatutakoa da eta, eredu honi dagokionez, aitortu behar da arazoa konplexuagoa dela, segun eta zein ikastetxetan eduki desberdinak ezku-

¹⁶ Etxeberria, F.: *Bilingüismo y educación en el País Vasco*, op. cit.

¹⁷ Garmendia, M. K.: *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren agerrialdia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean, Euskal Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1992, 13-14*; Etxeberria, F., "Interpretaciones del interculturalismo en Europa", in AA.VV: *Educación intercultural. X Congreso Nacional de Pedagogía*, op. cit., 108-112.

¹⁸ Etxeberria, F. eta besteak, "La educación en Euskadi", in *La educación multicultural en el Estado de las Autonomías*, II, VIII Seminario Interuniversitario de Teoría de la Educación, Donostia, 1989,19.

tatzen baititu¹⁹. Nolanahi ere, emaitza orokorretan esan den bezala, baiezza daiteke a) B ereduko ikasleek D ereduko azpitik daudela puntuazioetan euskaran eta A ereduko parean gaztelanian²⁰; b) matematikako probetan, B eredukoek D eredukoek baino puntuazio apalagoak lortzen dituztela ebaluaketa euskaraz egiten dutenean, antzekoak gaztelaniaz egindakoa²¹; c) B eta D ereduetan eskolatutako erdaldunek erakusten duten gaztelaniaren ezagutza A ereduko antzekoa dela²².

Honaino irakasereduen emaitzak.

Hiru: Zein ondorio atera daiteke emaitza horietatik? Orotara hartuta, gaur egun esateko moduan gaude A ereduak ikasle erdaldun elebakarrak erreproduzitzen dituela, B eredia elebidun desorekatuen sortzaile dela eta D eredia dugula hezkuntza elebidun orekatua berma dezakeen bakarra²³. Irakasereduen emaitza kontrajarri hauetan aurki daiteke, agian, lehen aurreratu dugun hipotesi hura argitzeko giltza: alegia, B eredukoentzat UBiko ikasketak euskaraz egiteko bidea ixten duela, hizkuntz gaitasunik aski ikusten ez dutelako. Hori horrela balitz, eredu baliogarri bakartzat D eredia geldituko litzateke, 1989-90 ikasturteko datuen arabera²⁴, funtsean ikastoletan ziurtatzen dena % 82,83ko portzentaiarekin, eta maila askoz ere apalagoan —testimonialean esatea zuzenago— ikastetxe publiko eta pribatuetan, hurrenez hurren, % 12,90 eta % 5,34ko portzentaiekin.

Baldin konstatatzen bada ikasle elebidun orekatuak sortzeko A eredia ez dela inola ere baliagarria eta, halaber, B ereduaren emaitzak oso zalan-tzazkoak direla eta inolako zalantzarik gabe D ereduaren aldean apalagoak, zergatik eta zein irizpideren izenean mantentzen diren galdetu beharko da. Ezin da egin eskola bi eredu horietatik eratorritako emaitza negatiboen errudun, nagusiki hezkuntza elebidunaren politika planifikatu eta arautu duen legeria baizik. Euskal eskolaren azken helburua elebitasun orekatua lortzea baldin bada, legerian aldarrikatzen den bezala, zein arazo egon da eta dago,

¹⁹ Etxezarreta, I.; Garagorri, X.; Osoro, I., "Elebitasuna eskoletan: egoera eta irtenbideak", *Jakin*, 32, 1984, 37-70.

²⁰ Etxeberria, F.: *Bilingüismo y educación*, Tesi doktoral, EHU, Donostia, 1985.

²¹ Lukas, J. F.: *Trebetasun eta errendimendu matematikoa testuinguru elebidunean*, Tesi doktoral, EHU, 1990.

²² Eusko Jaurlaritza: *EIFE (Euskal Irakaskuntzan Faktoreen eragina)*, Hezkuntza Saila, Gasteiz, 1990.

²³ Iztueta, P., "Euskal eskolaren bila", in Iztueta, P.; Basurko, F. (koord.): *Euskal Eskola Berria*, op. cit., 159.

²⁴ Eusko Jaurlaritza: *Irakaskuntzaren Estatistika*, Eustat, 1991; *Euskal Urtekari Estatistikoa*, 1992.

zuzenean politikoa ez bada, irakaseredurik eraginkor eta emankorra ez ezartzeko?

Denbora eta dirua alfer-alferrik galtzea dela iruditzen zaigu, Hizkuntz Politikarako idazkaritzatik A eredia hobetzeko proposamenak eginez segitzea²⁵, pentsatuz egoera normalizatuko dela euskararen irakaskuntza hobetuz eta euskara ikasgelaz kanpoko ekintzetan erabiliz. Larria iruditzen zaigun bezala, erakunde horrek berak onartzen dituen B ereduaren emaitza apalen aurrean, hori hobetzeko inolako proposamenik ez aurreratzea. Galdera betikoa da: eskolak barrutik zein baliabide teknikoren bidez hobe ditzake hizkuntz profilarren egitura-eskabidez D ereduaren aldean garbiki defizienteak diren A eta B ereduak? Arazoa, berriro diogu, ez da teknikoa, egitura la baidir. Ez dugu esaten 1982tik honako ahalegin guztiak zaku zulodunean jautsi direnik. Itsuarena beharko genuke egin 1989-90 ikasturtean D ereduaren zebiltzan ikastetxe publikoetako % 12,90a eta pribatueta % 5,34a ez ikusteko, 1982-83 ikasturtean ikastetxe horiek, hurrenez hurren, % 3,86 eta % 4,92 baitzizuten²⁶. Baina bai badiogu elebitasun-politika hori, ikuspegi prospektibo batetik begiratuta eta gure hizkuntzaren egoera ikusita, garbiki mantsoa eta ez-ziurra dela, antzua ez esatearren.

Egia da, ikastoletako ikasgelak haur erdaldunetz betetzen hasi zirenean 1970eko hamarkadatik aurrera, hezkuntza elebidunari buruzko planteamenduak birformulatzen hasi zirela. Aitzindari Mikel Lasa izan zen, Mackeyren hezkuntza elebidunaren tipologia beretuz gero, proposamen hau egin zuelarik 1978an: "Agian, irredentismo itsuaren ordezt, kulturbitasunaren planteamendua egin beharrean gaude, ondorio guztiekin"²⁷. Gogoeta kolektiboagoa 1981ean etorri zen, *Jakin* aldizkariak zenbaki monografiko bat eskaini zionean²⁸, hain zuzen. Ordurarte ikastoletan nagusi izandako eskola elebakardunaren eredia auzitan jarrita zegoen garbiki, batzuek eredu hori "irredentizatza"²⁹ eta "desfasatutza"³⁰ jo zutelarik.

Ikastoletan bertan egindako hizkuntz planteamendu berri horien ondorio naturalizat hartu izan dituzte batzuek gero Eusko Jaurlaritzak bideratutako irakaserekuak: "Todo este planteamiento encuentra su apoyo en el propio Departamento de Educación del Gobierno Vasco, que a través de un grupo de

²⁵ Garmendia, M. K., op. cit., 16-17.

²⁶ Eusko Jaurlaritzak: *Euskal Urtekarik Estatistikoa*, Eustat, 1984.

²⁷ "Euskal Herriko irakaskuntza elebiduna antolatzeo oinarritzko ideia batzu", *Jakin*, 7, 1978, 59.

²⁸ *Jakin*, 19-20, 1981, 6-140.

²⁹ Lasa, M., "Ikastolen politikak linguistikoren analisi kritikoa", *Jakin*, 19-20, 1981, 19-20.

³⁰ *Ibid.*, 123.

expertos elabora las líneas maestras de lo que van a ser los planes de actuación con respecto al distinto tipo de alumnado presente en las Ikastolas y otros centros escolares”³¹. Ikusi dugu, ordea, ustez oinarri teoriko razionalagoak, pluralagoak eta pedagogikoagoak zituen hezkuntza elebidun horrek nolako emaitzak eman dituen. Lehengo eredu klasikoa, Mackeyrena inportatu aurrekoa alegia, ari da gertatzen eredu eraginkor bakarra. Bietatik bat: edo indarrean dagoen eredu hirukoitzaren hezkuntza-plangintza erabaki politiko baten ondorio bat da, eta orduan badakigu legez ezarritako elebitasun orekatuaren helburua aldarrikapen huts bat besterik ez dela; edo hertsiki planteamendu pedagogikoak izan dira gidari, eta orduan esan behar da porrot egin dutela. Gure iritzia da, geure herrian hizkuntz politikaz egindako planteamendu orokorraren azpian, beste arrazoi guztien gainerik politikokoak nagusitzen direla, eta puntu honetan erabat bat gatoz B. Tejerinarekin, dioenean: “En mi opinión, parece que el discurso sobre el bilingüismo responde más a una racionalización realizada por los políticos, en la medida que intentan encauzar un conflicto social sobre la lengua, que a una definición de los actores sociales sobre la situación lingüística a partir de su localización en la estructura social”³².

7. taula: Eskolatzea Euskal Herrian hizkuntz ereduaren arabera portzentaiatan (1997-98)

		X	A	B	D
Eskolaurrea (2-5)	EAE	1	16	27,8	55
	Nafarroa	50	25	-	25
	Iparraldea	78	7	10	5
Primarioa (6-11)	EAE	1	29	29	41
	Nafarroa	61	18	-	21
	Iparraldea	85,5	6,5	5	3
Sekundarioa (12-16)	EAE	-	63	10	27
	Nafarroa	81	6	-	13
	Iparraldea	84	11	3	2
	Guztira	49,05	20,16	9,44	22,88

Iturriak: Eusko Jurlaritz (1998); Nafarroako Gobernua (1998); Inspection Académique des Pyrénées-Atlantiques (1998).

³¹ Etxeberria, F., “Interpretaciones del interculturalismo en Europa”, op. cit., 38.

³² *Nacionalismo y lengua*, CIS/Siglo XXI, Madrid, 1992, 329-330.

Beude hor 1990-91 ikasturteari buruzko datuak eta hauei buruzko geure ohar horiek. Eskura dauzkagun azkeneko datuak 1997-98 ikasturtekoak dira³³, Euskal Herri osokoak, eta hauek agertuko ditugu, eskolatzeko-mailaren arabera, geroztik aldaketa nabarmenik eman den ala ez ikusteko.

Taula horretatik ondorio hauek atera ditzakegu:

Lehenik, euskal herrialdeen administrazio-zatiteka oinarritzat hartzen bada, ohartzen gara hezkuntza elebiduna indartsuen EAEn aurkitzen dela eskolatzeko-maila guztietan, B eta D ereduak batera hartuta, % 82,8rekin, Nafarroan % 25ekoa eta IEHn (Ipar Euskal Herrian) % 15ekoa den bitartean. Itxuraz bederen, EAEn hazkundearen joera irakaskuntza elebidunaren aldekoa dela ematen du. Baina neurri batean bakarrik da horrela, zeren eskolatzeko azken mailako, hots, Sekundarioko indizeak kontuan hartzen badira, gehiegizko optimismorako arrazoiak zalantzan jartzera garamatzaten bi ondorio ateratzen dira: bata da, hizkuntz politikak baduela bere zerikusia irakaskuntza euskalduntzeko orduan, EAEn kasuan egiaztatzen den bezala; bigarrena da, EAEn Eskolaurtea B eta D ereduetan hasten duten haurrak %83 badira ere, gero Sekundariora iristean, indize hori asko jaisten dela, %37ra, alegia. Eta, batez ere, kontatzen duena, ez da hainbeste zenbat abiatzen diren, egiazko hezkuntza elebidunaren helmugara —legeriak berak agintzen duen maila horretara, hain zuzen—, zenbat iristen diren baizik.

Bigarrenik, ageri da, berriro Euskal Herriko hezkuntza formala bere osotasunean hartuta, erdarazko irakaskuntza nagusitzen dela nabarmenki X eta A ereduetan eskolatzen diren % 69,21eko indizearekin. Nafarroan eta, zer esanik ez Ipar Euskal Herrian, oso bizirik daude X zein A ereduak eta, bereziki, lehenengoa bietan, Nafarroan % 80rekin eta IEHn, berriz, % 90,66rekin. EAEn desagertutzat eman badaiteke ere eredu hori, besterik dirudien arren, ez da horrela gertatzen A ereduarekin, zeren, Eskolaurtean % 16ko portzentaia ematen badu ere, eskolatzeko bukatzean bera nagusitzen baita garbiki % 63rekin. Edozein lehiaketatan bezala, helmugan gailentzen denak irabazten du.

Orokorrean esan dezakeguna da, hezkuntza elebidunaren eboluzio-erritmoa desberdina dela euskal herrialde desberdinetan eta, maila honetan, euskal irakaskuntzak zerikusi zuena duela botere politikoarekin, Nafarroaren eta Ipar Euskal Herriaren kasuetan egiazta daitekeen bezala. Hezkuntzaren arazoa, neurri handi batean —ziurrenik handienez—, botere-arazoa da. Hori batetik, eta bestetik, euskarak bere aurrerapen han-

³³ Etxeberria, F.: *Bilingüismo y educación en el País del Euskara*, op. cit., 123-206.

dienak hezkuntza formalean egin baditu ere, oraindik ziurtatzeke dago hezkuntza elebiduna EAEn bertan eta, batez ere, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, azken eskualde honetan egoera larria delarik.

Segidan, hurbilketa kuantitatibo honek eman dizkigun argitasunetan oinarrituta, egiazko hezkuntza elebidunak dauzkan arazorik larrienak aipatzera pasatuko gara.

3. Euskal irakaskuntzaren arazo nagusiak

Asko dirateke, noski, hezkuntza elebidunaren baitan erabaki beharreko arazoak. Guk lau oztopo bakarrik ekarriko ditugu hona: inmigrazio-populazioaren eragina euskal gizartean, euskal hezkuntza-sistematik eza, irakasle euskaldunen eskasia eta euskal intelligentsiarik eza. Hauexek dakartzagu, egungo euskal irakaskuntzaren bilakaera baldintzatzen duten gizarte-faktore nagusienak horiexek direla iruditzen zaigulako. Horiak dira hezkuntza-sistemaren egitura barrutik nahiz kanpotik ukitzen dutenak eta horrexegatik iruditzen zaizkigu garrantzitsuak. Eta erabakigarriak, neurri handi batean.

Jakina, arazoak aipatzean, hauen kausak ere gogoan hartzekoak dira. Eta maila honetan, euskararen gizarte-historian zehar, faktore politikoak, ekonomikoak eta kulturalak elkarri lotuak eta elkarri eraginez agertuko zaizkigu, ez baita zalantzan jartzen hizkuntzarenean inplikaturik datozela klase-arazoa eta boterearena. Horietako bakoitzak bere eragin-esparru espezifikotik arituz hartzen du parte gizarte-prozesuan. Euskara hezkuntza formaletik sistemaz baztertua izan baita, jarraian agertuko den bezala, oraintxe bertatik aurriskoz dezakegu herritar gehienek eguneroko hizkuntza hori baztertzean baduketela zerikusirik bai lekuko burgesiak bai administrazioak, kanpokoak zein bertakoak. Besterik ez bada hipotesi gisa, jadanik harreman hertsian ezarriak ditugu hizkuntza, hezkuntza, klaseak eta botere politikoa. Arazoak aztertuz joan ahala, harreman horiek ere esplizitatuz joango dira.

Inmigrazio-populazioaren handia

Inoiz migrazio-mugimendurik ezagutu ez duen herririk apenas izango den. Gurean bederen ez da izan. Areago esango dugu: azken mendeotako inmigrazioaren emana faktore erabakigarria gertatu dela euskal gizartearen kultura eta hizkuntzen portaera-aldaketan.

Ez gara hasiko hemen euskal gizarteak historian zehar ezagutu dituen migrazio-mota desberdinak zertzen: barrukoak, emigrazioak eta inmigratioak. Adierazi nahi dugun bakarra da euskal gizarteak historian zehar ezagutu dituen inmigratio-mugimendu desberdinak ez direla neurri berekoak izan eta, ondorioz, ez dituztela ondorio berberak ekarri.

XI-XIII. mendeetan eman zen lehen inmigratio-mugimendu ezaguna Nafarroako lurraldean. Done Jakuerako erromeslarien merkatuak eraginda, pasabideko zenbait herritan atzerritik etorritako batzuk kokatu ziren eta franko deituriko jende merkatari hauek auzune aski handiak osatu zituzten Jaka, Iruñea, Lizarra eta Naiaran, adibidez. Kantauriko kostaldean, XII-XIII. mendeetan, arrantza, merkataritza eta, bereziki, untzigintzak erakarrita, atzerritar asko —gaskoinak gehienak—, gelditu ziren Donostia, Hondarribia eta Pasaiako portuetan³⁴. Sakoneko migrazio-aldaketak, ordea, XIX. mendetik aurrera gertatu ziren Ipar Euskal Herrian bezala Hegoaldean. Baina bietan testuinguru arras desberdinetan eta ondorio justu kontrajarriekin, zeren Iparraldea emigrazio-emaile bilakatu zen bitartean, Hegoaldeari guneharzaile izatea tokatu baitzitzaion.

Iparraldeari dagokionez, kalkulatzeko da, 1832-1891 urte-bitartean, Lapurdi eta Zuberoako 100.000 euskaldun inguru izan zirela itsasoa zeharkatu zutenak, horietatik gehienak Argentinara joateko. Euskal emigrazio horren arrazoiak? Pierre Lhanderi³⁵ azalekoak iruditzen zaizkio L. Etcheverryk bere *L'Emigration dans les Basses-Pyrénées* liburuxoan emandako arrazoi soilki ekonomikoak, hala nola, 1847ko zerealen garestitzea, 1856an mahastietan izandako epidemiak, lekuko industria batzuen eta kontrabandoaren desagertzea. Haren ustez, arrazoi horien azpian, batik batik, euskal familiaren antolaketa dago, zeinaren arabera etxeko maiorazkoak —gehienetan seme zaharrenak— hartzen baitu oinordetza eta beste senide guztiak emigratzera behartuak aurkitzen baitira. Honekin batera, eta oraindik maila sakonagoan, euskaldunari arbasoengandik datorreko ibiltari-kezka da emigrazio-eragilerik behinena.

Hegoaldean alderantzizko prozesua, inmigratio masiboarena, alegia, gertatu zen industrigintzaren ondorioz, mende honen hasieratik Bizkaia eta Gipuzkoa industrializatu eta gero 1950eko hamarkadan Araban eta, azkenik, 1961ekoan Nafarroan. Industria bertan kokatu zelako, Bizkaian XIX. mendean hasi zen kanpokoen uholdea eta, gehienbat fenomeno horren ondorioz,

³⁴ Larrañaga, Koldo, "Factores de la emigración vasca", in *Euskaltzaindia: Euskararen Liburu Zuria*, Bilbao, 1978, 245-246.

³⁵ *La emigración vasca*, I, Añamendi, Zarautz, 1971, 24-25.

1867an 160.579 biztanle izatetik 1920an 409.550 izatera pasa zen, 63 urteren buruan 248.971ko populazio-hazkunde bizia izateraino, Gipuzkoan 97.064koa izan zen bitartean³⁶. Geroagoko epealdiaz zifra desberdinak eman izan dira. Honela, 1921-1970 epealdiari dagokionez, Bizkaia eta Gipuzkoara etorritako inmigranteen kopurua 395.763koa izan zela kalkulatu du FOESSAk³⁷ eta SIADECOK, aldiz, 475.858koa, hots, 80.135 gehiago. Cámara de Comercio de Bilbaok³⁸, 1950-1975 epealdirako, 600.000ko zifra garaia ematen du. Eta horietatik 282.298 Bizkaia eta 125.526 Gipuzkoara, bi herrialde euskaldunenetara etortzen dira. Azkenean, ekonomi krisiarekin batera, 1970eko hamarkadaren erdi-aldetik aurrera, hazkunde-tasaren beherakada hasi zen eta migrazio-fluxu negatiboak ematen dira³⁹.

Ez da erraza 1867-1970 epealdian zehar Euskal Herrira zenbat inmigratu etorri den jakitea, iturriak nahastuta baitaibiltza; gainera, lehen faseko hazkunde demografiko hartatik ez dakigu zuzen zenbat diren inmigratuak. Baina batere ez harritu 700.000tik gora izatea edo, agian, gehiago.

Gauza jakina da inmigratio masiboak edozein herritan, Estatu ahaltsuetan ere, arazo larriak sortzen dituela, besteak beste, kultura eta hizkuntzaren aldetik herri hartzailearen kultura eta hizkuntzarekin talka egiten duelako. Atzerriko kultura nahiz hizkuntzen kutsutik libratu eta berenei eusteko, Estatu industrializatu hartzaile gehienek inmigratuekiko asimilazioaren politika aplikatu izan dute, lehen aroan denbora aski luzez bederen bai, harik eta inmigratuen nahiz gutxiengo etnikoen errebindikazio eta erreboltek interkulturalismo eta eleaniztasunaren diskurtsoa eraiki beharra ekarri duten arte. Orain tolerantziaren eta kultur pluralismoaren diskurtsoa egiten da, baina beti ere, desberdintasunak desberdintasun, gizarte hartzailean integratzeko xedearekin.

Gurean, aldiz, ez. Gurean kultur eta hizkuntz pluralismoaz hitz egiten da, datu konstatagarria denean, ez euskal integrazioa, -izan beharko zukeen bezala-, baizik erdal asimilazio garbia eman dela. Modan dago —estatalista eta sukurtsalisten artean, batez ere—, Barhten ikuspuntuak inportatu eta, euskal kasuari dagokionez, nortasun-aniztasunaren tesia ezker-eskubi defen-

³⁶ Larrañaga, Koldo, "Factore ezberdinen eraginpena euskararengan", in *Euskaltzaindia: Euskararen Liburu Zuria*, op. cit., 279.

³⁷ Euramérica, Madrid, 1970, 580.

³⁸ *Estructura socio-económica del País Vasco*, 1977, 4; J. Apalategik aipatua, in *Sociología de una nación en movimiento*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, UPV, Vitoria, 1992, 191.

³⁹ Irigoien, J., "Demografía y mercado de trabajo (1936-1984)", in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria: Errealitate eta egitasmo*, II, Lan Kide Aurrezkie/EFA, Oiartzun, 1985, 125.

datzea, azken orduko ekarpen zientifikoa bailitzan. Baina Barhtek baditu dagoeneko bere etnizitateari buruzko ikuspegi erlazionala —gu-zuen arteko oposizioan gauzaten dena, alegia—, zorrotz asko kritikatzan dutenak, esanez etnia, subjektuen arteko harremanean agertzen bada ere, egiazki oinarritu, kultur substratu batean oinarritzen dela⁴⁰. Etnizitatearen alderdi soziala behar adina kontuan hartzen ez delako kritikatzan da haren jarrera.

Inmigrazioaren inguruan egindako pedagogi diskurtsoan planteatzen diren hainbat arazoren artean, bi harrotuko ditugu, bere lekuan ikusiko dugunez, euskal kasurako harira datozenak. Tolerantziaren mugaz da lehen eztaibada, zeinaren arabera galdetzen baita herri batek gehienez har dezakeen inmigrateen kopurua zenbatekoa den. Pierre Gaxote akademiko frantsesak⁴¹ esaten badu herri batek gehienez ere % 7 atzerritar irents ditzakeela aldaketa negatiborik jasan gabe, lekutan dago euskal gizartea portzentaia horretatik! Galdetzen da, halaber, ea noraino den onargarri desberdintasuna, noiz uzten dion aberastasun izateari eta noiz zauritzen duen talde sozialaren batasuna. Nazio-arazoak ematen diren testuinguruan separatismoaren eta kulturen arteko gatazka-arriskuak aurrikusiz, Miguel Zabalza Beraza pedagogoak⁴², adibidez, pluraltasuna sobera aldarrikatzeari gizarte-egonkortasuna balantzan jartzeko eta gehiengo-taldearen kultur nortasuna barreiatzeko arriskua ikusten dio. Beraz, Estatu-naziotik begiratuta, inmigrazioari mugak jartzen zaizkio. Ikusi den bezala, arrazioa, ekonomikoaz aparte, kulturala ere bada ezin garbiago.

Gurean inmigrazioak oso arazo bereziak planteatzen dituelakoan gaude, tartean mota eta klase askotako elementuak nahasten direlako, hain zuzen, eta ez litzaiguke gustatuko berez arras konplexua den arazoa sobera sinplikatzea, are konplexuagoa bigarren eta hirugarren belaunaldiak euskal gizarteratu zaizkigun une honetan. Ezaugarri espezifiko batzuk markatuz arrazoituko dugu, inmigrazio-arazoaren alderdi kulturala abiapuntutzat hartuta, batez ere.

Guztiok dakiguna da inmigrazioaz irakurketa bat baino gehiago egin dela, eta egiten dela egun ere⁴³. Guk lau bederen bereiziko genituzke. Lehenengo

⁴⁰ Lapierre, J. W., "Preface", in Poutignat, Ph.; Streiff-fenart, J.: *Théories de l'ethnicité. Suivi de Les groupes ethniques et leurs frontières de F. Barht*, PUF, Paris, 1995, 9-14.

⁴¹ J. M. Quintanak aipatua "Características de la educación multicultural" lanean, in Marín Ibañez, R. (coord.): *Educación multicultural e intercultural*, Impredisur, Granada, 1992, 73.

⁴² "Implicaciones curriculares de la educación intercultural", in AA. VV.: *Educación intercultural. X Congreso Nacional de Pedagogía*, op. cit., 335.

biak Estatu espainoletik begiratuta egindakoak dira eta beste biak, euskal nazionalismotik.

Alderdi estatalisten artean, PSOE klasikoaren politika asimilazionista eta txobinista dugu aipagarriena, zeina inmigrazioaz baliatzen baitzen —eta da oraindik—, euskal nazionalismoa eta honek errepresentatzen dituen kultur zeinuak zangopean hartzeko. Inmigrazio-masa euskal komunitateari kontrajarririk bizi zen, eta da, bi mundu bailiran.

Eskema horren barruan, euskal nazionalismo klasikoa zegoen beste puntan, helburutzat atzerritarren bazterketa sistematikoa zuena, zenbaitetan arrazista ere bai, Sabino Arana eta PNVren historian nahikoa luze iraun izan duena. Inmigrantea “makettoa” zen literatura landuan, “beltza” herritarren ahoan.

Bi sistema klasiko horiek antitesi moduan funtzionatu zuten, nazionalismo aranstaren etnozentrismoa nazionalismo espainolaren espantsionismoaren aurkez, harik eta ETAk, inmigrazio-mundua “euskal herri langile” formularen barruan integratuz gero, jokamolde dikotomiko horrekin eten zuen arte. Euskal iraultzan alderdi soziala eta nazionala bateraturik zetozenez gero, esaten zen inmigratua Euskal Herrikoa zela bere lana bertan saltzen zuelako, hain zuzen.

Bada beste laugarren interpretazio bat, 1980ko hamarkadatik aurrera teoria intersubjektibista sostengatzen dutenen artean gorpuztu dena, bereziki, zeinaren arabera egun euskal gizartean inposatzen den errealtatea kultur aniztasuna eta elebitasuna baita, erdal eta euskal komunitateek elkarrekin bizi izandako esperientzia eta elkarrekintzaren ondorioz ezinbestez onartu beharrekoa. Kultur sinkretismo honek, nortasun kolektiboari dagokionez, bi erreferentzia ditu: Espainiako Estatu eta Euskal Herria. Beraz, inmigratuak euskal gizartean aspaldidanik txertatuta daudenez gero, bertakotuak eta, gainera, euskaldunak dira⁴³. Tesi hau arrazoi akademikoaren apaindura moderno estatutik asimilazioa erabat burutu eta justifikatzera dator, euskal nortasunaren zantzuak betiko ehorztera. Hau ezein aurreiritzirik gabe baieztatzeko moduan gaude.

Lau irakurketa-mota horien azalpena egin eta gero, zehaztasun handiagoz egin ditzakegu segidan geure oharrak, beti ere euskal testuinguriari egokituak.

⁴³ Apalategi, J., op. cit., 170-171, 188-191; Garmendia, J. A., Pérez-Agote, A. y Parra, F.: *Abertzales y vascos*, Akal, Madrid, 1981.

⁴⁴ Garmendia, Pérez-Agote, Parra: *Abertzales y vascos*, op. cit.; Pérez-Agote, A.: *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*, CIS/Siglo XXI, Madrid, 1986; Moreno, L.: “Concurrencia múltiple etnoterritorial: el caso de España”, Madrid, Hitzaldia Complutensen 1992ko irailean, 1-50 Gai hau bera garatzen du *La federalización de España* liburuan, Siglo XXI, Madrid, 1997.

Lehenik, konstatazio hutsa da inmigrazio espainola gurean modu izugarri masibo batez sartu zela eta ez zuela izan eragozpen handirik bere sorterritik zekartzan kultur patroien arabera bertan bizitzeko, nahiz eta aurrean kultur tradizio arrotz batekin topo egin. Inmigrazio honek ez du inoiz sentitu euskal gizarte hartzailean integratzeko beharrik, kultura eta hizkuntza menderatzailearen partaide izateak bere herrian bezala gaztelaniaz bizitzeko posibilitatea ematen baitzion. Atzerrian etxeko sentitu eta halaxe jokatzek kultur eta hizkuntz ordezkapena eta, oro har, euskal gizartea espainoltzea ekarri du, inmigratio-populazioa, egiazki euskaldundua izan ordez, objektiboki faktore asimilatzaile bihurtu baita. Eta hori horrela gertatu da, modu erabakigarri batez, Estaturik gabeko euskal nazio honek ez duelako inolako gaitasunik izan inmigratio-multzo hain masiboa integratu ahal izateko. Hemen gogora ekarri besterik ez daukagu Estatu modernoek tolerantzi marjinari ezartzen dioten muga. Beraz, gogoetak maila objektibora eramanda, esan behar da inmigratioak euskal zapalkuntza etnikoan parte hartu duela⁴⁵.

Bigarrenik, inmigratioaren arazoa planteatzerakoan, kolektibo bakoitzak dituen eskubideen diskurtsua ateratzen da arrazoen mahaira. Inmigratuak, Euskal Herrian, langile eta hiritar gisa Espainiako edo Frantziako Estatuak bere lurralde osoan zehar ezagutzen dizkion eskubideak dauzka, indibidualak nahiz kolektiboak, eta estatu-nazionalista sentitzen direnek estatu-eskubide horietan errebindikatzan dituzte; Estaturik gabeko nazio hartzaileak, aldiz, bere nortasun kolektiboaren zaintzeko dagozkion eskubideak aldarrikatzen ditu eta, maila horretan, inmigratuari, herritar gisa dagozkion eskubideak aitortzen zaizkion aldi berean, bertakotzeko betebeharrak ere gogoratzen zaizkio. Zuzenbidezko Estatuan, ordea, Estatuak bere burua dauka eskubideen subjektu bakartzat eta haren boterera errenditu beste aterabiderik ez dute instituzio autonomikoek indar-erlazioek agintzen duten neurrira. Zozoa da euskaldunok inmigratuari bere eskubide indibidualak oro ezagutzea eta honek euskal komunitatearen aintzakotzat ez hartzea. Azken batean, nazio- eta estatu-arazoa da euskal komunitatearen eta inmigratio-komunitatearen arteko muga finkatu eta espezifikatzen duena, eta ondorioz bakarrik klase-arazoa, guztiok amankomunean duguna.

Hirugarrenik, eta hau da gure tesia, inmigratuak ez du euskaldun egiten bertan bizi, jai edo lana egite soilak, baizik eta, lehenik eta funtsean, herri-nortasunaren ezaugarri nagusi diren elementuak beretzek eta, bide batez, nortasun horren berreskurapenean positiboki parte hartzek.

⁴⁵ Apalategi, J., op. cit., 191.

tzen dutenez, bertako erdaldunekin batera, etorkinak ditugu hizkuntzaren nahiz politikaren aldetik jenderik arrotzenak euskal geografian. Estatuazaleak kultura hegemonikoaren nortasuna galtzeko arriskuaz mintzatzen badira, Estatuaren arrazoia eta praxia kontra dituen aukera nazionalista batek ez ote du izango mila bider arrazoi gehiago bere etnizitateari eusteko eta horren sustapenean ahalegintzeko? Bestalde, J. A. Obietak dioen bezala⁴⁶, Estatu hartzaileek ez badie inmigranteei ezein eskubide berezirik ezagutzen, zergatik ez dituzte errespetatu behar herri hartzaileari dagozkion eskubideak? Euskal Herria ez ote da Espainia eta Frantzia bezain eskubide-subjektua? Nork ez daki botu estatalistaren bezeria finkoa inmigrante-guneak direla?

Hara hor galdera serio askoak, prentsan gaiztakeriaz eta azalakeriaz pozoituta eta deskontestualizatuta agertzen direnak. Xabier Arzallusek 2000ko Aberri Egunekeo hitzaldian esandakoaren haritik idatzitakoak eta gutun-trukaketak lekuko. Harrotu ditugun arazo guztiok berrikusi beharrekoak iruditzen zaizkigu, eskema zaharkitu gehiegi sumatzen baitugu euskal nazionalismoaren ezkerrean nahiz eskuinean. Honek ondorio larriak dakartza edozein mailatan, euskal politikagintzaren etorkizunari begira zer esanik ez, hauteskundeak datozen bakoitzean konstatatu ohi den bezala. Inmigrazioari buruzko arazoa, nazio-ikuspegitik begiratzen den neurrian bederen, desegoki planteatua dagoelakoan gaude. Teoria koherenteago baten beharrean geundek, beraz.

Euskal hezkuntza-sistematik eza

Hau ez da euskal irakaskuntzaren historia egiteko unea, baina bai aitortzekoa ez dugula inoiz izan hezkuntza-sistema euskaldunik. Baina goazen pausoka, esanez zergatik ez den horrela gertatu.

Oinarrizko datua da, gehienak euskaldun elebakar izan arren, euskaldungoa diglosi egoera batean bizi izan dela Erdi Arotik aurrera, Fishmanek⁴⁷

⁴⁶ Gaur ez da ez entzuten ez idazten honelako esaldirik: "Esta afirmación es, en el fondo, igualmente válida tanto si se trata de Estados independientes y soberanos como si se refiere a la emigración y movimientos de personas que se da a veces entre los diversos pueblos de un Estado multinacional, porque se funda en la naturaleza misma de lo que constituye la inmigración y en la nueva relación étnica que ella impone al inmigrante (...) Sus miembros se han trasladado individualmente a la nueva nación y ésta al aceptarlos los ha hecho miembros, actuales o potenciales, de su propia comunidad y, como tales, no pueden disfrutar de más derechos que los restantes miembros del pueblo. Libremente eligieron su nueva nación y con ese acto, libremente también, aceptaron todas las consecuencias que de aquella elección se podían seguir, entre las cuales estaba la renuncia a los derechos que la pertenencia a su antigua nación les podía suponer" (Op. cit., 60-61).

deskribatzen duen “elebitasunik gabeko diglosia” tankerakoan, zeinaren arabera elite-gutxiengoak eta herri-gehiengoak ez baitute inoiz hizkuntz komunitate bakarra osatu izan. Hauxe izango litzateke Erdi Aroko euskal gizarteari legokiokeen tipologia. Izan ere, euskarak oso goiz izan zituen lehen ukipenak latinarekin —Erriberako eskualdean arabiera eta hebraierarekin ere bai—, eta erromantze-erderekin. Honela, hasierako latin gehi euskara banaketari, XII. mendetik aurrera edo, latina gehi erromantze-erdarak (nafar-erdara, okzitaniera eta biarnes-gaskoinak) gaineratu zitzaizkion eta azkenik, albo-erromantzeak irentsiz joan ahala, gaztelaniak eta frantsesak bete izan dituzte gaurdaino egoera diglosiko batean hizkuntza nagusiari dagozkion goi-funtzioak oro⁴⁸. Latinak eta erderek hizkuntza nagusiei dagozkien goi-funtzioak betetzearen arrazoa da euskal instituzio politikoek nahiz elizakoek eta horien inguruko klase zuzendariak herritar gehienek erabiltzen ez zituzten hizkuntza horiek hautatu izana komunikabide-tresna nagusizat administrazio publikoan. Beraz, latina, gaztelania eta frantsesa izan dira Euskal Herriaren hizkuntz nahiz kultur adierazpen hegemonikoak, lehen esan bezala, Elizak nahiz Nafarroako eta Gaztelako errege-gorteek bideratutako hizkuntz politikaren eragin zuzen eta erabakigarritz halaxe gertatuak. Santxo Azkarra VII.a 1234an hil eta gero, Nafarroako Erresuman atzerriko dinastiak sartu zirenean Champagneko Teobaldorekin, aldaketa sakona gertatu zen politikan eta zirkunstantzia hau ere izan zitekeen elementu bat gehiago erdal hizkuntzen hedapenean. Oraindik oso ondo ez dakizkigun arrazoiak zirela medio, agian garaiko gizarte-beharretara moldatzen jakin ez zuelako, euskal botere monarkikoa ez zen sartu Europako beste monarkia handien gurdian eta orduko botere-ahuleziari zor zaio neurri handi batean gaur egun jasaten dugun nazio-menperakuntza. Bestalde, Erresumaren bukaerarekin batera, Erromak gotzain arrotzak izendatu zituen Nafarroarako. Bi botereek, tenporalak eta izpiritualak, euskara etxean bertan arrotz bihurtu zuten.

Dena den, zehaztu behar da, botere politiko nahiz ekonomikotik hurbil zegoen eliteko jende ikasi hori elebiduna zela eta arrotz etorriberriak, luzaro gabe, euskara ikasten zuela. Gutxiengo elebidun honek, goi-mailako funtzioetarako beti erdara erabiltzen bazuen ere, praktikan euskarara jo beste biderik ez zeukan gizarte-gune nagusiki euskaldunetan.

Erdi Aroaren luze-zabalean, oraindik XVII-XVIII. mendeak arte euskararen mugak Lizarra, Tafalla eta Zangotzaraino zabaltzen baziren

⁴⁷ *Sociología del lenguaje*, op. cit., 126-129.

⁴⁸ Mitxelena, Koldo, “Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”, *Revista de Occidente*, 10-12, 1982.

ere⁴⁹, egoera diglosiko honen ondorioz, ondoko mendeetan lurguneak galduz joango da euskara Nafarroa eta Araban, kostaldean industrigintza hasi baino dezente lehenago.

Erdi Aroa kultur produkziogintzan aberatsa bezain oparia izan dela Nafarroako Erresuma zaharrean, hau da ahaztu ezin dugun beste bigarren datua, hainbeste azterlarik aurrean jarri digutena eta, irakaskuntzarekin duen zerikusiarengatik, ezagutu beharrekoa⁵⁰.

Erdi Arotik Aro Modernoa arteko epealdian (IX-XVIII) emandako kultur mugimendua aztertzerakoan, bi aro bereiz daitezke, bakoitzaren ezaugarriak jarraiko hauek direlarik:

IX-XV. mendeetan gehienbat kultura erlijiosoa landu zen monasterio, gotzaitegi eta komentuetan eta maila apalagoan baita kultura profanoa ere gortean. Denbora luzez, IX-XII. mendeak hartuz, lehenik monasterioak (Leire, Igal, Urdaspal eta, bereziki, San Zakaria Zilbetikoa, eta Errioxan San Martin Albeldakoa, Donemiliagakoa eta) eta gero gotzaitegiak (Iruñekoa, Armentiakoa, Baionakoa eta) izan genituen kultur gune bakarrak. XII. mendeko Errenazimentuan aipatu beharrekoa da kultura musulmanaren transmisioa eta Tuterako juduena. XIII-XV. mendeetan kultura gortesaua lantzen da trobadoreen inguruan, okzitanieraz egiten dena. Monasterioak mendi eta ibarretako bakardadeetan kokatu ziren bezala, XIV. mendean Eskeko Ordenak agertu ziren hiri-guneetan finkatuta eta hauekin Unibertsitateko ikasketak asko indartu ziren.

XVI-XVIII. mendeetan, Nafarroa galdu eta gero, Erreforma eta Kontra-reformaren arteko erasoak harrapatu zuen Euskal Herria eta korrante erlijioso desberdinak ikusten ditugu elkarren lehian eta kultura erlijiosoari eragiten: erasmistak, autore aszetiko-mistikoak, higanautak (Cheverry, Leizarraga, Landetxeberri, Pierre Urtekoa eta), jesuitak (Loiola eta Xabier), jansenismoa (Saint-Cyran), etab. Epealdi honetan euskal Elizak hainbat moralista, jurista eta teologo famatu eman ditu, baina denek, euskal literaturari ekin zioten banaka batzuek salbu, latinez idatzi zuten. Orobat, XVI-XVII. mendeetan zehar euskaldun pila bat izan zen izkribau, idazkari, kaligrafo eta itzultzaile lanetan Austria Etxearen zerbitzura egon zena. Jakina, horien hizkuntza gaz-

⁴⁹ Apat-Etchebarn: *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, Editorial Verbo Divino, Estella, 1974.

⁵⁰ Azurmendi, J., "Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian", in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria: Historia eta gizartea*, I, Lan Kide Aurrezkia/EFA, Oñartzun, 1985, 357-386.

telania zen eta, gainera, euskaldun horiek Espainietako espainolak bezain espainolak sentitzen ziren.

Oro har, garai honetako kulturari dagokionez, bi gauza gogoratu behar dira: a) Nafarroako Erresuma zaharrean garatutako kulturak ez zuela sekula sare koherente bat osatu, hots, orduko kultur guneak (Gortea, monasterioak, zientzia arabearen itzultzaileak, juduak, etab.) ez zirela egiazko autonomiarik izatera iritsi⁵¹; b) euskal literaturaren orrialdeetan sartzen diren euskal idazle banaka batzuek sortutakoa salbu, beste guztia, gehien-gehiena, latinez eta erdaraz burutua izan dela.

Nolakoak diren erdaraz eta euskaraz idatzitakoaren neurriak? Guk daki-gula ez da neurketa zehatzik egin. Baina lehen hurbilketa bidemailearen lana bete dezakete euskal autoreen lanak ikertzen 25 urte daramatzan Elias Amezagak aurreratzen dituen datuek⁵². Jadanik baditu 12.000 autoreen fitxak eginda eta horietatik, gutxi-gorabehera, XVI. mendetik hasi eta gaur arteko produkzioan, gaztelaniaz eta frantsesez egindakoa, hurrenez hurren, % 70 eta % 6 edo 7 izango litzateke, eta euskarazkoa, berriz, % 20. Esan beharrik ez dago, berak “autores vascos” deitzen dien horiek, —erdaraz edo euskaraz idatzi berdin da—, guztiak jotzen dituela “vascos” gisa, horrelaxe bere anbiguotasunean, inolako zehaztasunik eman gabe. Euskara jakin ala ez, Euskal Herrikoak badira, aski da “vascos” deitzeko.

Euskal eskolaren edo agian, zehatzago esanda, Euskal Herriko erdal eskolaren lehen antolaketa XVI-XVII. mendeetan gauzatu zen. Garai honetako gizarte-eraketan parte hartu zuten jarraiko lau gertakariok aipatu beharrekoak dira eskolatze horren sorrera eta zabalkundea bere testuinguruan ulertu ahal izateko⁵³: a) Ahaide Nagusien gizarte-moldearen gainbehera, hiri-bizitzaren sendotzea eta Amerikak aurkituz geroztiko merkataritzaren garapena; b) inprimategia, kartografia, artilleria eta beste asmakizunekin, teknologia berriak ekarritako iraultza; c) Nafarroako botere monarkikoaren desagertzea eta euskal politikaren txertaketa Frantziako nahiz Espainiako Estatu monarkikoetan; d) latinaren diglosi uztarpetik libratuz gero, Europako errege-botere hegemonikoen lurralde desberdinetan hizkuntza nazionaltzat hartutako zenbait hizkuntza erromaniko eta germanikoren hedapena.

Faktore horietatik, guztiak garrantzitsuak izanik ere, euskal kasuari dagokionez, biok nabarmenduko genituzke: Estatu monarkikoen alde bietan

⁵¹ Azurmendi, J., “Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian”, op. cit., 362.

⁵² Elias Amezagari egindako elkarriketatik ateratako datuak dira (*Gara*, 2000/02/28, 40).

⁵³ Zalbide, M., “Euskal eskola, asmo zaharra”, *Euskal Eskola Publikoaren lehen Kongresoa*, I, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990, 216-219.

lortzen duten lurralde-batasuna eta horien hizkuntza nazionalen ezarpena. Horrela esplikatzen da, hiriburuetan bezala hiribilduetan ere, XVI. eta XVII. mendeetan eskolak erdaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, emana izana: “Dotrina-maisuen Lehen Letretako eskoletan leku berezia okupatzen zuten hasi-masizko *trivium*-ikasketa haiek erdaraz bideratu ziren itxuraz, gure artean; eta erdarazkoa izango zen hortaz, bere apur mugatuan, herri xehearn artean ere mende horietako alfabetatzea”⁵⁴. Euskarazko alfabetatze bakarra, bada, sermoien eta dotrinaren bidez egin zen elizetan eta eskoletan. Eta hori Trentoko kontzilioan herri-mintzaireren alde hartutako erabakien ondotik batez ere, 1600. urtetik aurrera, eta Iparraldean kalbinisten eraginez. Baina dotrinaren ikasketa hori, beste lekuetan bezala, badirudi gehienbat ahoz eta buruz egin zela, ez idatziz. Beraz, euskaraz ez da oraindik ezagutzen irakurketa eta idazketaren praxiarik.

XVIII. mendean, ordea, asko aldatzen da euskararen egoera gizartean bezala irakaskuntzan, besteak beste, jarraiko bost faktoreok eraginda: “handiki askoren eta kaletar-multzo ugarien euskal mintzagaitasunaren hondamena; euskararen estatus-mailaren gainbehera; eskolaetxeen ugaritzea; euskal dotrina eskola bidezko irakur-idazgintzan txertatzeko ahalegina; eta Goi Agintearen hizkuntz/hezuntz politika”⁵⁵.

Eskola-sarea Euskal Herri osoan zehar, hala Iparraldean nola Hegoaldean, zabaldu zen mende honetan eta orain, Iparraldean bederen, dotrinaren ikasketa, irakurketaren bidez, euskal alfabetatzearen iturri bihurtu zen. Hegoaldean, aldiz, hemengo eskoletan euskara erabiltzea zigortua zegoelako, dotrina ahoz aho erakusteko bideari jarraitu zitzaion. Eskola publikoetan praktika orokorra hori izanik ere, onartutzat jotzen da, jesuiten Oñati, Bergara, Lekeitio eta Iruñeko ikastetxe pribatuetan zehazki, dotrina euskaraz esplikatzen zela eta, oro har, ez zegoela debekatua euskararen erabilera⁵⁶. Ordukoa da eraztunaren debeku-sinboloa, erdal eskolaren bidez euskal belaunaldi berria erdalduntzeko asmoarekin erabiltzen zena; halere, erdarazko eskoletatik ere ezin izan zen erabat uxatu euskara, artean honen presentzia bizia zelako Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldean bederen⁵⁷.

Gipuzkoan, 1765ean sortutako “Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte” izan genuen Frantziako liberalismoaren pedagogi korronteak ekarri eta, hez-

⁵⁴ Ibid., 219.

⁵⁵ Ibid., 220.

⁵⁶ Malaxechevarria, J.: *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*, San Ignacio, San Sebastián, 1926.

⁵⁷ Zalbide, M., op. cit., 220-225.

kuntza-mailan, Bergarako Mintegian aplikatu zituen 1776-1794 epealdian. Baina Elkartek honek, Ilustrazioko pedagogia utilitaristari jarraiki, prestakuntza teknikorako ikasketak antolatu zituen bere curriculumean, merkataritza, industria, marrazkigintza eta antzeko adar praktikoetan erabiliko zirenak eta Estatu zentralari baliagarri izango zitzaizkionak⁵⁸. Bitxia da jakitea 1776-1794 epealdi horretako 415 seminaristak Penintsulako eskualde desberdinetatik eta Hego Amerikatik etorritakoak izan zirela, eta Mintegian gehiago zirela Cádizkoak Gipuzkoakoak baino: hangoak 46 eta hemengoak 40 ikasle. Hori horrela gertatu zen, hain zuzen, Armadako flota zelako gehien erakartzen zuena maila profesionalean⁵⁹.

Bergarako Mintegian euskara irakatsi zen, bai ala ez? Komeni da galdera honi zehaztasunez erantzutea, horren inguruan literatura aski nahasia baitago. Batzuk baiezkotan daude, pentsatuz, Elkartearen Estatutueta lehenik hizkuntza nazionalak “el Bascuence y el Castellano” ikasi behar zirela zetorrenez gero, halaxe izan zela⁶⁰. Baina badirudi jarrera kontrajarriak zeudela bazkideen artean eta praxian besterik gertatu zela. Oinarrizko irakaskuntzarako eskolei dagokienez, Elkarteko Batzorde Nagusikoek 1771n hartutako erabakien artean, hauxe zen bat: euskal eskoletan gaztelaniazko gramatika irakatsi behar zela. Erabaki horren kontra protestatu zuen idazki anonimorik ere izan zen, esanez elebitasunaren printzipioak eskatzen zuela irakatsi beharreko lehen gramatika bertakoa zela, euskarazkoa, eta ez gaztelaniazkoa⁶¹. Frantsesa, ingelesa eta italiara irakasten ziren, baina ez euskara⁶². Dena den, Azkoitiko Zalduntxoak euskararen aldeko agertu zirela⁶³ eta, areago oraindik, “Euskal Hiztegi” bat egiteko asmorik bazutela⁶⁴ egia bada ere, irakaskuntzan bederen ezer gutxi egin zuten euskaraz, azterketara aurkeztu aurretik ikasleek egin ohi zituzten “arenga” batzuk salbu⁶⁵.

Euskal Herriko eskola-antolaketari dagokionez, inolako zalantzarik gabe, XIX. mendea da ordurarteko guztietan askogatik garrantzitsuen,

⁵⁸ Eizagirre, A., Davila, P., “Alfabetatzea Euskal Herrian: Ikuspegi historikoa”, *ELE*, 8, AEK, Bilbao, 1991, 230-231.

⁵⁹ Recarte, M. T.: *Ilustración vasca y renovación educativa: La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Publicaciones Universidad Pontificia de Salamanca, 1990.

⁶⁰ Echegaray, B., “Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco”, in *Lucha de idiomas en Euskadi y en Europa*, Euskaltzaleak, Donostia, 1935, 62.

⁶¹ Recarte, M. T., op. cit., 82-83.

⁶² *Ibid.*, 271.

⁶³ Villasante, L.: *Historia de la literatura vasca*, Sendoa, Bilbao, 1961, 126.

⁶⁴ Zubero'tar Andoni (Akesolo, Lino), “Euskalherriaren adiskideak”, *Euzko-Gogoia*, 9-10, Guatemala, 1954, 152.

⁶⁵ Recarte, M. T., op. cit., 72-75.

orduan hartu baitzuten alde bietako Estatu modernoek hezkuntza-sistema nazionala beren lurraldeetan ezartzeko erabaki juridiko-legala, funtsean gaur egun ere ia bere osotasunean indarrean dirauena. Frantzia data-muga dira, batetik, Irakaskuntza Publikoaren 1850eko Legea eta hori garatzeko hurrengo urtean, 1851n, aldarrikatutako “Reglement pour les écoles publiques du Département des Basses-Pyrénées” delakoa, espreski agintzen zuena Iparraldeko eskoletan frantsesa lantzea, ahoz, idatziz eta itzulpen-arietak eginez⁶⁶ eta, bestetik, 1880-1882ko Ferryren Legeak, hezkuntza-sistema egituratu eta finkatzera zetozenak⁶⁷. Espainian, berriz, 1857ko Moyanoren Legea dugu mugari⁶⁸.

Moyanoren hezkuntza-legerian, hain zuzen, irakaskuntza publikoan erabili beharreko hizkuntza bakar eta obligaziozkoa gaztelania izango dela aldarrikatzen da 88. artikuluan. Beraz, gaztelania eskola-hizkuntza ezarrita gelditzen da, baita haurrek beste ama-hizkuntzak egiten dituzten lekuetan ere. Bestalde, eta puntu hauxe da instituzionalistek gehien nabarmentzen dutena, hor egituratzen da lehen aldiz hezkuntza-sistema osoa, konpetentziarik funtsezkoenak zentralizatuz, hala nola: lurralde-banaketa, irakasleen izendapena eta ordainketa, eta inspektzioa, azken puntu honetan hiru Herrialde Historikoentzat salbuespena eginez⁶⁹. Bietan hezkuntza Estatuaren zerbitzura eta kontrolpean gelditu zen gizarte-ordena ezartzeko helburuarekin. Orduan jarri zen kolokan ordurarte Udalen esku egondako eskolen antolaketa eta, halaber, orduan entzun ziren berriro Foru-Diputazioen kontraforu-protestak, Gobernu zentralaren neurri zentralizataileen kontra sistemaz eginak. Seguraski, “ez zaie, halere, garrantzi handiegirik eman behar Erreginari zuzenduriko memorialeiei, eskolaren errealitatea gazteleraz emaniko irakaskuntzaren inguruan baitzebil; eta ez zuten erakundeek erresistentzia handirik jarri honen aurrean”⁷⁰.

Lehendik ere inoiz euskalduna izan ez zen Euskal Herriko eskola erabat erdaldundu ahal izateko, XIX. mendean zehar, bi bide erabili zituzten: erdara hutsezko murgilketarena, zapalkuntzaren ildotik, eta, hori ezinezkoa zenean, behin-behineko elebitasunarena. Haurrak euskararen bidez ahalik eta

⁶⁶ Zalbide, M., op. cit., 225.

⁶⁷ Volker, J., “Epílogo: Ferry, Durkheim, idéntica lucha”, in Durkheim, E.: *Educación y Sociología*, Península, Barcelona, 1975, 137-188.

⁶⁸ Echegaray, B. op. cit., 55-86.

⁶⁹ Puelles Benítez, M.: *Educación e ideología en la España contemporánea*, II, Labor, Barcelona, 1986.

⁷⁰ Eizagirre, A.; Davila, P., op. cit., 35.

modurik erosoenean erdarara pasatzeko tresna didaktikoak ziren garai hartan egindako gramatika eta ikasliburu batzuk, hala nola, Iparraldean Archu ikuskariak (1852) eta Hegoaldean Agustin Pascual Iturriagak (1842), Luis Astigarragak (1840), Juan Maria Eguren Gipuzkoa eta Arabako ikuskari liberalak (1867) egindakoak. Ez ote ditugu horiek estatu-asimilazionismoaren sarean sartzen diren lankideak?

Hezkuntza-sistema osoki zentralizaturik baitago, euskal berpizkundea jadanik oharatu zen XIX. mende-bukaeran eta XX. mende honen hasieratik aurrera Euskal Herriko eskolatzearen erdalduntze-prozesuaz eta, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Batzarraz geroztik (1918), euskal eskola baten oinarriak botatzeari ekin zitzaion. Ahalegin kolektibo honetan elkarturik ikusten ditugu ideologia desberdinetako euskaltzaleak —nazionalistak nahiz karlistak nahiz bestelakoak—, irakaskuntza euskaldun baten aldeko proiektuan, 1936ko gerrateak dena eten zuen arte.

Gerrateurreko euskal eskolaren eraketa-prozesuan hiru esparru nagusi ikusten ditugu bereizi beharrezkoak hezkuntzarenean: pedagogikoa, soziolinguistikoa eta errealizazio praktikoa.

Pedagogiaren sailean egindako ekarpen berritzaileak Eskola Berriaren ildotik egindakoak izan ziren, Pestalozzi, Decroly, Montessori eta beste hainbaten metodoak etxeratuz. Eusko Ikaskuntzak era sistematiko batez landu eta sakondu zituen Oñatiko (1918), Iruñeko (1920) eta Gernikako (1923) Batzarretan gaiok, batez ere, maila desberdinetako irakaskuntzaren egoera orokorraz lehen azterketa egiten zuen aldi berean. Luzea da hiru Batzar horietan parte hartu zutenen zerrenda⁷¹. Europan Eskola Berriaren planteamendu funtsean psikologistak baitziren nagusi, normala zen euskal pedagogoez, Hezkuntzaren Soziologiaren aztarnarik ere ez edukitzean, analisi indibidualistegiak egitea, gogoeta pedagogikoaren muina haurraren eta beronen garapen pertsonalean zentratuz. Nolanahi ere, pedagogia klasikoaren aldean, bazekarten orduan eskertzekoa zitekeen aire berririk.

Elebitasunarekin beste horrenbeste gertatu zen. Hezkuntzako Bulego Nazioartekoak antolatuta, Luxenburgon 1928an egindako Batzar Nagusian hezkuntza elebidunean espezialistarik onenak bildu ziren P. Boveten zuzendaritzapean⁷² eta bertan batzartuen iritzi nagusia —salbuespen batzue-

⁷¹ La Sociedad de Estudios Vascos: *I Congreso de Estudios Vascos*, 1/8-09-1918, Bilbaina de Artes Gráficas, Bilbao, 1919; *II Congreso de Estudios Vascos*, 18/25-07-1920, Nueva Editorial, San Sebastián, 1920; *III Congreso de Estudios Vascos*, 10/17-09-1922, Imprenta de la Diputación, San Sebastián, 1923.

⁷² *El bilingüismo y la educación*, Trabajos de la Conferencia Internacional celebrada en Luxemburgo, 2/5-04-1928, Espasa-Calpe, Madrid, 1932.

kin, halere—, izan zen elebitasun goiztiarra ikaslearentzat kaltegarri zela alderdi psikologiko nahiz kognitiboan aldetik begiratuta, batez ere, eta, ondorioz, ama-hizkuntzan bakarrik egin behar zela irakaskuntza, harik eta berori ondo finkatu arte, hots, gutxi-gorabehera 9-13 urte bete arte.

Kataluniako elebitasun-dekretuak (1931-04-29) eraginda, kultur erakunde desberdinek egindako deialdiari erantzunez, 1931ko abuztuaren 28 eta 29an, Elebitasunaren Euskal Batzarra egin zen Donostian eta hor Anizeto Olano, Eduardo Landeta, Bonifazio Etxegarai eta Aitzolek emandako hitzaldi mamitsuak biltzen dira *Lucha de idiomas en Euzkadi y Europa* bilduman. Aita Olano kaputxino pedagogoak⁷³ Luxenburgoko Batzarrean esandakoaren bilduma zehatza baitakar, haren hitzalditik berak beretzat zeuzkan ondorio hauek dakartzagu hona: a) lehen irakaskuntza ama-hizkuntzan eman behar dela; b) ama-hizkuntza ondo finkatu ondoren, bigarren hizkuntza gai gisa erakutsi behar dela; c) bigarren eta goi mailako irakaskuntzan, helburu pedagogikoa ama-hizkuntza ikastea dela, bigarrenari ikasgai gisa sendo ekinez. Eduardo Landetak ere Galesko esperientziak zituen gogoan, esatean: “Allí la enseñanza primaria se practica en lengua galesa hasta los 9 años, comenzando desde esta edad el aprendizaje del inglés, y allí existe una Universidad y otros centros docentes donde el galés es de uso corriente y obligatorio”⁷⁴.

Luxenburgoko elebitasun-tesiak gehienbat Galesko ikerketetan oinarrituak zeuden eta, euskal kasua hangoaren antzekoa zenez gero, hemen ere bidezkoa zirudien irakaskuntzaren lehen urratsak ama-hizkuntzan oinarritzea. Praxian, orduan eraikiak izan ziren euskal eskola elebidunetan eredu hori aplikatu zen. Aitzolek, bere aldetik, euskarak une hartan bizi zuen atzerakadaren ondorioak nabarmentzen zituen, esanez lehen monoglota zen Euskal Herria —lurralde-elebitasunak Belgikan funtzionatzen zuenaren antzera, alegia—, orain “erdal monoglotismorako” bidean sarturik zegoela⁷⁵. Honela, euskaldungoari gero eta esparru etnokultural gutxiago gelditzen zitzaien, hezkuntza-sistemara jo zen bertan euskarazko sare paraleloak sortu eta hizkuntz deskonpentsazio hori emendatzeko asmoz⁷⁶.

Honela, Euskal Pizkundearen gorakada hartan, euskal nazionalismoak eta euskaltzaletasunak estatu-botereari irabazitako autonomiari esker, eskola-

⁷³ “Bilingüismo”, in *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 30.

⁷⁴ Landeta, E., “El bilingüismo en la enseñanza internacional y en Euzkadi”, in *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 38.

⁷⁵ “Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa”, in *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 105.

⁷⁶ Zalbide, M., op. cit., 229.

sistema ofizialetik at, lau sare paralelo gauzatu ziren⁷⁷: a) ekimen pribatukoak, hala nola Bilbon R. M. Azkueren Ikastetxea (1896) eta Donostian Migel Muñoaren Koruko Andre Mariaren Ikastetxea (1914-1936); b) ekimen instituzionalekoak, eta hemen sartzekoak ditugu, bate-tik, Bizkaiko Diputaziotik gidatutako Auzo-Eskolak⁷⁸, Luis Eleizalde⁷⁹ eta Eduardo Landetak⁸⁰ kudeatu zituztenak eta hezkuntza elebiduna nekazal gizartean ezartzera zuzenduta zeudenak, eta Gipuzkoan ere 1931-36 epealdian funtzionatu zutenak; c) Donostian egindako Batzarraren ondotik kultur instituzio desberdinek eragindako kanpainaren ondorioz sortutako euskal eskolak, Errenteria, Soraluze, Arrasate, Iruñea, Lizarra, Elizondo, Gasteiz eta beste zenbait herritan eratu zire-nak; d) azkenik, euskal nazionalistek diseinatu eta sortutako Euzko Ikastola Batza daukagu, antolatzaile zuzenak Euzko Gaztedia eta Emakume Abertzale Batza izan zirelarik eta ideologoak, berriz, Elias Gallastegi eta era zuzenago batez Jose Villalonga, bera baita, antza, hez-kuntza-plangintza prestatu zuena⁸¹. Hauenak ziren Plaza Barriko eta Colon Larreategiko ikastetxeak. Euskal jendearen kredo erlijiosoari oso atxikia genuen pentsamoldez, —eta ez gutxi agian Errepublikak Elizaren kontra hartutako jarrera erasotzaileari erantzunez—, baina, bes-talde, gizarte-klase guztietara irekia zegoena, botere publikoari uko egi-ten ziona eta, ikuspegi autonomista guztien gainetik, euskal eskolaren plangintza proiektio nazionaletik egin zuen bakarra.

⁷⁷ Fernández, I.: *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU, Bilbo, 1994 .

⁷⁸ Arrien, G.: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)*, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao, 1987.

⁷⁹ Koldo Eleizalde Diputazioko ikastetxeetako inspektorea izan zen 1919-1923 epealdian, horretarako plaza lehiaketa publiko baten bidez irabazi zuelarik. Guztira 14 hautagai aurkeztu ziren. Beharrezko baldintza zen euskara jakitea eta 25 urtez gorakoa izatea (Arrien, G., op. cit., 161-162).

⁸⁰ E. Landetak eskolan proposatzen duen hizkuntz politika hauxe da: “De consiguiente, entiendo que la solución acertada que puede aportarse al problema del idioma, tendría por base necesaria la escuela, entendiendo por tal aquella en la que toda la enseñanza se dé en Euskera; cosa posible, factible y relativamente fácil. Tal escuela, evidentemente había de establecerse en el país euskaldun, en las comarcas cuya lengua usual y habitual sea el Euskera, aunque no sea la lengua exclusiva” (“El bilingüismo en la enseñanza internacional y en Euzkadi”, in *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 42) .

⁸¹ E. I. B.: *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza, 1932-1933*, Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia 1933. Argitaragabeko txostena da, 38 orrialde dituena.

Frankismoak euskararen erabilera bizitza publikotik eta Elizatik desagerarazi zuen⁸². Administrazio, prentsa eta argitalpenekin batera⁸³, eskola izango da, batez ere, asimilatze-tresnarik garrantzitsuena. Horretarako, lehenik, Errepublikara-garaiko irakasle ustez ezkertiar eta, bereziki, nazionalistak kentzeko aginduak eman zituen gerrate zibila hasi eta berehala. Honela, Maitane Ostolazak dakarrenez⁸⁴, 1936-1945eko epealdian, Bizkaian 100dik gora irakasle eta Gipuzkoan 51 izan ziren kargutik kenduak, lehen kasuan % 69,4 eta bigarrenengan, % 11,3. Estatuko beste baztertuen aldean, bereziki Bizkaian, portzentaia anormalki garaia. Neurri xahutzaile horren ondoren, Inperioarekiko identifikazio-zeinuzat, gaztelaniako irakaskuntza ezarri zen. Hala zekarren Valladolidetik Bizkaiko irakasletzari bidalitako zirkular honek: “La labor pedagógica de los Centros docentes tiene que realizarse en la lengua oficial que es el Castellano, proclamadora de una civilización universal”⁸⁵. Azkenik, errepublika-garaiko euskal eskolak suposa zezakeen guttia (irakasletza, elebitasuna, testu-liburuak, etab.) ondo “garbitu” eta eskola hobeto gaztelaniatu ondoren, Lehen Mailako Irakaskuntza arautzera zetorren 1945eko Legea aldarrikatu zen, zeinetan, beste helburuen artean, belaualdi berriaren gizarteratzea erregimen berriaren arabera egiteko erantzukizuna ematen baitzitzaion eskolari. Hala zekarren 6. artikulua: “Es misión de la educación primaria, mediante una disciplina rigurosa, conseguir un espíritu nacional fuerte y unido a la Patria, de acuerdo con las normas del Movimiento y de sus organismos”⁸⁶.

Lege-hertsapen horren barrutian, jardunbide isolatu eta isilekoetan, berrekingo zaio euskarazko irakaskuntzari 1946tik aurrera. Ondoko eboluzioan ordea, Idoia Fernandezek ikerketari jarraiki⁸⁷, iruditzen zaigu bi epe eta bi eskola-mota bereizi beharra dagoela. Batetik, Elbira Zipitriaren gidaritzapean bideratuko Donostiako “etxe-eskolak” (1946-1969) dauzkagu eta hauek osoki jasotzen dituzte gerrateurreko eredu pedagogikoak, inolako etenik gabe. Bestea Ikastolen mugimendurekin sortu eta eratzen den pedagogi eredu berria da, gerratea ezagutu ez duen belaualdi pluralista berri batek

⁸² Torrealdai, J. M., “Euskararen zapalkuntza (1936-39)”, *Jakin*, 24, 1982, 5-73.

⁸³ Torrealdai, J. M.: *Análisis de los informes del lectorado*, Universidad de Deusto, Facultad de Ciencias Políticas y Sociología, Tesi doktora, 1991. Argitaragabea.

⁸⁴ *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Ibaeta Pedagogía, Donostia, 1996, 145-146.

⁸⁵ Circular del Rectorado de Valladolid sobre el personal docente de Vizcaya, BOG., 58, 14 de mayo de 1937.

⁸⁶ Idoia Fernándezek aipatua, op. cit., 54.

⁸⁷ *Ibid.*, 55-260.

gidatzen duena 1960ko hamarkadatik aurrera. Zipitriak ordezkatzan zuten ideologia nazionalistarekiko ezadostasunak maila desberdinetan islatzen ziren: politikoan, ideologikoan, pedagogikoan, antolaketa-zerbituetan, etab.

Ikastolak egiazko euskal eskola nazionalaren ernemuin izateko ezaugarriak izatera iritsi ziren bere bilakaera historiko hain laburrean. Nazionala, euskalduna, publikoa eta plurala izateko bokazioarekin jaio ziren eta jadanik helburu horiek beteak zeuzkaten 1970eko hamarkadaren hasierarako⁸⁸. Euskal Herri osora, Hego eta Iparrera, zabalduz dago 1969-70 ikasturtean 8.255 ikasleekin eta 103 ikastetxeekin⁸⁹. Izan ere, sortzez herritarra izanik, esan nahi baita herriak berak finantzatu eta antolatua, baldintza guztiak zeuzkan halaxe bilaka zedin. Erligioari eta euskara batuari buruzko arazoak gorabehera⁹⁰, ikastolen ereduari tinko eutsi izan dio familia nazionalistak zapalkuntza frankista bizkar gainean erasoka izan duen garaian.

Hezkuntza elebidunaz ari garenez, esan behar da ikastoletan haste-hastetik murgilketaren metodoa aplikatu izan dela, Québeceko “Saint Lambert”eko esperientzia (1965) eman baino lehenago eta, noski, horko emaitzak ezagutu gabe. Metodo horren emaitzak hasieran oso onak ziren, ia haur guztiak eta, halaber, ingurunea euskaldunak zirenean eta gurasoen motibazio militantea —horietako batzuk erdaldunak izan arren—, indartsua zenean. Ikastolak kuantitatiboki hazi ahala, aldageta kualitatiboa eman zen, hizkuntza ereduari dagokionez, 1970eko hamarkadan, ikasgelak haur erdaldunak betetzen hasi zirenean 5.000 biztanletik gorako hirietan; non eta ingurune erabat edo nagusiki erdaldunetan, noiz eta gurasoen euskal kontzientzia eskasa den unean. Honek ondorioz testuinguru soziolinguistiko hori zuten ikastola askotan euskararen defizita haur erdaldunengan bezala euskaldunengan agertzea ekarri zuen, beti ere euskararen kaltetan. Eta hortik etorri zen lehen aipatutako murgilketa-metodo bakarraren baliagarritasuna zalantzan jartzea hurrengo hamarkadan. Arazo hori larria izanik ere —eta puntu hau azpimarratu nahi dugu—, “ikaslegoaren eta ingurunearen funtsezko aldageta hark ez zuela ekarri euskararen defizitaren ez eza ez zela irakaskuntzaren irakaskuntzari dagokionez behinipen”⁹¹. Gaur egun, esana daukagunez, ikastolak dira D ereduaren bermatzaile nagusiak.

⁸⁸ Askoren Artean: *Gure Ikastola, Jakin sorta*, EFA, Oñati-Arantzazu, 1972.

⁸⁹ Askoren Artean: “Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera”, *Jakin*, 28, 1983, 9-10.

⁹⁰ Lasa Apalategi, J.: *Euskal erria eta Ikastola. Una polémica en torno a la Ikastola*, Edili, Donostia, 1971.

⁹¹ Askoren Artean, *Jakin*, 28, op. cit., 41.

Erreforma demokratikoarekin batera ezartzen den esparru juridiko berriak alde aurretik oso garbi mugaturik uzten ditu Estatuak beretzat gordetzen dituen kompetentziak hizkuntzaren nahiz hezkuntzaren sailean.

Espainiako Konstituzioak (1978), 3. artikuluko 1. parrafoan dakarrenez, gaztelania da Estatuaren hizkuntza ofiziala eta espainolek berori eza-gutu eta erabili behar dute; beste hizkuntzak ere ofizialak dira, lekuan lekuko Autonomi Estatutuak erabakitakoaren arabera. EAEk (1979) eus-kara nahiz gaztelania, Euskadin biak ofizialak izango direla dio, eta bertako biztanle guztiek horiek ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dutela. Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak (1982) Autonomi Estatutu horretako 6. artikuluan datorrena garatzen du, esanez zein hizkuntz eskubide dauzkan maila pertsonalean. Nafarroako Euskararen 18/1986ko Lege Forala oraindik murriztaileago da, eta hori bi zentzutan: batetik, euskararen erabilera administrazio eta irakaskun-tzarako bakarrik aplikatzen duelako⁹² eta, bestetik, horren aplikazioa lurralde euskaldunetara mugatzen duelako. Euskal Herriaren lurralde-oso-tasuna ez da aintzakotzat hartzen.

Konstituzio-legeriatik Euskal Herriko Autonomi Estatuetara dagoen alde bakarra da —baina hori bai oinarrizkoa hizkuntz politikari buruzko diskurtso guztietarako—, gaztelania estatu-lurralde osoan “beharrezkoa” den bitartean, euskarari soilki “eskubidea” aitortzen zaiola Euskadin. Bereizketa honek baldintzatzen du euskararen normalizazioa kasu bietan, errotik gainera.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioan, 2808/1980ko irailaren 26ko errege-dekretuaren bidez aldakarrikatzen dira lehen transferentziak⁹³. Baina Gobernu zentralak, 8/1985eko uztailaren 3ko LODEn ezarritakoaren ara-bera, beretzat gordetzen ditu kompetentziarik funtsezkoenak, hala nola: hezkuntza-sistemaren antolaketa orokorra, irakaskuntzaren programazio orokorra, gutxienezko irakasgaien finkapena, titulu akademiko eta profe-sionalak lortu, eman eta homologatzeko baldintzen arauketa orokorra eta goi-inspekzioa⁹⁴. Irakasle funtzionarioen eskubide lortuak ziurtatuta gel-ditzen dira horrela eta, geroago ikusiko dugun bezala, lege-murriztapen horrek euskarazko irakaskuntza guztiz baldintzatua uzten du irakasle-gehiengoa erdalduna den euskal irakaskuntzan.

⁹² Cobarrubias, J., “Normalización y planificación lingüística”, in *Euskara Biltzarra*, op. cit., 153.

⁹³ Eustat, 1991, XIX.

⁹⁴ Etxeberria, Felix eta besteak, 1989, op. cit., 3.

Irakaskuntza unibertsitarioari dagokionez, gertakari historikoa izan da behingoz bederen Euskal Distritua eratu izana Autonomi Estatutuari esker, 1970eko hamarkadan Campusak banatuz Leioa, Gasteiz eta Donostian. Oraindik egiturazko loturak badituen arren Espainiako unibertsitate-sistema-rekin, lorpen morfologiko horrekin aurrerapausu garrantzitsua eman dela ezin da ukatu, zeren euskaldunek atzerrira emigratu behar izan baitute betidanik unibertsitate-ikasketak egitera: XII. mendetik aurrera, Paris, Tolosa, Avignon, Oxford, Salamanca eta beste hainbat lekutara eta, Unibertsitate-Distrituak egin zituztenean, berriz, nafarrek Zaragozara eta beste probintziakoek Valladolidera⁹⁵. Esteban Garibaik bere hasarrea agertzen du Nafarroako erregeek bere garaian Unibertsitate bat egiteko gai izan ez zirelako. Nafarroan ahaleginak egin zituzten, baina denek porrot egin zuten. Aski berandukoak dira Gipuzkoan sortutako biak, Avilako Rodrigo Sánchez de Mercado Zuazola gotzainak 1539an Oñatiko Unibertsitatea eta Peñaflorida Kondeak 1776an Bergarako Mintegia. Dena den, “hargatik edo horregatik, ez zuten bizitasun handirik eduki” eta kanpora joandakoak “beren jatorri hizkuntza ahazturik zetozen, edo hartaz lotsa ziren, edo mesprezatu egiten zuten”⁹⁶. XIX. mendetik hona egindako saioak ere errekek eraman zituen⁹⁷.

Euskal Herriak bere Unibertsitatea ez izateak, oro har, sekulako kaltea egin dio goi-irakaskuntzari, bertako euskal pentsamenturik sortzerik izan ez dugulako; kaltegarri euskal kulturarentzat, bereziki, euskarazko irakaskuntza azpi-azpitik egituratzen ia hutsetik abiatu behar izan baita. Oinarrizko euskarriak falta ziren: testuak, hiztegi tekniko-zientifikoak, irakasle elebidun alfabetatuak, etab. Ia dena⁹⁸.

Euskal irakaskuntza orotara hartuta, honi legezko ofizialtasuna aitortzea —1936-37ko salbuespena ahaztu gabe—, zerbait berria da euskararen historia guztian. Baina ez da ahaztu behar euskararen galera ere —mendez mende eta, askotan, zapalkuntza sistematikoz jasanez etorri dena—, inoiz ez bezalakoa dela. Euskaraz osoki bizi ahal izateko lurgunerik ez du eskaintzen egungo euskal gizarteak, hasieran esan bezala,

⁹⁵ Frantzian, Paris, Tolosa eta Avignonen, guztira 441 unibertsitari inguru egon omen ziren ikasten, zibilak eta eliztarrak kontatuta, 1122-1500 epealdian zehar (Azurmendi, J., I, op. cit., 362).

⁹⁶ Garibay, E.: *Compendio historial*, 27. liburua, 33. kap. 379; Villasantek aipatua “Euskararen kanpo historia apur bat” lanean, in *Euskaltzaindia: Euskararen Liburu Zuria*, op.cit., 161.

⁹⁷ Orella, J. L.: *La Universidad Vasca*, Ercin, Zarauz, 1977.

⁹⁸ Quintana, X., Zalbide, M., “La enseñanza del euskara en la Universidad”, in Siguán, M. (dir.): *Lenguas y educación en el ámbito del Estado Español*, ICE, Universidad de Barcelona, 1983, 97-116.

jadanik erderek hartua diotelako. Hizkuntzen arteko desokera agiriko hori nola gainditu? Hara hor beste desafio latza!

Irakasle euskaldunik eza

Espainiako Estatu zentralaren sendotzea eta Euskal Herriaren foru-erregimenaren ahultzea batera etorri ziren prozesuak dira, non, azkenean, erdiko boterea ertzaldeko kontrabotereari nagusituko baitzaio. Arazoa lehendik zetorrena baldin bazen ere, irakasletza erdaldunaren fenomenoa XIX. mende-bukaeran hezkuntzaren esparruan bata bestearen segidan emandako lege desberdinen ondorioz nabaritu zen hurrengo mende-hasieran.

Esana daukagu Moyanoren 1857ko Legea izan zela aldaketa kualitatiboa ekarri zuena, harrezkeroztik etorri baitzen Euskal Herriko eskola bere foru-prerrogatiba apurrak galduz, 1876ko foru-abolizoak azken errematea eman zion arte gelditzen zitzaion autonomia erlatiboari. Honela, 1876an, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko probintziek maisuak izendatzeko ahalmena galdu zuten betiko, Nafarroak 1880an galtzen zuen bitartean, baina berriro berreskuratuz 1914an; 1888an erabaki zen oposizioak unibertsitate-distrituak kokaturik zeudeneko hiriburuetan egin behar zirela eta ez probintziako hiriburuetan; 1902/11/21eko errege-dekretuak dotrina nahiz beste edozein gai gaztelaniaz ematea erabaki zuen; 1912an Estatuari transferitu zitzaion soldaten ordainketa egitea, honela Irakasletzaren lehen eskalafoi orokorra eratu zelarik lehengo probintzi eskalafoien orde⁹⁹.

Neurri guzti horiek atzerriko irakasleei euskal eskoletan sartzeko atak ireki zizkieten. Mende honen hasierako pedagogoak ohartu ziren fenomeno honetaz eta zenbait datu jakingarri ere eskaini zituzten. Eduardo Landetak¹⁰⁰, Bizkaiko eskolaz ari dela, dio nekazal gizarteetan kokaturik dauden eskola-umeak, eskolatik ateratzen direnean, otoitzak eta dotrina bakarrik ikasita ateratzen direla, eta hori ahoz etxean eta Elizan ikasi dutelako. Eskola horietan, gaineratzen du, 60ko lagunetik lauposbat bakarrik omen dira gaztelania zerbait dakitenak, eta beste guztiak ez omen dira gauza esaldirik simpleena ere egiteko Cervantesen hizkuntzan. Zergatik gertatzen den hori horrela? Irakaskuntza gaztelaniaz egiten delako. Eta zergatik egiten den gaztelaniaz? Maisu-maistra euskaldunek, euskaraz jakinda ere, haurrei egiten ez dietelako.

⁹⁹ *La profesión del magisterio en el País Vasco (1857-1930)*, UPV, Donostia, 1993, 31-107.

¹⁰⁰ "Estado actual de la escuela en el País Vasco. Sus remedios inmediatos. Organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales", in *La Sociedad de Estudios Vascos: I Congreso de Estudios Vascos*, op. cit., 886.

Eta ez diete egiten, bizkaitarismoaren salaketa-beldurragatik edo, irakasle-gehiengoa kanpoko zen gizarte-giro hartan beren artean hasarrerik sor ez zedin, zeren euskara sustatzea maisu atzerrikoen kontra sua piztea bailitzan hartzen baitzen.

Landetak hemen dakarrena benetan larria da, aditzera ematen baitu atzeriko maisuak euskararen eta euskal nazionalismoaren antitesiak zirela. Baina Bizkaiko maisu erdaldunen kopururik ez du ematen. J. Leoncio Urabayen maisu nafarrak¹⁰¹ bai, ordea, Nafarroakoak: 1917an, 291 maisutatik 132 (% 45,36) ziren kanpoan jaiotakoak, eta 161 maistratatik 78 (% 48,44). Uste du proportzioa ez dela txikiagoa izango Araba eta Gipuzkoan. Zalantzan jartzen du euskalduna ez den maisu-maistrak herriarekin sintonizatzea. Lekukoekin baino zailago gertatuko zaiolakoan dago bera.

Paulí Dávila Balsearak¹⁰², 1912-1933 epealdiko eskalafoi-inprimakietan datozen datuak kontsultatuz gero, zifra zehatzak eskaintzen ditu eta horietan ageri da Euskal Herritik kanpo jaiotako maisuen kopurua benetan garaia dela: 223 maisutatik 138 dira kanpokoak, hots, % 61,8. Antzeko nazio-egoeran dauden Katalunia eta Galiziaren aldean handia, zeren horien portzentaia, hurrenez hurren, % 19,5 eta % 18,7koa baitzen. Maistren kasuan, ordea, egoera dezente aldatzen da, zeren, 1912ko eskalafoiko datuen arabera, guztizko 229 kopurutik bertakoak 124 (% 54) diren bitartean kanpokoak 105 (% 46) baitira; halere, 1918ko eskalafoian, kanpoko eta bertakoen maistra-kopurua pareaun aurkitzen da: kanpokoak 72 (% 50,71) eta bertakoak 70 (% 49,29).

Nolanahi ere, maisuen nahiz maistren kasuan, kanpoko irakasleen portzentaiak biziki altuak dira, eta puntu hauxe da guk bereziki azpimarratu duguna. Jadanik XIX. mendean geroztik hasia zen atzerriko maisu-maistren presentzia asko orokortzen da eta honek, batez ere giro euskaltzale eta nazionalistan, erreakzio bortitza sortu zuen. Kanpion, Sabino Arana, Azkue eta beste askorentzat, bistan da, irakasletza erdalduna zen eskola erdalduntzearen erruduna¹⁰³, bertako hizkuntza ez ezagutzeaz aparte, hizkuntza horren zapalkuntza sinbolizatzen baitzuten. “Eraztunaren” zigorrak adierazten du hori ondoenik. Jarraiko pasarte hau bedi horren lekuko: “No es extraño pues que estas mentalidades aplicasen el célebre castigo del ‘anillo’, aunque ciertamente, a no ser por la humillación que suponía, era el menor que solían

¹⁰¹ “El maestro de la escuela vasca”, in La Sociedad de Estudios Vascos: *I Congreso de Estudios Vascos*, op. cit., 910.

¹⁰² *La profesión del magisterio en el País Vasco (1857-1930)*, op. cit., 134-141

¹⁰³ *Ibid.*, 114, 127-130.

sufrir nuestros umetxus (niños). Los maestros extraños al país cometen con los alumnos que hablan euzkera, barbaridades sin cuento¹⁰⁴.

Zerk esplika dezake kanpoko irakasleen artean maisuak maistrak baino gehiago izatea? Bi arrazoi ematen ditu Pauli Dávila egileak: lehenengoa Irakasle-Eskolako ikasketek, mutilen artean batez ere, ez zutela erakrpen handirik eta, beraz, hirietan kokaturiko burgesian Institutuetarako joera nagusitzen zela eta nekazal gizarteko langile- nahiz nekazari-klase xumean, aldiz, apaiz-ikasketetarakoa; bigarrena da, euskal probintziak Valladolideko unibertsitate-distrituan kokatuak zeudenez gero, maisu erdaldunak maisu euskaldunak baino egoera hobean aurkitzen zirela oposizioetarako lehiaketa egiterakoan, irakaskuntza osoa erdalduntzea helburutzat zuen hezkuntza-sistemak azken horiek lehenesten eta hobesten zituelako, hain zuzen. Maistren kasuan, ordea, beste baldintza batzuk ematen ziren: lenengoa da maistra-karrerak egiteko Euskal Herrian bertan bazeudela Irakasle-Eskolak eta bigarrena irakastera beste probintzietara edo kanpora joateko baimena nekezago eman ohi zitzaiela normalean.

Eta irakasle-inmigrazio masibo honek, noski, ondorio larriak ekarri dizkio gaurko euskal eskolari, hizkuntz gaitasunaren aldetik erabat baldintzatu-ta utzi baitu. Aro autonomikoari hasiera eman zitzaion garai hartan, 1976-77 ikasturteari buruz eta eskola publikoetako EA eta OHOk mailak bakarrik hartuta, datu hauek ziren eskura zeuden bakarrak: lau probintzietan, guztira, 8.284 ziren irakasleak eta horietatik 384 bakarrik euskaldunak, hots, % 4,6. Euskaldunena, Gipuzkoa % 8,0rekin¹⁰⁵. EuskalAutonomi Erkidegoko irakasleen 1990eko hizkuntz egoera, berriz, irakaskuntza ez-unibertsitario pribatu nahiz publikoko irakasleak orotara hartuta, honelakoa da iturri ofizialen arabera: "ia irakasle erdaldun hutsez osaturiko irakas-sistema % 42 inguru irakasle EGAdunez eta beste % 7 inguru IGAdunez osatu da dagoeneko"¹⁰⁶.

Gehikuntza harrigarri hori nola lortu den? Iturri berean esaten denez, antza, modu ez batere mirakulutsu batez: a) beheranzko demografi joeraren ondorioz, lehen baino askoz irakasle gutxiago kontratatu delako eta, kontratatu bahar izan denean, euskalduna izateari garrantzirik eman zaiolako; b) IRALeren lanari esker, esaten baita 1980-1990 epealdian zehar "27.000 inguruko irakasleetatik 15.000 baino gehiagok noizpait adierazi du(ela) ikas-taroren batean parte hartzeko gogoa"¹⁰⁷.

¹⁰⁴ Solano Agirre, F., "La lucha por la enseñanza nacional", *Yakintza*, 15, Donostia, 1935, 197.

¹⁰⁵ SIADECO, 1978.

¹⁰⁶ Eusko Jaurlaritzak: *Euskal irakaskuntza: 10 urte*, 1990, op. cit., 45.

¹⁰⁷ *Ibid.*, 45-87.

Hemen ohar batzuk egin beharra dagoela uste dugu, euskarazko irakas-kuntzari dagokionez, jokuan dagoena asko baita.

Lehenik, portzentaia horiek optimistak diren arren, oraindik ere bide luzea dago egiteke baldin irakasletza osoa euskaldundu behar bada.

Bigarrenik, hain epe laburrean, 23 urteren buruan, % 4,7tik % 42rako jauzi hori egitea, besterik gabe, kontsolagarria da; baina baita, misteriotik deus ez duela esan arren, nahikoa iluna ere. Emandako azalpenak alde beren konbentzigarriak izan daitezzen, gutxienezko datu batzuk eman beharko dira.

Ez da esaten zenbat irakasle euskaldun kontratatu diren epealdi horretan. Baina, bai, badakigu 1993ko udan egindako eskola publikorako oposizioetan 1.388 plazaetatik % 48 irakasle elebakar erdaldunentzat izan zirela¹⁰⁸.

Ez da zehazten IRALEn zenbatek lortu dituzten EGA eta IGA tituluak, eta gutxiago oraindik titulu horiek zenbaterainoko maila ematen duten euskarazko irakaskuntza duin baterako. Euskal hezkuntza elebidunari buruz orain arte egindako ikerketa enpiriko gehienak epealdi jakin bati mugatuak izan dira, funtsean sinkronikoak, eta A, B eta D ereduaren emaitzak elkarren artean konparatuta izan dira aztertuak, esanez, oro har, D ereduaren ematen direla ebaluaketarik garaienak. Berriki Urola Kostan egindako ikerketa batek D ereduaren inguruan argi gorria pizteko adina daturik ematen du. Horko ondorioetako bat da, hain zuzen, eskolaume euskaldun peto-peto baten hizkuntz adierazpide orokorra aberatsagoa dela gaztelaniaz euskaraz baino: "Hiztegiaren azterketa egiterakoan esanenez, genezake ere euskaraz emandako hitzak, orohar, arruntagoak direla gaztelararenak baino. Honetan, eskolaren eragina begi-bistakoa da, euskararen hiztegia, etxekoa edo ohizko harremanetakoa den bitartean, gaztelararenak, kultuagoa dirudi¹⁰⁹. Horrelako ondorio baten aurrean aurkitzeak, non eta eskualdeko populazioaren % 85 jatorrizko euskalduna eta 2 urtetik gorakoaren % 84 euskal hiztuna den ingurune batean, gutxienik zer pentsatua ematen du. Galdetzekoa da ea eskolak ez ote duen hor erantzukizunik, eta eskola barruan, bereziki, irakasletzak. Ildo bere-tik leku bereko irakasletzari galdeketa paraleloa egin eta emaitzak eskuratzean, agian, hobeto argituko da irakasletzaren euskara-ezagutzak zer-nolako eragina duen haur eskolatuen hizkuntz gaitasunean.

Hirugarrenik, eta oztopo hau da gatazkatsuena eta erabakigarriena aldi berean, irakasle erdaldun funtzionarioen lan-eskubide lortuak daude, gutxie-

¹⁰⁸ *Egin*, 1993-XI-4.

¹⁰⁹ Isasi, X., Rodríguez, F.; Erriondo, L.: *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*, EHU, Donostia, 1993, 122-123.

nezko hizkuntz profilen aurrean ere aitzakiak jartzen dituztenak. Adierazgarria da aipu hau: “Se ha realizado una sobrevaloración del conocimiento del euskera, teniendo en cuenta la situación sociolingüística real, con una exigencia elevada de perfiles lingüísticos en todo tipo de plazas de empleo público, sea cual sea su función. Todo ello conlleva, en algunos casos, a lesionar derechos adquiridos, discriminación a la hora de valorar el mérito personal o profesional y a la pérdida de estímulo de la competencia”¹¹⁰.

Zer hori baino argiagorik euskal eskolaren arazoa zertan datzan ikusteko?

Hor eman ditugun datuak eta horiei buruzko oharrek Eskola Publikoaren Legea aldarrikatu aurretikoak dira, zeinetan hizkuntz profil berriak, HP1 eta HP2 izenekoak, ezartzen baitira. Lehenengoa GUMA mailari dagokiona da, euskararen oinarriko ezagutza duena, eta bigarrena, berriz, EGA mailaren parekoa, gaiak euskaraz irakasteko gaitasuna duena. Beraz, gaiak euskaraz emango ez dituzten irakasleei bakarrik eskatzen zaie bigarren profil hori, ez besteei. Horregatik, galdetzen denean zenbat diren irakasle euskaldunak, bigarren profilekoak bakarrik hartu behar dira halakotzat eta hauek, EAEko irakaskuntza publiko ez-unibertsitarioan % 60 ziren 1997-98 ikasturtean¹¹¹.

Zalantzarik ez da irakasle euskaldunen hazkundea bizkorra dela, zazpi urteren buruan (1990-97) 18 puntu igotzen baita, % 42tik % 60ra eta, HP2 eta HP1 batuz gero, berriz, % 69ra. Oso posible da, gainera, bi titulu horietakoren bat ez duten % 30 irakasleren artean EGA titulua duten hainbat euskaldun izatea. Aldaketa honen faktorerik nagusiena, ziurrenik, irakasle elebidunak kontratatzean legoke eta ez horrenbeste, lehen esan bezala, irakasle erdaldunak IRALeren bidetik euskalduntzean.

Euskal intelligentsiarik eza

Euskal intelligentsiaren arrotasuna modu askotara gertatu da: eliteak atzerriko Unibertsitateetan prestatuz, jakintsu eta intelektualak etxetik kanpora unibertsalizatuz eta profesionalak Gaztelako gorte-zerbitzuan enplegatuz. Euskal elite intelektualak horrela saldu du bere kosmopolitismoa atzerrian. Euskarak bere inguruan bere intelligentsia propioa ez izana, hein handi-

¹¹⁰ Ucar, Gl., Ripero, M. P., “Normalización lingüística en el País Vasco”, in Marin Ibañez, R. (coord.): *Educación multicultural e intercultural*, op. cit., 471.

¹¹¹ Zalbide, Mikel: “Herri ikastetxeetako irakasleen hizkuntza osaera”, Euskara Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz 1998; Etxeberria, Felix: *Bilingüismo y educación en el País del Euskara*, op. cit., 177.

handi batean, hezkuntza-sistema propiorik ez izatean datzala azaldu nahi da segidan. Beraz, gure tesia da: bat, euskal hezkuntza nazionalik eza eta euskal intelligentsiarik eza, euskal kultura akademikoaren historia ezau-garritzen duten elementu biok elkarri eraginez etorri direla; bi, egun unibertsitate-distritua badugun arren, orain ere erabakitzeke daukagula euskarari buruzko funtsezko arazoa; hiru, euskal burgesiak bizkar eman izan diola euskarari eta oraindik ere horretan segitzen dugula. Hauek dira gure usteak. Azken batean, formulazio hirukoitz honen bidez, euskal hezkuntza nazionala bere osotasunean eraiki beharra planteatzen ari gara, estatu-antolaketaren arabera diseinatu egongo dena; aldi berean, euskal burgesia —burgesia nazionalistatik hasita—, euskararen kausara irabazi beharra ere gogoematen da, ohorearena ere, weberiar tradizioz geroztik, elementu garrantzitsuegia baita ahaz dezagun.

Euskal irakaskuntzak duen arazorik larriena da, eta orain arte planteatu izan ez dena, ez duela inoiz osatu bere hezkuntza-sistema propioa, hots, nazio gisa formalki eta morfologikoki egituratua, eta euskalduna.

Ikusi berri dugu lehen mailako irakaskuntzak hizkuntzaren aldetik zituen muga izugarriak, zeinetan erdara ofizialen aurrean euskara ausente nabaria izan baita, alde ezetxekoen erruz eta alde ezetatu-boterearen ezarpen-indarrez. Irakaskuntza horren ardatza erdara izan arren, aitortu behar da foru-erregimenak bazuela bere antolaketa propioa Udalen inguruan eraikia eta Diputaziotik zuzendua.

Euskal gizarteak izan duen hutsunerik larriena, zalantzarik gabe, bere unibertsitate-esparrurik inoiz ez izana dela esango genuke. Unibertsitate-distrituaren jabetza lortu, 1978an lortu zuen. Hortik hasi behar da. Baina goazen iturrira. Nafarroako Erresuma ere ez zen gauza izan bere Unibertsitatea eraiki eta euskal intelligentsia bertan prestatzeko. Kultur mugimendu aberatsa egon, bazegoen orduan: monasterioak, eskeko ordenak, zientzia arabiarren itzultzaileak, juduak, Gorteko intelektualak, etab. Baina ekimen isolatu horiek lotuko zituen sare koherente eta autonomorik ez zen inoiz sortu. Bertan Unibertsitaterik sortu ez zelako, hain zuzen, euskal eliteak, zibilak bezala elizakoak, atzerriko Unibertsitateetan trebatu ziren. Hori da kontua.

Baina Euskal Herriak Unibertsitaterik izan al du?, galdetuko da. Dene-tarik egon da: asmo-mailan gelditu zirenak eta baita egiazki funtzionatu zutenak ere. Azken batean, zerrenda nahikoa luzatzen da¹¹²: Oñatiko Sancti Spiritus (1540-1901), kalvinisten Orthezekoa (1566-1621), beneditarren

¹¹² Estornes Lasa, J.: *Los vascos y la Universidad*, I-II, Auñamendi, San Sebastián, 1970.

Iratxekoa (1597-1824), domingotarren Iruñeko Santiagokoa (1608-1771), Euskal Herriko Adiskideen Bergarako Errege-Mintegia (1776-1798), Gasteizko Unibertsitate Librea (1869-1873), Bizkaiko Unibertsitate Katolikoa (1870). Foruak abolitu eta gero sortutakoak dira jesuiten Deustukoa (1889), Bilboko Industri Injineruen Eskola, eta besteak.

Beraz, arestian esan bezala, izan dira, bai, titulu akademikoak luzatzen zituzten Unibertsitateak, baina horiek ez dute sekula beren artean lotura organiko autonomorik izan eta, gainera, ez dira garrantzitsuak izan. Mende guztietan izan dira euskal unibertsitate-gune propioa eraikitzeko asmoak, euskal probintzien artean egindako proiektu amankomunak, baina beti porrotaren mikatzarekin zigortuak izan dira. Adibide bat aipatzeko, Oñatiko Unibertsitatea indarberritu nahi izan zen 1772an, hiru probintzien laguntzarekin, baina emaitza positiborik gabe. Horregatik, euskal geografian finkatu izan diren horiek bizitza erabat isolatua izan dute. Esan dezakegun gehiena da euskal lurraldean zeudela eta apenas askoz gehiago. Bestalde, eraiki ziren horietako batzuk, ez ziren izan ekintza kolektibo baten ondorio, maila pertsonalari esker eraikiak baizik. Oñatikoa, adibidez, Don Rodrigo de Mercado y Zuazola gotzainaren laguntzari zor zaio. Eta asmo hutsetan gelditu zirenen historia, berriz, ahalegin kolektibo frustratuen historia izan zen. Nafarroako Gorteen XVI. mendean zehar egindako hainbat Batzarretan planteatu zen Euskal Unibertsitate baten beharra, ikasketak kanpoan egin beharrak suposatzen zuen gastu ekonomikoak eraginda sortua¹³, batez ere. Asko ziren Gaztelara ikastera joaten zirenak, handiak halaber premiak, baina etxeko jauntxoek ez zuten dirurik gastatu nahi izan langintza horretan. Horregatik gelditu zen euskal gizartea bere Unibertsitaterik gabe. Azken datu historiko hau da, hain zuzen, azpimarratu behar dena, gabezia honek baldintzatuko baitu euskal inteligentsiaren arrotasuna.

Eta hizkuntzari dagokionez, esan beharrik ez dago, euskarak ez zuen izan hor inolako sarrerarik. Azkoitiko zalduntxo ilustratuek sortutako Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak, RSBAP deituak, euskararen aldeko asmoak agertu zituen arren, esan bezala, irakaskuntzan bederen ez zuen ezer egin¹⁴. Bergarako Mintegiak, egia da, berrikuntza teknikoak ekarri zituen errekan

¹³ Premia ekonomikoan oinarritzen zuten eskabidea “para que se excusasen los excesivos gastos que se hacían por los naturales en las universidades extrañas” (J. Azurmendik aipatua: *Espainolak eta euskaldunak*, op. cit., 305).

¹⁴ “Otros socios propondrán el abandono de la lengua vasca: según J. L. Alborg (1985), la RSBAP optó por el castellano como la única lengua que debía enseñarse, lo cual, según J. Sarraíl (1979), fue criticado en varios panfletos anónimos de amplia circulación popular” (Martínez Gorriarán, C: *Casa, provincia, rey*, Alberdania, Irun, 1993, 225).

zegoen ekonomia onik ateratzeko, aurrerapen teknologikoak euskal gizarte pobre hartan txertatuz. Baina ilustrazio hura Euskal Herrian osoki erdaldua izan zen. Euskararen aldeko salbuespen bakarra, eta hura pertsonala, Konde Peñafloordakoaren antzerki-kantak genituzke eta apenas ezer gehiago.

Eta zaila da, ezinezkoa ez bada, unibertsitate-erakunderik gabe euskal elite intelektualak sortzea, bera baita, J. L. Orellarekin esateko, “meollo y motor de desarrollo de la cultura vasca”¹¹⁵. Egiturazko hizkuntza hau, jakina, ez da konpontzen unibertsitate-distritua edukitzearekin bakarrik, ezta bertan elebitasunaren politika ezartzearekin ere. Oraindik bideratze dago euskal kulturak merezi eta behar duen Euskal Unibertsitatea. Azken batean, esan dezagun garbi, eraikitze dagoena, euskal hezkuntza nazionala da, euskalduna, hezkuntza formala eta ezformala koordinatuta bideratzeko gauza izango dena. Ezin da ahaztu komunikabideek duten eragin gero eta handiagoa herritarren pentsamolde-eraketan. Eta telebistaren kasuan, gainera, abantaila eksklusibo honekin: hots, ikuslea pasibotasunaren gozamenean estasiatua uzten duela ematen zaion huraxe hartzeko aurrejarrera ezin egokiagoan.

Euskaldunon unibertsaltasuna zalantzan jarriko duenik apenas den, behin eta berriz errepikatzen baita, arrandiaz gainera, euskaldunen izen-degian ospe handiko izen unibertsal anitz badela. Ez da gezurra. XVI-XVII. mendeetan, euskaldun asko zebilen munduan zehar barreiatuak, Flandrian, Italiako gerretan, Amerikako abenturan. Eta klase guztietako euskaldunak, eta horien artean ez gutxi Frantzia eta Espainiako Unibertsitateetan zeudenak, nor ikasten nor irakasten.

Errenazimentuarekin, Erdi Arotik Modernorako jauzia ematean, aire kosmopolitik bazter askotara hedatu ziren. Munduko hiritar sentitzeak elkartu zituen Parisen Loiolako Inazio eta Xabierreko Frantzisko euskaldunak, Diego Laínez, Salmerón eta Bobadilla espainolak, Simao Rodrigues portugesa, Pikardiako P. Broet frantsesa eta Saboyako Pierre Favre, Jay eta Codure, eta besteak. Denak anaiak sentitzen ziren kosmopolitismoaren familian: frantsesak, espainolak, portugesak, alemanak, euskaldunak. Eta euskaldunen artean, baita beamondarrak eta agramondarrak ere. Unibertsaltasuna inoiz egotekotan, orduantxe zegoen modan. Eta unibertsaltasun horren prototipo bat bilatzekotan, nor Loiolako Inazio

¹¹⁵ *La Universidad Vasca*, Erein, Donostia, 1977, 15.

baino beste bat egokiagorik? Nekez bilatuko da hark fundatutako Jesusen Konpainia baino salbazio-proiektu zabalagorik¹¹⁶.

Baina unibertsalismo-mota horrek ez zion mesede handirik ekarri euskal kulturari. San Inazio euskaldun ilustratu bat zen. Parisen egin zituen ikasketak 1528-1535 epealdian: lehenik latina, gero Unibertsitatean Filosofia eta Teologia. Txikitandik ikasi zuen gaztelania, hizkuntza honetan trebatu zen irakurtzen eta idazten. Inolako zalantzarik ez da etxean euskara egiten zuela, 14 urterekin kanpora atera zen arte. Gero, Parisetik Azpeitira itzuli zenean 1535ean, hiru hilabete egin zituen dotrina erakusten eta sermoiak egiten, eta arrazoizkoena da pentsatzea euskara erabiliko zuela bertako jendearekin. Baina gauza bat da ziurra, eta da euskaraz ez zuela hitz bakar bat ere idatzita utzi: “que no hay una sola palabra en toda su obra”¹¹⁷. Hor dago koska. San Inazioren kausa unibertsala erlijioa zen, eta ez euskara. Horregatik Konpainiaren fundatzailea euskaldun unibertsala izateak ez zuen unibertsalizatu euskararen kausa, baina bai tokian tokiko botere-hizkuntzak indartzea.

Teologoen artean, ehundaka dira euskal autoreak eta ia ezinezkoa gertatzen da XVI. eta XVII. mendeetako hainbeste elizgizon, kargudun, gotzain, irakasle eta idazteren izenak biltzea bakarrik ere. Espainietako diozesiak, Unibertsitateak, eliz epaitegiak, eta zer esanik ez Ameriketakoak, euskal izeenez josita daude. Gipuzkoarrak bakarrik, XVI. mendetik XVII. mendea bitarteko gotzainen zerrendara mugatuta, 30 inguru zenbatzen ditu J. I. Tellechea Idigorasek¹¹⁸. Maila zabalagoan, autore zibilak eta eliztarrak hartuta, Bernardo Estornes Lasak¹¹⁹ ere badakar beste zenbait autoreren aipamen laburra, mendez-mendekoa eta, gainera, mende bakoitzean gaien arabera sailkatuta.

Zailtasun horiek gorabehera, euskal intelligentsiak sortu dituen idazlan gehienak latinez, gaztelaniaz eta frantsesez idatziak izan direla jakiteko adina

¹¹⁶ Inazio gure patroï handiak sinbolizatzen du ondoenik unibertsaltasuna, aipu honek erakusten duen bezala: “La síntesis de tradición medieval y de epocal modernidad apunta ya como primera simbiosis ignaciana es su carácter universal; síntesis ceñida a Europa por su vida, pero ampliada, por su nueva orden, a todos los mundos entonces descubiertos por los europeos: los de Asia y Africa, primero, y luego los de América” (Baïllori, M., “San Ignacio de Loyola, ¿personaje medieval o renacentista”, in Orella, J. L. (ed.): *El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521)*, Mensajero, Universidad de Deusto, 1994, 16).

¹¹⁷ Colera, A., “Situación lingüística de Azpeitia, fines del siglo XV-XVI: La(s) lengua(s) de Iñigo de Loyola”, in Orella, J. L. (ed.): *El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521)*, op. cit., 489.

¹¹⁸ J. Azumendik aipatua, op. cit., 365.

¹¹⁹ *Introducción al hecho intelectual vasco*, Auñamendi, San Sebastián, 1989, 122-135.

informazio badugu jaso¹²⁰. Ondo dakigu Errenazimentuko euskal intelektualen loraldi bete eta ezin oparoagoa, ondikoz, hizkuntza arrotz batean muskildu zela.

Gaztelaniaz idatziak dira, adibidez, XVI. mendeko euskal apologisten lanak, hauen artean aipagarrienak izaki: E. Garibairen *Compendio historial*; P. Fontecha y Salazarren *Escudo de la más constante fe y lealtad*; P. Moret jesuitak hasi eta Konpainia bereko P. Alesonek bukatutako *Historia del reyno de Navarra*; P. Henaoren *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*. Halaxe idatzi zuten, halaber, XVIII. mendeak ere. Larramendik, gutun batzuk aparte, beste guztia gaztelaniaz idatzi zuen: *El imposible vencido* (1729), *De la antigüedad y universalidad del vascuence en España, de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas. De demostración previa al Arte, que se dará a luz desta lengua* (1728), *Diccionario Trilingüe* (1745), *Corografía de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa* (1950). Pablo Pedro Astarloak (1752-1806), Larramendiren antzera, gaztelaniaz egin zuen euskararen aldeko defentsa: *Apología de la lengua Bascongada o Ensayo crítico filosófico de su perfección y antigüedad sobre todas las que se conocen; en respuesta a los reparos propuestos en el Diccionario geográfico histórico de España* (1803), *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o Gramática y análisis razonada de la Euskara o Bascuence* (1883). Eta zerrenda luza daiteke gehiago ere, horretara jarriz gero.

XVI. eta XVIII. mendeetako euskaltzale apologista hauek hona ekartzean, ez ditugu gogoan izan horiek euskarari eta euskaldungoari buruz zeuzkaten ideiak, ezta horiek euskarari ematen zioten bultzada ere, Larramendiren kasuan, adibidez, puntala, baizik eta horiek euskarari buruz hartu zuten jarrera praktikoak arduratzen gaitu. Kanpoko galeriara begira, erdaraz jarduten zuten amorru bizian. Iparraldeko idazleak konturatu ziren Hegoaldekoen jokabide kontraesankor horretaz eta Klaberiak (1636), oso ohartuki eta barne-minduraren sakona ezin ezkutatu, gogorki salatu zituen euskaldun erdarazaleak Donibane-Sarakoek buruzagitzat zeukaten Etxeberri Ziburukoaren gerizpean¹²¹:

¹²⁰ Azurmendi, J., op. cit., 357-386.

¹²¹ Etxeberri Ziburukoaren *Elizara erabiltzeko liburua*-n datoz bertso hauek (J. Intxaustik aipatua, in *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1990, 76).

Burlatzen naiz Garibaiez,
 Bai halaber Etxabez¹²²,
 Zenak mintzatu baitire
 Erdaraz Eskaldunez.
 Ezen zirenaz geroztik
 Eskaldunak hek biak,
 Eskaraz behar zituzten
 Egin bere historiak
 Eskaraz egin dituzu,
 Etxeberri, zeure obrak,

 Ohoretu nahiz zeure
 Ahalaz herritarrak.
 Zer errefrau eder baita
 Hizkuntza arrotzetan,
 Hura aditzera ematen
 Daroezu beretan.
 Esker bada eta aithor
 Duzula berezia
 Zeren ohoratu duzun
 Herritarren mihia.

Gaztelaniaz dator, halaber, Joan Huarteren *Examen de Ingenios* famatua, psikologia enpiriko eta konparatuan obra aitzindarizat hartua izan zena eta argitalpen eta itzulpen asko ezagutu zituena¹²³. Autore aszetiko-mistikoan artean asko lirateke aipatzekoak: Frai Diego Lizarrakoa (1524-1578), frantziskotarra, gaztelaniazko mistikorik handienetakoa eta idazlan mistiko askoren egilea: *Libro de la vanidad del mundo*, *Meditaciones devotísimas del amor de Dios*; Malon Etxaidekoa (1539-1589), Kaskanteko agustindarra, unibertsitate-irakaslea eta literatura gaztelauan klasikotzat daukaten *La conversión de la Magdalena* obraren egilea.

Iparraldeko autore higanautak ere emankorrek izan ziren¹²⁴. Frantsesez, Jakue Belakoaren (1586-1667) *Tablettes* eta *Traité du compte de la mémoire*

¹²² Oikian 1548an jaio eta Mexikon 1620an hila. Pintore, idazle eta abokatua. Mexikon arrakasta handia lortu zuen pintore gisa. Bere idazlana: *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra Bascongada* (1607).

¹²³ Estornes Lasa, B.: *Introducción al hecho intelectual vasco*, op. cit., 35.

¹²⁴ Olaizola, J. M.: *Historia del protestantismo en el País Vasco. El reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Pamplona, Irufiea, 1993, 188-169.

locale, Commentaire sur la Coutume de Soule daude. Eneko Ezpondak (1557-1595), idazle, poeta, jurista, Joana III.a Albretekoaren idazkari izandakoak, frantsesez eta latinez idatzi zuen eta *Réponse du Traité de Beze sur les marquis de l'Eglise, Commentaires sur Homero*, etab. utzi zituen. Eta honen anaia Enrikek, gotzain eta historigile gisa ezaguna zenak, hauek: *Annales ecclesiastici Baromi in epitomem redacti* (1612), *Annales sacri a mundi creatione usque ad ejus redemptionem* (1637). Ez dira obra asko ordurarte nazioarteko kultur hizkuntza izan zen hartan, latinez alegia, egindako lanak. Euskaltzaleen artean, ezin da ahaztu Arnaut Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae tum Aquitaniae* (1638) deitua, aipagarria, batik bat, Euskal Herri osoaren historiari lehen saiakera kritikoa delako.

Erasmista sonatuak izan ziren Mirandako Karrantzatarrak. Bata Antso Karrantza Mirandakoa, Parisen ikasia, Martin Azpilkuetaren irakasle izan genuen eta hainbat obraren egile: *Oposculum in quasdam Erasmi Roterodami Annotationes, De alterationis modo ac quidditate, de divino amore*; bestea Toledoko artzapezpiku Bartolome Karrantza Mirandakoa (1503-1576), hau domingotarra, teologi irakasle izan zen eta, beste zenbait obraren artean, *Catechismo Christiano* idatzi zuen.

Azkengabea bada ere erdaraz (latinez, gaztelaniaz eta frantsesez) idatzi zuten euskal egileen zerrenda, ezin da utzi aipatu gabe Martin Azpilkuetaren izena, honen baitan gardenki islatzen baita euskal intelligentsia arrotzuen irudia. Teologia Alcaláko Unibertsitatean ikasi zuen, Zuzenbide Kanonikoa Tolosan. Justu Fernando Katolikoak Nafarroa konkistatu zuen garaian. Irakasle izan zen Cahors, Salamanca eta Coimbran (azken honetan 15 urtez), irakasle miretsia, eta azken urteak Erroman egin zituen Penitentziaria Sakratukoan aholkulari gisa. Frantziako desterruan, horko frantses txobinisten erdeinuak eta burlak pairatu zituen; Salamancan irakasle soilki “lektore” izatera behartu zuten, atzerritartzat zeukatelako. Hara hor intelektual emigratu baten biografia ezin tipikoagoa. Halere, jasanak jasan, Martin Azpilkueta beamondar jesuitak, teologoetan juristena eta juristetan teologoena omen zen hark¹²⁵, Frantzisko Xabier bere ilobaren antzera, unibertsaltasunean, hots, katolikotasunean sublimatzen du bere herri-minaren sufrikarioa. Bere buruaz pasarte hau utzi zuen idatzia: “Navarra me engendrô, Castilla la Nueva me educó en Alcalá, Francia me hizo hombre, Castilla la Vieja me ensalzó en Salamanca, Portugal me honró y esclareció... finalmente, a través de las mül-

¹²⁵ Martin Azpilkuetak esatera, berak finkatu omen zuen Salamancan Zuzenbide Kanonikoa, eta urtebete geroago Frantzisko Vitoriak Teologia.

tiples incidencias y situaciones de la vida, vine a Italia, la más escogida tierra del mundo entero, y resido en la madre y maestra del orbe, Roma, hace ya tres años, frizando mi edad en los 78 años”¹²⁶.

Baina azkenean hara zer patu ekarri zion ospe unibertsalekoa izateak: nafar Doktorea, erbesteratua eta arbuaiatua izandako huraxe bera, ez dela euskalduna, baizik espainola: “es la historia de la literatura española”¹²⁷. Oraingoan unibertsalismo espainolak latinez idatzita dagoena ere literatura espainolean kokatzen du.

Mendeak pasata, euskal intelligentsiak ez ditu galdu atzerriratuaren markak. Gure ilustratuak, euskaraz ez diharduten sail guztietan, arrotzentzat ari dira.

Ohoregarri ala deitoragarri, beude hor balorazioak, euskal intelligentsiaren beste adibide historikoetako bat Koroako burokrazian zeuden euskaldun letratuena da.

XVI. mendeko euskaldunak, Garibaik esaten zuenez, ekintza-gizonak (gerrari mertzenariak, marinelak, olagizonak, etab.) izateaz gain, luma-gizonak ere baziren: “hombres dados a las cosas de pluma”. Ez ziren, jakina, poeta, dramaturgo, idazle edo horrelakoak, baizik eta, bereziki, negozio-gizonak, kaligrafian, kontabilitatean eta idazkaritzan trebatuta zeudenak. Hiru gauza horiek ziren premiazkoenak orduan. Beraz, horien prestakuntza ez zen ikaragarri horietakoa. Eta “luma-gauza” hauetan euskaldunek nagusitasun osoa erakutsi zuten. Gizon hauek izan genituen Koroako burokrazian, XV-XVI. mendeetan eta XVII. mende-hasieran, kontabilitatea eramaten zutenak, idazkaritza-lanak egiten zituztenak eta Gorteko kontrol ekonomikoa zeukateinak¹²⁸. Austriako Etxearen zerbitzuan bi mendez (XVI-XVII) egondako euskal eskribau, idazkari, kaligrafo eta itzultzaileak mordoka ziren. J. Azurmendik¹²⁹, F. Arocena eta J. A. Escuderoren lanetatik hartuta, datu zehatzok dakartza: bi mende horietan, Gipuzkoatik bakarrik, 20 idazkari egon omen ziren Gortean; Felipe II.aren erregealdian (1556-98) 39 idazkaritatik 11 euskaldunak genituen, Felipe III.aren erregealdian (1598-1621) 45etatik 8,

¹²⁶ “Carta apologética de Martín de Azpilcueta a D. Gabriel de la Cueva, Duque de Alburquerque”, Itzulpena eta oharra J. M. Pérez Prendes egilearenak, in: *Corpus Hispanum de pace*, IV, Madrid, 1965, XLVI; Eloy Tejerok aipatua, in “Relevancia doctrinal del Doctor Navarro en el ámbito de las ciencias eclesiásticas y en la tradición cultural de Europa”, *Príncipe de Viana*, 179 A., 1986, 571.

¹²⁷ Tejero, E., op. cit., 602.

¹²⁸ Caro Baroja, J.: *Introducción a la historia social y económica del Pueblo Vasco*, Txertoa, Donostia, 1974, 54-56.

¹²⁹ “Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian”, op. cit., 1985, 369.

Felipe IV.arenean (1621-65) 187tatik 38 eta Karlos II.arenean (1665-1700) 50etatik 13. Bada zerbait gero! Espainiatik kanpora ere, Austriarren garaian ugari ziren Amerikan, Flandrian eta¹³⁰.

Eta euskal burokrate horiek euskara baztertu egin zuten. Euskal oligarkiaren erantzukizun historikoa da, herri-hizkuntzak hizkuntza nazional bilakatzen hasi zireneko garai hartan, jauzi kualitatibo hori ez emana. Bada pensatzen duenik orduan baldintza guztiak zeudela hala gerta zedin: moldiztegiaren aurkikuntza, berdintasun juridikoa, txovinismo ideologikoa, auzoko hizkuntzen eredia eta ekonomi oparotasun orokorra, etab. Baina etxejaunen hizkuntz politika euskararen ahozko tradizioari eustearekin konformatu zen eta bitartean euskal burokraten kastak gaztelania indartu zuen Austriarren administrazio eta politika inperiallean. C. Martínez Gorriaranen ustez¹³¹, errua ez zaio bota behar botere zentralistaren ezarpenari bakarrik, baita euskal oligarkiari ere, honi bereziki eta lehenik: “A pesar de la opinión victimista que ha presentado la relegación del euskara como una imposición del poder centralista, fueron las oligarquías vascongada y navarra las responsables de la negativa evolución de su idioma materno justo cuando todo favorecía un cambio más positivo de rumbo... Pero, por desgracia, las élites dominantes en la más rica, influyente y poblada parte de Euskal Herria, las provincias Vascongadas, fundaron su poder usando la lengua y la escritura como herramientas para marginar a la mayor parte del vecindario de la gestión pública”.

Goiko aipu horretan euskal oligarkia egiten da euskara baztertua izatearen errudun bakarra. Salaketa horri ezer kendu gabe, halaxe izan zelako — eta oraindik halaxe izaten segitzen duelako—, ezin da ondorioz justifikatu botere zentralaren hizkuntz politika asimilazionista, liburu honetan sistemaz ahazten den alderdia. Horregatik, klase-arrazoi hori, gutxienez, eskusiboegia iruditzen zaigu. Ados euskararen etsai bakarrak ez direla kanpoan bilatu behar, erabat ados euskal gizartean sektorerik deseuskalduntzaileena klase zuzendaria izan dela. Baina hortik botere zentralaren errugabetasuna bedein-katzera, asko doa. Gainera, ez da batere ebidentea garai hartan baldintza guztiak zeudela euskara Euskal Herriaren nazio-hizkuntza bihur zedin. Non zeukan euskal gizarteak mirakulu hori egin ahal izateko adina botere? Euskal oligarkiak parte handia luke euskararen galeran, horixe baietz, baina ez guztia eta, agian, ezta erabakigarriena ere. Botere zentralari zerbitzatzen dion heinean du indarra. Hura gabe, deus ez, edo gutxi.

¹³⁰ Caro Baroja, J., op. cit., 56.

¹³¹ Op. cit., 157.

Bukatzeko, oinarritzat euskal intelligentsiaren arrotzasun-fenomeno nabaria hartuta, gure tesia da Euskal Herriko gizarte-klase zuzendaria estatu-botere zentralari atxikia egon dela historian zehar eta oraindik, gaur egun ere, euskal burgesiak —nazionalistak barne—, ez duela euskararekiko atxiki-mendurik erakusten. Beraz, euskararen arazoa egiazki izan, klase-arazoa ere bada. Katalunian, adibidez, besterik da hizkuntzaren arazoa maila honetan.

Egia da, ez da egin azterketa sistematikorik euskal klase zuzendariak historian zehar euskararekiko izan duen jarreraz. Dauzkagun elementuak, argigarriak izanik ere, aipu solteak dira aditzera ematen dutenak euskal burgesia arrotz izan zaiola beti euskarari, etsaiarena egin ez duenean. Ezinbestekoa da klasearteko eta hizkuntzen arteko harremanak gurean nola gauzatuz etorri diren hurbiletik ikertzea, euskararen egoera soziologikoa argitzen asko lagunduko bailuke.

Hurbilketa gisa, eta lehendik eginda dauden ekarpenen harian, esan dezakegu euskal jauntxoek euskal kultura eta euskara beren interesen faboretan erabili izan dituztela ia beti, Erdi Arotik gaur arte.

XVI-XVII. mendeetan, joku bikoitza erabili zuten, komenientzien araber. Batetik, euskaldunek Gaztelako Gortean ohorezko karguak izan zituzten garaian, euskal apologistek Euskal Herriaren berezitasuna eta nortasuna gorai patzen zituzten, askotan gehiegi anpatuz ere bai eta, oraindik latzagoa dena, zentzurik gabeko kontraesanetan eroriz, euskararen defentsa erdaraz idatziz egiten baitute¹³². Logikarik eza horretan jautsi ziren Andres de Poza, Baltasar Etxabe, Irizar eta Moya, Iharce Bidassouetekoa, Darrigol, Erro, Garibai, Larramendi, Astarloa, Perotxegi, ezagunen artean. Esana dugu Klaberia bertsotan nola trufatu zen Garibai eta Etxabez, hauek euskaraz idatzi beharrean erdaraz egin zutelako. Garibai eta Etxabe bezalako hizkuntz apologistek, jauntxoen gehiengoarekin gaztelania bultzatu zuten; Leizarraga, Etxepare, Axular bezalako gutxiengo bat izan da, jauntxo gutxiengo batekin, euskarari egiazki eragin dion bakarra¹³³.

Bestetik, ordea, euskara soberatzen zitzairen beren klase-interesak aurrera ateratzeko orduan. Euskal gizarteko sektore pribilegiatuak ez diote baliorik ematen euskarari eta behe-mailako klase herritarraren hizkuntzarekin berdintzeko joera dute. Koldo Larrañagak¹³⁴, J. A. Mogelen lekukotza jasoz, hauxe dio: “Behin XVIII. mendearen erdiaz gero, hirietako burgesiari eta

¹³² Villasante, L.: “Euskararen kanpo historia apur bat”, op. cit., 160.

¹³³ Azurmendi, J.: *Euskaldunak eta espainolak*, op. cit., 382.

¹³⁴ Op. cit., 276.

zuzendari klaseari atxikienik diren sektoreek badutela euskara baserritarren eta langile jende arlotearen hizkuntza bezala identifikatzeko halakoxe joera bat”. Euskaldun eskolatuen antzera, kleroak ezjakintasun osoa du bere jatorrizko hizkuntzan, Larramendik¹³⁵ dioenez. J. I. Iztuetak¹³⁶ ere euskaldun endakatu horiek egiten ditu dantzak, euskal ohiturak eta hizkuntza gainbehera joatearen errudun.

Bestalde, XX. mende-hasierako autoreengan iritzi aski onartua zen jauntxoek euskal instituzioak beren interesetarako erabiltzen zituztela eta askotan bertakoek nahiago zutela eskolan gaztelania ikastea gizarte-harremantarako baliagarri izan zedin¹³⁷. Luis Eleizalde, euskaldunen utzikeria gordintasunez salatu zuen, zioelarik: “Ahora bien, es forzoso confesar que estas vitales cuestiones de instrucción y de educación —sobre todo, de instrucción y cultura popular—, han merecido hasta ahora muy poco interés en los vascos. Hay que decirlo, porque es la verdad: ese poco interés que los vascos han mostrado por la educación y la instrucción de su pueblo, ese interés tan escaso que casi puede calificarse de abandono total, de culpable negligencia, es una de las mayores manchas de nuestra historia, es la principal concausa de nuestra decadencia política y social, es la más urgente reparación que nosotros los vascos del siglo XX debemos a nuestro País y a nuestra raza”¹³⁸. Bonifazio Etxegaraik “examen de culpas” esanez hasi zuen bere hitzaldia eta klase zuzendariari bota zion euskara bazterturik aurkitzearen errua: “Las clases cultas del País muy poco se han preocupado de ilustrar a las gentes del agro”¹³⁹. Aitzolen ustea da¹⁴⁰, halaber, Batzar Nagusiak, eskola-autonomiaren jabe izan ziren garaian, ez zirela asko arduratu euskararen gainean. Areago, Bizkaiko Jaurgoak 1613an egindako Batzar Nagusietan gaztelaniaz irakurtzen eta idazten ez zekien inor ez hartzeko erabakia hartu zen. Testuak hitzez hitz honela dakar: “nadie que no supiere leer y escribir en castellano pudiera tomar parte en aquel Congreso”¹⁴¹. Eta geroago, 1864ko Batzar Nagusian, erabaki bera berretsi zen¹⁴². Eduardo Landetak, ordea, ez

¹³⁵ *Corografía de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones, San Sebastián, 1969, 283.

¹³⁶ *Guipuzcoaco dantzak*, Editorial Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.

¹³⁷ Dávila, P.: *La profesión del magisterio en el País Vasco (1857-1830)*, op. cit., 112.

¹³⁸ “Problema de la enseñanza en el País Vasco”, in *I Congreso de Estudios Vascos*, op. cit., 867-868.

¹³⁹ *Ibid.*, 57.

¹⁴⁰ *Op. cit.*, 105.

¹⁴¹ Landetak aipatua, “Bilingüismo en la enseñanza internacional y en Euzkadi”, 1935, op. cit., 46.

¹⁴² Truebaren *Bosquejo de la Organización Social de Vizcaya*; Landetak aipatua, *ibid.*, 45-46.

zuen zalantzan jarri euskal instituzio gorenen euskaltzaletasuna eta, kontrargudio gisa, 1864ko uztailaren 24ko Batzar Nagusietan hartutako bi erabaki garrantzitsu aipatu zituen: bata Euskararen Katedra ezartzeko erabakia eta bestea maisu-maistrak Udalek proposatutakoaren arabera izendatzekoa.

Beraz, badirudi, segun eta zertarako, jauntxoek hizkuntz politika aldarra dela eta klase-interesak zerbait konstante gertatzen direla, behar ez denean aguro zokora botatzeko prest.

Oñiatiko Batzarrekoan entzundako kexarik larriena zen euskarak ez zuela ohorezko lekurik aurkitzen gizarteko goi-klaseen hizkuntza izatera iritsi ez zelako.

Gauza oso jakina da euskal oligarkiak euskaldungoari izan dion muzina, beti eginahalean jardunez euskaltasunaren nahiz euskal nazionalismoaren kontra. Gaur egun ere ez dira, antza, asko aldatu, zeren Tejerinak dioenez, orain ere euskarak ez baitu sarrerarik goiko gizarte-klaseetan: “El discurso de los actores sociales señala a la burguesía como el estrato social que parece mantenerse al margen, cuando no en contra, de la lengua. Para los profesionales del mundo de la lengua la ausencia de utilización de la lengua en esta categoría social es el elemento fundamental para explicar, históricamente, la pérdida de la función comunicativa de la lengua”¹⁴³.

Horregatik, neurri batean arrazoizkoa da pentsatzea euskarak atzera egitearen erantzukizun osoa ezin zaiola Estatuari bota¹⁴⁴, honek ezingo baitzitu en mamitu ahal izango bere lege hertsatzaile eta zapaltzaileak baldin euskal gizartean bertan gizarte-bitartekoen sostengurik izan ez balu. Horregatik, euskal gizartearen erdalduntze-prozesua aski konplexua da. Prozesu horretan, batetik, euskal gizarteari kanpokoak zaizkion faktoreak sartzen dira (hala nola, canovismoak dakarren nazionalitate espainolaren eraikuntza eta, oro har, euskararen kontrako legeak) eta, bestetik, barrukoak zaizkionak (hala nola, industrigintzaren ondorioz gizarte tradizionalarekiko etena, eta inmigrazioa, bereziki Bizkaia eta Gipuzkoan, eta euskal burgesiaren eta euskal instituzioen utzikeria).

Esandakoak laburtuz, hauxe diogu: hezkuntzari dagokionez, esparru hertsiki politikoan, ez dela ahaztu behar inspektoreek eta irakasle erdaldunek jokatu izan duten zeregin zapaltzailea eskoletan, hauek estatu-boterearen ordezkari izan diren neurrian. Orobat, esparru hertsiki ekonomikoan, onartu behar da euskal burgesiak oraindik ere konplizearena eginez segitzen duela

¹⁴³ *Nacionalismo y lengua*, op. cit., 327.

¹⁴⁴ Corcuera, J.: *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904*, Siglo XXI, Madrid, 1987, 121.

zuzenean edo zeharka estatu-botere horrexen zerbitzura egonez. Klaseak eta boterea, biak daude harreman estuan eta honezkero zaila izango da hizkuntz plangintza egoki eta erangikorrik egin ahal izatea elkarren arteko inplikazioak kontuan hartu gabe.

Galdetu izan da euskararen salbazioa nondik letorkeen ere, klase ahaltsuen ala herri-klaseen euskalduntzetik. Autore klasikoek —hauen artean Arturo Kanpion eta Federiko Krutwigek—, uste zuten goi-klasekoen hizkuntz ereduak erreproduzitzen direla behe-mailakoengan eta euskarak horien atxikimendua irabazi beharko lukeela. Beste batzuen ustez, ordea —eta hauen artean Luis C. Muñez eta Emilio López Adan aipa daitezke—, galdutzat jo beharra legoke euskal burgesia euskararen kausara irabazteko apustua, ez baitira haren interesetan sartzen euskararenak eta, horregatik, nahiago dute gorantz doazen herri-klaseen baitan ezarri euskararen etorkizuna¹⁴⁵. Gainera, SIADECOK Gipuzkoan —Euskal Herriko herrialderik euskaldunenean, beraz—, egindako inkestek adierazten dutenez, langileak ugazaben aldean dezente euskararen aldekoagoak agertzen dira beren jarreretan, hurrenez hurren, % 53,5 eta % 35,0 portzentaiekin. Baina diferentzia horrek ez digu irtenbiderako ilunpea asko argitzen, zeren bi klaseak, herritarrek zein burgesak, aski indiferenteak baitira euskarari buruz, lehen kasuan % 41,1eko eta bigarrenean % 57,4ko portzentaia garaiekin¹⁴⁶.

Arazoa, gure ustez, ez da klase batean bestean baino esperantza gehiago jartzea, edota euskal burgesiaren euskalduntzea galdutzat ematea, baizik eta tesi gisa onartzea, euskara salbatuko bada eta bere inguruko beste hizkuntzen aurrean bere lekua ziurtatu nahi badu, ez daukala herriko klaseak oro beretu beste biderik. Konbentziturik gaude euskarak euskal intelligentsia modernoa, beronen zentzurik zabalenean, bereganatzea lortzen ez badu, gizarte-maila guztietan eragingarri eta lehiakide gertatzen ez bada, ez daukala zer eginik. Aro Modernoa baino lehenagoko mende luzeetan zehar euskarak ez zuen arazo handirik izan, nahiz egoera diglosikoan bizi, gizarte-bizitzan gehien-goaren hizkuntza izanez segi zezan. Baina ordukoak ezer gutxi balio du, Estatu modernoek beren hizkuntza nazionalaren hedapenerako estrategia zentralistak ezartzen dituztenean eta geroztik industrigintzak zein hirigintzak eta gaur eguneko informazio-munduak gizarte-harremanetan beste dinamika bat, lehen baino askoz ere saretuago, konplexuago, nahasiago eta transnazio-nalizatuagoa ezarri dutenean. Eliteko kultur sare horretan mugitzen ez dakien hizkuntzak ezer gutxi du egiteko. Ez gaitu harritzen etorkizunean hainbat hizkuntza desagertuko direla iragartzeak.

¹⁴⁵ Odriozola, J. M.: *Soziolinguistikaren atarian*, Bilbao Bizkai Kutxa, Bilbao, 1993, 18-21.

¹⁴⁶ *Ibid.*, 20.

VI

EUSKAL ESTATUA ETA EUSKAL HEZKUNTZA NAZIONALA

Atal honen helburua aurrekoetan harrotutako gaiak hartu eta eztabaidagarrienak iruditu zaizkigun haiek berrikusi, birplanteatu eta ondorio batzuk ateratzea da, jakinaren gainean egonda aukera eta balorazio pertsonaletan desbideratzeko arriskutik ez garela libratuko. Irarkurleari hausnarketa berriak egiteko adina kezka-gai eskaintzen badizkiogu, gure egitekoa betetzat emango dugu.

Nolanahi ere, puntu dezente izanen lirateke hemen ukitu beharrekoak, bazterretan zabor asko baitago botata eta oraindik nahasketa gehiago barreiatuta. Guk, ordea, honako hauek bakarrik jorratuko ditugu: Estatu-nazioaren krisia, nortasun nazionalaren zeinua, euskal Estatuaren bideragarritasuna Europan, euskal Estatu eta euskal hezkuntza-sistema nazionala eraikitze bideak. Azkenik, euskal boterea lortzeko aterabide gisa, bereziki, autodeterminatzeko eskubideari dagokiona aipatu eta aztertuko da, hau eskubide demokratiko bat den aldetik, herri orori zor zaiona baita eta sistema demokratiko batek printzipioz ezin uka dezakeena. Beraz, zerbait eskuragarria.

Orain arteko ataletan gai desberdinez esandakoak laburtuz, horien gainean gure jorraketa pertsonala egingo dugu, besterik ez bada, eztabaidarako puntu batzuk aurreratuz. Noski, ez da gure egitekoa, polikariena baizik, aterabide zehatzak proposatzea. Baina, bai, bada gure eginbeharra gai eztabaidatsuen inguruan gogoeta lagungarriak eskaintzea eta arazo nagusien muinak zein diren formulatzea. Segidan azken gogoeta batzuk luzatuko ditugu Estatuaz, nazioaz, borroka armatuaz, etikaz eta euskal hezkuntza-sistemaz.

1. Estatu krisian?

Estatuak krisian omen daudela eta, Estaturik gabeko nazioak orain estatu-eske etortzea historian atzerapausoak ematea omen dela esaten hasi zi-

tzaizkigun duela gutxi etxeko konstituzionalista batzuek Ibaetako Zuzenbide Fakultatetik. Hala zioen Gurutz Jáuregui Estatu-nazioaren kontra egindako exordioan¹⁴⁷. Euskal Herria berandu omen dabil estatu-boterearen bila, jada Estatuarenak egina baitu. Berrikitan, egileak berak, Estatu-nazioak irtenbiderik gabeko krisi sakonean sartuta daudela esan eta gero, Euskal Herriarentzako kokaleku egokia Espainiako Autonomien Estatuan eta honen bila-kaeran dagoela sinestaraziz segitzen du: “El sistema constitucional español, al configurarse como un Estado de las autonomías, cuenta *a priori* con una estructura política adecuada para hacer frente a los retos que se deriven del nuevo orden político europeo. Parece esencial la presencia de Euskadi y las demás Comunidades Autónomas en las decisiones europeas, como parece imprescindible una mayor participación en las decisiones políticas globales. Los problemas nacionalistas no van a resolverse a golpes de declaraciones solemnes, sino mediante el acuerdo, el diálogo, la cooperación. Un pacto de Estado, un acuerdo sobre la reforma del Estatuto o sobre la profundización de la autonomía a través de la transformación federal del Estado, resulta mucho más efectivo en la práctica que cualquier declaración solemne sobre los derechos soberanos de Euskadi o cualquier otra colectividad”¹⁴⁸.

Aterabidea, hor Estatuaren eraldaketa federalaz hitz egiten bada ere, botere autonomikoaren parekoa da. Ez gehiago. Espainiako Estatu nazioaskoduna ez da auzitan jartzen botere-estatu gisa.

Zer pentsatu, oro har, Estatu-nazioaz eta honek izan duen bilakaera historikoaz?

Orain arte, eskola desberdinetako hainbat autoreren ikuspuntuak agertu ditugu. Egin dezagun, gehiago gabe, errebisio kritiko bat.

Estatua krisian al dago? Baiki. Baina zein estatu-mota? Bereziki, Estatu-nazioa, iraultza burgesetik sortu zen hura, kolonialismoa eta inperialismoa praktikatu duen huraxe, egun sozialismoari zein sozialdemokraziari gain hartuz, Ongizateko itxura hartu eta European aginduz segitzen duen horixe bera. Beraz, krisian omen dagoen hori Estatu-nazioa da.

Ekintza armatuaren ondorioz hildakoak gertatzen direnean, komunikabideek eta politikari profesionalek, herritarren begi-bihotzak ukitzeko, sentimenduetara eta pantailako irudietara jotzen dute eta esaldi biribil bezain abstraktuak erabiliz deitoratzen dituzte horrelako ekintzak, alde aurretik onartutzat emanda etikaren izenean aldarrikatutako esaldi horiek, izan, balore

¹⁴⁷ *Contra el Estado-nación*, Siglo XXI, Madrid, 1986.

¹⁴⁸ *Entre la tragedia y la esperanza. Vasconia ante el nuevo milenio*, Ariel, Barcelona, 1996, 156.

orokorra eta begi-bistako interpretazio bakarra dutenak direla. Giza eskubide demokratikoen koadernoan datorrena errepikatzen da aldioro, esanez, politikan bortxarik ezin dela eman, norbanakoaren bizia errespetatu egin behar dela, etab. Baina Josemari Ripalda filosofoak oso egoki oharrarazten duen bezala, presupostu horiek ez dira ebidenteak¹⁴⁹. Izan ere, nola justifikatzen dira, lehengo gerra santuen antzera, oraingo gerra zuzenak, zeinetan parte hartzen baitute Estatu demokratiko horiek? Nola justifikatzen da estatu-boterearen defentsa funtsean indar militar eta polizialean oinarritua egotea eta zapalkuntzarako erakundeak izatea? Nola izan daiteke demokratikoa berez zapalkuntzan oinarritzen den botere-sistema? Zein kausa santu, humanitario eta zuzenen izenean justifikatzen dira, industria nazionala gehitzeko eta inperialismoa hedatzeko aitzakia besterik izan ez diren eta hilketa masiboak eragin dituzten hainbat eta hainbat gerra, bereziki Bigarren Mundu-Gerraz geroztik egindakoak? Noiztik dira “demokratikoak” Estatu kriminal eta torturazaitaleak? Eta badira estatu kriminalak, genozidio garbiak praktikatzeko dituztenak espantu handirik gabe. Ez jakinean legokeenari Yves Ternonen *El Estado criminal liburu*a¹⁵⁰, oso ondo dokumentatua, irakurtzea gomendatzen diogu, juduekin egindako sarraskia, bere beltzean, ez baita kasu bakarra, ezta azkenekoa ere.

Gertatzen dena da, Estatuak bortxaren erabilera legez monopolizatzen duen unetik beretik, monopolizatzen duela ez horren erabilera politikoa bakarrik, baita etikoa ere, zeinaren ondorioz, beste bortxa-adierazpenak oro kondenatzen baititu modu abstraktu eta unibertsal batez arrazoi juridiko-etikoen babesean. Metamorfosi izugarria gertatzen da, zeinaren ondorioz konkistaren bidez eraikitako Estatu-nazioak —gure kasuan frantsesak zein espainolak—, indarrez lortutakoari eusteko xedearekin monopolizatzen duen bortxa fisikoa eta honen erabilera etikotasunez sagaratua gertatzen baita, baina,aldi berean, berak azpian dauzkan nazioen askagintzarako sortutako herri-mugimendu armatuak behin-betiko kondenatuak gelditzen baitira. Zergatik eta, estatu-arrazoiak eta klase politikoak gehiengoaren izenean hala erabaki dutelako.

Baina nazio-askagintzan praktikatzeko den bortxa politiko honek badu bere azalpena. Lehen esan bezala, Max Weberrek eta beronen eskolakoek —hauen artean Manuel Castellsek ere bai—, defendatzen duten bezala, baldin eta, batik bat, Estatuaren kontzeptua mugatzen bada bortxaren legezko monopolioa duten erakunde-multzora eta Estatu-nazioa, berriz, botere horren lurralde-esparrura, zera gertatzen da: Estatu-nazio hori, honek oraindik bor-

¹⁴⁹ “Sentimientos y ética”, *Gara*, 2000-03-10.

¹⁵⁰ Península, Barcelona, 1995.

txa praktikatzeko gaitasuna baduen arren, bere monopolio-izaera galtzen ari dela, talde komunaletan antolatutako bere lehiakide politiko nagusiek edota Estatu-nazioaz haraindi antolatutako talde mafiosoek bortxa erabiltzen dutelako, hain zuzen. Konstituzionalistek kasu biak berdinu egiten dituzte, biak terrorismoaren zakuan sartuz, baina erabat bidegabeki, zeren bi gizarte-talde horien tipologia guztiz desberdina baita bideen zein helburuen aldetik begiratuta. Zerikusi gutxi dauka —edo, zuzenago esan, batere ez—, droga edo armen trafikoan oinarritutako mafiak xede soilki politikoak dituen erakunde politiko armatuarekin. Menperatutako naziokoak Estatu-nazio menperatzaileko kide sentitzen ez direnean eta horietako talderen batek politika-bide gisa bortxa erabiltzen duenean, orduan, batez ere, egoera honek Estatu-nazio hori bidegurutze estuan jartzen du, zer egin ez dakiela. Honela, bortxa instituzionala, honek zapalkuntza erabiltzen ez badu, desagertzeko zorian gelditzen da; ia etengabe erabili beharrean aurkitzen bada, berriz, bere legitimitatea gutxitu eta deitorazen da, ez baita gauza gizarte-ordena bortxa sinbolikoaren bidez bakarrik ezartzeko. Hortik datorkio Estatu-nazioari bortxa berak nahierara ezin erabili izatea eta bere ahalmen juridiko horren erabilera murriztuz joatea. Estatu-nazioak oraindik ere bortxan oinarritzen du bere boterea, baina ez lehengo era berean eta indar berarekin¹⁵¹. Estatu espainolak euskal nazionalismoa zapaldu, ito eta desegiteko historian zehar asmatu eta egin izan dituen bortxa-bidezko saio guztiak ikuspuntu teoriko honen argitan azertu beharko lirateke. Zapalkuntzaren historia honetan, 1936ko gerrate zibila eta honen ondoko frankismoa une garrantzitsua bezain gogoangarria markatzen dutenak dira, zalantzarik gabe, baina ez bakarrak eta, agian, ezta garrantzitsuenak ere, zeren erregimen demokratikoaren puztaldian, GALen aferan bezala, Zuzenbidezko Estatu bera aurkitzen baita zuzenean inplikaturik. Horretarako dago botere judiziala, teorian autonomoa baina praktikan estatu-boterearen zerbitzura egon ohi dena, zeina zinez ahaleginduko baita Estatu nonahitik letozkiokeen edozein motatako zipriztinetatik garbi gordetzen.

Dena den, estatu-aparatu zapaltzailei lehiakide politikoak sortu bazaizkie ere, oraindik ere armatuak daude eta erakunde armatu horien aurrekontuak, apaldu ordez, gehituz doaz nazio-borroka ematen den kasuetan. Indar militarrek eta polizialak dira Estatuaren jarraipena ziurtatzen duten zutabe nagusiak. Bortxa sinbolikoak, hots, hezkuntzaren zein komunikabideen bidez egiten denak gero eta eragin handiagoa badu ere, oraindik ere bortxa

¹⁵¹ “El estado aún se basa en la violencia y la vigilancia, pero ya no posee su monopolio ni puede ejercerlas desde sus límites nacionales” (Castells, M., II, op. cit., 233).

fisikoak agintzen du eta, hain zuzen ere, bortxa instituzionalizatu horixe da, konstituzionala delako, estatu-nazionalista den klase politikoak eta klase akademikoak zalantzan jartzen ez duena. M. Foucaultek ez al dauka idatzia bortxa fisikoaren adierazle besterik ez direla kartzelak, koartelak, komisariak eta enparauak? Horiek guztiak egiazko mikrobotereak dira ala ez? Hildakoak, tortura koloreanitzekoak, menpekotasun-egoera hezia, erreprezio-indar erakundetu horien ondorio naturalak dira ala ez?

Muga, beraz, estatalisten eta nazionalisten artekoa da. Era berean, bortxa instituzionalizatuaren eta askagintzarakoaren arteko desberdintasuna ere —berdin legitimazio-arrazoia—, horretantxe datza: hots, konstituzionalistek edo estatalistek beren menpeko nazioen zapalkuntzarako erabiltzen duten bitartean, mugimendu nazionalista armatuek, hauek bere nazioaren askagintzarako erabiltzean, haren monopolioa ukatu egiten diotela Estatuari. Kasu bietan, bortxa justifikatzeko arrazoi bakarra, eraginkortasuna da —hau webenari zentzuan ulertuta— inolako etiketa etikorik erantsi gabe. Horregatik, ez da ikusten zergatik bata hobetsi behar den eta bestea kondenatu, zeren legeak, demokratikoena izanda ere, ez baitu ezer justifikatzen tartean egiazko zapalkuntza —edozein motatakoa—, dagoenean.

Guretzat ordea, ez estatu-arrazoiak, ez gehingoak ez ezerk egiten du onargari bortxaren erabilera ez fisikoa ez psikikoa —irakur sinbolikoa—, ezein kasutan, eta hau printzipio etikoz diogu. Kasuistika faltsu eta engainagari bat besterik ez da, klase politikoaren hipokresia maiuskulua, estatu-bortxaren aulkitik, honena legezkoa —beraz, etikoa—, dela arrazoituz gero, zapalduena eta alboratuena kondenatzea, hauei, haiei bezala diru-metaketa ez, baizik giza miseria areagotzea besterik ez dakarkienean. Orobat, inolako zentzurik ez du askapen-teologiaren izenean han Hego Amerikan, Espainia eta Frantziatik urrun, borroka armatua tresna politiko gisa erabiltzea onartu edo, bederen, toleratzea, baina hemen, Euskal Herrian adibidez, errotik kondenatzea. Zergatik han bai eta hemen ez? Eta etxera etorrita, zein arrazoi poderoso daude Ertzantza bedeinkatzeko eta ETA satanizatzeo? Ertzantzak zer onura dakarkio Euskal Herriari, indar armatuaren esparrua zabaltzea, etxeko arteko gerra piztea eta herri-diruak xahutzea ez bada, hemen lehen bezain sendo segitzen badute Espainiako estatu-indar zapaltzaileek? Atzerriko okupazio-indarrekin lankidetzan jarduteak bere izen propioak izan dituzte nazio-askagintzaren historian. Bere garaietan esan bezala, sekula ez dugu ikusi izan talde armatu autonomiko horren ez beharrik ez komenientziarik. Zergatik Katalunian ez eta hemen bai?

Europako Estatu-nazio gehienek sorreran armak daude, ez konbentziemendua. Euskal Herriari dagokionez, Frantziako eta Espainiako Estatuaren,

ziurki, bai. Carlos Moyak berak¹⁵² “Franco hil eta gero zer?” galdetzen zuenean 1975. urtean, ezagutzen zuen Zuzenbidezko Estatu nazional batek, demokrazia nazionala lor zezan, ezinbestekoa zuela herrien desberdintasuna onartzea batasun nazionalaren barruan. Interpretazio honen arabera, frankismoa baitzen Estatu espainolaren izaera demokratikoa ezintzen zuen faktore historiko bakarra, erregimen demokratikoaren bidez defizit hori gaudituz gero, pentsatzen zen estatu-arazoak konpondua beharko zukeela. Gezurra badirudi ere, eta garrantzitsua da puntu hau ere azpimarratzea, nazio-arazori buruz hegi instituzionalen ikuspegitik begiratuta egin diren azken azterketa gehienek, hasieran aipatu ditugun horiek kasurako, trantsizio demokratiko horretan dute beren abiapuntu justifikatzailea.

Baina abiapuntu honetaz bada zerbait esatekorik, onartutzat supostu gehiegi ematen baita hor.

Carlos Moyak bezala beste askok, eta hauen artean A. Pérez-Agotek eta A. Gurrutxagak, ahaztu egiten dute esatea euskal arazoa zehazki frankismoa baino dezente aurretikoagoa dela, erresistentziaren historiak mila urtetik gora dituela, Estatu-nazioaren arazoa hertsiki planteatu, XIX. mende-bukaeran planteatu zela, horien kariaz orduan eta geroztik gerrak egon direla eta egun ere, modu batera nahiz bestera, gerra-egoerak jarraitu egiten duela. Luis Morenok¹⁵³ garbiki aitortzen duenez, Espainiaren batasun politikoa Errege katolikoek egin bazuten ere 1469an, lurralde-batasuna XIX. mende-bukaeran baino ez zen burutu, eta orduan gehiena erresistitu zuten lurraldeak Euskal Herrikoa eta Kataluniakoa izan ziren.

Gainera, konkistaren historia askoz lehenagokoa da eta beti dabilta armak dantzan. Ez al da egia Euskal Herria erromatarrek kolonizatua izan zela? Ez al da egia Nafarroako Erresuma zaharra armaz hartua izan zela? Ez al da egia euskal foruak gerrate karlisten ondotik ezabatuak izan zirela?

Interpretazioak alde batera utzita, historiaren aldetik konstatagarriak diren datu objektibo horiek deliberatuki ahaztea, iruditzen zaigunez, nahikoa larria da bere burua gizarte-azterlari profesionaltzat daukan batentzat. Frankismoa, euskal arazoaren prozesu historikoan, katebegi bat izan zen, garrantzitsua nahi bada, baina ez bakarra. Arazoa, lehenik eta behin, ez da sistema politiko jakin baten irizpidea mugatzen den horietakoa, Estatuarena baizik. Espainiako azken Konstituzioak ondo lotuta utzi zuen nazionalitate eta erregioen autonomia nazio espainolaren batasun barruan bere 2. artiku-

¹⁵² Op. cit., 215.

¹⁵³ *La federalización de España*, op. cit., 43-44.

luan: “La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles, y reconoce y garantiza el derecho a la autonomía de las nacionalidades y regiones que la integran y la solidaridad entre todas ellas”¹⁵⁴.

Nazio espainolaren batasunean datza arazoa. Konstituzioa eskuan, nazionalista espainolak dira arazo, hauek baitira, beren espainoltasun-koskoletik irten nahi ezta, besteekiko benetan intransigente eta intoleranteak direnak.

2. Estatu-nazionalisten eraso historikoa

Halere, beren nazionalismoan dogmatikoenak espainol demokratizatu berriak eta frantses demokrata zaharrak badira ere, euskal nazionalismoa da egun gogorkien salatzen dena, kanpotik eta barrutik. Askorentzat “etnonazionalismoa” da egungo etsairik handiena, erreakzionarioetan erreakzionarioena. Eta borroka-etsaiak bi bandotan banatuta baleude bezala izendatzen dira: batetik, nazionalistak eta, bestetik, ez-nazionalistak. Hauek, jakina, Espainia demokratikoari darizkion grazia guztiak berekin dituzte: demokraziaren dotea, tolerantziarena, razionaltasunarena, aurrerapenarena, etab. Nazionalisten bandoan, aldiz, txarkeriak oro pilatzen dira: terrorismoa, demokrazi defizita, arrazakeria, esentzialismoa, etab.

Nazionalista espainol eta espainolizatu¹⁵⁵ hauek, beren buruak azaltzeko orduan, ez dira nazionalista gisa agertzen, zeren hauentzat, antza, nazionalista izatea zerbait negatiboa baita, arrazakeria dariokeen zerbait arriskutsua, alegia. Horregatik, beste kontzeptu aseptiko bat hartuz, konstituzionalistak direla esango dute. Harritzekoa bada ere, ez bakarrik kazetarien lumetan, formulazioetan zehaztasun akademikoa zaindu beharko luketen hainbat unibertsitate-irakasleren idatzietan ere noizbehinka aurkitzen dira horrelako bereizketa kapziosoak. Nola esan dezake Ramón Zallo katedradunak¹⁵⁶ Euskal Herriko PSOE, oinarri-oinarrian estatalista dena, aurrerazalea dela maila

¹⁵⁴ *Constitución Española aprobada por las Cortes el 31 de octubre de 1978*. Euskarazko itzulpena ere badu testu ofizial honek, baina, desagokia denez, nahiago izan dugu jatorrizkoa ematea.

¹⁵⁵ Frantses nazionalistez ere berdin-berdin ari gintezkeen, baina hemen espreski nazionalista espainolez ari gara, espainolak eta euskal espainolak baitira euskal nazionalismoaren desarrazoiaz teorizatzen gehien arduratzen direnak.

¹⁵⁶ Euskal Herriko PSOEz ari dela, hauxe dio: “... Ese sector de vascos que piensa, con toda legitimidad, en más o menos progresista en lo social y en no nacionalista o en antinacionalista en lo nacional” (“¿Una nueva tregua?”, *Gara*, 25/02/00).

sozialean eta ez-nazionalista edo antinazionalista maila nazionalean? Oraindik berrikitan Carlos Martínez Gorriaran irakasleak ere antzeko zerbait zekarren, esanez Euskal Herrian bi komunitate zeudela kontrajarriak, bata nazionalistena eta bestea ideologia desberdinez osatutako sektore zabal batena edota apolitikoena¹⁵⁷. Garai bateko internazionalistek, lotsatu egiten direlako edo —ez dakigu zuzen zergatik—, nahiago dute beren buruak “ez-nazionalista” gisa agertu. Baina Jon Juaristik, *La Razón*-en egindako elkarriketan, moztorra kendu eta aurpegia duen bezalakoa erakusteko balentria izan du: “no tengo ningún reparo en definirme como un nacionalista español de tradición republicana”¹⁵⁸. Eskertzekoak dira horrelako argitasunak. Eskertzekoak, batez ere, bere kideak desarmatuak utzi dituelako, estatalista “ez-nazionalista” horien gezurra salatzen duelako.

Arestian aipatutako Espainiako Konstituzioko 2. artikuluko horretan ezin garbiago eginga dago nazio espainolaren eta beste nazionalitate eta erregioen arteko bereizketa. Beraz estatalistak oro izan, badira nazionalistak; ez, noski, beste nazionalitateetako (Katalunia, Galizia edo Euskal Herriko) nazionalistak, baina, bai, Espainia handiko nazionalistak, hau baitute “patria común e indivisible de todos los españoles”. Beraz, espainolistak gutxien-gutxienez euskaldunak edo katalanak bezainbat nazionalista badira.

Estatu bat demokratikoa izan dadin, hori osatzen duten erakunde guztiek, nazionalak nahiz etnikoek nahiz erregionalek, beren iritzia agertu behar dute askatasun osoz, nahi badute bertan integratzeko edota, Estatu zentraletik aparte, beste formularen bat onartzeko. Zentzu honetan, nazio-arazoa ez dago zergatik planteatu derrigorrez estatu-batasunaren barruan, autore estatualistek sistemaz egin ohi duten bezala.

Hemen galdera hau da: Autonomien Estatua arautu zuen 1978ko Konstituzio espainolak gainditu al zuen defizit demokratiko hura? Garbiki esanda, ez. Hego Euskal Herriko lau probintzietan, alderdi nazionalistak eta ezkerreko alderdi estatalistak ados omen zeuden Euskal Komunitate Autonomo bakarra egiteko, baina, azkenean erabaki, euskal lurraldea bitan zatitzea erabaki zen Konstituzioan. Honen arrazoia, Jokin Apalategik dakarrenez¹⁵⁹, indar faktikoen inposaketa izan zen. Horregatik, normala zen eus-

¹⁵⁷ “Parece innegable -no digo deseable, sino real- que la sociedad vasca está dividiéndose entre una comunidad nacionalista y un amplísimo resto o conjunto de personas de ideología diversa -izquierda, conservadora, liberal- o simplemente apolítica. Este conjunto no forma propiamente una comunidad similar a la abertzale” (“¿Dos comunidades enfrentadas?”, *Diario Vasco*, 2000/03/2).

¹⁵⁸ *Gara*, 2000/05/3.

¹⁵⁹ *Sociología de una nación en movimiento*, op. cit., 134.

kal komunitateak, gehiengo batez, ez onartzea Konstituzio hori. Bistan da, askatasun objektiborik ez zela eman, oso argia da egiazko adostasunik ez zela egon, argiago oraindik euskal gizarteak baiezkorik ez ziola eman Espainiako Konstituzioari.

Demokrazi defizita, ez bakarrik euskal gizartean, espainiar gizartean ere nabaria dela nahiko agerian utzi zuen 1981eko otsailaren 23ko kolpe militarrek. Honek ezkerri gardenki jakinarazi zion ezin zirela ukitu egitura frankistak. Mezu honen sinbolo izan zen Tejero koronelaren Parlamentuko parodia hura. Hego Amerikan bezala, klase militarren esku dago klase politikoa eta bera da estatu-botereaz baliatzen dena, mehatxu nahiz bortxa bidez.

Berriro, bi milagarren urtea hastean, nazionalismo espainola biziki erasokor agertzen ari da euskal nazionalismoak Lizarra-Garaziko egitarauan nazio-erakuntzarako oinarritzako diren zutabe teorikoak —lurraldetasuna, hizkuntza eta bere buruaz erabakitzeko ahalmena—, finkatu zituenez geroztik. Hemen Espainiaren “batasun zatiezina” jartzen baita auzitan, horregatik oldartzen zaio nazionalismo espainola hain gogor euskal nazionalismoari. Baina zertan du Espainiak eskubide gehiago Euskal Herriak baino? Estatua berak bereganatu zuelako beste nazioak han sartzerara behartuz? Beude bertan nortasun espainolaren sentimendua dutenak, beren eskubidea da eta. Baina ez ditzatela beste nazionalistak haren sabelean egotera behartu, gehiengo batek nahi ez badu. Hauxe da liberalismoak erakutsi izan duen demokraziaren legea.

Oinarizko kontraesana, hauxe da: hemen Euskal Herria eta han besteak, Frantzia eta Espainia. Beti bezala. Herri desberdin batekoak izateak ez dauka ezer negatiborik, emana datorkiguna jaso eta lantzea besterik, herri libre guztien arteko batasuna desberdintasun anitzaren edukiz aberastea besterik. Hemendik, hots, elkarrenganako errespetotik hasten da egiazko solidaritatea. Elkar-errespetatzen dugun neurrian bakarrik bilakatuko da ez-beharrezko zerbait izatea tolerantziaren filosofia, zeren kontzeptu honek menpekotasunezko harremanen aurpegi maltzurra ezkutatzen baitu, beheko gajoari goitik begiratzen dion batena, tolerante urrikaria mesedeak banatzen dabilen norbait balitz bezala.

3. Euskal Estatu independentea, arazoaren gakoa

Baina bideragarria ote da Euskal Herria bezalako herri txiki baten proiektu independentista eta subiranoa gaurko Europan? Euskal Herriak estatu-boterearen beharra ote dauka bere herri-nortasuna osatzeko eta horri eusteko?

Ajurieneako Paktua bere punturik gorenean zegoen garai haietan Xabier Arzallusek harro baino harroago esandakoa da euskal independentziak ez zuela balio azak jateko ere, miseria besterik ez zigula ekarriko aukera horrek. Geroztik PNV barruan beste ahots nazionalistago batzuk ere entzun izan dira, Gipuzkoa aldean, bereziki. Baina Juan Maria Ollora arabarra izan da bakearen xedearekin bide berri baten diseinua marraztu duena argitalpen laburño bezain mamitsu baten bidez¹⁶⁰, beste arrazoen artean, ekonomiarena ere aipatuz. Hemen, 1986-1995 hamarkadako BPGn edo Barne-Produktu Gordinean emandako hazkunde-tasaren goranzko norabidean oinarrituz, egiaztatzen du euskal ekonomia, EAEkoa zein Nafarroakoa, mundualizazioaren une honetan, Europar Batasuneko Merkatu Bakarrean ekonomia espainola baino erritmo azkarragoan hazi dela eta mundu-merkatuan zein Europakoan gero eta leku gehiago egiten ari dela eta, ondorioz, Espainiako merkatu-morrontzatik urrunduz doala¹⁶¹.

Ekonomi globalizazioaren une honetan, bada, Euskal Herriak ez du Espainiako merkatuaren beharrik, nahiz historian zehar horkoari lotua egon den eta oraindik ere, hein handi batean, halaxe segitzen duen. Arazoa da, oraindik ere, ekonomia espainolean ere interes handiak dituen euskal ekonomiako sektore garrantzitsu batek —ez bakarrik oligargikoak, nazionalistak ere bai—, Espainiako Estatuan segituz hobeto zainduak ikusi bide dituela bere dibidendoak eta autonomismotik harago urratsak emateko ez bide direla prest agertzen euskal autonomista horiek. Horretantxe datza, gure ustez, Lizarra-Garaziko proiektua oztopatzen duen arrazoietakoa bat, ziurrenik nagusiena. Behin eta berriz maila teorikoan aldarrikatzen da Euskal Herriari dagokion erabaki-subjektuaren izaera, baina gero praktikan, Espainiako huteskundeak datozen bakoitzean —XXI. mende honen hasieran bezala—, Madrilen ordezkariak izateko erabakiak hartzen dira. Lizarra-Garazin Euskal Herria, Iparra eta Hegoa, da balio duena, baina erabat koiunturalki, zeren klase politiko autonomistak egiazko politika praktikatu, Euskal Herrian bezala Madrilen, bietan, praktikatzen baitu, inolako etenik eman gabe. Eta hau, abertzale askoren ustez, txapela batekin bi buru estali nahi izatea bezalatsu da. Alderantziz, Espainiarentzat behi emankorra da Euskal Herria, hala izan

¹⁶⁰ *Una vía hacia la paz*, Erein, Donostia, 1996.

¹⁶¹ “Lo que muestran estos datos para la economía de la CAPV es, de un lado, la transformación que el tejido económico ha experimentado y, de otro, la forma y la intensidad en la que se adapta a una economía sin fronteras, diversificando sus flujos de relación económica y comercial, alcanzando posicionamientos diversos en los distintos mercados y, en definitiva, disminuyendo significativamente su grado de dependencia y cautividad del mercado español” (Ibid. 93).

da, eta ez dauka inongo interesik nekez lortua —konkista bidez, alegia—, leherrenak eginarazi gabe uzteko. Zentzu honetan, erabat plastikoak gertatu dira ETAK, EAJ eta EARekin 1998ko udan izandako harremanetan gertatua azalduz, *Gara* egunkarian argitaratu dituen dokumentuak¹⁶². Hiru erakunde horiek euskal erakunde nazionala sortzea, Euskal Herriaren eraikuntzarako dinamika eta akordioak bultzatzea eta Espainiako indar politikoekin haustea eta, azkenik, menia aldarrikatzea hitzartu zuten. Orain ikasi dugunez, ez-adostasuna sortu eta etena ekarri duena, azken batean, alderdi espainolekin haustearena izan da, zeren 1998ko irailean lortutako akordio sinatu hari, atzealdean, eranskin bat ezarri baitzioten EAJ eta EAk, bertan adieraziz erakundearen egonkortasuna lortzeko beste indar batzuen partehartzea beharrezkoa ikusten zutela. Estrategia honetan aski agerian gelditzen da, beste balorazioak at, euskal nazionalista instituzionalisten joku bikoitza: hanka bat Madrilan eta bestea Gasteizen eta, guztien gainetik, gobernu autonomikoaren kontrola eskutik.

Bideragarria ote da egun proiektu subiranista? Bai. Bideragarria da euskal Estatuak, zeren egiazko baldintza objektiboak ematen baitira hala izan dadin. Baina aurrean egiturazko oztopo ikaragarriak daude proiektu hori gauzatu ahal izateko. Arestian esan bezala, euskal autonomista eta independentisten arteko politikagintza adosturako dauden zailtasun endogenoak aparte, Euskal Herriari oztoporik handienak Frantziako eta Espainiako Estatu-nazioetatik datozkio, bi horiek baiteramate hari independentziarako bideak ixteko estrategia amankomun adostua. Eta ez horiek bakarrik. Europa Batuan sartutako beste Estatu-kideak ere uztarkide dituzte zeregin horretan. Ez da pentsatu behar, gure artean nazionalismo historikoak eta beste hainbat federalistak pentsatu izan duten bezala, Euskal Herriaren subiranotasuna Europa Batuak ekarriko duenik, argudiatuz, Estatuak krisian sartuak daudenez gero, horien lekuan erregio naturalak indartuko direla. Amets zuri horretan inoiz sinetsi izan ez badugu ere, horren pisu astuna burutik kentzen ez digu gutxi lagundu Manuel Castellsen usteak, zeren honek errotik uxatzen baitu etorkizuneko Europa Batu baten proiektu federalista. Bruselan eraikitzen ari den Europa Batu hori, funtsean, superestatu bat izango da, zeinetan Europako Estatu-nazioek, modu kolektibo batez jokatzuz, hein bateko subiranotasun-maila gordeko baitute desordena global berrian eta, elkarren artean etengabe negoziatuz, beren etekinak banatuko baitituzte. Horregatik, Bruselan,

¹⁶² Argitalpen-datak, hauek dira: 2000/04/29-30; 2000/05/1-2. *Egunkaria*, 2000/04/30.

Gobernu estatalen gainera, superestatua finkatuko da informazio-aro honetan¹⁶³. Jadanik Estatu-nazioak bere subiranotasuna besteekin batera konpartitu beharrean aurkitzen dira ekonomia, ingurune eta segurtasunaren mailetan, baina,aldi berean, beren erakunde politikoetan babestuta eta horietan oinarrituz segituko dute. Manuel Castellsek dakarrenez, bederen, prozesu honek ez du ekarriko ez Estatu-nazioen indartzea, ezta desagertzea ere, haien boterearen higadura sistemikoa baizik¹⁶⁴. Oraingoz esan dezakegun guztia da, estatu-boterea lehen baino askoz barreiatuagoa aurkitzen dela sare transnacionalizatu horietan, baina desagertuko den sintomarik ez dela sumatzen.

Halere, Estatu-nazioek beren lurraldez barru nahiz kanpo bizirik segituko badute ere, hori bada aurrakusten den Europa berria, ez da ahaztu behar mugimendu nazionalistek orokorrean gora egin dutela eta Europako arazorik nagusietako bat, nola Ekialdean hala Mendebaldean, nazio-arazoari buruzkoa dela eta horri aterabide politiko egokia ematen ez zaion bitartean, ez dela bake-egoerarik ezagutuko etorkizunean, Estatu-nazio horiek, zutik iraun dezaten, gero eta maizago, gero eta basatiago jo beharko baitute bortxa erabiltzera eta gerra zikina egitera. Egungo testuinguru globalizatu honetan deskribatu dugun estatu-mota horixe bera aurrakusten dugu Euskal Herri Batuaarentzat ere, zeinetan euskal Estatu independenteak kanpora begira, maila batean, bere subiranotasun konpartitua izango bailuke beste Estatuekin batera nazioz haraindiko hainbat sektoretan, eta barrura begira, berriz, bere erakunde independenteak izango bailituzke bere autogobernurako. Zentzu honetan, globalizazioaren une honetan, askoz ere operatiboagoa zaio Euskal Herriari bere leihoak Europa aldera irikitzea, zentralismo espainolari edo frantsesari atxikirik egotea baino, bien murrizketan. Xabier Rubert de Ventos filosofo katalanak, sozialista izanda, arrazoi praktikoengatik aldeztu du independentismoa. Honen ustez, merkeago ateratzen da Estaturik gabeko herriak indartzea, Estatuak betiketzea baino. Kataluniak eta Euskal Herriak, oraingo mundializazio-egoeran, ez daukate inolako interes materialik Espainiarekin egindako hitzarmenari eusteko. Lehen zeuden baldintza objektiboak falta dira orain. Eta honen arrazoia da, berak dioenez, Estatuak egun ez direla independenteak, inter-dependenteak baizik¹⁶⁵. Azken puntu honetan

¹⁶³ "Por este motivo, en lugar del comienzo de la era de la supranacionalidad y de la gobernación local, estamos presenciando la aparición del super estado-nación, es decir, de un estado que expresa, en una geometría variable, los intereses agregados de sus miembros constituyentes" (Castells, M., II, op. cit., 296).

¹⁶⁴ *Ibid.*, 297.

¹⁶⁵ "Mi defensa de la independencia se basa en argumentos de oportunidad, de ocasión, *ad hoc*. Independencia es una palabra ante la que la gente reacciona en España y que tiene repercusión

bat datoz bi katalanak, bera eta M. Castells, alegia. Bien artean pisu handia batzen dute katalanismoaren aldeko balantzan.

4. Borroka armatuaren mamua

Beraz, Europa Batuaren eraikuntza horretan, gatazkaren ataka irekita aurkitzen da, batetik, xedetzat superestatua eraikitzea duten Estatu-nazioen eta, bestetik, botere-estatuak erregio hutsak izatera kondenaturik dauzkaten Estaturik gabeko nazio etnikoen artean. Zalantzarik gabe, nazionalismoak aro historiko berria inauguratzen du. Nahi bada eta ez bada, ordea, garaipenerako bidean abertzaleen familiak politika amankomun koherente, garden eta ekintzaile baten inguruan elkartu beste erremediorik ez du. Borroka armatuarekin, edo gabe. Euskal independentismoaren aldeko politikagintzan klase politiko nazionalistak protagonismoa hartuz doan heinean bakarrik joanen da desagertuz borroka armatuaren izateko arrazoia. Eta hauxe da, hain zuzen, erdietsi behar dena, Lizarra-Garaziko galtzada itxaropentsuan aurreratu nahi bada. Bestela, gure biloben bilobek ere bere horretan segitzeko birusa berekin izango dute.

Bide armatua ala politikoa, aukera egin beharra dagoela? Bego. Ez arrazoi gutxiagotatik, Euskal Herria ala Espainia eta Frantzia, hemen ere aukera egin beharra dago, gatazka, funtsean, alde bateko zein besteko nazionalisten artekoa baita. Baina frantses nazionalistek eta espainolistek ikaragarritzko abantaila hau dute beren alde, eta da bereak dituztela Espainiako eta Frantziako Estatuak, hauek ez baitira izaki abstraktuak eta gutxiago oraindik, ezkerreko literaturan ere irakurri ohi den bezala, aparatu neutroak. Kobentzimendu osoa dugu, etxera begira, euskal nazioa demokraziaz eta justiziaz eraikitzeko iriki berri den prozesu honetan arazorik nagusiena, ez herritarren artean, baizik klase politikoak egiazko arazoari sustraitik heldu eta erabakitzeak erakusten duen gaitasun eskasean datzala. Ez dauka inork ETAK hurrengo egunean zer egingo duen begira egon beharrik Lizarra-Garaziko

nes internacionales significativas (...) Si en algún momento existió una concepción a la vez mítica y eficaz de la soberanía que resultaba práctica para las dos otras partes, para vascos y catalanes y españoles, ésta ya no existe. Aquélla se fundaba en un pacto, un *do ut des*, un negocio, un contrato, que podría ser 'de clase', pero era un contrato. Hoy las condiciones de este pacto no existen, y por tanto, en España se apela cada vez más a las dimensiones simbólicas (a lo que España 'significa', lo que 'encarna', a su 'destino manifiesto'), ya que los motivos reales de esta unión han entrado en crisis, por el hecho, de todos conocido, de la mundialización" ("Elkarizketa", Elkarri, 54, 1999, azaroa, 25).

proiektuari zimenduak jarri eta bizkarrak elkartuz gora altxatzeko. Egungo koiuntura honetan ez dugu bide horretan saiatu beste alternatibarik ikusten. Lizarra-Garaziren geroa alternatiba horretantxe erabakitzen da. Alderdi estatalekin lankidetzan hainbeste urte egin eta gero, esateko moduan ia kolpetik, dibortzioan pentsatze hutsak zer pentsaturik ematen du.

5. Etikarik gabeko gizartea?

Ideologia teknoliberalaren ezaugarri nabarmenetako bat, hain zuzen, etika politikagintzatik eta, orokorrean, gizarte-jardueratik erabat banatzea da. Weberiar tradizioak irrazionaltasunaren kategorian kokatu zuen baloreen mundua eta geroztik ikuspegi honek sekulako eragina izan du pentsamendu sekularatuan. Ikusi besterik ez dago Manuel Castellsen bigarren liburukia, zeinetan zehazki politika informazionalan ematen diren eskandaluez ari baita aski luze, baina inoiz etikaren izenik aipatu gabe. Azterketa soziologiko guztia, hasi eta buka, gertakariak deskribatzera eta zergatik gertatzen diren azaltzera mugatzen da, ezin balorazio etikorik egin gabe.

Gizarteko harremanak faktualismo teknikoaren arabera gauzatzen diren egungo gizarte-funtzionamenduan, bi elementu berri nabarmendu dira: lehenena da, informazioak agintzen duela eta, hau gutxi batzuen esku egotean, talde kudeatzailearen gestioa kontrolagaitza gertatzen dela; bigarrena da, azken xedetzat utilitarismoa ezartzean, arrazoi etikoek ez dutela balio izaten erabakiak hartzeko orduan. Dena da posible, zuzena dena zein ez dena. Zuzenbideko diziplinan, halaber, kausak oro dira defendagarriak. Hau da irakasten dena. Jakina, horrelako egoera akademiko eta profesional batean, dena da erlatiboa, baldin lortu nahi dena teknikoki eraginkorra, hots, arrazoizkoa bada, kausa handietarako balio badu. Gaurko gizarte-mekanismo informazionalak horretarako bide ematen du eta hori guztia errealismo eta faktualismoan sartzen da. Besterik gabe. Ustelkeriaren ondorioak jasaten dituzten subjektuen mina eta zapalkuntza kontuan hartu gabe. Ustelkeria — hala dio Manuel Castellsek—, historian betidanik eman izan den zerbait da. Gertatzen dena, zera da: orain, laugarren boterea deitzen dion informazioaren aro honetan, lehen Estatuak ezkutuan gordetzen zituenak, orain komunikabide espezializatuek ikertu eta kaleratu egiten dituztela, informazioa saldu egiten dela, eta hau guztia talde kontrajarrien komenientziara.

Eskandaluak, berez, ez du hegi etikorik. Aldiz, erlijioetan baloreek duten garrantzia alde batera utzita, askapen-mota desberdinetako herri-mugimendu guztietan balore jakinen bat egoten da berorien izateko arrazoi funtsatzen

duena. Pentsamendu marxiarrean, adibidez, gizarte osoaren eta horren barruan gizaki bakoitzaren askatasuna da azken helburua. Iraultza marxistak klasearteko zapalkuntzan oinarritutako gizarte kapitalista errotik eraldatzea du jokabide eta ez soilki gizarte-errealitateaz azalpenak ematea. Gizarte-mugimenduen filosofian, azken batean, zapalkuntza-egoerari buelta eman eta berdintasunetik berdintasunerako gizarte-harremanak ezartzea aurkitzen da. Horregatik, gauza bat da errealismoak agintzen duena eta beste bat horren aurrean indiferentismoa aldarrikatzea, argumentatuz baloreak eta idealak ez direla sartzen arrazoiaren erresuman. Bere lekuan esan dugu, eskola jakin bati dagokion ikuspegi partikularra dela hori, ez inolaz ere axioma ebidente bat.

6. Euskal hezkuntza nazionalaren eraikuntza

Hezkuntza-sistema nazionalak Estatu-nazioek eraikitakoak izan dira. Jadanik aski ondo ikertuak daude nolakoak izan diren eskola-sistemaren eta Estatu-nazioen arteko harremanak hezkuntza konparatiboaren sailean¹⁶⁶. Francisco O. Ramirez eta John Boli egileek, Prusia, Austria, Danimarka, Suedia, Italia, Frantzia eta Ingalaterrako adibideak hartuz, Europako Estatuak XVIII. eta XIX. mendeetan beren hezkuntza-sistemak nola eratu zituzten eta irakaskuntza masiboaren erakundetzea nola egin zuten aztertzen dute¹⁶⁷. Autore hauek dakartenez, hezkuntza-sistemaren europar ereduak jarraiko bost mito hauek ditu zimentarriztat: 1) gizabanakoaren mitoa; 2) nazioaren mitoa, hau gizabanakoez osatutako gizarte gisa hartuta; 3) aurrerapen (nazional edo indibidualaren) mitoa; 4) haurrak gizarteratzearen mitoa, eskola gazteen heldutasuna lortzeko tresna gisa hartuz; 5) Estatuaren mitoa, hau nazioaren zaindari eta aurrerapenaren berme gisa hartuta. Mito hauen gainean dator legitimatua eskola-sistema¹⁶⁸. John W. Meyer, David Tyack, Joane Nagel eta Audri Gordon egileek¹⁶⁹, berriz, Estatu Batuetako kasua aztertzen dute, han hezkuntza publikoa nola eraikia izan den den azalduz. Hiri-industrigintzak eraginda sortzen da, 1870-1930 epealdian zehar, protestanteek eta errepublikarrek sustatuta. Hemen

¹⁶⁶ Ramirez, Francisco O.; Meyer, John W., "Comparative Education: The Social Construction of the Modern World System", *Ann. Rev. Sociol.*, 6, 1980, 369-399.

¹⁶⁷ "The political construction of mass schooling: European origins and worldwide institutionalization", *Sociology of Education*, vol. 60, 1987, January, 2-7.

¹⁶⁸ *Ibid.*, 19.

¹⁶⁹ "Public Education as Nation-Building in America: Enrollments and Bureaucratization in the American States, 1870-1930", *American Journal of Sociology*, vol. 85, 3 zk., 591-613.

ere, European bezala, hezkuntza-sistemaren antolaketa nazio-eraikuntza gisa gogoematen da. Abran de Swaanekek dioen bezala¹⁷⁰, Estatuia bera da bere hezkuntza-sistema sortu eta hedatzen duena eta Estatuak, hain zuzen ere, gehienbat eskolaren bidez lortuko du hizkuntz uniformetasuna. Beraz, hezkuntza-sistemaren ondoan, botere eraikitzaile gisa, Estatuia aurkitzen da.

Berrikitan, Iñaki Zabaleta Imaz pedagogi irakasleak sakontasunez aztertu du arazo hauxe bera, bere doktoretzako tesian, baina euskal kasura aplikatuta¹⁷¹. Bertan, lehen zatian, errepasso historiko zehatza dakar Frantzia eta Espainiako hezkuntza-sistemez. Garrantzitsua da Estatu nazioaskodun hauek beren irakaskuntza sistema nola sortu, zabaldu eta sistematizatu zuten hurbi-letik ezagutzea, azken batean, Euskal Herrikoa horien baitan txertaturik gelditu baita. Baina bere aztergaiaren oinarritzko galdera, beste hau da, guri hemen gehien interesatzen zaiguna, hain zuzen: euskal nazionalismo historikoak, bere nazio-proiektuaren barruan, inoiz egin al zuen hezkuntza-sistemari buruzko plangintza nazionalik? Dokumentu-iturritzat 1895-1923 epealdiko aldizkariak eta egunkariak hartuta, ezezkoa da ateratzen duen ondorioa. Bukaeran dioen bezala, euskal nazionalismoak lehen mailako euskal irakaskuntzaren berrikuntza estatu-sistema nazionalaren barruan planteatu izan du. Posibilismoaren bidetik ibili izan da: “Alde horretatik, gure lanaren ondorioa argia da: euskal nazionalismoak paper posibilista nabarmena jokatu du, oinarritzko irakaskuntza eta irakaslegoari zuzenduriko kritiken artean mugituko delarik bereziki, baina hezkuntza-sistema nazionala definitzera iritsi gabe, nahiz eta hori izan askotan adierazten dena; hots, euskal hezkuntza-sistema nazionala helburutzat izan baino hezkuntza-sistema espainiarraren adar berezia sortzea izango du helburu lehenengo euskal nazionalismoak. Egoera honek ez du baztertuko indarrean dagoen hezkuntza-sistema horrekiko jarrera gogorra. Euskal nazionalismoaren korpus ideologikoaren barruan nabarmena da hezkuntzak bere lekua izan baduena, baina beti ere ideologiaren ezaugarrien menpe”¹⁷².

Iñaki Zabaletak formulatutako tesi horretan oinarritu eta gero, argumetuen aldetik hornituagoak gaude aurreratzeko orain indarrean daukagun euskal irakaskuntza osoa botere autonomikoari dagokiona dela eta berori, gainera, lurraldez eta administrazioz zatitua dagoela eta, hala daudenez gero,

¹⁷⁰ *A cargo del Estado*, Ediciones Pomares-Corredor, 1992, 68-140.

¹⁷¹ *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, EHU, Donostia, 1997. Gai honi buruzko azalpen laburtua ukan nahi duenak, irakur dezake egile beraren beste artikulua hau: “Nazionalismoa eta hezkuntza”, *Taniak*, 21, 1999ko maiatza, 59-81.

¹⁷² *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, op. cit., 395.

oraindik ez daukagula euskal curriculum propiorik diseinatuta. Euskal curriculumaz badira lan batzuk eginak eta beste tesi-lan batzuk martxan daudenak, zeinetan euskal curriculum espezifikoko baten defizita planteatzen baita, bereziki irakas-materialetan nabarmentzen dena, baita ikasleetan erabiltzen direnetan ere.

Euskal irakaskuntzak bere curriculum oso eta beteak izan dezan, Euskal Herritik eta euskaratik pentsatu eta eginak izan beharko luke. Honek jarraiko bi elementu hauek bederen inplikatzeko ditu: lehenik, gizarte-tresna gisa, euskal hezkuntzari izaera nazionala ematea eta horrela egituratzea, eta bigarrenik, berori lortzeko, euskal etorkizuna nazio-proiektu integratzaile baten ikuspuntutik begiraturik, hezkuntza-sistema nazionalaren eraikuntza euskal Estatuaren lorbidean planteatzea. Historiak erakutsi eta erakusten jarraitzen duenez, estatu-botere gabe ez da posible hezkuntza-sistema nazionalik sortzea. Beraz, ez da nahikoa eraikuntza ekonomikoan bakarrik edo nagusiki pentsatzea; aldi berean eta, gure ustez, oraindik gehiago —itzaltzearen dagoena euskal nortasuna baita—, euskal kulturaren eta hezkuntza nazionalaren eraikuntza ere bide horretatik joanda bakarrik ikusten dugu egingarri. Euskarak eta euskal kulturak etorkizunik izango badute, gutxienezko estatu-botere horren babesean bakarrik izango dute. Mundu abertzaleak ez badu tesi hau onartu eta beretzen, sekulako iraultzak eta aldaketak euskal nortasunik gabeko euskal gizarte hipotetiko batean planteatzeko arriskua dago. Hutsaren gainean.

VII

AUTODETERMINATZEKO ESKUBIDEA ETA EUSKAL HERRIA

Euskal Herriaren nazio-proiektua bideragarria baldin bada, zer behar da proiektu hori praktikara eramateko? Galdera honek zuzenean autodeterminatzeko eskubideari buruzko gaia harrotzea eskatzen du. Konstituzionalistek esaten dute Estatuak, kasu honetan espainola eta frantsesa, dela eskubide horren jabe edo subjektua; nazionalistek, aldiz, Euskal Herriari berari aitortzen diote eskubide hori Lizarra-Garaziko hitzarmenean. Baina ikus dezagun nolakoa izan den kontzeptu horren bilakaera historikoa, mugitua bezain nahasia izan baita. Egun oso indarrean dagoenez, komeni zaigu zerbait argitzea.

Joxerramon Bengoetxeak¹⁷³, Europar Batasuneko Auzitegiko Letratuak, autodeterminatzeko eskubidearen kontzeptuan lau elementu agertzen direla esaten zuen: hots, taldea, taldearen erabakia, etorkizunaz erabakitzea eta horretarako eskubidea. Autore honentzat, beti ere maila filosofikoan hitz eginda, ez dago batere argi zer den taldea edo gizartea. Erakundeak, Estatuak, talde politikoa, enpresa eta horrelakoak, adibidez, defini daitezke, baina ez hain erraz gizartea. Ez dakigu, beraz, euskal gizartea zer den edo zer izan litekeen. Oraindik are zailagoa iruditzen zaio taldearen erabakitze borondatea edo gaitasuna definitzea, borondate hori pertsonala izaten delako eta, ondorioz, talde kolektiboen nahia fikzio bat omen delako. Etorkizunaz erabakitzeak, berriz, alferrikako ahalegina dirudi, inkognita gehiegi omen dagoela-

¹⁷³ "Autodeterminazio eskubideari buruz", *Egunkaria*, 1996/09/22, 4.

ko jokoan. Azkenik, eskubidea baden ala ez, arazo hau, galdera zuzentzen zaion herriak baino argiago —hemen askatasun pertsonalak ematen baitira—, Zuzenbidezko Estatu konstituzionalak eta nazioartekoak jasotzen dute. Hauek zehazten dute noiz, nola eta zeini aitortzen zaion. Hemen kokatzen ditu autodeterminatzeko eskubideaz historian zehar eman diren jarrera deberdinak.

Jurista honen iritziz, bada, arazo honen planteamendu zuzen eta egokia, inora ez garamazkeen gogoeta sasifilosofikoetan galduta ibili nahi ez badugu bederen, zuzenbide-mailan bakarrik planteatu daiteke, abiapuntutzat gaur egun indarrean dauden Estatu barruko zein kanpoko erakunde politikoek finkatuta daukatena hartuz eta onartuz. Jakina, ikuspegi positibista honetatik begiratzen bada autodeterminatzeko eskubidea, honen subjektua ezin izan daiteke legea besterik, Konstituzioa, alegia, beronek mugatzen baititu erakundeak. Euskal Herririk ez da, dauden subjektu bakarrak bertako hiritarrak dira eta hauen borondatea ordezkatzeko erakunde politiko-sindikalak. Hauek lortutako akordio politikoan datza gakoa. Aterabide bakarra, beraz, gehiago sendo baten adostasuna lortzea da.

Beste urrats bat aurrera emanda, esan behar da, herri bakoitzak bere etorkizunaz erabakitzeke duen eskubidearen gainean, batetik, kontzeptu horri buruz eboluziorik eman dela eta, bestetik, koiuntura eta ideologia desberdinen arabera, formulazio teorikoak eta praktikoak ez direla beti paraleloan joan. Beraz, aro bat baino gehiago bereizten dira. Hemen autodeterminatzeko eskubideaz ari gara, baita berak baino lehentxeago xede beretsuak aldarikatu zituen nazionalitatearen printzipioaz ere.

Baina goazen poliki-poliki, autodeterminazioaren inguruan eraikia den diskurtsoa ia dena baita labainkorra. Testu desberdinen anbiguotasunak, zenbait kasutan, interpretazio desberdinetarako bide objektiboen aurrean jartzen gaituzte. Juristek formulazio jakinetan elementu juridikoak —egiazkoak— eta politikoak —interesatuak— bereizten dituzte. Bereizita ere, puntu guztiak argitzeke dauden sentipenarekin gelditzen gara askotan. Geure azalpenean ahalik eta zehatzen izan gaitezen, autodeterminatzeko eskubidearen ibilbide historikoa egingo dugu, kontzeptuak bere testuinguru sozio-historikoan azalduz. Bukatzeko, testuetako pasarte kontraesankorrak areago argitzeke, ONU edo NBERen (Nazio Batuen Erakundearen) jokabidea aztertuko da, hemen gaiaren alderdi teorikoa praxi politikoaren ikuspegitik aztertuz. Juristek kontraesanak eta nahasketak elementu juridikoa politikoari kontrajarriz argitzen saiatzen diren bezalatsu.

Autodeterminatzeko eskubidearen karian egin den politikagintza arotan sailkatzeko eginkizuna batere sinplea ez bada ere, nazioarteko gertakari poli-

tiko eta korronte ideologiko garrantzitsuenen ildoak nondik nora joan diren ikusita, *grosso modo*, bost aro nagusi bezala ikusten ditugu. Horien finkapenerako irizpideak, besteak beste, iraultza handiak, mundu-gerrak, nazioarteko erakundeen sorrera, mugimendu nazionalista eta kolonialisten askapen-mugimenduak, eta horrelakoak izango dira. Zentzu honetan, Frantziako Iraultza burgesa, Errusiako Iraultza sozialista, Lehen Mundu-Gerra, NBeren sorrera eta SESBren (Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren) erortzea ezartzen ditugu aro bakoitzaren erreferentzi puntu gisa.

1. Nazionalitateen printzipioa: eredu liberala

Autodeterminatzeko printzipioaren lehen formulazio inplizituak Frantziako Iraultzan aurkitzen dira. Alsasiako arazoa 1790eko Batzar Erakitzailan eztabaidatu baitzen, Grégoire abatak nazio-eskubidearen aldarrikapenari buruzko proiektu bat prestatu zuen, 1795eko Konbentzioan aurkeztua izan zedin, eta hortxe du bere jatorria printzipio horrek, zeinaren arabera Estatu bati nazio bat baitagokio. Nola Frantziak bazuen bere Estaturua, baina ez nazioa, hari zegokion hau sortzea. Horregatik Frantziako Estatu-nazioaren eredura eraikitzen diren nazioak, izan, politikoak izango dira, ez kulturalak. Baina, printzipio honen arabera, teoriaz bederen, edozein nazio kulturalak, edozein nazionalitatek du bere antolaketa politiko propioa izateko eskubidea. Printzipio hau egitate objektibo batean, hots, nazio baten existentzian oinarritzen da. Nazio kulturala da¹⁷⁴, subjektu kolektiboa funtsatzen duena.

Praktikan, ordea, formulazio esplizitua egin, hurrengo mendean egingo da, XIX.eko bigarren menderdian, nazionalitateen printzipioa aldarrikatuko denean. Une honetan, europar geografiaren luze-zabalean mugimendu nazionalak gogotik hasten dira indartzen, ez gutxi Frantziako armadak, Napoleone III.aren gidaritzapean, ereindako subiranotasun nazionalaren eredu-argira. Praktika politikoa, ordea, mugimendu honek bi norabide hartuko ditu. Honela, alde batetik, herri batzuentzat printzipio hori atzerriko Estaturen menpekotasunetik askatzeko bide bat izango da. Zentzu honetan, Greziaren independentzia izanen da horren adibiderik nabarmenena, zeinek, Britainia Handia, Frantzia eta Errusiaren babespekoa izateari utzi eta, bere Estatu inde-

¹⁷⁴ Blas Guerrero, Andres, "Del Estado nacional a la organización internacional", in García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J.L.: *Introducción a la ciencia política*, op. cit., 1994, 466.

pendentea lortzen baitu 1930ean. Geroago haren bideari segituko diote egoe-ra beretsuan aurkitzen ziren serbiarrek, errumaniarrek, bulgariarrek, hungariarrek, txekiarrek eta poloniarrek, baina hauetako gehienek, Bulgariaren (1908) antzeko kasuren bat edo beste salbu, Lehen Mundu-Gerraren testuinguruan baizik ez dute lortuko beren independentzia. Nazio hauek guztiak menpean zeuzkaten atzerriko Estatuetatik askatuz beretzen dituzte beren Estatu independenteak. Beste aldetik, berriz, etni komunitate berekoak izanda, Estatu desberdinetan banaturik zeuden Estatu eta Printzerri independenteak aurkitzen dira eta hauek nazio berekoak Estatu bakarrera elkartzeko xedearekin erabiliko dute nazionalitateen printzipio hori. Honela eratzen da Italiako Erresuma 1870ean, Estatu pontifikalak konkistatu eta gero eta, orobat, Alemaniako Inperioa hurrengo urtean (1871), hau Prusiak Frantzia menpean hartu eta gero. Aipatutako bi estatu-osaketa horien arabera gauzatzen da XIX. mendean nazionalitateen printzipioa¹⁷⁵.

Nazionalitatearen printzipioa bi modutara aplikatzen bada ere, esan dezakegu, funtsean, osagarriak gertatzen direla eredu biak, zeren, frantziar kasuan ez bezala, horien Estatua nazio kulturealean oinarritzen baita. Halere, horietako gehienak beren barne-eraketari dagokionez, Estatu-nazioak, Nazio-estatuak eta Estatu nazioaskodunak ditugu, hots, proportzio handiagoan edo txikiagoan, nazio bat baino gehiagoz osaturik daude-nak dira¹⁷⁶. Beraz, beste nonbait esana daukagunez, Portugal, Irlada edo Islandia kenduta, Europan ez da ematen nazio bakarreko Estaturik¹⁷⁷.

Egun Europak duen estatu-egitura Lehen Mundu-Gerra bukatzean bote-re hegemonikoek egindako lurralde-zatiketari dagokiona da. Gerra ondotik Inperio handiak (Alemaniakoa, Austria-Hungariakoa, Errusiakoa eta Otomandar dinastiakoa) desegin zirenean¹⁷⁸, orduan sortu ziren zenbait Estatu berri Mendebaldean, baita Ekialdean ere, hemen, zehazki hauek:

¹⁷⁵ Obieta Chalbaud, J. A., op. cit., 25-27.

¹⁷⁶ G. P. Nielssonek lantzen duen tipologian, Estatu-nazioak dira Estatu bateko populazioaren % 90 baino gehiago nazio batekoa denean; Nazio-estatuak, nazio berekoen kopuru-proportzioa % 49-90 bitartekoa denean; Estatu nazioaskoduna, nazio hegemonikoaren populazioa % 40 baino apalagoa denean. Lehen multzoan aurkitzen dira gehienak, guztira 31; bigarren, 19 eta hirugarren, 2 bakarrik, Jugoslavia ohia eta Belgika ("Sobre los conceptos de etnicidad y estado", in Pérez-Agote, A. (ed.): *Sociología del nacionalismo*, op. cit., 215). Autore honek Espainia lehen multzoan kokatzen du eta Frantzia, berriz, bigarren. Ez dakigu zein irizpidez baliatu den horretarako, zeren, Espainiari dagokionez, adibidez, baldin hiztegiaren begiratan bada, komunitate etnolinguistiko espainola osatzen dutenak % 72,3 besterik ez baitira.

¹⁷⁷ Obieta Chalbaud, J. A., op. cit., 49.

¹⁷⁸ Davies, N., op. cit., 1.268.

Turkia, Armenia, Austria, Azerbaijan, Bielorrusia, Finlandia, Estonia, Georgia, Letonia, Lituania, Hungaria, Polonia, Jugoslavia eta Ukrainakoa.

Halere, Sobietar Batasuna bere Iraultza sozialista burutzen ari baitzen aldi horretan, kanpo-harremanak behartuta, barrura begira neurri bereziak hartzera behartua egon zen eta, zentzu honetan, autodeterminatzeko eskubidea aplikatzeko unean arrazoi koiunturalek agindu zuten. Beraz, bereiz aztertu beharrekoak direlakoan gaude Ekialdeko sozialisten erueda eta Mendebaldeko liberalena, ez baitira berdintzekoak Leninen eta Wilsonen paradigma politikoak, ez taktikaren eta ez estrategiaren aldetik. Honen froga da, Lehen Mundu-Gerrako haize-bolada zerbait urrundu zenean, Errusiak berehalak bere batasunera biltzen ahalegindu zela orduan subiranotasuna lortu zuten herrialdeak.

Marxistek autodeterminatzeko eskubideaz zer pentsatu zuten zehatzago jarraian ikusiko dugu, horiengan bereizi beharra baitago eskubide horretaz egiten duten aldarrikapen formala eta horren aplikazioa.

2. Autoderminatzeko eskubidea Europako Ekialdean: eredu marxista

Ekialdeko partean, herri zapalduen esnatzea geroago, 1870-1924 epealdian ematen da eta iraultza marxistari tokatzen zaio orain aterabideak ematea. Langileriaren helburu espezifikokoak —bakarrak—, eta nazionalistak —hauek burgesiari dagozkionak—, nola ezkondu, hau da planteatzen zaien arazoa. Nazionalismoa burgesiak asmatua den arren, herriek duten autodeterminatzeko eskubidea eskubide demokratikoetan oinarritzen baita, printzipio hori nolabait salbatu beharra dago. Nola?

Napoleon III.ak “nazionalitateen printzipioa” Europan zehar barreiatzen zuen garai berean, Karl Marxek idatzia zeukan “nazio orok zeukala autodeterminatzeko eskubidea” eta, orobat, Frederik Engelsek printzipio hori Lehen Internazionalerako testuan sartu zuen, ez horren aldekoak zirelako, propaganda-arrazoiengatik baizik. Autodeterminazioaz modu serioago batez arduratuko zena, ordea, Lenin izango da. Honek 1914an idatzitako testua, “Herrien autodeterminatzeko eskubideaz” izenekoa, dugu literatura marxistan ezagunena eta erabiliena, zeinaren helburua baita “nazionalitate arrotzeko taldeetatik Estatu gisa bereiztea, hau da, Estatu nazional independenteak sortzea”¹⁷⁹.

¹⁷⁹ “Sobre el derecho de las naciones a la autodeterminación”, in *Obras Escogidas*, I, Moscú, Progreso, 1970, 618-619.

Lenin inor gutxi bezala ohartzen da mugimendu nazionalen uhina goraka doala, Ekialdean bereziki, eta zerbait egin beharra sumatzen du. Arazo honetaz teorizatzeko orduan, egia esan, oso kontuan hartzen ditu garai hartako teoriarari marxisten artean dauden joera kontrajarriak eta bera, ahal dela, erdipuntua bilatzen ahalegintzen da. Alde batetik, Kautsky eta Rosa Luxemburgetekin batera, internazionalista deklaratzeko da, Estatu zentralista eta alderdi bakar baten aldekoa, iraultzaren zutabetzat klasearteko borroka jarriz. Beste aldetik, Bauerren ekarpen teorikoak eta Austria-Hungariako esperientzia kontuan hartuz, nazionalitate asko dauzkan Inperio handi batean, Errusian kasurako, nazionalismoak duen indar handiaz jabetuz, iraultza sozialistak mugimendu hori bereganatu egin behar duela pentsatzen du. Stalinek kezka aditzera ematen zuen bezala, sobietek 1918an sortutako Errusiako Estatu Federalaren (RSPSR) barruan hogeita bi nazionalitate gora zeuden aterabide praktikoen baten eske¹⁸⁰. Zalantzarik gabe, nazio-arazoak hemen pisu demografiko izugarria zeukan, zeren Konfederazioa osatzen zuten 140 milioi biztanletatik 65 baitziren aterabide nazionalaren habetik zintzilika zeudenak¹⁸¹, hots, nazio-izaera berezia zutenak¹⁸², hauen artean Ukraina, Transkaukasia, Siberia, Turkestan, etab.

Normala zen, bada, arazo gordin horren aurrean erantzun egoki baten bila hastea, baina beti ere pentsatuz, langileriak boterea hartuz gero, nazionalismoaren ekinga zuela berea, ez zela aurrerantzean ezein nazio-arazorik izanen. Baina orain, nahi ala ez, hortxe daude indar nazionalistak eta hauei lekua egin behar zaie langile-kausa orokorren barruan. Hauxe da Leninek testu hori idaztean aurrean daukan testuingurua: hots, 1913-1917 epealdiko hura, alegia, Errusiako Iraultzaren aurrekoa.

Leninen nazionalismoarekiko jarrera beti izango da matizaturik, beti testuinguru hurbilak baldintzatuta, beti erlatiboa. Nazionalismo burgesaren praktikotasunari, langileriak printzipioen politika kontrajarriko dio. Bestela esanda: nazionalismoak nolako interesak defendatzen dituen, halakoxea izango da langileriaren erantzuna ere. Beti baldintzatuta, beraz. Langileriari neutraltasuna dagokio. Artean, 1913an, formula federalistaren kontrako jarrera du, antolaketa politiko honek ekonomiazko integrazioa eta zentralismo demokratikoa makaltzen dituela pentsatzen baitu.

Halere, hurrengo urtean, aipatutako lan horretan bertan, alde batetik, autodeterminatzeko eskubidea, hau eskubide demokratiko bat den aldetik,

¹⁸⁰ "X Congrès du P.C.R." (1921-1923), *Oeuvres de J. Staline*, V, 1950, 44.

¹⁸¹ "Les tâches immédiates du P.C.R.", *ibid.*, 30, 125.

¹⁸² "Contre le fédéralisme" (1917), III, *ibid.*, 32.

onartu beharrekoa dela dio, banantzeraino onartu beharrekoa; beste aldetik, berriz, Estatuaren bakartasuna eta batasuna defendatzen ditu. Ahoan bi mingain bezala zaizkio Lenini zentralismo demokratikoa eta autodeterminazioa. Berak dibortziatzeko eskubidearekin konparatzen du autodeterminatzekoa. Ezin da ez onartu dibortzioa, horretarako eskubidea dago eta; baina ez da gomendagarria. Esan nahi baita, bera ez dela printzipioa aplikatzearen aldekoa agertzen.

Gertatzez, bada, Sobiet Batasunean, politika bikoitza eramaten da: eskubidea juridikoki onartzen da, bai, baina praktikan ez da aplikatzen utziko. Honela, boltxebikeek boterea lortzen dutenean 1917ko azaroaren 15ean, Errusiako herri-eskubideen aldeko Agiria argitaratzen da, eta hor datorrenez, Errusiako herri guztiek dute, izan, beren etorkizunaz erabakia hartzeko eskubidea, nahi izanez gero, baita errusiar Inperiotik banantzekoa ere. Zenbait naziok, Baltikokoek (Estoniak, Letoniak, Lituaniak), Poloniak, Finlandiak, Azerbaijanek, Armeniak, Bieloerrusiak, Khiva eta Bukharak, Georgia eta Ukrainak ere bai, 1918an lortzen dute beren independentzia, baina ez sobietek gozo-gozo emanda, Brest-Litowsko tratatuari esker baizik¹⁸³, halabeharrez, Lehen Mundu-Gerrak mugimendu nazionalista batzuen alde irekitako koiunturaz baliatuz. Errusiako Konstituzioan arautua bazegoen ere eskubide hori, praktikan boltxebikeen boterea ez zegoen prest inori emateko. Errusiako Sobieten X. Batzarraren ondotik, 1922ko abenduan, SESB (Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna) gobernu-era antolazen da, zeinek Estatu bakar baten pean zenbait Errepublika batzea suposatzen baitu. Handik hiru hilabetera, beste gainerako Errepublika guztiak bereganatuko ditu Errusiako Estatuak, horien artean gerra-garaikoan beren independentzia erdietsi zuten Armenia, Azerbaijan eta Georgia ere bai, azken hauek militar-ki hartuz, Stalinen agindura eta Leninen adostasunarekin.

Beraz, eta laburtuz, autodeterminatzeko eskubidea jarraiko bi kasu haue-tan bakarrik aplika daiteke tradizio marxistan: hots, Sobietar Batasunean eta koloni herrialdeetan. Hastapenean, iraultza sozialista jadanik bideratua dagoen Errusian bertan aplikatzeko asmoarekin formulatzen da, Inperio

¹⁸³ Errusiarrek, 1917ko urriko Iraultza bukatu bezain laster, Lehen Mundu-Gerrari bukaera emateko erabakia hartua zeukaten eta Ententeko beren partaideei (Britania Handia eta Frantziari) egin zieten bake-proposamena, ordainetan ezer eskatu gabe. Hauek ez baitzieten onartu, sobietar Gobernuak Alemaniarekin jarri zen harremanetan eta azkenean, 1918ko martxoaren 3an, bake-tratatua izenpetu zuten Bresten (Polonian) Errusiak eta Inperio zentralak, hots, Alemaniak, Austria-Hungariak eta Bulgariak. Hemen hartutako akordioak abolitu egin zituen 1918ko armistizioak eta, halaber, Versaillesko tratatuak.

erraldoi honetan, bere izaera plurinazionalarengatik, nazio-arazoak pil-pilean aurkitzen baitziren eta taktika egokitzat jotzen baitzuen Lenin buruzagiak nazio-mugimendu horiek iraultza sozialistaren estrategiara biltzea. Auto-determinatzeko eskubidea aplikatua izateko ordua etorriko denean, ordea, ahaleginak egingo dituzte haren erabilera eragozten. Eta horretarako, behar izanez gero, barruko mugimendu nazionalisten asmo independentistak armaz itoko dira, orain Txetxenian bezala. Haren aldarrikapenerako gelditzen den aplikazio-leku bakarra, beraz, koloniak dira. Gertatzez, kolonialak edo erdi-kolonialak diren herrialdeetan aldarrikatuko dute komunistek eskubide hori, eta hauetan bakarrik, lurralde horietan Estatu kolonialista eta bertako horien ordezkoen kontra arituz isilpeko borrokan. Kolonietan, bai, jokabide iraultzailetzat hartzen da metropoliko Estatutik banantzeko eskubidea, bestela jokatzea inperialisten jokoa egitea izango bailitzateke¹⁸⁴.

Oro har, marxisten jokabidea garbiki taktikoa da, ez estrategikoa; eta koloni herrialdeetan eskubide honek xede estrategikoa jokatzen badu, horietan boterea Estatu inperialistek dutelako da. Baina puntu hau hobeto agertuko da sobietek NBEren baitan zer-nolako jarrera duten aztertzerakoan. Baina ez ohar-pare bat egin gabe.

Askotan, erregimen komunisten bertuteak ebidentzien kontra ere defendatu nahi izan direnean, batez ere, politika leninistaren merituak goraiatzeko eta, aldiz, erroreak stalinismoari egozteko joera nabarmendu izan da. Gorbatxovek ere halaxe egin zuen berrikuntzari ekin zionean. Baina biek berdintsu pentsatzen zuten nazio-arazoari buruz eta, politikagintzan batera aritu ziren garaian, Stalin Leninen lankide kualifikatu bat besterik ez zen izan. Bien arteko diferentzia nazio-arazoen gainean honetan legoke: Lenin iraultzaile internazionalista zela, mundu guztiko langileen iraultzan sinesten zuena, eta Stalin, aldiz, errusiar patriota, iraultza sozialista, Mendebaldearekin kontatu gabe, sobietar Estatutik abiatuta egin zitekeela pentsatu izan zuena¹⁸⁵.

Ekialdean, Txina eta Vietnamgo iraultzetan, hango buruzagi eta ideologok, Maok bereziki, bertako kultur tradizioa eta koloni egoera kontuan hartuta, nazionalismo iraultzailearen berrirakurketa berezia egingo dute, zenbait puntutan leninismotik desberdintzen dena. Nolabait esateko, interklasista den

¹⁸⁴ Stalin, J.: "Le VII Congrès du P.C.R.," in *Oeuvres de J. Staline*, V, Paris, Ed. Sociales, 1923, 433.

¹⁸⁵ Viúdez Navajo, Juan, "Los nacionalismos soviéticos en perspectiva histórica", *Cuadernos del Este*, 9, Editorial Complutense, 1993, 66.

aldetik, nazionalistagoa da, zeren, atzerriko indar okupatzaileen kontrako herri-borrokari burgesia nazionalari leku egiten baitzaio. Frontismoaren alderdi hauxe da, hain zuzen, ezker abertzaleko ideologo batzuek beretzen dutena marxista internazionalisten kontra arrazoitzaerakoan. Baina oso desbideratuak zebiltzan —eta dabilta oraindik batzuk—, zeren ez Lenin baitzen Stalin baino nazionalistagoa, ezta Mao Lenin baino. Iraultzak iraultza, Txinako nazioak Errusian bezain menperatuak egon dira eta halaxe dira. Autodeterminatzeko eskubideak bietan huts egiten du.

3. Versaillesko Ituna: Wilsonen “self-government” ereduak

Printzipio honen aplikazioa Lehen Mundu-Gerrari bukaera emango dion Versaillesko tratatuan gautzen da. Printzipio honen sorrerak oso bestelako testuingurua du, gainbegiratu bederen azaldu beharrekoa, zeren, nahiz eta Versaillesko ereduak ez daukan ezer ikustekorik Errusiako Iraultza sozialistatik erabilitako printzipioarekin, Europako Ekialdeko zein Mendebaldeko gertakari politikoak nahasturik datozen aldetik, hangoa bezala hemengoa ere bere testuinguruan esplizitatu beharra dago.

Izan ere, Lehen Mundu-Gerra (1914-1918), funtsean, inperialismoaren arteko gerra izango da, eta berori eragiten duten faktoreen artean, ez bakarrik arazo nazionalak (lurralde-mugei buruzkoak), baita eta, bereziki, ekonomikoak ere egongo dira; biak nahasian. Gerra honek, Europako potentzia handiak jartzen ditu buruz buru: Errusia, Frantzia, Ingalaterra, Serbia eta Belgika —hauek Ententeak—, Alemania eta Austria-Hungariaren kontra. Hasiera batean gerra kontinentera bakarrik mugatzen da, baina Estatu Batuek gatazkan parte hartzen dutenean, 1917an, mundu-izaera hartzen du. Justu, Errusiak erretiratzea erabakitzen duen urtean gertatzen da hori. Orduko krisia orokortua baitzegoen eta nazio guztiak nekatuak baitzeuden, alemanek, azkenean, amore ematen dute eta 1918ko azaroaren 11n armistizioa izenpetzen da Compiègnen oihanean. Segidan, Austria-Hungariako eta Turkiako Inperioak desegin eta Alemaniak bere kolonia guztiak galtzean, Versaillesko tratatua 1919ko ekainaren 22an hartutako erabakien arabera, ez bakarrik Europakoa, munduko mapa politikoa ere erabat aldatzen da, oinarritzat hartuz Woodrow Wilsonen formulatutako *self-government* deitua. Estatu Batuetako lehendakari honek bertako Batzarraren aurrean 1918ko urtarrilean egindako hitzaldian, zeinetan bakerako oinarri gisa hamalau puntu aipatu baitzituen, horietan ez da agertzen esplizituki autodeterminatzeko eskubiderena, baina, bai, otsailaren 11n egindakoan, zeinetan, lau punturen arteko

batean, espreski esaten baitu “nazio-eskabideek onartuak izan behar dutela eta herriak, hemendik aurrera, herritarren adostasunarekin kontatuz bakarrik izango ahal direla gobernatuak”¹⁸⁶.

Nazionalitateen printzipioa, berez, nazioen barruko gobernura mugatzen da eta zentzu honetan, arestian esan bezala, estatu-boterea gobernatuek onartua izatea adierazten du. Europako kasuan ordea, menpean hartutako nazioetan zehazki, kontzeptu honek, funtsean, kanpo-izaera hartzen du, esan nahi baita nazio bakoitzak daukala bere Estatu propioa izateko eskubidea. Eta nola munduan zehar nazio zapaldu eta menperatuak anitz ziren, Versaillesko Bake-Itunera herrialde askotatik heldu ziren eskubide horren aldeko eskabideak: Korea, Siria, Armenia, Ukraina, Estonia, Letonia, Lituania, Polonia, Bohemia, Irlanda eta beste hainbat lekutatik. Baita Euskal Herritik ere¹⁸⁷. Baina han bildutako lau potentzia nagusien ordezkariak beren erabakiak alde zurretik hartuta zetozen bertara eta, ondorioz, beren interes ekonomikoak arabera banatuko dituzte lurraldeak¹⁸⁸. Nolanahi ere, arestian esan bezala, zapalduak zeuden nazionalitate batzuek orduan lortzen dute beren Estatu independentea¹⁸⁹. Hauen artean aurkitzen dira Finlandia, Polonia, Austria, Hungaria, Txekoslovakia eta SESBtik independizatutakoak (Estonia, Letonia eta Lituania, Armenia, Azerbaijan, Bielorrusia, Georgia, Ukraina), jadanik aipatuak.

Laburki esanda, Alemania menderatuaren eta Austrohungariar Inperio desaginarean muga-arazoak konpontzera zuzendua egon zen Versaillesko Ituna. Beste nazio askoren antzera, Euskal Herriari orduan ere entzungor egiten zaio. Berdin Irlandari. Urruti zeuden une hartako gatazka-gunetik kontuan har zitzaten. Bestalde, aliatuek Alemaniari ezartzen dizkioten zigorren artean, ekonomikoak baino garrantzitsuagoak dira politikoak, lurraldeak eta koloniak kentzen baitizkiote.

Geroago ikusiko da, antolaketa politiko berri horietako batzuk, Jugoslaviaren kasuan bezala, artifizialak zirela eta, horietan ere Estatu nazionalitate hegemoniko baten gain eraikia zenez gero, Estatu federatu

¹⁸⁶ Wambaugh, S.: *Plebiscites Since the World War*, Carnegie Endowment for International Peace, Washington, 1933, v- I, 11; J. A. Obietak aipatua, op. cit., 28-29.

¹⁸⁷ Larronde, J.C.: *El nacionalismo vasco. Su origen y su ideología en la obra de Sabino Arana-Goiri*, Txertoa, Donostia, 1977, 369.

¹⁸⁸ Lau ordezkari nagusi elkartu ziren bertan: Clemenceau frantsesa, Lloyd George ingelesa, Wilson iparramerikarra eta Orlando italiarra. Aliatu bakoitza bere anexoak egiten saiatu zen.

¹⁸⁹ Jauregi, G., “El derecho de autodeterminación en las sociedades desarrolladas”, in: *Autodeterminación de los pueblos. Un reto para Euskadi y Europa*, I, Herria 2000 Eliza, Bilbao, 1985, 157-181.

horien barruan komunitate desberdinetako elkar-bizitza ezinezkoa gertatuko dela. Jugoslavia ohiaren porrotak bi gauza erakutsi dizkigu: bata, federalismoaren erdua ere ez dela baliagarri gertatu, eta bi, formula federalista batean ere nazio nagusienaren boterea gailentzen dela beste nazio partaide guztien gainetik, Serbiarekin gertatu bezala. Badira orain ere Espainia federalista batean pentsatzen dutenak. Gure ustez, alferrik, aspaldi egin baitzuen porrot eredu horrek, independentismorako joeraren alde, Ekialdean garbiki ikusiz gatozen bezala.

4. NBEren lege-aldarrikapenak: deskolonizazioaren abiada

NBE 1945eko ekainaren 26an sortzen den erakundea da, Bigarren Mundu-Gerra bukatu eta berehalaxe, nazioarteko bakea eta giza eskubideak zaintzeko xedearekin. Erakunde honen sorrerarekin testuinguru berri baten aurrean aurkitzen gara. Hamarkada hau, hain zuzen, deskolonizazioaren fenomenoari dagokiona izango da bete-betean, Hirugarren Munduko herrialdeak orduan hasten baitira beren independentzi eskubideak egiten eta horren alde borrokatzen. Autodeterminatzeko eskubideari dagokionez, bi aldagai berri sartzen dira orain: bata da arazoa Europatik beste kontinenteetara desplazatzen dela, eta bestea da, lehen hertsiki nazio-arazoa zena, orain koloni arazo bilakatzen dela. Azken bereizketa hau egitea zerbait oinarrizkoa da, bi errealtate-mota horiek berdintzetik nahasketa itzelak sortu izan baitira euskal nazionalismoaren irakurketa marxismotik egin izan denean. Bistan da, Euskal Herria ezin dela inola ere kolonia gisa gogoeman eta hango askapen-mugimenduetan erabilitako eskema teorikoak ezin direla hemen aplikatu.

Autodeterminazioaren printzipioak, orain arteko historia politikoan, hiru aro handi eta desberdindu ezagutu izan ditu: lehenengoa, Frantziako Iraultzaren ondotik ideologia liberalaren eredura aplikatutako nazionalitate-printzipioaren inguruan emandakoa; bigarrena, eredu marxistaren arabera Sobieten Errusian aplikatutakoa; hirugarrena, Versaillesko Itunean Estatu inperialistek ezarritakoa; azken hau, laugarrena, NBEren politikagintzari dagokiona, honek markatuko baititu autodeterminatzeko eskubideari buruzko norabideak eta jokabideak. Aro honetan, nazioartean izenpetutako dokumentu guztietan agertzen da eskubide hori, hala nola: Atlantikoko Gutunean (1941-08-14), Nazio Batuen Aldarrikapenean (1942-01-10), Yaltako Batzarrean (1945-02-10). Nazio Batuen Gutunean, berriz, espreski jasoa dator berori.

J. A. Obietari jarraiki¹⁹⁰, laugarren aro honen barruan eman den eboluzioa orotara hartuta, lau azpiaro bereiziko ditugu.

4. 1. Lehen aroa NERI (Nazioen Elkarteari) dagokiona da, Versaillesko Ituna izenpetu zutenek bultzatuta, 1920an sortu zena. Esan berriak gara autodeterminatzeko eskubidearen printzipioa, bereziki Wilsonen eraginez, nazioarteko politikan erabilia izan zela Lehen Mundu-Gerrakoan. Wilson ahalegindu zen gero autodeterminatzeko eskubidea Nazioen Elkarteko Paktuan sartzen, baina ez zuen lortu. Halere, printzipio hori, neurri batean bederen, aplikatua izan zen Lehen Mundu-Gerra ondoko Bake-Tratatuetan. Dena den, lehen azpiaro honetan, oraindik ere printzipio horrek erabilera politikotik gehiago du juridikotik baino.

4. 2. Bigarren azpiaroa NERen ordezoak egitera datorren NBERen 1945eko Gutunarekin hasten da. Horko 1. artikuluko 2. parrafoan eta 55 eta 76 (b) artikuluetan onartu eta sagaratu gelditzen da autodeterminatzeko eskubidea. Hauetan esaten denez, zehazki lehen artikuluan¹⁹¹, Nazio Batuen asmoetako bat da, hain zuzen ere, nazioen arteko harreman bakezko eta lagunartekoak eskubide-berdintasunean eta herriek autodeterminatzeko duten askatasun-printzipioan oinarrituta egotea. Hemen, bai, printzipio honek bere eduki juridiko osoa du, baina berori berehala aplikatu ahal izateko beharbesteko arautegi-zehaztapenik ez da ematen. Horregatik, eskubide hori juridikoki formulatua datorren arren, gero aplikatzeko orduan, horko artikulatuek interpretazio-modu bat baino gehiagotarako bide emango dute. Berez, giza eskubideei dagozkien paktuetan oinarritzen dena dugu autodeterminatzeko printzipioa.

Kontzeptu hori, ordea, ezin da banandu nazionalitateen printzipiotik ez maila juridikoan ezta historikoan ere. Gertatzen dena da, NBek printzipio hori aipaturiko Gutunean sartzen duenez geroztik, nazionalitateen printzipioaren lekuan autodeterminatzeko eskubidearenarena erabiltzen dela nagusiki.

NBEko Gutunean espreski aurrikusia zegoen bezala, Askatasunaren Nazioarteko Gutuna lantzeko batzordeak sortu ziren eta hiru txosten prestatu zituzten: bata Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari buruzkoa,

¹⁹⁰ Op. cit., 103-105.

¹⁹¹ Honela formulatua dator, adibidez, 1. artikuluan: “fomentar entre las naciones relaciones de amistad basadas en el respeto al principio de la igualdad de derechos y al de la libre determinación de todos los pueblos” (ONU, *Asamblea General*, Resol. 2.2000 A (XXI); J. A. Obietak aipatua, in *El derecho humano de autodeterminación de los pueblos*, op. cit., 17).

1948ko abenduaren 20an onartua izan zena, eta beste bi Giza Eskubideen aldeko Itunen gainean, lehena eskubide zibil eta politikoez ziharduena eta bigarrena, berriz, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalaz. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalari buruzko txostena onartu aurreko eztabaidetan, autodeterminazioaren gaiak iritzi-deberdintasunik sortu zuen batzorde-kideen artean, Estatu sozialistek osatutako gutxiengo batek, Estatu-kide kolonialista gehienek kontra, autodeterminatzeko eskubidea bertan sartzea proposatzen baitzuen. Horregatik, azkeneko botaziorakoan, aldeko 48 boturen ondoan, 8 abstentzio agertu ziren, Estatu ez-kolonialisten eskutik zetozenak¹⁹². Giza Eskubideen aldeko bi Itunak prestatzeko garaia etorri zenean ere, eztaba da bera mahairatu zen. Baina oraingoan, nahiz eta Estatu batzuk autodeterminatzeko eskubidea Itunetan sartzearen kontrakoak izan, gehienek adostasunez sartzeko erabakia hartu zen. Eskubide honen formulazioa 1. atalean dator emana, non jarraiko hiru puntu hauetan zehazten baita haren edukia. Hain zuzen ere, horko hirugarren puntuan esaten da lurralde ez-autonomoak eta fideikomisoak administratzeko erantzukizuna duten Estatu-kideek askatasunez autodeterminatzeko eskubidearen erabilera sustatu eta errespetatu behar dutela¹⁹³. Estatu kolonialistei dei bat egiten zaie, gomendio antzeko zerbait, beren koloni lurraldeak utz ditzaten.

Aurreiritzi politikoen gainetik, hemen elementu juridikoa nagusitzen da garbiki. Hori bai. Halere, printzipio hori nola eta non aplikatu behar den ere ez dago batere garbi. Ezta “herri” hitzaren bidez zer ulertu behar den ere, nahiz eta NBEko Gutuna onartzerakoan (1945), Idazkaritzak, Batzordearen eskabidez, haren edukia honela mugatuta uzten duen: “Herriak gizatalde batzuk dira, Estatuak edo nazioak izan daitezkeenak, edo ez”¹⁹⁴. Espreski esaten

¹⁹² Koloniarik ez zuten Estatu sozialistak genituen abstenitu zirenak: hots, Saudi Arabia, Bielorrusia, Txekoslovakia, Polonia, Ukraina, Sobieten Batasuna, Hego Afrikako Batasuna eta Jugoslavia (Obieta, J., A., op. cit., 58).

¹⁹³ “1. Todos los pueblos tienen el derecho de libre determinación. En virtud de este derecho establecen libremente su condición política y proveen asimismo a su desarrollo económico, social y cultural. 2. Para el logro de sus fines, todos los pueblos pueden disponer libremente de sus riquezas y recursos naturales, sin perjuicio de las obligaciones que derivan de la cooperación económica internacional basada en el principio de beneficio recíproco, así como del derecho internacional. En ningún caso podría privarse a un pueblo de sus propios medios de subsistencia. 3. Los Estados Partes en el presente Pacto, incluso los que tienen la responsabilidad de administrar territorios no autónomos y territorios en fideicomiso, promoverán el ejercicio del derecho de libre autodeterminación, y respetarán este derecho de conformidad con las disposiciones de la Carta de las Naciones Unidas” (ONU, *Asamblea General*, Resol. 2.200 A (XXI); J. A. Obietak aipatua, op. cit., 58).

¹⁹⁴ U.N.C.I.O., vol. 6, 296, Doc., 343; J. A. Obietak aipatua, op. cit., 51.

ez bada ere, herria esatean, bere lurraldea duen eta gehienak bertan bizi diren talde etniko baten komunitatea adierazten da hor. Mundu guztiak zekien zer adierazi nahi zen hitz horren bidez, baina, aurreiritzi politikoengatik, praktikan ez zen interpretazio-adostasunik ematen hitz horren inguruan.

4. 3. Hirugarren azpiaroa 1860ko Koloni Independentziari buruzko Deklarazioarekin irikitzen da. Bigarren Mundu-Gerra ondoko urteetan nazioarteko politikagintzan eztabaidatzen den gai nagusia, azken batean, koloni arazoari dagokiona da. Afrika eta Asiako koloni lurraldeetan nola jokatu, hauxe da Estatu-kideen artean zatiketak sorrarazten dituen puntu gatazkatsua. Eztabaida honetan bi jarrera aurkitzen dira kontrajarriak NBEn, jadanik bizirik daudenak 1952. urteaz geroztik: Estatu kolonialistenak eta koloniarik ez dutenenak. Lehenengoen ez dute nahi autodeterminazioa inola ere eskubidetzat hartua izan dadin. Normala ere bazen hala pentsatzea, zeren Estatu horietako gehienak izanik, ziren bezala, aldi berean multinazionalak, haien menpeko nazionalitate zapalduen kasuan ere, logika zuzenez, onartu beharrekoa dela uste baitute. Horregatik, Estatuaren arteko hegemonia errespetatzeko eskatuko dute. Gutxiengo etnikoentzat, bada, ez da autodeterminaziorik. Bigarrenekoen onartzen dute, bai, autodeterminatzeko eskubidea, baina hori, eredu marxistaz jardutean aurreratu bezala, koloni herrialdeetan bakarrik aplikatu ahal izango da. Azkenean, Estatu sozialistek eta Bigarren Mundu-Gerraz geroztik beren independentzia lortu zutenek eraginda, aldeko 90 boturekin eta 9 abstentziorekin, 1960ko abenduaren 14an egindako Batzar Orokorrean, autodeterminazioaren definizio behin-behinekoa egiten da eta, 1. parrafoan esaten denez, “atzerritarrek azpiraturik, dominaturik eta esplotaturik” dauzkaten koloni herrialdeak izendatzen dira eskubide horren subjektu¹⁹⁵. Egia da, bai, 2. parrafoan herri guztiei aitortzen zaiela autodeterminatzeko eskubidea, baina hemen aitortzen dena neutralizatu egiten du 6. parrafoan datorrenak¹⁹⁶, zeinetan esaten baita Estatu baten batasun nazionala eta lurralde-osotasuna ezin direla desegin. Praktikan, beraz, koloni herrialdeeta-

¹⁹⁵ “La sujeción de pueblos a una subyugación, dominación y explotación extranjeras constituye una denegación de los derechos humanos fundamentales, es contraria a la Carta de las Naciones Unidas y compromete la causa de la paz y de la cooperación mundiales” (ONU: “Declaración sobre la Concesión de la Independencia a los Países y Pueblos Coloniales”, *Asamblea General*, Resol. 1.514 (XV); J. A. Obietak aipatua, op. cit., 53).

¹⁹⁶ “Todo intento encaminado a quebrantar total o parcialmente la unidad nacional y la integridad territorial de un país es incompatible con los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas” (ONU: “Declaración sobre la Concesión de la Independencia a los Países y Pueblos Coloniales”, *Asamblea General*, Resol. 1.514 (XV); J. A. Obietak aipatua, op. cit., 53).

rako bakarrik balio du. Bestalde, koloni herrialdeetan, eskubide hori bertan gehiengoa izateaz gain Estatu kolonialistarekin identifikatua egon den nazionalitate edo etniari aitortzen zaio, beste etni gutxiengoak sistemaz baztertuz. Beraz, 6. artikulua dakarrenez¹⁹⁷, ezingo da desegin Estatu kolonialistak ezarritako lurraldearen osotasuna.

4. 4. Laugarren azpiaroa NBEko ia kide guztiek, 1966ko abenduaren 16an egindako Batzar Nagusian, Giza Eskubideen Itun biak —Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruzkoa eta Eskubide zibil eta politikoei buruzkoa—, izenpetzen dituztenean hasten da. Itun biek batera duten 1. atalean inolako erreserbarik gabe onartua gelditzen da herri guztiek autodeterminatzeko duten eskubidea¹⁹⁸. Nazio Batuen Gutunean ez bezala, non autodeterminatzeko “printzipioaren” kontzeptua erabiltzen baita, hemen “eskubidearena” erabiltzen da. Bidenabar, Koloni Independentziari buruzko Deklarazioan ez bezala, non formula murriztailea jasotzen baita aipatutako 6. parrafoan¹⁹⁹, hemen ez da agertzen haren norainokoa murrizta lezakeen ezein baldintza politikorik. Estatu-kideek, Itun hauek izenpetzean, autodeterminatzeko eskubidea egiazko giza eskubide bat dela aitortzen dute. Bi puntu hauek, autodeterminazioari buruzko formulazioak asko irabazten du argitasun juridikoan.

Baina, 1970eko urriaren 24an egindako Batzar Nagusian Estatu-kideen adostasunarekin onartzen den Nazioarteko Zuzenbidearen Printzipioei buruzko Deklarazioan, berriro 1960ko anbiguitate- eta nahasketa-egoerara itzultzen gara, zeren herri guztiei bezala koloni lurraldeei Estatu subirano eta independentea izateko edota beste edozein molde politiko eskuratzeko egokiera aitortzen zaien aldi berean²⁰⁰, jadanik indarrean dauden Estatu subirano eta independenteen lurralde-osotasuna errespetatu beharra aldarrikatzen

¹⁹⁷ Smouts, M-Claude, “Décolonisation et décession, double morale à l’ONU”, *Revue Française de Sciences Politiques*, abut. 1972, 837.

¹⁹⁸ “Todos los pueblos tienen el derecho de libre determinación. En virtud de este derecho establecen libremente su condición política y proveen asimismo a su desarrollo económico, social y cultural” (ONU, *Asamblea General*, Res. 2.200 A (XXI); J. A. Obietak aipatua, 17).

¹⁹⁹ Bistan da parrafo hori benetan murriztailea dela: “En cambio el párrafo 6 introduce el elemento político que pretende limitar las consecuencias que se desprenden del mismo principio al colocar por encima de él la intangibilidad de la integridad territorial” (Obietak, J. A., op. cit., 53).

²⁰⁰ Testu honetan espreski adierazia dator koloni lurraldekoak ez diren herriei buruzko ikuspegi, definizio gisa emana: “Todos los pueblos tienen el derecho de determinar libremente, sin injerencia externa, su condición política y de proseguir su desarrollo económico, social y cultural (...) El establecimiento de un Estado soberano e independiente, la libre asociación o integra-

baita²⁰¹. Berrero hemen, herri guztiek Estatu subirano eta independente izateko eskubidea dutela esaten bada ere, jarraian elementu politiko murriztailea finkatzen da eta, horren ondorioz, eskubidearen aplikazioa praktikan kolonietara bakarrik mugatzen da. Lehen bezala.

Zein ondorio atera ditzakegun nahasketa honetatik?

Lehenik, NBEko Estatu-kideek, autodeterminatzeko eskubideari dagokion arazoaren inguruan, maila desberdinetako hiru errealitate-mota ikusten dituzte: a) jadanik finkatuta dauden Estatu subiranoak, b) Estatu-nazio horiek beren menpean dauzkaten nazio edo herriak eta gutxiengo etnikoak, eta c) koloni lurraldeak. Nola bigarren motako nazioak eta gutxiengo etnikoak NBEko Estatu-kide batzuek menpean hartuta dauzkatenak diren, koloniak bakarrik izango dira, gertatzez, autodeterminatzeko eskubidearen subjektu bakarrak. Aipu horietan ematen den arrazoia da, hain zuzen, Estatu subirano eta independenteen lurralde-batasuna osoki edo partzialki hautsi edo auzitan jarriko lukeen asmorik ez dela onartua izango. Koloniek ez dute estatu-lurraldetasuna hausten, baina menpeko nazioek eta gutxiengo etnikoek, bai, hautsiko lukete, baldin eskubide hori praktikara eramango balitz. Horregatik, Estatu-kideek, elkarren interesak zainduz, autodefentsarako formulatzen dituzte parrafo murriztaile horiek, esku batekin emana bestearekin kenduz.

Bestalde, 1966ko Ituneko 27. artikuluan datorrenez²⁰², estatu-lurralde subiranoaren barruan kontuan hartzen diren gizataldeak ez dira naziorik gabeko herriak, -nazio zapalduak, alegia-, gutxiengo etniko, erlijioso edo lin-

ción con un Estado independiente o la adquisición de cualquier otra condición política libremente decidida por un pueblo constituyen formas del ejercicio del derecho de libre determinación de ese pueblo..." (ONU: "Declaración sobre los Principios de Derecho Internacional", Resol. 2.625 (XXV); J. A. Obietak aipatua, op. cit., 53)

²⁰¹ Murriztapenaren ideia hau modu negatiiboan formulatuta adierazten da: "Ninguna de las disposiciones de los párrafos precedentes se entenderá en el sentido que autoriza o fomenta cualquier acción encaminada a quebrantar o menoscabar, total o parcialmente, la integridad territorial de Estados soberanos e independientes que se conduzcan de conformidad con el principio de la igualdad de derechos y de la libre determinación de los pueblos antes descritos y estén, por tanto, dotados de un gobierno que represente a la totalidad del pueblo perteneciente al territorio, sin distinción por motivos de raza, credo o color" (ONU: "Declaración sobre los Principios de Derecho Internacional", Resol. 2.625 (XXV); J. A. Obietak aipatua, op. cit., 53)

²⁰² "En los Estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de su grupo, a tener su propia vida cultural, profesar y practicar su propia religión y a emplear su propio idioma" (M. Zaragozak aipatua, in "Documentación administrativa. Número monográfico a Región", AA.VV.: *Regionalización y minorías en el área del Consejo de Europa*, Madrid, 1976, 142).

guistikoak baizik. Hauen eskubideak jadanik jasoak zeuden UNESCOren 1960ko Konbentzioan²⁰³, non, hezkuntzari dagokionez, 5,1 artikuluan gutxiengo nazional eta linguistikoei onartzen baitzaie beren eskolak izatea eta hezkuntzan beren hizkuntza erabili eta erakustea²⁰⁴. Hain zuzen ere, oinarrizko eskubide horixe izan da hainbeste urtez Estatu zentralistek euskaldunei sistemaz ukatu izan dietena. Orokorrean, hizkuntza, erlijio, arraza eta gisako beste arrazoiengatik ematen den bereizkeria kondentzen da. Eta diskrimatua ez izateko eskubidea, indibiduala da, ez kolektiboa, ez gutxiengo bati talde gisa dagokiona.

Baina testuan, behin eta berriz, ez al da, bada, “herria” kontzeptua agertzen?, esango da. Halaxe da. Baina hain da handia horren indefinizioa, ezen Estatu-kideek beren lurraldez kanpo koloni herriak eta lurraldez barru mota bateko zein besteko gutxiengoak bakarrik ikusten baitituzte. Estaturik gabeko nazioak gutxiengo etnikoekin, edo erregioekin, berdindu izan dira nazioarteko praxi politikoan. Gainera, nazioarteko erakunde horiek ez bide dute gutxiengo hauenganako kezka handirik agertzen.

Bigarrenik, NBE, mugimendu antikolonistak eraginda, arrazoi honengatik gehienbat, eboluzio aski luze eta gatazkatsu baten ondoren heltzen da autodeterminatzeko eskubidea aitortu eta aplikatzera, berehala Asian eta Ekialde Hurbilean. Asiak egun dauzkan 24 Estatutatik 14k 1940ko hamarkada-bukaeran eta 1950ekoan lortu zuten beren independentzia. Orobat, Ekialde Hurbilean, Estatu berrien eraikuntza aliatuek Otomandar Inperioa menperatu eta zatikatu zutenean hasi zen, bi Mundu-Gerren arteko epealdian; baina egungo estatu-egitura 1944-62 epealdian gauzatutakoa da, orduan erai ki baitziren egun dauzkan 21 Estatutatik 11, hauen artean Argelia, Israel, Jordania, Libia, Mauritania, Sudan, Tunezekoa eta. Harrezkero gertatutako aldaketa bakarra, Arabiar Penintsulan eratutako 7 Estatu txikiak dira, Saudi Arabia, Jemen, Oman, Arabiar Emirrerri Batuak —hau Qatar, Kuwait eta Bahreinek osatzen dutena—, guztira 25 milioi biztanlerekin.

Hego-Saharako Afrika izan zen Europako Estatu inperialistek kolonizatu zuten azken eskualdea eta horixe bera izan zen, halaber, deskolonizatua izaten azkena. Hemen oso bizkorra izan zen deskolonizazioaren prozesua: 1957-65 epealdian, 42 Estatutatik 28 berri sortu ziren, eta horietatik 16,

²⁰³ UNESCO, NBEko erakunde espezializatua da, hezkuntza, zientzia eta kultura bultzatzeko helburuarekin 1946an sortua.

²⁰⁴ Hauxe da gutxiengo hauei onartzen zaien eskubidea: “ejercer las actividades docentes que les sean propias, entre ellas la de mantener escuelas, y según la política de cada Estado, en materia de educación, emplear y enseñar su propio idioma” (M. Zaragozak aipatua, op. cit., 141).

berriz, 1960an eta 8, azkenik, 1970ean, gehienak Hego Afrikako eskualdean. Oraindik ere aski berria da Estatu berrien antolaketa Ozeanian. Hemen, 8 irla txikik lortu dute beren Estatua, gehienek 1970eko hamarkadatik aurrera²⁰⁵.

Honek zer esan nahi duen? XIX. mendean autore liberalek zein marxistek uste izan zutenaren kontra, estatu independenteak ugalduz etorri direla mundu osoan zehar, batez ere, XX.eko bigarren menderditik aurrera, zehazki Ekialde Hurbilean, Asian, Afrikan eta Ozeanian, hots, herrialde kolonizatueta. Europa zaharrean oraindik ere nazio-arazoak konpontzeke baitaude, pentsatzekoa da hemen ere sortuko direla berriak. Euskal Herriak hortxe dauka bere parioa egina.

Hirugarrenik, esana daukagunez, eskubide hori deskolonizazioaren kasuan bakarrik aplikatu daiteke, baina, J. A. Obietak 1970eko testuan datorrena laburbilduz dioen bezala²⁰⁶, interpretazio honek praktikan salbuespen asko ezagutuko ditu, segun eta unean uneko interes politikoek haizeak nondik jotzen duen. Puntu eztabaidagarrietako bat, kolonialismoaren kasua zein testuingurutan ematen den zehaztean datza. Berez, hiru baldintza eskatzen dira: a) giza mailako zapalkuntza (ekonomikoa, hizkuntzazkoa, erlijiozkoa) ematea, b) metropolitik geografikoki urrundua egotea, eta c) arrazagatiko segregazioa ematea. Gertatzen dena da, baldintza horiek ez direla kasu guztietan betetzen: adibidez, Argelian, 1960an, lehenengo biak bakarrik ematen dira; Rhodesian, 1965ean, zuriak dira independentzia eskatzen dutenak.

Deskolonizazioaren politika bideratzeko orduan, beste irizpide orokor batzuk ere markatzen dira, bereziki, honako hauek: a) lurralde deskolonizatuak, orain Estatu bilakatuak, lehengo Estatu kolonialistak utzitako lurraldean eraiki behar duela berea, mugak ezertan aldatu gabe eta bertako etni komunitate hegemonikoan oinarrituta; b) NBEko Estatu-kideek beren menpean dauzkaten nazio zapalduen kasuan, ezin dela separaziorik onartu. Irizpide hauen aurrean ere ez dela jokabide koherenterik ematen frogatzeko adina adibide historikorik bada. Ezagunenak kontatuko ditugu. NBEko Batzar Nagusiak Britainia Handiaren kolonia zen Nigeriaren autodeterminatzeko eskubide-erabilera onartu zuen 1960an, baina ez zuen onartu genozidio

²⁰⁵ Nielsson, G. P., op. cit., 199-200.

²⁰⁶ "El derecho de autodeterminación sólo lo poseen las colonias o territorios no autónomos que lo ejercen en la liberación colonial y, una vez obtenida ésta, el derecho de autodeterminación cambia de naturaleza y de ser un derecho de los pueblos se convierte en un derecho del Estado ya constituido al mantenimiento de su integridad territorial, la cual es declarada absolutamente inviolable. En la práctica, sin embargo, esta interpretación puede también tener sus excepciones, (...), según lo exijan los intereses políticos del momento" (Op. cit., 54).

ikaragarria jasaten ari ziren Iboen tribuak, Nigeriako Gobernu federalaren kontra oldartuz geroztik, 1968an Biafrako Estatu independentea lortzeko autodeterminazio-eskubidea erabili nahi izan zutenean. Antzeko zerbait gertatu zen Kongoko Errepublikarekin ere. Batzar Nagusiak onartu zuen Kongoren autodeterminazioa 1960an, Belgikatik independentizatzuz, baina lau urtez egon zen Katangako Estatu independentea onartu nahi ezta. Bestalde, nahiz eta Palestina ez den kolonia bat eta Israel zein Jordania Estatu independenteak diren, hari, 1970ean, autodeterminatzeko eskubidea onartu zitzaion. Era berean, Bengalak 1971n armetan jaiki eta Indiaren laguntzarekin bere independentzia lortu zuenean, NBEk bere partaideen artean hartu zuen 1974ean Bangladesheko Estatu berria, nahiz eta hau ez izan kolonia ohia eta Pakistanen lurralde-osotasuna nabarmenki murriztuta gelditu.

Azken finean, eta praktikan, deskolonizazioaren politika NBEko Estatu-kide handien interesek erabakitzen dute, Sobieten Batasunak eragin handia duelarik. Praktikan, bada, irizpide orokorren eta jokabide politikoen artean desegokitasunik franko ezagutu izan da deskolonizazioaren historian. Egitate honek adierazten du elementu juridiko soilen gainetik, lekuan lekuko koiuntura-egoeraren eta interes soziopolitikoen arabera, zuzenbideari ez dagozkion beste elementu batzuk nagusitzen direla.

Beraz, epe honetan, NBEk teoriarik aldarrikatzen duen autodeterminazio-ko eskubideak egiazki muga handiak ditu. Era berean, Sobietar Batasunaren politika ere, Europako nazio zapalduetan, beretsua da. Nabardura honekin: alegia, deskolonizazioaren kasuan, NBEren baitan, prozesu hori gehienbat SESBk bultzatua izan zela, honek ez baitzeukan koloniarik. Horregatik, egia da, 1950-1980 epealdian zehar, bloke marxista izan zela horren aldeko politika gidatu zuena koloni herrialdeetan. Baina egia da, baita ere, barrura begira Mendebaldeko beste edozein Estatu kapitalista bezain zentralista agertuko dela, bera ere Lenin eta Stalinen eskemari arras atxikia, bosgarten aroan ikusi ahal izan dugun bezala.

5. Estaturik gabeko nazioen txanda globalizazio-garaian

Azkenaldiotan, 1990eko hamarkada-hasieratik aurrera, autodeterminatzeko eskubidearen aplikazioa, kolonien testuingurua utzi eta, Europa zaharrera berritzultzen da, aurretik desegoki erabakitako arazoak birplanteatuz, baina testuinguru berri batean, zeinetan, krisi ekonomikoarekin batera, arazo etnonazionalak indarberritzen baitira. Deskolonizazioaren prozesuari, beraz, Estatu independente berrien sorrera darraio, batik bat, Europako Errepublika

sozialista federatuetan, krisiak hauetan eragiten baitu gehien. Kasu aipagarriak ditugu, batetik, Alemania zatituaren batasuna eta, bestetik, SESB, Txekoslovakia eta Jugoslaviaren zatiketa. Europako Estatu sozialistak koloka jartzen dituen leherketaren epizentroa, zalantzarik gabe, SESBn gertatzen den krisi estrukturalan aurkitzen da, zeinaren lehen sintoma nabariak Gorbatxovek demokratizazioa eta “perestroika” izeneko ekonomi berrikuntza bideratzen hasten denean islatzen baitira. Eta krisia eragiten duten faktoreen artean, adituen ustez²⁰⁷, nazio-arazoak erabat zentralak gertatuko dira, zapalkuntza isilaren zama jasaten ari zirenak orduantxe asaldatzen baitira eta beren eskabideak egiteari ekiten baitiote. Egiten diren lehen manifestazio publikoetan, Ukrainan eta, eskabide etnikoak dira gehien oihukatzen direnak. Eta hasieran Errepublika desberdinetara oliboa bezala zabaltzen den mobilizazio-prozesu hori gidatzen duena, berriz, lekuko intelligentsia da. Era berean, lekuko buruzagiek, Moskuko agintarien bitartekari izateari utzi eta, mugimendu nazionalistak defendatzen dituzte eta haien eskabideak, zenbait kasutan, SESBko legerian berean oinarrituta, erabateko independentzia planteatzeraino iristen dira. Bestalde, perestroikak ekonomi egoera hobetzea agintzen baitzuen, agindutakoa ez zela betetzen eta, etsita, Errepublika batzuk, Moskurekin kontaktu gabe, bere bide autonomoak bilatzen hasten dira. Orokorrean, gizarte-giro nahasia sortzen da. Nazionalitate batzuk beste batzuen kontra jaikitzen dira, arma-hotsak aditzeraino, zehazki, Armenia, Georgia, Uzbekistan, Tadjikistan eta Kirgizistanen. Baina, aldi berean, ertzaldeko hauek denak puntu batean bat datoz, eta da erdiko nazio handiaren, hots, Errusiaren kontra daudela. Honela, Sobietar Batasuna bere legitimazioa galduz joaten da eta azkenean, Errusiako Federazioak bere subiranotasuna 1990ean aldarrikatu eta hurrengo urtean SESB erraldoia desagertzean²⁰⁸, gatazka etnikoak gogortzen diren Errepubliketan Estatu berriak sortzen dira, hala nola: Armenia, Azerbaijan, Georgia, Moldavia, Ukraina, Bielorrusia, Uzbekistan, Tadjikistan, Kazakhstan, Kirgizistan, Afganistan, Turkmenistanen eta Baltikoko hiru Estatuetan (Estonia, Letonia eta Lituania). Estatu berri hauek nazionalismoaren suari bizirik eutsi izan dioten herri historiko zaharrak ditugu, SESB barruan desairoso sentitzen zirenak, horietako gehienak, beren konbentzimenduz ez, behartuta baizik kokatuak izan baitziren

²⁰⁷ Interesgarria da jadanik aipatua dugun Juan Viúdez Navajoren artikulua, datuez ongi hornitua, op. cit., 63-74.

²⁰⁸ Errusiako Federazioaren barruan 16 Errepublika autonomo aurkitzen dira orain eta bertako populazioa, guztira, lehengo SESBkoaren erdia baino handiagoa da, lurralde-laurdena hartzen du eta errenta nazionalaren % 60 inguru bereganatzen du.

bertan. Eta nazio-arazoaren txingarra ez da itzali oraindik Errusiako Federazioan, Txetxeniako gerrak erakusten duen bezala.

SESBn bezala, Jugoslaviako Errepublika Federalaren zatiketa ere gerraren gainean burutua izan da. Ez da harrizkeoa hala gertatu izana, baldin kontuan hartzen bada zein era artifizialez sortua izan zen 1918an, gerra-irabazle-en eskutik, serbiarrak —hegemonikoak-, kroaziarrak eta esloveniarrak Erresuma berean sartuta. J. Broz Tito kroaziar komunistak Jugoslaviako Herri-Erepublika Federala 1945ean eratu zuenez geroztik —zeina osatzen baitzuten sei Errepublikak (Bosnia-Herzegovina, Eslovenia, Kroazia, Mazedonia, Montenegro eta Serbiak) eta Serbiaren barruan zeuden beste bi herrialde autonomok (Kosovo eta Vojvodinak)—, Errepublika desberdinen arteko tirabirak handituz joaten dira, gehienbat —berriro hemen ere—, arrazoi etnikoak tartekatzen direlako. Arazoak, SESBn gertatu bezala, % 62,3ko populazioarekin nazio hegemonikoa den Serbiak sortzen ditu. Izan ere, hau, armada indartsu baten jabe izanda, bere boterea areagotzen saiatzen da berak irudikatzen duen Jugoslavia berriaren eredura, funtsean serbiarra izanen litzatekeena. Batasun horretan Kroazia eta Bosnia-Herzegovinan gehiengo serbiarrek osatzen duten eskualdeak eta Montenegro sartzea pentsatua zegoen. Mazedonia, Eslovenia eta Kroaziak 1992an lortzen dute beren Estatu independentea, baina ez zailtasunik gabe, zeren, nahiz eta NBEB onartzen dituen munduko estatu-zerrenda barruan, Jugoslaviako armada federalak ez baititu halakotzat ezagutzen. Horregatik, Kroaziaren kasuan zehazki, hauek serbiarrek hiruspalau urtez (1991-93) gerran aritu eta gero, 1995ean sinatuko dute bake-ituna. Gatazka-egoera, ordea, askoz larriagoa gertatzen da Bosnia-Herzegovinan, zeren hemen, 1992an Erreferenduma egin eta Jugoslaviatik banatzea erabakitzen denean, bertako talde etniko nagusienak diren musulman, serbiar eta kroaziarren artean gerra sortzen baita. Serbiarrek bertako lurralde gehiena hartzen dute eta, Bosniako Errepublika Serbiarra aldarrikatuz gero, garbiketa etnikoaren politikari ekiten diote. Azkenean bitan zatitua geldituko da: Federazio kroaziar-musulmana eta Bosniako Errepublika Serbiarra. Eta geroztik, Errusiaren Federazioan Txetxeniarekin bezalatsu, Serbian ere istiluek aurrera jarraitzen dute Kosovo autonomoan. Antzeko arazo nazionalak errepikatzen dira bietan eta antzeko estrategiak erabiltzen: hots, Errepublika autonomoen independentzi eskabideari estatu-botere zentralak ezezkoarekin erantzuten diotela. Eta armaz.

SESB eta Jugoslavia ohietan ez bezala, Alemania eta Txekoslovakian bake-giroan eta negoziazioen bidetik hartzen dira erabakiak. Alemania 1949an bitan —Alemaniako Errepublika Federalean eta Alemaniako Errepublika Demokratikoan—, zatitu zutenak Britainia Handia, Frantzia,

SESB eta Estatu Batuak izan ziren eta, hain zuzen ere, potentzia horiexek izango dira haren batasuna 1990ean izenpetuko dutenak. Oraingoan adostasuna Estatu Batuaren testuinguruan mamitzen da, zeinaren gidari nagusi gisa Alemania bera agertzen baita. Bestalde, X. mendeaz geroztik bakoitza bere aldetik bizi izandako txekiarrak eta eslovakiarrak elkartetik sortzen da Txekoslovakiako Estatuia 1918an, gerra-irabazleen oportunitateak hala erabakita. Gero, 1948an, herri sozialista bihurtuko da eta handik hogeit urtera, 1968an, Varsoviako Ituneko tropek Praga okupatuko dute, Alderdi Komunistako A. Dubcek idazkari nagusiak SESBkoen gustukoak ez ziren berrikuntzak egin zituelako. Azkenean, ez baitira alferrikakoak izaten oroitzen historikoak, lehen bereiz bizi izanak, berriro hala bizitzea erabakitzen dute SESB erraldoiaren itzala ezkututzen denean eta 73 urte irauten duen batasun horretatik bi Estatu sortzen dira 1993an: Eslovakiako Errepublika eta Txekiakoa. Baina inolako traumarik gabe.

Hemendik zer ondorio ateratzen dugun?

Deskolonizazioaren aroa bukatu eta gero, gizarte-dinamika globalizazio-gurpilaren jirabiran mugitzen den XXI. mende honen hasieran, aurreko ataletan azalduz etorri garen bezala, beren erroa lekuan lekuko herri-mugimenduetan duten gizarte-talde espezifikokoak, nortasun berezia dutenak, hauek dira etorkizunaren norakoa markatzen dutenak. Nortasun bereziaren patentea daramatenak dira herriak —egun, nazio politikoetatik bereizteko, nazio etnikoak deitzen zaienak—, denboran zehar, aldaketan gaintetik eta azpitik, bere izate zaharberriuan sustraiturik dirautenak. Horregatik, Estatuaren nazioarteko harremanetan erabaki politikoak potentzien interesen arabera hartzen direlako, edo kobentzimenduaren lekuan indarra inposatzen delako, edo gizarte-adostasuna injustizia metatuen gainean finkatzen delako, kontua da mapa politikoaren lurralde-mugen finkapena eta antolaketa politikoa artifizialtasunez eta arbitrarietatez ezaririk dagoela eta, ondorioz, gaur ez bada bihar, behar bezala konpontzeke dauden arazoak, nahiz estaltzen mila saio egin, azaleratu egingo direla. Eta lehertu.

Uste zen Europa zaharrak, zibilizatuena zelako edo, gaindituak zituela lurralde-mugak. Baina ez. Azken hamarkada honetan hogeitik gora Estatu berri sortzen ikusi ditugu. Mendebaldeko Estatu-nazioek, ordea, oraindik lasai samar hartzen dute arnasa, ez bide dituzte beren arazotzat hartzen. Errepublika sozialistetan gertatuak oro, sozialismo endekatuaren porrotari egotzi izan zaizkio, Estatu sozialisten totalitarismo obskurantistari Ongizateko Estatuaren demokrazi gardentasuna kontrajarrit. Horrela jokatzean, ordea, beren buruak engainatzen ari dira Ongizateko estatuzale hauek edo, zuzenago esanda, beren porrota besteen bizkar botatzen, zeren jakobin-

dar zakur zahar hauek oso ongi baitakite, jakin, ia Europa osoa astintzen duen nazionalismo-mota desberdinen oldarrak sistema sozialistan zein neoliberalean oinarritutako Estatu nazioaskodunak dauzkala auzitan, jake-trantzean hartuta. Zalantzarik gabe, autodeterminatzeko eskubide historikoak inoiz ez bezalako gaurkotasuna hartu du eta engoitik Europa Batuaren eraikuntzan zeregina garrantzitsua jokatu du duelakoan gaude.

Beraz, eta haxe da gure ondorio nagusia, ate berri eta zabala dago irekia Europako atalasean oraindik Estaturik gabe baina horren atzetik borrokan segitzen duten gurea bezalako herrientzat.

6. Autodeterminatzeko eskubidea Euskal Herrian: Lizarra-Garaziko akordioa

Eta esanak esan, Euskal Herrian, zer? Zein da autodeterminatzeko Euskal Herriak egin behar duen bide egokia? Hau da galdera euskal nazionalismoari zuzenean dagokiona eta Lizarra-Garaziko akordioan planteatzen dena.

Etorkizunaz proiektuak egin eta alternatibak aurkeztea, politikarien egitekoa da. Nolanahi ere, nazio-arazoa gaintoki historikotik begiratuta ikusteak baditu bere abantailak eta horietako bat da, hain zuzen, orainaldia asko argitzen duela lehenak. Eta lehenaldi hurbilak oraindik gehiago. Zentzu honetan, Europako mapa politikoan gertatutako azken aldaketak benetan argigarriak izan dira euskaldunontzat, zenbait gauza ikasi eta egiaztatzeko topagune izan zaizkigun aldetik.

Azpimarratu nahi dugun lehen gauza da, autodeterminatzeko eskubidearen aldarrikapen formala —teorikoa, alegia—, gauza bat dela, eta arras bestelakoa horren aplikazioari buruzkoa. Printzipio-mailan onartua izatetik aplikatua izatera tarte handia egon ohi da kasu jakinetan eta, lekuan lekuko egorenen arabera, mota desberdinetako zailtasunak agertzen dira eszenategi politikoan. Alemania eta Txekoslovakian izan ezik, beste kasu gehienetan Estatu berrien lorpenak gatazka-egoera larrien emaitza izan dira eta, zenbait lekutan —non itzalean non egun-argitan—, estatu-botere militarren partehartzea erabakigarria izan da, zentzu batean ondorio berdinekin eta bestean desberdinekin. Txetxenia eta Kosovoko nazionalismo independentistak Errusia eta Jugoslaviako armada nazionalek gerra genozida baten bidez zanpatu dituzte. Suntsipen-egitate hau biek batera dute, zeren armak izan baitira Errepublikak autonomo horien herri-eskubideak suntsitu dituztenak, NBERen proposamenen gainetik. Baina Errusiaren Federazioan Txetxeniako gerrak Putini lehen-

dakaritzarako botuak eman eta agintaritzan inpunitatez segitzeko bideak iriki dizkion bitartean, Jugoslaviako lehendakari Milosevic serbiarra NBEko Nazioarteko Justizi Auzitegira eramana izan da gerran egindako delituengatik epaitua izateko, baina ez lehendakari errusiarra, biak nor baino nor genozidagoa izanda ere. Horrelako aldea zertan datzan? Hara esan: Putin, gerra zikinaz baliatzen bada ere errusiar patriota sukartuen botoak irabazteko, funtsean, hauteskudeetan nagusitu denez gero, demokrata bat da eta mundu politikoaren aurrean polikari garbia; Milosevic, aldiz, nola hau ez zen NBEkoen aginduetara jarri eta nola ez duen hauteskundeetarako deirik egiten, ez da demokrata eta, beraz, gerra-kriminala izateagatik zigortu beharrekoa.

Bada beste bigarren zirkunstantzia bat ere, autodeterminatzeko eskubi-dearen onarpena eta aplikazioa Euskal Herrian nolabait konplikarazten duena, eta da, Europako Mendebaldean mugimendu nazionalista indartsuenak sustrai historikoko Estatu nazioaskodunetan —Espainia, Frantzia, Erresuma Batuan eta—, finkatuak aurkitzen direla eta Estatu zahar horiek, gainera, nazioarteko erakundeen onarpenarekin kontaktzen dutela. Eta orain arteko esperientziak erakutsi digunez, badirudi eraiki nahi den Europa batu berri honetan, Estaturik gabeko nazio ukatuek ezer gutxi kontaktzen dutela. Europa berria, asmoetan bederen, gaur-gaurkoz Estatu-kideen superestatu bat gehiago da, Ipar Amerikako Estatu Batuen antzeko zerbeit izan litekeena, non Estaturik gabeko nazio ukatuek EBn dituzten ordezkarien hitza parlamentu-aretoko basamortuan galtzen baita. Estaturik gabekoak, kopuruz gehiengo osatzen dutenak alegia, gehienez ere autonomia kulturala emateko bakarrik agertzen dira prest beren planteamendu politikoan. Adierazgarria da zentzu honetan J. P. Fusi Aizpuru bezalako historigile estatuzalearen pasarte hau²⁰⁹: “El principio de auto-determinación debe entenderse, por tanto, como el derecho de una comunidad a determinar su propia nacionalidad cultural, y no constituirse como Estado soberano... Digámoslo claramente: una autonomía que confiera a las regiones nacionalistas un alto grado de poder político y económico, que deje a su cargo la defensa y promoción de su cultura nacional, que reconozca su existencia como entidad diferenciada”.

Horixe da Hego Euskal Herrian aplikatzen den politika Autonomien Estatuan. Konstituzio-legerian jaso izan ala ez, baldin teorian bederen onartzen bada autodeterminatzeko eskubidea, berez, oinarritzko giza eskubide bat dela eta eskubide horren subjektua herria bera dela, zintzilik gelditzen den

²⁰⁹ “Autonomía y autodeterminación”, *Diario Vasco*, 4 de agosto de 1979.

galdera da ea nola bidera daitekeen eskubide horren onarpena eta erabilera, baina, gure kasuan bezala, Euskal Herritik bertatik abiatuta.

Hortxe datza egungo euskal arazoaren gako nagusia. Bidegurutzeak ere hortxe sortzen dira nazionalisten artean. Honen arrazoietakoa bat hauxe da: nazionalismo historikoaren praxi politikoa autonomismora mugatu izan dela osoki eta ezker abertzaleak, aldiz, independentziaren eta sozialismoaren bideak jorratu izan dituela betidanik. Beraz, bi adar horiek, bakoitzak bere alde-tik, bi ibilbide egin dituzte: nazionalismo historikoak posibilista eta estatu-politikari atxikia eta nazionalismo iraultzaileak, aldiz, etenaren aldekoa, erresistentziaren politika jokatu. Ulertzekoa da, bada, azken garaiko gertakari politikoen harian gauzatutako Lizarra-Garaziko plataforman batzuen erre-alismoa eta besteen utopia sanao elkartzean, horko partaideen artean ulertezina sortu izana. Areago oraindik, ETAren menia hura zein testuingurutan egin zen kontuan hartzen bada. Iritzi publikotik jasota dakigu —ez dakigu zein neurritako sinesgarritasunez baina—, estatalistek beren nazionalismo espainolaren zenitera iritsi eta gero, Gasteizko botere autonomikotik nazionalistak bota eta bertan gobernatzen jartzeko asmoak omen zituztela. Euskal nazionalista autonomistek estatalisten konplot horretaz ohartu eta beren botere-guneak arriskuan ikusten dituztenean, orduan hasten omen dira ETArekin hizketan eta, halaber, hainbeste urtez isolatua eduki izan duten ezker abertzalera hurbiltzen. Hurbiltze hutsarekin bakarrik urrats galanta eman da, hitzaren zentzurik hertsienean: historikoa. Jarraipena ziurtatzea da oraingo eginkizunik behinena.

Meniaren inguruan gertatuak modu batera zein bestera interpretatu, gauzarik garrantzitsuena da une honetan lehen ez geneukan tresna politiko aberats bat daukagula eskuartean eta guri dagokigula horretaz, aldi berean, zuhurtasunez eta ausardiaz jokatzea. Honek praktikan indarrak batzea inplikatzeko du, baina ezarritako gutxienezko xedeetan amore eman gabe. Euskal Herriaren eskubide-subjektutasuna, lurraldetasuna eta euskararen berreskurapena, beude dauden lekuan, zutabe hauek gabe ezin da euskal etxea eraiki eta.

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, I. (1990), "Hizkuntz perfilen dekretua", *BAT*, EKB, Donostia, 23-43
- AITZOL (1935), "Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa", in Askoren Artean: *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 102-152
- AIZPURUA, X. (1993), "Euskal Herriko biztanleen hizkuntz gaitasuna", *Jakin*, 77-78, Donostia, 91-106
- ALBROW, M. (1991), "Las sociedades como hechos contruidos: El enfoque weberiano de la realidad social", in González de la Fe, T. (coord): *Sociología: unidad y diversidad*, CSIC, Madrid, 75-92
- ALTHUSSER, L. (1974): *Sobre la ideología y el Estado*, Laia, Barcelona
- ALVAREZ, I. (1993): *Diversidad cultural y conflicto nacional*, Talasa, Madrid
- ANSART, P. (1990): *Les sociologies contemporaines*, Editions du Seuil, Paris
- ANTXUSTEGI, E. (1998): *Demokraziaren historia*, Gaiak, Donostia
- APALATEGI, J. (1992): *Sociología de una nación en movimiento*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, EHU, Vitoria
- APALATEGI, J.; PALACIOS, X. <ed.> (1995): *Identidad vasca y nacionalidad. Pluralismo cultural y transnacionalización*, I, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, EHU, Vitoria
- APAT-ETCHEBARNE (1974): *Una geografía diacrónica del euskara en Navarra*, Editorial Verbo Divino, Estella
- APPLE, M. W. (1986): *Ideología y currículo*, Akal, Madrid
- (1987): *Educación y poder*, Paidós/MEC, Madrid
- ARANGUREN, J. L. (1991), "Naciones, Estados, nacionalismos, internacionalidad", *Revista de Occidente*, 122-123, 15-24
- ARCHU, J. B. (1852): *Uskara eta Franzes Gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina*, Lasserre, Baiona

- ARDOINO, J. (1980): *Perspectiva política de la educación*, Narcea, Madrid
- ARNAU, J.; COMET, C.; SERRA, J. M.; VILA, I. (1992): *La educación bilingüe*, ICE-Horsori, Barcelona
- ARREGI, J. (1996): *Euskadi invertebrada*, Oria, Alegia
- (1999): *Euskadi como pasión*, Hiria, Alegia
- ARRIEN, G. (1987): *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1936)*, Diputación Foral de Bizkaia, Bilbao
- ASFORD, D. E. (1989): *La aparición de los estados de bienestar*, MTSS, Madrid
- ASKOREN ARTEAN (1935): *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Euskaltzaleak, Donostia
- ASKOREN ARTEAN (1972): *Gure lkastola*, Jakin sorta, EFA, Oñati-Arantzazu
- ASKOREN ARTEAN (1976): *Regionalización y minorías en el área del Consejo de Europa*, Madrid
- ASKOREN ARTEAN (1978): *Euskararen Liburu Zuria*, Euskaltzaindia/Siadeco, Bilbo
- ASKOREN ARTEAN (1981): “Elebitasunaren auzia Ikastoletan”, *Jakin*, 19-20, Donostia, 6-140
- ASKOREN ARTEAN (1983): “Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera”, *Jakin*, 28, 6-60
- ASKOREN ARTEAN (1992): *Educación intercultural*, X Congreso Nacional de Pedagogía, Salamanca
- ASTIGARRAGA, L. (1825): *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática*, La Lama, Tolosa
- AZURMENDI, J. (1971): *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*, Euskal Elkargoa, Baiona
- (1985), “Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko Historian”, in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria: Historia eta gizartea*, Lan Kide Aurrezkoa/EFA (Jakin), Oizartun, 357-386
- (1992): *Espainolak eta euskaldunak*, Elkar, Donostia
- AZURMENDI, M. (1998), “Lenguaje, cultura y sociedad. Ideas para un libro blanco del euskara”, *Cuadernos de Alzate*, 20, Madrid, 65-84
- BALIBAR, R.; LAPORTE, D. (1976): *Burguesía y lengua nacional*, Avance, Barcelona
- BARANDIARAN, J. M. (1934), “Euskalerriko leen-gizona”, in *Obras completas*, XI, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo
- (1974), “Los vascos”, in *Obras completas*, VI, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo

-(1977), “Constantes en la etnia vasca”, in *Cultura Vasca*, I, Erein, Zarauz, 7-15

BARNES, B. (1990): *La naturaleza del poder*, Pomares-Corredor, Barcelona

BARREIRO, H. (1987), “La educación como cuestión de Estado. De Platón a la Ilustración francesa”, *Historia de la Educación*, 6

BASURKO, F.; IZTUETA, P. (koord.): *Euskal Eskola Berria*, Unibertsitateko Hezkuntza-Mintegia, Donostia

BELTRAN, M. (1991): *La realidad social*, Tecnos, Madrid

BERNSTEIN, B. (1974-1977): *Clase, codes and control. Theoretical Studies towards a Sociology of Language*, Routledge and Kegan Paul, Londres

-(1985), “Clase social, lenguaje y socialización”, *Educación y Sociedad*, 4, Madrid, 129-143

-(1990): *Poder, educación y conciencia. Sociología de la transmisión cultural*, El Roure, Barcelona

BLAS GUERRERO, A. (1990), “Elementos constitutivos del Estado”, in García Cotarelo, R. (comp.): *Introducción a la teoría del Estado*, op. cit., 85-112

-(1995), “Pueblo, nación, Estado”, in: García Cotarelo, R.; Paniagua Soto, J. L. (comps.): *Introducción a la ciencia política*, UNED, Madrid, 461-466

BODIN, J. (1992): *Los seis libros de la República*, Tecnos, Madrid

BOURDIEU, P. (1982): *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*, Fayard, Paris

-(1988): *Cosas dichas*, Gedisa, Buenos Aires/Barcelona

BOURDIEU, P.; PASSERON, J-C. (1977): *La reproducción*, Taurus, Barcelona

BOVET, P. <dir.> (1932): *El bilingüismo y la educación*, Trabajos de la Conferencia Internacional celebrada en Luxemburgo, 2/5-04-1928, Espasa-Calpe, Madrid

BOWLES, S./ GINTIS, H. (1976): *La meritocracia y el coeficiente intelectual: una falacia del capitalismo*, Anagrama, Barcelona

-(1981): *La instrucción escolar en la América capitalista, Siglo XXI*, México

-(1983), “La educación como escenario de las contradicciones en la reproducción de la relación capital-trabajo”, *Educación y Sociedad*, 2, Madrid, 7-23

CAMARA DE COMERCIO DE BILBAO (1977): *Estructura socio-económica del País Vasco*

CARNOY, M. (1981): *La educación como imperialismo cultural*, Siglo XXI, Madrid

- (1985), "Educación, economía y Estado", *Educación y Sociedad*, 3, Akal, Madrid, 7-52
- (1986), "Reforma y planificación de la educación en un contexto de crisis económica", *Perspectivas*, vol. XVI, 2, 213-222
- CARO BAROJA, J. (1974): *Introducción a la historia social y económica del Pueblo Vasco*, Txertoa, Donostia
- CASTELLS, M. (1999): *La era de la información. Economía, sociedad y cultura*, I-III, Alianza, Madrid
- (1999) "Globalization, Identity, and the Basque Question", in Douglas, W. A.; Urza, c.; White, L.; Zulaika, J. (arg.): *Basque Politics and Nationalism in the Eve of the Milenium, Basque Studies Program*, University of Reno, 22-33
- CHAPMAN, R. (1991): *La formación de las sociedades complejas*, Crítica
- CHOMSKY, N. (1974): *Estructuras sintácticas*, Siglo XXI, Madrid
- COBARRUBIAS, J. (1988), "Normalización y planificación lingüística", in *Euskara Biltzarra*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 146-172
- COLLINS, R. (1988): *La sociedad credencialista*, Akal, Madrid
- CORCUERA, J. (1987): *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco 1876-1904*, Siglo XXI, Madrid
- DAHL, R. (1999): *La democracia. Una guía para los ciudadanos*, Taurus, Madrid
- DAVIES, N. (1996): *Europe. A History*, Oxford-New York, Oxford University Press
- DAVILA, P. (1993): *La profesión del magisterio en el País Vasco (1857-1930)*, Universidad del País Vasco, Donostia
- (1995): *Lengua, escuela y cultura. El proceso de alfabetización en Euskal Herria, siglos XIX y XX*, Servicio Editorial de UPV, Bilbao
- DETH, J. P. (1990), "Las lenguas internacionales y el reto europeo", in Siguán, M. (dir.): *Las lenguas y la educación para la paz*, op. cit., 49-56
- DRUCKER, P. F. (1993): *La sociedad poscapitalista*, Apóstrofe, Barcelona.
- DURKHEIM, E. (1982): *Historia de la educación y de las doctrinas pedagógicas. La evolución pedagógica en Francia*, La Piqueta, Madrid
- (1991): *Hezkuntza eta Soziologia*, Klasikoak, Bilbo
- E. I. B. (1933): *Informe de la gestión del primer ejercicio presentado por la Junta de Gobierno del Euzko Ikastola Batza, 1932-1933*. Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia, 1-38. Argitaragabea
- ECHEGARAY, B. (1935), "Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco", in Askoren Artean: *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 55-86

- EGUREN, J. M. (1867): *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*, Imprenta del Seminario Católico Vasco-Navarro, Vitoria
- EIZAGIRRE, A., DAVILA, P. (1991), “Alfabetatzea Euskal Herrian: Ikuspegi historikoa”, *ELE*, 8, AEK, Bilbo, 27-56
- ESTORNES LASA, B. (1989): *Introducción al hecho intelectual vasco*, Auñamendi, Donostia
- ESTORNES LASA, J. (1970): *Los vascos y la Universidad*, I-II, Auñamendi, Donostia
- ETXEBERRIA, F. (1985): *Bilingüismo y educación*, UPV, Tesi doktora
- (1992), “Interpretaciones del interculturalismo en Europa”, in Askoren Artean: *Educación intercultural. X Congreso nacional de Pedagogía*, op. cit., 39-65
- (1993), *Bilingüismo y educación en el País Vasco*, EHU, Donostia
- (1999): *Bilingüismo y educación en el País del euskara*, Erein, Donostia
- EUSKO JAURLARITZA (1990-a): *EIFE (Euskal Irakaskuntza Faktoreen Eragina)*, Hezkuntza-Saila, Gasteiz
- (1990-b): *Euskal irakaskuntza: 10 urte*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Gasteiz
- EUSTAT (1984): *Euskal Urtekari Estatistikoa*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz
- (1984): *Irakaskuntzaren Estatistika*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz
- (1991): *Irakaskuntzaren Estatistika: 1989-90*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz
- (1992): *Euskal Urtekari Estatistikoa*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz
- FERMOSO, P. <ed.> (1992): *Educación intercultural: la Europa sin fronteras*, Narcea, Madrid
- FERNANDEZ ENGUITA, M. (1986): *Integrar o segregar*, Laia, Barcelona
- (1987): *Reforma educativa, desigualdad social e inercia institucional*, Laia, Barcelona
- (1989): “¿Hacia dónde va la sociología de la educación?”, in Ortega, F.; González García, E.; Guerrero, A.; Sánchez, M. E. (eds.): *Manual de Sociología de la Educación*, Visor, Madrid, 50-57
- (1990): *La escuela a examen*, Eudema, Madrid
- (1992): *Poder y participación en el sistema educativo*, Paidós, Madrid
- FERNANDEZ, I. (1994): *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, UEU, Bilbao
- FERNANDEZ-MIRANDA, C. (1993): *Introducción al Derecho Político*, UNED, Madrid
- FISHMAN, J. (1988): *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid
- FLECHA, R. (1992): *La nueva desigualdad cultural*, El Roure, Barcelona

- FOESSA (1970): *Informe sociológico sobre la situación social de España*, Euramérica, Madrid
- FONTAN, F. (1975): *Ethnisme. Vers un nationalisme humaniste*, Librairie Occitane, Bagnols
- FOUCAULT, M. (1978): *Microfísica del poder*, La Piqueta, Madrid
- (1979): *Vigilar y castigar*, Siglo XXI, Madrid
- FREIRE, P. (1990): *La naturaleza política de la educación*, Paidós/MEC, Madrid
- FULLAT, O. (1967), “Escuela e idioma materno”, *Cuadernos para el Diálogo*, VI Extraordinario, Julio, 87-88
- (1993): *Política de la educación*, CEAC, Madrid
- GALLARDO, M. (1992), “La diversidad cultural en el sistema educativo. Interculturalidad y/o integración”, in Marín Ibañez, R. (coord.): *Educación multicultural e intercultural*, Impredisur, Gramada, 317-321
- GARATE, J. (1976), “El anillo escolar en la proscripción del euskera”, *FLV*, 24, 367-385 (1-19)
- GARCIA CARRASCO, J. (1981): *Ideología y pedagogía*, UAB, Barcelona
- GARCIA COTARELO, R. <comp.> (1990): *Introducción a la teoría del Estado*, Teide, Barcelona
- (1990), “Las formas preestatales de dominación política”, in *Introducción a la teoría del Estado*, Teide, Barcelona, 17-46
- GARCIA COTARELO, R./ PANIAGUA SOTO, J.L. <comps.> (1995): *Introducción a la ciencia política*, UNED, Madrid
- GARCIA PELAYO, M. (1977): *Las transformaciones del Estado contemporáneo*, Alianza, Madrid
- GARMENDIA, J. A., PEREZ-AGOTE, A., PARRA, F. (198 1): *Abertzales y vascos*, Akal, Madrid
- GARMENDIA, M. K. (1992): *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Euskal Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1992ko azaroak 13
- GELLNER, E. (1988): *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madrid
- GIDDENS, A. (1976): *La nuevas reglas del método sociológico*, Amorrortu, Buenos Aires
- GIROUX, H. (1983): *Theory and Resistance in Education*, Hainemann, Londres
- (1992): *Los profesores como intelectuales*, Paidós, Madrid
- GUERRERO SERON, A. (1996): *Manual de Sociología de la Educación*, Síntesis, Madrid

- GURRUTXAGA, A. (1992), “Los límites del nacionalismo: tradición, comunidad y nación”, Hitzaldia, Universidad del País Vasco, Getxo, Testu informatizatua.
- GURVICH, G. (1963): *La Vocation actuelle de la Sociologie*, II, PUF, Paris
- HAMERS, J. F.; BLANC. M. (1983): *Bilingualité et bilinguisme*, Mardaga, Bruselas
- HELLER, H. (1947): *Teoría del Estado*, FCE, México
- HOBBS, (1994): *Leviathan*, Klasikoak, Bilbo
- HOBSON, A. J. (1981): *Estudio del imperialismo*, Alianza, Madrid
- IBAÑEZ, T. (1983): *Poder y libertad*, Hora, Barcelona
- INTXAUSTI, J. (1978), “Ikuspegi politikoa”, in Askoren Artean: *Euskararen Liburu Zuria*, op. cit., 79-148
- (1992), “Amerika XV. mendearen azkenetan”, *Jakin*, 70, Donostia, 11-38
- IRIGOIEN, J. (1985), “Demografía y mercado de trabajo (1936-1984)”, in Intxausti, J. (zuz.): *Euskal Herria: Errealitate eta egitasmo*, II, Lan Kide Aurrezkoa/EFA (Jakin), Oiartzun, 121-135
- ISASI, X., RODRIGUEZ, F., HERRIONDO, L. (1993): *Hizkuntza, hezkuntza eta elebiduntasuna*, EHU, Donostia
- IZTUETA, P. (1993), “Euskal eskolaren bila”, in Iztueta/Basurko (koord.): *Euskal Eskola Berria, Unibertsitateko Hezkuntza Mintegia*, Donostia, 124-178
- (1995), “Hizkuntza, hezkuntza eta boterea: euskal irakaskuntzaren atarian”, in Apalategi, J.; Palacios, X. (ed.): *Identidad vasca y nacionalidad. Pluralismo cultural y transnacionalización*, I, op. cit., 91-149
- (1996): *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa fundazioa, Donostia
- (1998), “Euskal nortasunaren bila: topaketa kritikoa”, in Azurmendi, J. (zuz.): *Hizkuntza eta talde-nortasuna*, Donostiako Udako XII. Ikastaroak, 1993ko uztaila, EHU, Bilbo, 17-96
- (1992), “Botera Niccolo Machiavelli baitan”, *Uztaro*, 5, 151-178
- JACOBY, L. (1990), “La Comunidad Europea y las lenguas”, in Siguán, M. (dir.): *Las lenguas y la educación para la paz*, op. cit., 65-74
- JAUREGUI, G. (1986): *Contra el Estado-nación*, Siglo XXI, Madrid
- (1994): *La democracia en la encrucijada*, Anagrama, Barcelona
- (1996): *Entre la tragedia y la esperanza. Vasconia ante el nuevo milenio*, Ariel, Barcelona
- KANPION, A. (1976), “La historia, el derecho y la literatura”, in *Discursos políticos y literarios*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao
- (1985): “Nacionalismo, fuerismo y separatismo”, in *Obras completas*, XIII, Mintzoa, Iruñea

- (1985): “El idioma y la libertad de los pueblos”, in *Obras completas*, XV, Mintzoa, Iruñea
- KENNETH, J.; MENSNIKOV, S. (1989): *Capitalismo, comunismo y coexistencia. De un pasado amargo a un futuro mejor*, Planeta, Barcelona
- LA SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS (1919): *I Congreso de Estudios Vascos*, 1/89-1918, Bilbaína de Artes Gráficas, Bilbao
- (1920): *II Congreso de Estudios Vascos*, 18/25-07-1920, Nueva Editorial, San Sebastián
- (1923): *III Congreso de Estudios Vascos*, 10/17-09-1922, Imprenta de la Diputación, San Sebastián.
- LABOV, W. (1976): *Sociolinguistique*, Minuit, Paris
- (1985), “La lógica del inglés no estándar”, *Educación y Sociedad*, 4, Akal, Madrid, 145-168
- LAFON, R. (1968): *Sur la France*, Gallimard, Paris
- LANDETA, E. (1919): “Estado actual de la escuela en el País Vasco. Sus remedios inmediatos. Organización de la escuela vasca de conformidad con las condiciones locales”, in La Sociedad de Estudios Vascos: *I Congreso de Estudios Vascos*, op.cit., 875-901
- (1935): “El bilingüismo en la enseñanza internacional y en Euzkadi”, in Askoren Artea: *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 35-54
- LARRAMENDI, M. (1969): *Corografía de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones, San Sebastián
- LARRAÑAGA, I. (1987), “Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak”, *Jakin*, 42-43, 7-28
- (1983), “Euskal Herriko demografiaren bilakaera”, *Jakin*, 77-78, 33-48
- LARRAÑAGA, K. (1978), “Factores ezberdinen eraginpena euskararengan”, in Askoren artean: *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 227-302
- LHANDE, P. (1971) *La emigración vasca*, I-II, Auñamendi, Zarauz
- LOCKE, J. (1941): *Ensayo del gobierno civil*, FCE, México
- LUKAS, J. P. (1990): *Trebetasun eta errendimendu matematikoa testuinguru elebidunean*, EHU, 1990, Tesi doktoralak
- MACKAY, W. F. (1976): *Bilinguisme et contac des langues*, Klincksieck, Paris
- (1978): “Typologie des interventions dans le domaine de l’enseignement”, in *Minorités linguistiques et interventions. Essai de typologie, Colloque sur les minorités linguistiques*, Université Laval
- (1992): “Lenguas maternas, otras lenguas vehiculares: su significado en un mundo que se transforma”, *Perspectivas*, XXII-1, 41-52.

- MALAXECHEVARRIA, J. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco en los siglos XVII y XVIII*, San Ignacio, San Sebastián
- MAQUIAVELO, N. (1968): *El Príncipe*, in *Obras completas*, Barcelona
- MARCELLESI, J. B.; GARDIN, B. (1978): *Introducción a la sociolingüística*, Gredos, Madrid
- MARIN IBAÑEZ, R. <coord.> (1991): *Educación multicultural e intercultural*, Impredisur, Granada
- MARKWICZ-LAGNEAU, J. (1969): *Education, égalité et socialisme*, Anthropos, Paris
- MARX, K.; ENGELS, F. (1988): *Ideología alemana*, L'Eina Editorial, Barcelona
- MAYANS, Y. M. (1993): *Conocer la lengua y la cultura catalanas*, Impresión Jorvich, Palma de Mallorca
- MAYER, F. (1967): *Historia del pensamiento pedagógico*, Kapelusz, Buenos Aires
- MEHAN, H. (1978), "Structuring School Structure", *Harvard Educational Review*, vol. 48, 1, 32-64
- MESSER, A. (1935): *Historia de la Pedagogía*, Labor, Barcelona
- MEYER, J. W.; TYACK, D.; NAGEL, J.; GORDON, A., "Public Education as Nation-Building in America: Enrollments and Bureaucratization in the American States, 1870-1930", *American Journal of Sociology*, vol. 85, 3, 591-613
- MIGUEL DIAZ, M. (1992), "Minorías y educación intercultural", in Askoren Artean: *Educación intercultural. X Congreso Nacional de Pedagogía*, op. cit., 133-151
- MIRA, J.F. (1985): *Crítica de la nació pura*, Eliseu Clement, Valencia
- MITTER, W. (1992), "La educación multicultural: consideraciones básicas desde un punto de vista interdisciplinario", *Perspectivas*, XXII-2, 31-40.
- MONTESQUIEU, CH. (1972): *Espíritu de las Leyes*, Tecnos, Madrid
- MORENO, L. (1997): *La federalización de España. Poder político y territorio*, Siglo XXI, Madrid.
- MOYA, C. (1984): *Señas de Leviatán. Estado nacional y sociedad industrial. España 1936-1980*, Alianza, Madrid
- NABERAN, J. (1998): *Sugearen iraultza*, Gaiak, Donostia
- NIELSSON, G. P. (1989), "Sobre los conceptos de etnicidad, nación y estado", in Pérez-Agote, A. (ed.): *Sociología del nacionalismo*, op. cit., 193-230
- NINYOLES, R. LL. (1977): *Cuatro idiomas para un Estado*, Cambio 16, Madrid

- NISBET, R. (1977): *La formación del pensamiento sociológico*, I-II, Amorrortu, Buenos Aires
- OBIETA CHALBAUD, J. A. (1993): *El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos*, Tecnos, Madrid
- ODRIOZOLA, J. M. (1993): *Soziolinguistikaren atarian*, Bilbao Bizkai Kutxa, Bilbao
- OLABUENAGA, J. I.; ISPIZUA, M. A. (1989): *La descodificación de la vida cotidiana. Métodos de investigación cualitativa*, Universidad de Deusto, Bilbao
- OLAIZOLA, J. M. (1993): *Historia del protestantismo en el País Vasco. El reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Pamiela, Iruñea
- OLANO, A. (1935), “Bilingüismo”, in Askoren Artean: *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, op. cit., 3-34
- OLLORA, J. M. (1996): *Una vía hacia la paz*, Erein, Donostia
- ORELLA, J. L. (1977): *La Universidad vasca*, Erein, Zarauz
- OSTOLAZA, M. (1992): *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Ibaeta Pedagogia, Donostia
- (2000): *Entre religión y modernidad. Los colegios de las Congregaciones religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea, 1876-1931*, Servicio Editorial de UPV, Bilbao
- PARKISON DE SAZ, S. M. (1980): *La lingüística y la enseñanza de las lenguas. Teoría y práctica*, Editorial Empeño 14, Madrid
- PASCUAL ITURRIAGA, A. (1842): *Diálogos vasco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, Hernani
- PASTOR, M. (1990), “Los modelos de dominación política estatal”, in García Cotarelo, R. (comp.): *Introducción a la teoría del Estado*, op. cit., 47-84
- PEREZ-AGOTE, A. (1986): *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*, CIS/Siglo XXI, Madrid
- (1989) <ed.>: *Sociología del nacionalismo*, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Bilbao
- POULANTZAS, N. (1978): *L'Etat, le pouvoir, le socialisme*, PUF, Paris
- POUTIGNAT, PH.; STREIFF-FENART, J. (1995): *Théories de l'ethnicité, Suivi de Les groupes ethniques et leurs frontières de F. Barht*, PUF, Paris
- PUELLES BENITEZ, M. (1987): *Política y administración educativas*, UNED, Madrid
- (1986): *Educación e ideología en la España Contemporánea*, II, Labor, Barcelona

- QUINTANA, X.; ZALBIDE, M. (1983), "La enseñanza del euskara en la Universidad", in Siguán, M. <dir.>: *Lenguas y educación en el ámbito del Estado Español*, op. cit., 97-116
- RAJA YOY SINNGH (1992), "Cambiar la educación en un mundo que cambia", *Perspectivas*, XXII-1, 7-18
- RAMERS, J. F.; BLANC, M. (1983): *Bilingualité et bilinguisme*, Mardaga, Bruxelles
- RAMIREZ, F. O.; BOLI, J. (1987), "The political construction of mass schooling: European origins and worldwide institutionalization", *Sociology of Education*, vol. 60, 2-17
- RAMIREZ, F. O.; MEYER, J. W. (1980), "Comparative education: The Social Construction of the Modern World System", *Ann. Rev. Social*, 6, 369-399
- RECARTE, M. T. (1990): *Ilustración vasca y renovación educativa: La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Publicaciones Universidad Pontificia de Salamanca, Salamanca
- RICA, M. (1975), "Euskararen prozesu historikoari eragiten dioten faktore juridiko-legalak", *ASJU*, IX, 281-296
- ROCHER, G. (1968): *Introduction à la Sociologie Générale*, I-III, Editions HMH, Paris
- ROUSSEAU, J-J. (1993): *Gizarte-hitzarmena*, Klasikoak, Bilbo
- SABINE, G. (1992): *Historia de la teoría política*, FCE, Madrid
- SAIZARBITORIA, R. (1999): *Aberriaren alde (eta kontra)*, Alberdania, Irun
- SANCHEZ CARRION, J. M. (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*, Estella
- SARMIENTO, R. (1988), "Introducción a la edición española", in Fishman, J.: *Sociología del lenguaje*, Cátedra, Madrid, 11-26
- SARRAILH DE IHARTZA <KRUTWIG> (1962): *Vasconia*, Norbait, Buenos Aires
- SARTORI, G. (1992): *Elementos de teoría política*, FCE, Madrid
- SERVICE, E. (1990): *Los orígenes del Estado y de la civilización*, Alianza, Madrid
- SIGUAN, M. <dir.> (1990): *Las lenguas y la educación para la paz*, ICE/Horsori, Universidad de Barcelona
- SIGUAN, M.; MACKEY, W. F. (1986): *Educación y bilinguismo*, Santillana/Unesco, Madrid
- SMITH, A. (1976): *Las teorías del nacionalismo*, Península, Barcelona

- (1984), "Ethnic Myths and Ethnio Revivals", *Archives Européennes de Sociologie*, 2.443
- SMOUTS, M. C. (1972), "Décolonisation et décession, double morale à l'ONU", *Revue Française de Sciences Politiques*, août.
- SOLANO AGIRRE, F. (1935), "La lucha por la enseñanza nacional", *Yakintza*, 15, Donostia, 197-210
- SOLE, J. (1985): *Nacionalidades y nacionalimos en España*, Alianza, Madrid
- SWAAN, A. (1992): *A cargo del Estado*, Pomares-Corredor
- SZTOMKA, P. (1991), "La ontología del llegar a ser social. Más allá del individualismo y el holismo", in González de la Fe, T. (coord): *Sociología: unidad y diversidad*, CSIC, Madrid, 33-74
- TEJERINA, B. (1992): *Nacionalismo y lengua*, CIS/Siglo XXI, Madrid
- TERNON, Y. (1995): *El Estado criminal*, Península, Barcelona
- TOCQUEVILLE, CH. (1991): *Amerikako demokrazia*, Klasikoak, Bilbao
- TOMAS de AQUINO, SAN (1989): *La monarquía*, Tecnos, Madrid
- TORREALDAI, J. M.: (1998): *El libro negro del euskara*, Tarttalo, Donostia
- TORRES DEL MORAL, A. (1992): *Principios de derecho constitucional español*, Universidad Complutense, Madrid
- TOURET, B. (1973): *L'aménagement constitutionnel des Etats de peuplement composite*, Québec, CIEB
- TXILLARDEGI (1966), "Hizkuntza eta pentsakera", *Branka*, 1, 36-56
- (1966), "Hizkuntza eta herri-kidetasuna", *Branka*, 2, 2-19
 - (1966), "Hizkuntza eta erresuma", *ibid.*, 5, 23-35
 - (1972): *Hizkuntza eta pentsakera*, Etor, Bilbo
 - (1991), "Soziolinguistika", *Isilik*, Irakasleen Elkarte, Donostia, 3-46
- UCAR, GI.; RIPERO, M. P. (1992), "Normalización lingüística en el País Vasco", in Marín Ibañez, R. (coord.): *Educación multicultural e intercultural*, op. cit., 467-472
- URABAYEN, J. L. (1919), "El maestro de la escuela vasca", in *I Congreso de Estudios Vascos*, op. cit., 902-919
- VERDU, L. (1977): *Principios de Ciencia Política*, Tecnos, Madrid
- VILAR, P. (1980): *Iniciación al vocabulario del análisis histórico*, Grijalbo, Barcelona
- (1984), "Estado, nación, patria en España y en Francia: 1870-1914", *Estudios de Historia Social*, Siglo XXI, 28-19, 7-41
- VIUDEZ J. (1993), "Los nacionalismos soviéticos en perspectiva histórica", *Cuadernos del Este*, 9, 63-74

- WEBER, M. (1964): *Economía y sociedad*, FCE, México
- (1972): *Ensayos de sociología contemporánea*, Martínez Roca, Barcelona
- WILLIS, P. (1985), "Producción cultural y teorías de la reproducción", *Educación y Sociedad*, 5, Akal, Madrid, 7-34
- (1988): *Aprendiendo a trabajar*, Akal, Madrid
- WOLF, B. L. (1971): *Lenguaje, pensamiento y realidad*, Barral, Barcelona
- YONG, M. F. D. (1971): *Knowledge and control*, Collier-MacMillan, London
- ZABALETA IMAZ, I. (1997): *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, EHU, Donostia;
- (1999), "Nazionalismoa eta hezkuntza", *Tantak*, EHU, 59-82
- ZABALZA, M. (1992), "Implicaciones curriculares de la educación intercultural", in Askoren Artean: *Educación intercultural. X Congreso Nacional de Pedagogía*, op. cit., 329-349
- ZALBIDE, M. (1988), "Mende-hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak", *II. Euskal Mundu Biltzarra*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua, Gasteiz, 391-412
- (1990), "Euskal Eskola, asmo zahar bide berri", in *Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresua*, ibid., 211-271